

LUGO'KO

IPUIN

ERRIKOIAK



ESKERRATZAILA

A. ZUBIKARAI

Izadiko Pitxiak

ZUBIRI'tar IÑAKI Euskerazaintzako

Marrazkiak: PIA GOIRI ZUAZO

EDILI ARGITALETXEA

O EDILI ARGITALETXEA

Getaria kalea, 21 beean - 20005 DONOSTIA

I.S.B.N.: 84-7086-235-9

Legezko Gordailua: S.S. 83/89

Inprimaketa: ITXAROPENA. S.A. - Araba Kalea. 45 - Zarautz

AURKIBIDEA

MALGU, aingira	7
URZALE, ibaiko ugadera	21
UZI, erbiñudea	43
KIZKA, azkonarra	63
GORRIA, azeria	87
ULKIZ, basurdea	121
ERNAIA, baserlea	143
URI, otsoa	187

Malgu, aingira

Malgu'k, Putzuzabal'go istingan bizilekua zuan aingirak, aspalditxotik kez karen ezaugarriak erakusten zituan.

Amabi urte igaroak ziran, aingiratxo txikia zala Putzuzabal'era eldu zanetik. Orain ordea, metro ta erdiko aingira ederra biurtuta, kez kati, urduri, yoran bakanaz eraginda, alde batetik bestera jangar zebillan, kaiola gorrotogarrian atxillotuta bai'litzan.

Putzuzabal, mendian beera ugoldeetan bildutako urek eratua zan, eta geienetan irteera gabeko istinga zaé bala zan. Noizean bein soillik, ugolde aundietako garaian, mutur batetik errekatxo bat sortzen zitzaion, eta gaiñez egindako ur orrulariak, oe malkartsu, legartsutik, Lea ibaira orruka oldartzen ziran. Baiñan geienetan, paketsu ta lotan bezela, Putzuzabal'go istingak mimen eta zii en artean zirauan.

Malgu'k ez zekian zer gertatzen zitzaion, baiñan aspaldi artan beragan aldakuntza nabaria billakatua zan. Begiak aunditzen asi zitzaizkion, larruak zillarezko itxura ederra zerakusala, eta bereiztasun auekin batera, oiko gose asekaitza baretu zitzaion. Aldaketa auek gertatu baiño leen, gose itzali eziñaz menderaturik, topatzen zuan zernai janaria irentsi oi zuan, eta neguko loaldia bukatzen zitzaionean, lokatzezko oatzea utzi, eta iñoizkorik gosetuen amaigabeko iresteari ekiten zion.

Istingan janari ugaria aurkitu zezaken; arraiñen arraultz gozoak, sapaburuak, arrain eta igel txikiak, baita udako egun beroetan, eltxoak eta auen arraultzak ere. Istingako alde batetik bestera azkar igeri egiñez, tximista alakoa, arrapagaieri oldartzen zitzaien, gose asekaitez idoro-ala iresten zituala.

Baiñan uda artako azkenengo egunetan, ustekabez gosea galdu zuan, eta urrun-miñez jabeturik, istingako bazter guztietatik noragabe zebillan. Orduko, Putzuzabal'go istingan amabi urte bete zituan, eta zillarrezko itxura zerakusan aingira eder-ederra biurtu zan.

Egoera ontan zenbait egun larri ta urduri iraun zituan, kezka aundiagotzen zitzaiola. Udazkeneko asieran, gau lainotsuak asi ziran. Aietariko gau illun batean, gainaldetik igerika, buru zorrotza uretatik atera zuan, eta aintzirako beekaldera bideratu zan. Ertzera elduta, unetxo batez mendi-beera begiratu zuan, eta gero ezpai guztiak joanda, uretatik irten, eta intzez ezoturiko belarrean zear, malda-beera abiatu zan.

Ugoldeetan, Putzuzabal'go ur arrotuak legarrezko oatze batetik arruan beera oldartzen ziran, baiñan orain aspalditik legorra aurkitzen zan. Malgu'k, zillarezko aingirak, ertzeko belar leun ezotua aukeratu zuan, eta izarren dizdir motelaz argituriko gauean, kiribilkatzeari utzi gabe, mendian beera oldartu zan. Noizean bein nekatuta edo ezpaitu bezela, ibiltzeari eten egiten zion, eta begi motelakaz, inguruari begiratu ondoren, malda-beera berriro abiatzen zan.

Ordu bat inguru igarorik, usainmeneraiño uren urbiltasuna iritxi zitzaion, eta ibillera arinduz, ibai baten ondoan aurkitu zan. Lea ibaiaren urlo baten ertzean zegoan, eta oarpen lasaigarri batez, uretara oldartu zan, gau sakon eta illun artan bere irudi txairoa suntziten zala.



Pia Gori Ju

Zerbait nekatuta, Malgu azpikaldeko lokatzean kokatu zan, goiztiriko argiaren begira. Egunsentia egin zaénean, igikun nagiakaz uren joairari jarraitu zionr Aspal-ditxo artan bezela, ez zuan goserik oartzen, eta ondotik igarotzen zitzaizkion arrapagaiari, ez zien jaramonik egiten. Alako batean, arrizko orma baten aurrean aurkitu zan. Errota baterako urak biltzen zituan naza aundia zan, eta Malgu alde batetik bestera irtenbide baten billa, oztoépoa aztertzen asi zan. Noizbait, burnizko uresi bat aurkitu zuan, eta besterik gabe, burnizko agaetatik igaro, eta errotako anteparatik barrendu zan. Beste muturrera eldu zanean, ugatea itxita egoala egiztatu aal izan zuan.

Bai, bere onerako ugatea itxita izanik, ez ziteken anédik barneratu, eta errotaren turtukoian eriotza aurkitu. Malgu'k anteparako ur urriak ez zituan maite, eta berriz ere sartu zanetiko uresira biurtu, eta azkenez, nazaren urgeldira iritxi zan ostera.

Zenbait egunez leku baketsu artan irauñ zuan, berak ez zekian zerbaiten igurikan, igeriera nagiaz etengabe irtenbide baten billa ziarduala. Noizbait ortzia odei lodiez estalita, euria mara-mara asi zan. Mendietatik jeixten ziran arroturiko errekatxoek, iñolako urketak ibaira zeramazkiten, eta ez-arian ez-arian nazako ur geldia gora ta gora asi zan. Zorion bakanak jabetutako Malgu'k, azpiko lokatza utzi, ta gaiñaldetik igikun bipillez karabilkatzeari eman zion.

Ustekabez, orru izugarriaz ugolde zakarra nazara eldu zan, eta orman indartsu jo ondoren, onen gaiñetik azkar oldartu zan, bidean topo egiten zuan guztia abiada izugarriaz zeramala. Lumatxo baten antzera, Malgu ugolde basatiak eramana izan zan, eta kordegabetu-urren, ur orrulari aietan itsasorantz tximista bai'litzan zioan. Luzaro samar onela irauñ zuan, baiñan alako batean indarrak galduta, ugoldea otzandu zan, eta bere ur loitsuak itsasoko ur garbi ta kresaltsuekin naasi ziran.

Jadaneko gaua zan, eta bere senera etorria, zorion bakan batez, Malgu oartu zan berak ainbeste irrikatutaé koa, ur kresaltsuen laztan pizgarria zala, eta bizitzaz beterik, Lekeitio'ko itsas-adarretik or-emenka igeriarí eman zion.

Goiztu zaneko, Malgu'k alde guztietatik aingirak eta aingirak ikusten zituan, bera bezelaxe lei indartsu bateri jarraituaz, ur erdi-gazi aietan itsarorantz abiatzen zirala. Bokalera urbiltzean, toki ontan bizilekua zuten aingirarrak, ibai-goratik etorritako emeeri jarraitu zieten. Aingira-emeak aundiak eta zillar-itxurakoak ziran. Arrak ordea, bellegixkak eta askozaz txikiagoak, luzeeran aien erdikoak alegia. Gero, bildutako aingiraketa, ur gaziagoen billa itsas-adarreko agora zuzendu, eta azkenez itxaropen bakanaz eraginda, Lea ibarreko aingirataldea, itsaso zabalera irten zan.

Orduan, aingira-taldearentzat bidai luze, izugarria, así zan; 4.000 kilometroko tartea zearkatu bear izango zuan. Ur gazietan zear, joran bakan batek menderaturik, aingira guztiek zalantzatu gabe, mendebaleko norabidea artu zuten. Ez zekiten zergaitia, baiñan barneko bultz bateguzkia iltzen dan tokirantz zeramazkian.

Azkurririk artzeke, igeriari ekin zioten, jateko guraria suntsitu zitzaielarik. Aalegindu gabe, lerro luze baten araberak elkarri jarraituz, errez eta maisuki uren erraietatik lerratzen ziran. Aingiren larrua koipe edo gai mukitsu batez estalia dago, eta oneri esker, indar aundirik gabe, uretan zear ibil zitezken. Onela bada, ez-arian bezela egunean ogei ta amabost kilometro egiten zituzten, beti ur sakonetan murgildurik.

Kantauri itsasoan barna zioazela, ibai guztietatik besé te aingirak elkartzen zitzaizkien, eta onela, gero-ta lodia-goia zan aingira-errenkada, mendebalerantz abiatu zan. Lea ibaiko ur gezak utzi zituanetik ogeitsu egun igarorík,

Malgu Bizkai'ko kolkoaren urak utzi, eta Atlantiku itsaso nagusian sartu zan. Atzetik baiñan, aingira-lerroa ez zan bukatzen; Europa'ko lurralde geienetatik beste aingira-talde amaigabea zetorkien, norabide berari lotuta. Aingiren iragaitzak bi illabete iraun zuan, eta negu miñean azkenengoak igarorik, aingiren ari bizia amaitu zan, danak Atlantiku itsas-nagusian itzuriak.

Beste kideek inguraturik, ur sakon eta illun aietatik beti mendebalerantz lotuta, Malgu pozik lerratzen zan. Ez zekian bidai luze aren zergaitia, baiñan indar bakan batek norabide artarantz zeraman. Bide illun eta ixiltsutik joan arren, galtzori gaitzek sekulako sarraskia aingiren artean egiten zuten. Galtzori geienak beste arraiñengané dik zetorkien.

Leendabiziko ilketa Lea'ko itsaséadarrean gertatu ziótzaien. Bokaletik itsasora irteten zirala, lupin goseti asekaitzak aingiren begira zegozen, eta ur aietara oituak, ikusiéala jan zituzten. Gero itsaso zabalean, arrain aundien erasoá jasan bear izan zuten, egaluzeen jazarkunde izugarria batez ere. Malgu, eraso aietatik onik atera zan. Itsasnagusian, Gulf Stream'go ur epeletan sartu ziranean, egaluzeen jazarkundeá amaitu zan, baiñan ba-ziran beste eiztari are izugarriagoak...

Beiñola, arratsalde bateko azkenengo izpi gorritzek itsasoa laztantzen zutela, itsas-sakonetan zear oi bezela mendebalerantz igerika, aingira-taldeko ertz batean aurkitu zan Malgu. Bere alboko kide bateri, arrain batek egindako zauritik odola zerion. Andik ez urrun, marraé zotzar goseti batek bazterrak arakatzen zituan janariaren billa. Aspalditik ez zuan janaririk artu aal izan, eta gosez irrikan edozein arrapagaiaren zelatan zegoan. Alako batean, aingira erituaren odol-usaiña iritxi zitzaion, eta aalik ariñen odolak utzitako aztarnen atzetik aingira-taldeé rantz abiatu zan, ixil eta azkar bere zortzi metroko soin izugarria lerratzen zalarik.

Arratsalde artantxe, bere taldearen aintzandaria zan izurde erraldoi bat, oi zuan bezela, itsasoko gaiñaldean jauzika ari zan, sonaréirratiaz mezuak non-nai barreiatzen zituala. Izurdeek ez dute usainmen zorrotzik, baiñan bai sonar-irratia txit egokia. Onen bidez, irratia ren oiartzué nak artutakoan, edozein gauza oartzeko gai dira. Arraé tsalde artan, bere izurde-taldea zaintzen zuala, sonarrak marrazo baten urbiltasuna jakiñerazi zion, eta azkona baizen arin, ^stsai erragarriganantz oldartu zan.

Izurde arek marrazoak benetan gorroto zituan. Zenbait urte leenago, txikia zalarik, bere taldean berri jaiotako Izurde-kume bat marrazo odolzale batek il eta iresten ikusi zuan. Arrezkero, marrazoekiko gorroto itzali-eziña sortu zitzaion. Urteak igaro ziran, eta ar ederra billakaturík, bere taldearen nagusitza lortu zuan. Ordutik, aurkitzen zituan marrazo guztien erasoari ekiten zion, eta tximista alakoa, orduan berrogei ta amar kilometro egiten zituala, oldartzen zitzaien.

Illunabar artan, izurdeak marrazoa oartu zuan onek aingira-taldeari erasoten ziola, eta betarik galtzeke, etsai iguingarriaren jarraipenari ekin zion.

Aingira zaurituaren odolak erakarritako marrazoa, luzaro gabe aingiren errenkadara iritxi, eta bereala iñolako erailketa egiten asi zan. Bere ortz aunditzarren krauskada bakoitzean aingira gaixoak dozenaka atzitu, ebaki, eta iresten zituan. Marrazoaren ondoan urak gorritzen asi ziran, eta odolaren erakarpenak sututako marrazoak, gero-ta basatiago sarraskiari ematen zion.

Galtzoria ikusirik, izuz menperatutako Malgu'k iges egin nai izan zuan, baiñan marrazoa gero ta urbillago *zetorkion*. Onen ortzek atzituteko zorian zala baiñan, tximista alakoa izurdea oldartu zitzaion, musturraz erailleari saiets batean zartada itzela ematen ziola. Min eta sumiñaz eragindako marrazoak izurdeari eraso zion. Baiñan

onen zauri-orbanetz beteriko soiñak erakusten zuanez, marrazoen aurkako burrukatzeari oitua zan, eta igikun arin batez, itzuri, eta marrazoaren inguruan biraka asi zan.

Ustekabez, bultz izugarriaz berriro oldartu zitzaion. Bigarren zartada au artzean, beldur bakana marrazoaz jabetu zan, eta aalik ariñen igesari eman nai izan zion. Alperrik orde; luzeeran izurdearen bikoitza ba'zan ere, ezin zezaken etsaiarekin burua bat egin, eta ez-arian ez-arian, artutako danbadakaitik, arintasuna galtzen asi, eta azkenean, izurdearen musturkada itzel batek kirio bereizi batean artuta-edo, igesari emateko ezinda, gelditu, eta astiro-astiro ur sakon itzaltsuetan murgiltzen asi zan. Marraozoeri arnasa artzeko bearrezko izaten zaie ibiltzea, beuren arnas-ezarketak orduan soillik lan egiten dutelako. Onela bada, izurdeak geldi-erazitako marrazoa, igitzeko gai ez zan ezkerro, beeko ur otz, illunetan, betiko suntzitu zan.

Marrazoaren azkena ikusirik, oarpen atsegiñaz menderatutako izurdea azkona baizen arin bere taldeagana biurtu zanr Ordukotz, Malgu'ri izua joan zitzaion, eta artez-arte, aspaldiko bultz eragingarriari men egiñez, eguzkia itzalia zan lekunerantz bideratu zan.

Onela bada, beti sarkalderuntz lotuta, eta galtzoriz inguraturik, egun batean Malgu Sargatz-itsasora iritxi zan. Bost illabete igaroak ziran Lea ibaia utzi zuanetik, lau milla kilometro ibiltzeko. Urak epel eta laztangarriak gertatzen zitzaizkion, eta lokuma gozoak menderatuta, ur garden aietan igeri egiteari eten egin, eta eraman izateari eman zion. Polliki-polliki ur sakonagotara murgildu, eta irureun metro itsaspean zala, geldi-geldi geratu zan, egalak leunkiro igitzen zitzaizkiola.

Malgu onela ikustean, ar bat urreratu ta zirurika asi zitzaion, noizean bein laztanak bezelakoak ziran igurtziak



egiten zizkiola. Gaua etorri zan, baita urrengo goizaldia ere. Orduan, urak doi-doi argitzen ziranean, aurreguneko arrak ernaltze-joranaz urbildu ta laztandu zuan, Malgu'k lotan bai'litzan geldi-geldi ziraula. Noizbait, eguzkia berriro itsasorantz makurtzen zalarik, Malgu arraultz ñimi-ñoak erruntzen asi zan. Sabelpetik arraultzak millakako multzoetan irteten zitzaizkion, eta ernal-miñez eragindako arrak, bere aziaz estaltzen zituan. Zenbait orduz onela iraun zuten, eta errunaldia bukatu zanekotz, bikotearen inguruan bederatzi bat milloi ernaldutako arraultzak polliki-polliki igerika ageri ziran.

Malgu'k ez zuan ezertarako indarririk. Logura sakon batek senak moteltzen zizkion, eta izaerak eskatu izan zion azkenengo aalegiña beteta, bizi-jorana galdurik, arrak lagundutako, ur sakon illunetan murgiltzen asi zan. Pake ta goxotasunaz beteriko bere azken loaldia zan, eta onela paketsu ta igige, bere izaeraren azkenengo bidaiari suntzitu zan...

Malgu'k errundako arraultzak polliki-polliki gaiñalde-rantz abiatzen asi ziran, eta zenbait egun igarorik, gau izartsu ta egun argitsuen pean, arraultz txiki aiek gaiñal-dera eldu ziran. Ekainilla'ren goiz epel batean, aietariko arraultz bateri estalkia zabaldu zitzaion, eta Malgutxo, Malgu zanaren alabatxo bikaiña jaio zan. Luzeeran ez zan milimetro batera irixten, eta gorputz gardenekoa izanik, ia ikus-eziña zan. Gose gorriak jabetuta, itsas-gaiñaldean ugari edatzen zan landaretzatik iresteari eman zion. "Plankton" deritzan landaretza onek benetako indar elikagarria bere baitan izanik, Malgutxo egunez-egun sendotzen zan.

Gulf Stream'go edo Kolko-joaira betean aurkitzen zan, eta ibai erraldoi baten antzekoa zan urketa bizi ta epel onek, ez-arian ez-arian sortalderantz zeraman. Landaretzaz eta mota askotariko arrain txiki ta auen arraultzez beteriko joaira ontan, bizitzak bor-borka ler egiten

zuan, guztitariko arrain-taldez ugaltzen zala. Izaki batzuk plankton landaretzaz elikatzen ziran, eta besteek auek iresten zituzten, onela bizitzaren katea osotzen zalarik. Aingira-gai asko beste arraiñek irentsita suntziten ziran, baiñan milloika ta milloika jaio izan ziran ezkerro, ezin esan alako aingirakumeen kopuru aundia, irakiten antzera ikus ziteken.

Egunez, eguzki-argiak iratzarritako Malgutxo'k, eten-gabeko jateari ematen zion, eta gaua itsasoaz jabetzen zanean, uñek urrumaturik eta illargi-izarrek lagunduta, lo baketsuan murgiltzen zan. Ekaitzak itsasoa arrotzen zuan, ur sakonen pakea billatu oi zuan, eta gentzak inguratuta erdi-itzal artan, itsasoa baretu arte zirauan. Gero, gose berrituaz jateari ematen zion.

Uda amaitu zanean, lau zentimetroko luzera lortu zuan. Jadaneko, ereiñotz-osto baten itxurakoa zan, eta uretan igikun astikorraz or-emenka janari-billa igeri egiten zuan. Egunen bidean, asierako ereiñotz-ostoko itxura aldatzen asi, gorputza luzatzen eta argaltzen zitziola, egunen batean lortuko zuan txitxardiñaren egitura adieraziz.

Urte bi igaro ziran, eta eragin bakanari jarraituz, talde bat Kolko-joaira utzirik, Kantauri'ko ur otzago ta bi-ziagoetan sartu zan. Orduko, Malgutxo txitxardin bipil eta bere buruaren jabe biurtu zan. Berarekin batera, errenkada luzea eratuz beste txitxardiñak joiazan, Gulf Stream'go uretatik Europa'ko beste tokietara abiatzen zan kide-mordo nagusia utzirik.

Eta beti sortalderantz lotuta, ur ozkirri aietatik Malgutxo'k ez zekian zerbaiten billa barneratzen zan. Joranez gaiñezka irrikatzen zuana, ibaien ur gezia zan, eta indar bereizi arek itsaséertzera zeraman, legorreko mendiak gero ta argiago bereizten zirala. Etengabe, Malgutxo'ren kideak errenkada millaka utzi, eta itsas-adarretan gora abiatzen ziran.

Udazkena asi zan jadanik, eta beiñola, beste kideek lagunduta, legorreko ur gozo aiek erakarrita itsas-ertzera abiatu zan, berak irrikatzen zuana idorotzearren. Onela zioala, ibai baten sarreran aurkitu zan. Urak gazitasuna galtzen asi ziran, eta pozaren-pozez, aurkezten zitzaion ibai-bokaletatik sartu nai izan zuan. Alako batean baiñan, ur zikin biurtu ziran, eta ats egiteko ezinduta, ur nazkagarri aietatik aalik ariñen urrundu zan, itsasoan berriz barneratzen zala. Azkenez ondoeza joan zitzaion, baiñan zenbait orduz gora ta beera ertzera joan nai ez zuala, noragabe ibilli zan.

Alabaiñan ur gezarekiko joranak menderatzen zuan, eta berriz ere ibaien sarrera aurkitzearren, itsasaldera abiatu zan. Ustekabez, ur gezako joaira indartsuak inguratuta aurkitu zan. Udazkeneko uréjasa aundiak ibaiak arrotu zituan, eta legorretik ur-jario azkarra itsasora edatzen zan. Ingurua loitsu ta uarrea ba'zan ere, Malgutxo, ongi-izate bakanaz nausiturik aurkitu zan, eta pozaren-pozez igerika asi zan, gero ta ur gozo aietan barneragotzen zala.

Zenbait egun geroago, uxolaren indarra baretu izan zanean, bokalea zearkatu ta ibai bare-barean aurkitu zan. Berarekin batera, kidesaldo ugaritsuak bokalea zearkatu nai izan zuan, baiñan sarrerako lupin gosetiak beuren begira zegozen, eta sarraski izugarria egin zieten. Ilketa artatik Malgutxo bizirik irten zan, eta gero etsai amorratuak izango bazituan ere, galtzori gaitzenak joanak ziran.

Oraindik baiñan, beste galtzori batek igurikatzen zuan. Txitxardiñak itsasotik ibaian gora taigabe sartzen ziran, egunez janari billatzeari ematen ziotelarik, eta gauaz errenkada luzea eratuz, uretan gora bideratzen ziran. Aietariko gau otz batean, ibai-ertzetik ez urrun, krisaillu ta galbae luzez baliatutako arraintzale batek, txalupatik txitxardiñak arrapatzen ziarduan. Otz aundi artan, arraintzalea ezer arrapatu gabe etxera abiatzeko zorian

zala, ara non txitxardiñaren errenkada luzeak krisaillurantz jo zuala. Arraintzalearen tangarta iñolako abiadaz betetzen zan, eta otzaren eztenkada aantzita, arek lei berrituaz arloari eman zion.

Oiko lagunekin batera, gau artan Malgutxo ur gezen erakarpenak lilluratuta, ibaian gora zioan. Berak ere krisailluaren argia ikusi izan zuan, eta goizaldearen argia zalakoan, janaria aurkitzearren oldartu zitzaion. Ozta-ozta argi betean zala, zerbait ezéoituak andik iges egin zezan agindu zion. Doi-doi alde egiteko zala, galbaea gora egiten asi, eta gaiñaldera orduko, kiriketari onen uztaiak Malgutxo sabelpetik artu zuan, eta une batez barrurakanpora orekan geratu zan. Malgutxo'ri egoera ez zitzaion atsegin, eta biurketa ernaia egiñez, buruzbeera uretan oster murgildu zan, iñolako arintasunaz argi zital artatik iges egiten zuala. Gero, ibaian gora zioala, leengo argia bezelako beste batzuk ikusi zituan, alabaiñan aalik ariñen urrunduz zan. Egunsentia gabe, arrizko naza aundi batek ibaia eten egiten zuan. Goiko antepara batetik urak errata batera zuzenduak ziran. Bere ama zanak ibai beerako bidaian topo egindako naza berbera zan.

Malgutxo'k egun osoaz janari billa jardun ondoren, gautu zanean bide baten billa bazter guztiak arakatu zituan. Ibai-gorako bide bakarra, errotatik zetorkion joaira zan, eta ontatik uretan gora abiatu zan. Igikun bipillez ur biziak menperaturik, errotako zulo illunetik sartu zan, baiñan turtukoiak egindako zarata aundiak izututa, etorrié tako bidetik biurtu zan.

Gaua illun eta ezoa zan. Laiño lodi batek ibar guztia estaltzen zuan. Ustekabez, Malgutxo uretatik irten, eta aldameneko belar izoztutik Kiribilkatuz, bidean gora asi zan. Noizbait, ibaia berriro aurkeztu zitzaion eta poza-ren-pozez jauzi egiñez, ur laztangarri aietan murgildu zan.

Ibaian gora beti, Malgutxo egun batzuk ibar artan geratu zan. Aietako gau otz eta illun batean, zerbaitek dei egiten ziola iruditu zitzaion. Erakarpen bakan jarki-eziña zan. Andik urruntzen zan bakoitzean, indar ezkutu arek ertzeko leku berera zeraman. Uztarpetuta bai'litzan, Malgutxo'k une batez an irauñ zuan, eta alako batean erre-karen oe legorra mugatzen zuan belardi izoztuan gora abiatu zan. Bidai gogor eta neketsua gertatu zitzaion, baiñan indarraren-indarrez, noizbait gora iritxi zan. Egin-dako aalegiñagaitik, Malgutxo zearo unatuta, kordega-beurren luzaro geldi-geldi egon zan.

Gero, goizaldea agertu zan. Bere einera etorrita, Malgutxo'k begiak zabaldu zituan, eta noiz jauzika noiz sigi-sagaka, muiñoko beste aldera oldartu zan. Antxe, ur-bil samar, istinga bateko ur paketsu erakarkorrek bere igurikan bezela aurkeztu zitzaizkionr.. Azken jauzia egin, eta azkona bai'litzan, Putzuzabal'go ur baretan suntzitu zanr..

Etengabeko dei bakan bateri jarraituz, jaiolekutik lau milla kilometro bete izan zituan, eta azkenik, ainbeste jorran izandakoa aurkitu izan zuan. Toki artan, amar-amabi urtez iraungo luke, eta egun batean aingira eder zillarrez-tua billakaturik, berak ere, endaren bultz indartsuari jarraituko lioke, eta gau bateko pakean, itzulpenik ez duan itsasorako norabidea artuko luke...

Urzale, ibaiko ugadera

Dana pakez jabeturik zetzan. Goizaldeko aurreneko argia sortaldetik laister agertuko zan, eta izar garbiei dizdira moteltzen ari zitzaien. Alako batean, ibai zabal eta naretsuan gora ildo bat agertu zan. Barruti artako ugaderak marraturiko ur-ildoan zan, bere kabira abiatzen zalarik.

Ugadera ura, naza bien artetik edatzen zan ibai-zatiaren nagusia, iru kilometroko ertz bietako erregiña zan. Igerilari bikaiña, ibai artan ez zuan kidekorik. Alabaiñan, goizaldeko argipean, aurreko zangoak bularpean tolestuak, eta atzekoak astiro erabiltzen zituala, nekatuta zegoala ematen zuan. Uren gaiñaldetik ez zuan besterik ateratzen, sudur-zuloak eta buruko zatitxo bat baiño. Noizik bein nekatuta bezela, atsanka baten txistua entzuten zitzaion, atzetik ildoaren azkona zabaltzen zalarik.

Bederatzi aste leenago, ar bikain batekin uztartu zan. Andik laister lagunak bakarrik utzi zuan, erraietan alako zirrara ez-oitua oartzen zuala. Arrezkero, bere igikunak astunagoak biurtuta, arrantzua gero ta zaillago egin zitzaion. Alabaiñan janaria nai-ta-ez idoro bear, eta augaitik sarri askotan nekatuta itzultzen zan kabíra. Goizalde artan ordea, iñoizkorik nekatuen zetorren.

Ustekabez, zearka igeri egiten asirik, ertzeko urki batera urreratu zan. Zugaitzetik urbiltxo zala, bere irudia gaiñaldetik itzuri, eta urpean igerika, zulo batetik barren-du zan. Sarrera aldapatsuan gora, kabi zabal, legor, txu-

kun batera laister iritxi zan. Txoko batean, oroldioz eta iñaurkiñaz egindako oatze egokia zegoan. Uretatik irte-tean, ugaderak larrua astindu zuan ur-tantoak erori zekiz-kion, eta itxura neketsuaz oatzean amildu zan.

Arratsalde artan, dar-dar bakanaz jabeturik, eta eguzkiak ibaiaren urak gorritz apaintzen zituala, iru kume jaio zitzaizkion; ar bat eta eme bi, alegia. Kumeen lar-ruak amarena baiño zerbait illunagoak ziran, eta jaio baiño ez, larru samurrak miazkatzen asi zitzaizkien ama. Gautu ta bereala, ugadera kabitik irten, eta ibaian gora igerika, onen erdian jeikirik dagoan legar-meta batera el-du zan. Jadaneko, illargia ortzian gora asia zan, eta ibar artako edertasuna agirian jartzen zuan, ibaiaren inguru guztiak alako lilluraz jazten zituala.

Arri aietan etzanda, ugaderak begi ernaiez urak az-tertzen zituan. Ustekabez, uretako erdi-itzalean lo-itzarrik noski, jitoan zetorren amorrain baten isla agertu zan. Ugaderari begiak biziagotu zitzaizkion, eta bultz bizi-az uretan murgilduta, arraiña ortz zorrotzetan atziturik, arri-metara berriro biurtu zan, arraiña bere aoan alperrik jar-kitzen zalarik. Amorraina il ondoren, gosez eraginda, bu-rutik asita irentsi zuan. Gero, indarrak irabazita, aalik ari-ñen igeri egiñez kabirantz abiatu zan. Bere kumeekin beé rriro zala, laztandu zituan, eta gero goxo-goxo marraka-tuz, aien ondoan etzanda jarri zan, kumeek errapatetik edoski zezaten.

Ugaderak, ibai garbi artan kumeak azteko bear be-zainbat arrain arrapatzen zuan, eta orregaitik, gero ta bi-ribillagoak ikusten zituan. Itzარი baiño ez, amaren erra-pea billatzen zuten, eta edoskaldia bukatuta, elkar aril-duak loari berriro ekiten zioten. Amabost bat egun igaro ondoren, kumeei begiak ireki zitzaizkien, eta ikus-joranez gaiñezka, sarreratik iragazten zan argiari begiratzen zioé ten, baita egun aratzetan, sapaian zuten aize-zulotik eguerdi-irian unetxo batez kabian barreiatzen ziran



Pia Gori Zua

eguzki-printzei. Zulo au ugaderak eratua zan, bearrezkoa zitzaizen arnas-aizea berritzearren.

Iru kumeetarik, arra zan ederrena, eta ain zuzen ere, amaren kutuna. Sarri askotan laztantzen zuala, irudime-naz kumearen soin lerdena, azkona bai'litzan uretan zear asmatzen zuan, eta larru biguiña igurtzi oi zion, bere ku-tunari esango bai'lion:

- Urzale, neure Urzale txiki maitea...

Zauli, bigarren kumetxea, bizkor eta ernaia zan, ez Urzale baizen aundia orraitio, baiñan abere bikaiña be-netan.

Emea zan irugarren kumea ere, irutarik txikien eta maitekorrena. Izatez paketsu ta arraia, ez zan burrukara-ko zaletua, eta lotan aritzen ez zanean, begi paketsuakaz guztiari irrikoi antzo begiratu oi zion.

Urzale'k geienetan onen laguntza billatzen zuan, eta arreatxoari zerion maitasunak erakarrita, onekin maiz jolastu oi zuan, musturraz eragiten ziola itzulipurdiak egin-erazteraiño. Kumetxo au baiñan ez zan iñola ere aserretzen, eta zenbat-eta biurrekeri geiago artu, ainbat maitekorrago azaltzen zan. Ainbeste jolas egin ondoren, Urzale'ren ondoan etzaten zanean, mingain larroskaraz larrua miazkatzen zion, eta orduan Urzale'k maitekiro begiratzen zion, esan nai bai'lion:

- Txiki, neure Txiki ori, zu bai maitagarria...!

Onela bada, amaren ardurek inguraturik, Urzale, Zauli ta Txiki, kume ederrak azi ziran, eta bi illabete iga-roak, bizitzarako gerta zitezen, illunabar batean, amak kabitik atera ta ibaiko ertz legartsu bateraiño eramán zi-tuan.

Lekoreko aize garbia oartzean, eta muiño oiantsuz mugaturiko ibar zoragarria ikustean, gure kumeak er-

tzean geldiégeldi geratu ziran, begi egarritsuz illunabarpeko edertasuna ikustearren. Baiñan amak, kumeei aurreneko irakaspena ematearren, ez zuan astirik galdu nai izaten, eta musturraz bultzatu zituan, uretan sar zitezen. Baiñan beldur ezkutu batek atzituak, kumeak ez ziran ibaira ausartzen, eta jarki egin ziran. Amak orduan Zauli ortzetan atzitu, eta lepoan jarrita uretara oldartu zan.

Ibai-erdian zirala, ugadera murgildu zan, eta izuz berteriko kumea ur sakonetan igeri egiten asi, eta gaiñaldera igonik, ertzera abiatu zan berriro. Bitartean, amak arduratsu urpetik zerraikion. Ertzera elduta, kumeak larrua iñarrosi zuan, eta arri zabal baten gaiñean etzanda, atsanka asi zan. Jarraian, amak Txiki'rekin berdin egin zuan, eta azkenez Urzale lepoan artuta, ia beste ertzaraiño eramane zuan uretan murgildu baiño leen. Urzale, bere burua urpean ikusita, beldur eta era berean zorionezkoa zan oarpen bakanaz menderatuta, amaren atzetik legorrerantz asi zan. Beldurra laister joan zitzaion, eta txistu sarkorraren bidez bere zorionezko irrintzia jaulkirik, noiz gaiñaldetik noiz urpetik legorrera eldu zan.

Gau artan ugaderak ez zuan igeri-iñarkunak jarraitu nai izan, kumeek uretan legor irauteko oraindik ez bait zuten bearrezkoa zitzaien koipea. Ugaderak ba-zekian kumeak bustitzekotan, otzitu ta gaisotuko lirakela.

Gero, illargia irten zan, eta onen argipean amak arrain aundi bat atzituta, ertzera ekarri ta kumeen aurrean jarri zuan. Kumeek usnatu zuten, jaten ausartu gabe. Orduan amak arraiñetik zenbait zati erauzi, ta zeatz ozkatu ondoren, puska bana eman zien. Gose izanik, kumeek zeatz usaindu ondoren, irentsi zuten. Andik laister, kabira itzuli, eta oiko edoskaldia izanik, lotan asi ziran.

Gau oro, amak umeak kabitik atera oi zituan, noraezekoa zan bizikaspena ardiets zezaten. Egunen bidean illeetako koipea irabazi zuten, eta andik laister, amaren

atzetik orduak eta orduak errenkada bat eratuaz, urak ilé dokatzen zituzten. Gero, edoskaldiak murrizten asi zitzaizkien, arraiz gero ta geiago janaritzen zirala, eta noizbait, amak esne-emateari utzi egin zionr Jadaneko, ortzak jaio zitzaizkien, eta luzeak ez izan arren, arrainkia xee egiteko gai ziran.

Aldi artan, amak arrantzua irakatsi zien. Orretarako, arrapatutako arraiñak bizkarrean zauritu oi zituan, eta uretara berriro jaurtiak, kumeei opari eritua arrapa zezá ten eragiten zien. Maiz, zaurituriko arraiñak iges egiten zuan, baiñan ekiñaren-ekiñez arrantzua menperatzen ikasi zuten.

Geienetan, ugadera zulotik illunabarrean irteten zan, eguzkia urrutiko mendietarantz suntziteko zorian zala. Leku basatietan, ugaderek egun argiz jardun oi dute, baiñan galtzoriz inguraturiko barrutietan, eizaldia gauaz gertatzen da. Galtzoria aipatzean, gizakiengandik datorren zemaia adierazten dugu. Orregaitik, eguzkia itzaltzeko zorian zanean soillik ateratzen zituan gure ugaderak bere kumeak.

Kumeak baiñan, kanpoko edertasun eta bizitza ikus-tearren irrikan egoten ziran ezkeru, amak noizean bein egun-argiz atera oi zituan, eta orduan beuren alaitasuna nekez menpera zezaketen. Giroa eguzkitsua baldin ba'zan, ibai-erdian agerian zegoan arri-meta baten gaiñean, soin-luze jartzea atsegin zitzaion Urzale'ri. Oraindik udaleena zan, eta begiak ertsita, zorionez blei-blei an egoten zan, amak eta beste kume biek uretan ziardutela.

Aietariko arratsalde batean, jauzi malgu batez, igel orlegi ederra uretatik irten, eta arri baten gaiñean kokatu zan. Bere aunditasun eta kro-kro bikaiñakaitik, lekune artako igel-erregea zan. Aurreko urtean igel-eme batek ibaiko urlo batean, arraultzak mordoska erruntzeari eman zion. Errundu-ala, ar bikain batek aziaz ernaltzen

zituan. Aietako arraultz bat urloan zear joairak eramana noragabe zioala, mimen baten adarñoan itsatsita billakatu zan. Zenbait egun geroago, estalkiémintza urratu zitzaion, eta baldar eraturiko sapaburu ezain bat agertu zan. Ertzeko landaretzaz eta eltxoen arraultzez elikatuta, laister sapaburuen itxura galtzen asi, beso ta zangoak sortu, eta buztana ezabatu zitzaion. Onela bada, luzaro gabe igel orlegi bikaiña gertatu zan, eguzkipean bere kro-kro lasaigarria non-nai sakabanatuz, eta beste kideekin abesbatz entzungarria osotzen zuala. Bero zanean, illuntze ta gauetz abesteari ematen zion, ingurumari artako emeak erakartzearren.

Illunabar batean, igela arri baten gaiñean kokatu-ala, kro-kroka asi zan. Urzale'k bizirik ikusitako lenengo igela zan. Maiz, amak arrapatutako igel illak jan izan zituan, eta igelkia benetan atsegin zitzaion. Igel-erregeak, noizean bein abesteari eten egiten zion, ingurutik zebilkion eltxoren bat arrapatzearren; azkona baizen azkar mingaiña atera, eta ontan itsatsitako eltxoa iresten zuan. Jarrarki, maitasun-leloari jarraipena ematen zion. Igelen janaria, igitzen diran izakiek izan bear dute, igitzen ez diranak ez bait-dituzte aintzakotzat artzen.

Bitartean, arriaren gaiñean geldi-geldi, igelak barrandari zirauan, abestaldien bitartean, geldi-uneak egiñez. Alako batean, Urzale'k soiña bildu zuan igelari erasotearren. Alabaiñan une artan berean, igelak aren igikun oarkaitza ikusi, eta tximista alakoa uretan murgildu zan. Urzale'k igelaren jarraipenari ekin zion, eta arrapatzeko zorian zala, igelak iskintxo egin zuan, eta arripean ostendu. Mutur-uts gertaturiko Urzale'k, aurreko zagoakaz arri-azpiko igela aztamuka atzitu nai izan zuan, baiñan ondo babestutako igela arrapagaitza gertatu zan. Azkenean eiza utzirik, arri-gaiñeko leengo barranda-tokira biurtu, eta emen begirari jarri zan oster.

Gauaren agotzar ixiltsuak illunabarra iresteko zorian zan jadanik. Zauli'k eta Txiki'k lagundutako ama ugadera, ibaian gaindi janari-billa ertz batetik bestera orron zioan

Mendian beera, gosez zirikatutako azeri batek ixil eta arin, zentzumen ernaiez gauaren errezel beltza zulatzen zuan. Goiko lertegian, lau kume goseti amaren itzulpena dardarrez igurikatzen zuten. Geienetan, basoan janaria erruz aurkitu oi zuan, baiñan gau artan arrapagaiak ez ziran iñondik agertzen, ezta sagu purtzil baten aztarnak ere.

Onela joiala, ibaitik txipli-txapla ta marraka batzuen suzmurra aditu zituan. Unetxo batez, begiak pindartu zitzaizkion, eta urratsak motelduz, itzal luze ta ixilla bai'litzan, otsak zetorzkion lekurantz bideratu zan. Luzaro gabe arribillez estalitako ertzera iritxi zan, eta sarats baten babesean ezkutatu.

Andik ez urrun, txipli-txapla bizi batekin, ama ugadera ertzetik ibaira oldartu zan, baita onen jarraian Txiki ere. Zauli oster, oi ez lango ikusmiñaz eraginda, arribillez estalitako ugarandik ikuska asi zan. Ustekabez, saratspetik orbantxo dizdiratsu bi oartu zituan. Zauli'k ez zuan iñoiz galtzoririk somatu izan, txit gaztea zalako nonbait, eta amaren urbiltasuna beti lasaigarri antzo izan zitzaiolako. Onela bada, Zauli argitxo bi aieri begira ta begira geratu zan, amaren deiei jaramonik egiteke.

Alako batean, eta Zauli ainbeste begiratzeagaitik aspertuta, uretan oldartzeko gertatzen zala, azeriak atzetik eraso zion, eta ortz zorrotzetan kumearen lepoa atzituta, mendian gora itzuri zan, ugaderatxoaren soiña agotik zintzillika zeramala. Azeriaren eraso oartu zuanean baiñan, karrasi itzelak bota zituan.

Ibaian gaindi igerika joian ama ugaderak, bere kumearen karrasi larriak aditu zituan, eta arregura basatiz

zirraratuta, kume gaixoaganantz oldartu zan. Lau zangoak ustiatu eta buztana lematzat erabilliz, gorputza gora ta beera karabilkatuz, ugaderak tximista antzera urak ildokatzen zituan, noizean bein marraka sumiñak jaulkiz. Ertzera irtenda, azeriaren aztarnen atzetik oldartu zan. Tarteka-marteka, Zauli'ren eiagora itoak entzuten zituan, baiñan laister onen oivak zinkurik motel biurtu ziran. Ama ugadera etsita, maitasun-sentipen bizi batek bultzatuta, iñoizkorik azkarren malda-gora zioan.

Legorreatan, azeria ugadera baiño askozaz ariñagoa da, baiñan abagune artan, alde batetik etsipenak sortutako ugaderaren aalegiñak, eta bestetik azeriak zintzillika zeraman kumearen oztopoa bide zala-ta, azeria ezin ziteken nai bezainbat azkar ibilli. Azkenean, aalegin gorena eginda, ugadera urreratu zitzaion, eta ozkada sumin batetz buztan-zati illetsua kendu zion. Miñezko aiuriak iges egiten zizkiola, azeriak kumea askatu zuan, lertegian gora aienatzen zalarik.

Zauli'ren izuzko oiua aditu zuanean, Urzale'k igela aaztu, eta amaren atzetik igerika jo zuan, uretan gaindi aaleginduz. Arribillezko ertza igarorik, malda-gora asita, Txiki iritxi zuan, eta alkarrekin joan ziran amaren pafak eta marrakak zetozen tokirantz, sastraka-sarrian galdu arte.

Amaren ondora eldu ziranean, samatik odola parrastaka zeriola, ikusi zuten Zauli'ren gorputz etzana. Kume gaixoaren ondoan odola miazkatzen ziola, ugadera-ama zegoan. Zauli oraindiño bizirik zan, igesaren arrapaladan azeriak kumea ilteko astirik izan ez zualako noski. Amak Zauli'ri zauriak maitasunaren-maitasunez bein eta berriro miazkatzen zizkion, baiñan kumeari bizitza amaitzen ari zitzaion, eta azkenez, gorputza dar-dar eta begiak itxita, betiereko gelditasunean geratu zan.

Ama ugaderak eta kume biek gau osoan Zauli'ren illotz-ondoan iraun zuten. Ugaderak ez zituan jadanik ku-

me illaren zauriak miazkatzen, baiñan burua kume illaren soin igigearen gaiñean ezarrita, orduak eta orduak asperenka ta adiaka egon zan. Txiki ta Urzale jolas egiteko gogoak galdurik, eta naigabe bakanak menperatuta, larri ta geldirik amaren ondoan zetzaten, musturkada biguiña-kaz amari andik alde egin zezan adierazten ziotela. Urzale'k, eriotza lenengo aldiz ezagutzen zuan eta iñoiz aaztu ez lezaken oarpen bakana sortua zan bere baitan.

Goizalde-irian noizbait alde egiñik, beuren kabira abiatu ziran. Goiko lertegian, Zauli'ren gorputz utziak iñoizkorik ederren ematen zuan. Ibarrean, igelen abestalde bikain batek maitasunaz eraginda, bizitzarekiko jorana non-nai barreiatzen zuan, talde-artetik bizi ta garbien, ibaiko arri batean kokaturik, igel-errege orlegiaren eresia bereizten zala.

Zenbait illabete igaro ziran, eta kume biak amaren irakaskintzaz, arraintzale trebe billakatzen ziran. Ba-zekiten zein tokitan karramarroak idoro zitzaketen, baita aingirak, amorraiñak, igelak, ur-saguak eta abar. Ezpairik gabe baiñan, Urzale'rentzat arrainki kutunenak, ibaiko arribillen artean ezkutaturik zetzaten karramarroak ziran. Auen ondoren amorraiñak, eta gero igel eta aingirak.

Berarentzat arraintza-lekurik naiena, ibai-erdian gailen ageri zan igel-orlegiaren arri-meta zan. Ez zuan iñoiz arrapatu aal izan igel eder au. Gaiñera, oitua zan jadanik ugadera-kumearen erasoetara, eta Urzale arrietan agertu baiño ez, tximista alakoa uretan murgiltzen zan, arrien azpikaldean ezkututzen zalarik. Onela bada, ugaderatxoa igerika ba'zan, ígela legorrean, edo aitzitik, igeléeerregea ez zan iñondik azaltzen. Orain baiñan, uda bukatzen zan ezkeru, igela ez zan ageri, eta lokaztegiren batean ezkutaturik noski, urrengo udaberri arte ez zan azalduko. Orduan nonbait arraptuko luke...

Anartean, betetasuna lortu ta arraintzale trebe billa-

katu arteraiño, Urzale'k Txiki'rekin askotan jolas egiten zuan. Txiki lagun arras maitekorra ta olde paketsukoa izanik, Urzale'ri arekin jardutea benetan atsegin zitzaion. Ibai'ko ertz garaitsu batean, buztinezko bide malkartsua uretaraiño edatzen zan, eta ugaderatxoek lerrategi biurtu izan zuten. Ama urrun ez zebillela, ertzean gora joan, eta goikaldera iritxita, oiua ta zalapartaka buruz beera lerratzen ziran, eta uretan palastaka murgil egin ondoren, alkarren leian gora berriro, nor aurrena izango.

Urzale'ri gogoko zitzaion, Txiki'ren atzetik igo, ta au goitik lerratzeke gertatzen zanean, aurreko zangoakaz alde batera bultzatu, eta berriz uretara bera lenengoa, atzean utzitako Txiki'k itz-jario bezelakoa zan mor-mor aserreko bati ematen ziola; gero oiuka ta berriketa bezelakoa zan suzmurka, lerrategira berriz ere. Batzutan Urzale'ri bere aalegiñak uts gertatzen zitzaizkion, eta orduan uretara lenengo murgiltzan zana Txiki izaten zan. Entzutekoak ziran orduan onen poz-oivak eta jarduna.

Onela bada, ugaderatxo bien kumetaroa amaren ardurapean aldiaren bidean aurrera zioan. Baiñan aunditu-ala, kumeak beuren esku gertatzen ziranez, amaren laguntza ez zan leen baizen arduratsua, eta ez-arian ez-arian, ugaderatxoak beuren gain bizi izaten oitzen ziran.

Beñola, kumeek zazpi illabete inguru zituztela, ama-ugaderari berriz ere oara etorri zitzaion.

Toki ez-ezagun batetik dei ezkutuek erakartzen zuten. Negua urbiltzen ari zan, eta ugaderaren barnean oarturiko dei bakan arek, indar jarkigaitzaz arrenkatzen zion. Nonbait, beste ibar batean, lagun batek irrikan zixarokion. Gau batean, Urzale ta Txiki lotan ziarduela, ama-ugadera jeiki egin zan. Unetxo batez ezpaitsu geratu, eta gero azkar, itzal narraztaria antzo kabitik irten zan, basoko itzaletan bere isla gaztinkara ozta-ozta iragartzen zala. Lerrak bestalde, ibarreko zugaitz guztiei os-

toak erori zitzaizkien, geldi ta murriz ortzi illun garde-
nean islatzen zirala. Ugadera, aurreko tontorreraiño za-
baltzen zan lertegirantz abiatu, eta bereala gauak irentsi-
ta ezabatu zan.

Urrengo egunak kumeei larri ta amaigabeak gertatu
zitzaizkien, ama noiz etorriko zanaren begira. Baiñan da-
na alperrik. Noizbait, kabiaren bakartasuna jasangaitza
billakaturik, betiko utzi zuten. Ibaian beera, azkonar ba-
tek utzitako kabi txukuna idoro, eta an bertan egokitu zi-
ran. Egun orotan, leengo kabiari ikerralditxo bat egiten
zioten, ama itzulia ote zan itxaropenaz. Azkenean, zer-
baitek adierazi zien, ez zutela berriz ikusiko, eta aurre-
rantzean beuren esku billakatzeko ordua zala. Argal eta
aulduak aurkitzen ziran, eta nolabait janaria ta eskierta-
suna irabazi bear izango zituzten.

Gosearen-gosez, arraintzuari ekin zioten, etengabe
artaratzen zirala. Ibai-erdiko arri-metatik, Urzale'k bene-
tako begiratoki garaia zuan. Illunabar guztietan lekune au
ikertu oi zuan, eta etzanik, arraiñen baten igeri axolaka-
beari zelatan zegoan, eta auetarikoren bat elmenean iza-
nik, tximista bai'litzan oldartzen zitzaion. Asieran, eraso
askotan uts egiten zuan, baiñan arian-arian, eretik ego-
kienak aukeraturik, aparta egiten ikasi zuan.

Oiko begiratokitik arraiñik ikusten ez baldin ba'zuan,
igeriari ematen zion polliki, eta onela arraiñaren bat iku-
sirik, oartua izateke atzetik zerraikion, eta urbil samar
aurkitzen zanean oldartzen zitzaion. Orduan ortzetan
atzituta, lasai irestearren, legorrera zeraman, burutik as-
ten zuala. Ez zitzaken, baiñan, arraiñak beti atzetik arra-
patu, eta orduan jazarpen neketsu bati ematen zion, as-
kotan arrapagaiak iskintxo ariñaz iges egiten zuala, edo-
ta ertzeko gordelekuren batean ezkututzen zala. Dana-
dala, trebetasuna taigabe obetzen zuan, eta oiko iñarku-
naz noizbait gain-gaiñeko arraintzale gertatu zan.

Baiñan berarentzat jangairik gozoena, karramarrokia zan. Gau argi ta epela ba'zan, ibairaiño jeixten ziran laé tsetan gora abiatzen zan, eta berak aukeraturiko tokian begirari jartzen zan. Olako giroan karramarroak gordelektutik irten oi ziran, eta agertu-ala arrapatzen zituan. Oskoldun auek izatekotan, ez zuan beste arrainkirik jaten. Gero, maiteen amorraiañak zitzaizkion, eta udaberrian batez ere, auen arraintzuari ematen zion. Igelak, ur-saguak eta txorien arraultzak txit gogokoak bazituan ere, aipatutako oskoldun eta amorraiañak izatekotan, ez zuan beste arrainkirik jaten.

Izaera noragabe artan, Urzale ta Txiki beti elkartuak bizi ziran. Ez zuten kabi berdiñetan gordelekurik izaten, eta atzo an, gaur emen eta biar beste nonbait ezkututzen ziran, gau guztietan azkurriaren billa abiatuz. Geienetan ertz batetik bestera igeri egiten zuten, gose ziranean edozein arrapagaiari ekiten ziotela. Illabeteen bidean baiñan, gero-ta bananduagoak bizi izaten asi ziran, endako agintzari egokitzen zirala. Onela bada, Urzale'k ibaiko goikaldea aukeratu zuan bizilekutzat, eta Txiki'k ostera beekaldea, naza bik mugatuta zetzan urlo ederrean.

Beiñola goizaldea zalarik, gordelekuaren billa basoan gaindi zebillela, Urzale'k oiur sarkor izugarriak aditu zituan. Zirrara batek soiañ alderikéalde zearkatu zion, iñolako beldurrak menperatzen zuala. Txiki'ren oiur etsiak ziran. Urzale'ren aurreneko bultzada, igesari ematea izan zan, baiñan jakin-gura aginkorrari men egiñez, gelditu, eta gero ixillean, andik urbil samar edatzen zan gurdibide baten ertzean adi-adi gelditu zan.

Gau artan, oi bezela, Txiki ibaian gaindi arrantzura joan zan, baiñan arrapaketa ustel irten, eta goiztirian gordelekuaren billa abiatzen zala, ara non ertzeko mukur baten ondoan, karramarro ederra begiz jo zuala. Burnisarez estalia, kutxa bezelakoa zan zerbaiten barnean zegoan, baiñan mutur batetik zabalik agertzen zan. Alako

tramankuluren bat lenengoz ikusten zuan, eta onen inguruan luzaro samar igeri egin ondoren, gose gorriak eraginda, sartu ta arrapagaia jaten asi zan...

Sartutakoan, Txiki ez zan oartu bere atzetik zerbait ixten zala. Karramarroa irentsita, irten nai izan zuanean baiñan, alde guztietatik atxillotua zala oartu zan. Atzapar eta ortzakaz burnizko ariak ebaki nai izan zituan. Azkenik, eziñezkoa zitziola ikusi ondoren, atsedean artzearren etzanda jarri zan. Laister baiñan, arnas-bearra etorri zitzaion, eta itota kordegabetzeko zorian zala, kaiola gorantz asi, eta alako batean arnasa artu aal izan zuan. Gero, izu esangaitzak atzitu zuan. Gizon baten aurrean aurkitu zan, eta orduan karrasi ta marraka etsiak jaulkitzen zituala, kaiola ta guzti zorro batean sartua izan zan.

Bide-ertzetik, Urzale'k dana ikusi zuan. Txiki, bidean gora zeramatela, onen oiurriak entzumenean eriotz-aurreko agerkariak bai'liran aditu zituan, eta gero... iñolako zauskadak eraginda, igesari eman zion, eta baso-saerriko enbor baten uskunean, dardarez ezkutatu zan. Gero, izna naigabe sakona biurtu zitzaion, Txiki'rekin izandako jolasak eta beste gora-beerak burura zetorziola... Ibai-ertzeko lerrategian ain zoriontsu igarotako umetaro aaztugaitza batez ere...

Urte bi igaro ziran, eta Urzale ar gaztainakara bikaiña billakatu zan. Musturretik asita buztanaren azkeneraiño, metrotik gora zan bere luzera. Gai zan arnasarik artzeke, iru miñutuz urpean irautzeko, eta bearrezkoa izanik, ortik gora ere. Tximista baizen azkar igeri egiten zuan, eta uretan sartuta, begiak aurrerantz irteten zitzaizkion, onela begimena urari egokituz. Ibaiaren urak loi ta arrotuak billakatzen ziranean, ezin zitzaiken arraiñak ikusmenaz atzitu, baiñan alakoetan ba-zekian korapilloa nola askatu. Biboteraren ille luzeak txit unkiéoarkorrak ziran, eta illuntasun utsean igerika, arraiñen bat illeakaz ukitzen zuanean, tximista baizen azkar arrapatzen zuan.



Ain zuzen ere, ez zan gauza *erreza* itsuka arraiñik toé po egitea, baiñan geienetan gosea baretzeko lain idoro oi zuan.

Ibai-une artako iru kilometrotan, ugadera bakarra zan. Ama joan zitzaionetik ez zuan berriro ikusi. Beste nonbait bizi izateko geratua zan noski, edo agian, eiztari-
ren batek arrapatua izango zan. Sarri askotan, eiztariak bere atzetik ibilli izan ziran, baiñan Urzale'k ezkutunea ia egunero aldatzen zuan. Baézan barruti artan gordeleku ugari. Gauean berriz, bere buruaren jabe gertaturik, illun-
tasunaren erregea oartzen zan.

Beiñola eguerdia zalarik, zakur batzuen zaunkak bere lo-aldi ariñetik iratzarri zuten. Baézekian olako eretietan *zer egin, eta* tximista antzera ibairantz oldartu zan. Bide-
txigor bat zearkatzen zuala, zelatan egoan zakur batek ikusi zuan. Bereala, zaunka bizietan zakurrak eraso zion, bien tarte laburtzen zala. Ibaitek urbil zegoan, baiñan Urzale konturatu zan, iritxi baiño leen arrapatua izan zi-
tekeala. Ustekabez, Urzale azkon baizen arin biurtu, eta itsu eginda zetorkion zakurrari zango batean bere biziko ozkada egin zion. Itsumustuan artutako zakurrak, aginkada batzuk utsari bota zizkion, eta gero zaunka negartsuak jaulkitzen zituala, errenka jazarri zion. Urzale, ertzera el-
duta, uretan murgildu zan, eiztarien zizpen dunbotsak doi-doi aditzen zirala. Andik laister, beste ertzeko beresi batean gaua etorri arte babestu zan.

Ordutik, ezkutuneak ibaitik urbillen aukeratu oi zitu-
an, gizasemeen jazarpenetik garaiz iges egitearren. Ez-
kutunetan, lo-itzarririk egoten zan, eta zerbait ez-oitua-
ren susmoa artzekotan, urpean ibai-ertzeko sastraketan ezkututzen zan. Uretan arrapa-eziña, ikustekoa zan Urza-
le'ren igeriera malgu ta ariña. Koipez babesturiko illeak izanik, urak arin-arin ildokatzen zituan, larruaren labain-
tasunari esker. Larrupean, illaunezko bigarren estalkia

zetzan, aizezko biribil ñimiñoz beterik, eta augaitik otza uxatzen zuan.

Bere bizitzaren irugarren negua laister asi zitekean. Aspalditik, igel-erregearen kro-kroak lekutu izan ziran, eta lokatzezko oatzean, beste udaberriaren laztan epelen igurikan zegoan noski.

Arrats-beera zan. Laister ezabatuko zan illunabarra-
ren argi motelean, Urzale, ibai aren ugadera bakarra ger-
tatutakoa, zugaitz-mukur baten gaiñean zetzan. Luzaro
gabe, bere izaeraren beste egun bat ezabatuko litzake,
eta arraintzarako aldiune ixilla asiko litzaioke. Gau artan,
illargiaren izpi esnetsuek ez zuten ibarra argituko, ortzia
odei arreakaz estalia bait-zan. Alabaiñan abagune artan,
ibarreko ugadera bakartiari ez zitzaion arrantzua burura-
tu. Kezka aundiak larritzen zuan. Aspalditik gero ta aun-
diago biurtzen zitzaion goibeltasun esangaitzak menpe-
ratzen zuan... bakartasunak alegia.

Ibar artako beeko nazatik goikoraiño edatzen ziran
iru kilometroak zeatz azterturik zituan, baita muga aueta-
tik arantzago ere laguntasun-billa joana zan, baiñan kide-
korik ez: Barruti artako ugadera bakarra zan. Orregaitik
kezka aundia jebetu izan zan beratzaz, eta sarri askotan
begira ta begira, mendi-basoak eta gorrimiñezko itsaso
batean suntziten zan eguzkia, yoranez gaiñezka begiztatu
oi zituan, nonbaiteko dei urruntsua bere igurikan bai'li-
tzanr Bakartasuna... maite-miña... Berak ez ba'zekian
ere, auek ziran menperatzen zuten sentipen larriak.

Eta noizbait, illunabarra il eta gaua iritxi zan. Eizal-
diari emateko garaia, baiña gauza bakana, ez zuan gose-
rik oartzen; eta jangar, igigetahun betean, illuntasunean
zear leku ezezagun baterantz so egiten zuanr Eguzkia
itzali zan zerugunetik, eta indar jarkígaitzak erakartzen
zuan. Cero. polliki-polliki jeiki, eta jauzi malgua aidean
marraturik, uretan murgildu zan. Gau artan baiñan, ez

zuan ezer arrapatu nai. Ain zuzen ere, zoragarria zan ikustea zein ederki ur otz aietan igeri egiten zuan. Egu-ratsean zear egan dagian txori baten abiapena bezelakoa zan. Eta onela, ezeri jaramonik egin gabe, beste ertzera eldu, eta txaraka atzean utzirik, basoan barrendu zan. Lertegian zear joiala, ba-zirudian maldagora abiatzen zan itzal narraztaria. Gero arizti urtetsu batera sartu, eta mendixkako gaillurrera iritxi zan.

Tontorra zearkatu baiño leen, unetxu batez gelditu, eta gibelean zetzan bere ibarrerantz so egin zuan. An beean, metalezko zerrenda illuna alakoa, itsasoaren besarkada irrikan, bere ibaia nagiki kiribilkatzen zan. Azkenengoz begiratu zuan, eta kurrinka bereizia jaulkiz, bizitza osoa bete izan zion ibaiari, agur asperentsua bializionr Eta onela, Urzale'ren maitasun-bidaia asi zan.

Gau artan, gelditzeke ibilli zan. Gauerdia igarorik, pagadi baten zear zioala, ustekabez, itzal aundia bezelako zerbait, tantaien adarren artetik agertu zitzaion. Moxolo goseti aundizarra zan. Gau osoan, sagu ta katagorrien atzetik alperrik ibilli zan, eta orra or ustekabez, Urzale'ren isla illuna zugaitzen artetik ikusi zuala. Moxolo arek ez zuan iñoiz ugaderarik ikusi izan, eta arrapagaia, aundi samar iduritzen ba-zitzaion ere, gose utsaz erasotzea erabaki zuan. Urzale konturatu zaneko, moxoloaren atzaparrek larruan ebate aundia egin izan zioten. Moxoloa berriro oldartu zitzaion, baiñan Urzale enbor baten atzetik babestu zan. Uts egiñik, moxoloak irugarrenez eraso zion, baiñan oraingo ontan ugadera gerturik aurkitzen zan, eta moxoloaren aurka oldartu, aurreko atzaparrakaz jotzen zuala. Moxoloaren gorputzetik luma-zurrunbilloa sakabanatu, eta karrasi bizia jaulkiz batera, zaurituriko egazia itzaletan ezabatu zan.

Goizalde-irian zearo nekatuta, zugaitz zaar baten uskunean ezkutatu zan, eta lo-kuluxka batek artu zuan. Eguerdia igaro ondoren, aizearen uluen eta tximisten aré

tean, elurrezko ekaitzak leer egin zuan. Gaua berriro etorri zitzaion, eta ekaitza atertu ez arren, gose utsaz ezkuntunea utzi ta basoan barrendu zan. Gero basoa bukatu zanean gurbiztegi amaigabe batean aurkitu zan, eta gurbizen adarketak babestuta, bidaiari jarraitu zion.

Noizbait, Urzale'k billatzen zuana agertu zitzaion. Errekato baten ur orrulariak mendi-beera amiltzen ziran. Ertz batetik latsaren ondotik jarraitu, eta azkenik urgeldi legartsua aurkeztu zitzaion. Gaua txit illuna zan, baiñan inguruko elurrak argi apurñoa barreiatzen zuan ezkerre, lanari ekin zion. Astiro igeri egiñez, azpikaldeko arriak uzkaizten asi zan, ikusten zituan karramarroak irrikan iresten zituala. Zorionez, errekatoa oskoldun auetan guztiz aberatsa zan, eta benetako asebeta izan zuan.

Gero, bideari berriz ekin zion, eta luzaro gabe azeri batek utzitako kabian ezkutatu zan. Urrengo illunabaé rrean sarkaldeko norabideari ekin zion, eta gauerdia igáero ondoren, illargia odei ibiltarien artean tarteka agerézten asi zan. Gero, mendi-bizkar garaitsua igarorik, bestaldean zetzan ibarra begiratzearren, une batez gelditu, eta orduan biotza taupadaka zebilkiola, zur eta lur eginda geratu zan. Ibarraren sakonean, illargiak zillarrezturiko ibai eder zabala, baso ta larradien artean kiribilkatzen zan.

Uren erakarpena nausitu eziñik, azkona bai'litzan mendi-beera oldartu zan. Noizbait, ibaiaren ertzera eldu, eta zillarreztutako ur aietan begiak idekita murgildu zan arrantzuari ekiteko. Auxe egin baiño ez, begietan erremin jasangaitz bezelako zerbait oartu zuan, eta aalik ariñen ibaitik irtenda, begimena galdurik ertzean amildu zan. Ibaiaren urak ustelak ziran. Urzale'k ez bazekian ere, ibaian gora eraikitako paper-ola baten ondakiñek, leen garbi-garbi izandako ur aiek kutsutzen zituzten.

Larritasun aundiaren menpe, gora-gale itzela etorri zitzaion, et andik laister oka egin zuan. Egunsentia zan jadanik bere senera etorri zanean, eta oi ez bezela, ezkutan itxaron bearrean, zeozer arrapatzea erabaki zuan. Zerbaitek iñotson, bereala janaririk ez artzekotan, bereak egingo zukela, eta bazterren batean betiko etzanda geratuko litzakela.

Onela bada, ertzetik ibai-gora ibiltzen asi zan. Ez zuan arin joan aal, baiñan etengabe aurrera zioan. Gero, erri txiki bat baztertzearren saiestu zan, eta oster a ibai-ertzera biurturik, bidai neketsuari berriro eman zion. Arratsaldean, ibai-ondoan jeikitzen zan paper-ola aundia aurkeztu zitzaion, eta au inguratu ondoren, illunabarrean urlo zabal aundira iritxi zan. Urreratuta, urak usnatu... eta ur garden garbiak zirala oartu zan. Betarik galtzeke, uretan murgil egin eta arrantzuari eman zion. Toki artan, amorrain ugari aurkitu zuan, eta luzaro gabe urdailla bete arrain irentsita, legorrean etzanda jarri zan.

Gau artan eta urrengo egunean, indarrak irabaztearren leku berean iraun zuan, eta illuntzea urrats lotiaz urreratzen zalarik, berriz ere mendian gora abiatu zan, beeko ustelkeritik urrunen joatearren. Eta onela, mendian gora beste gau bat emanik, goizaldean oiko ezkutu-ne a idorota, erdi-lo geratu zan.

Illunabarra oster a, eta berriro mendian gora, bukae-ziña zirudian bidaldi zoro artari emana. Gaua amaitzeko zorian zan jadanik, aurreko mendate garaia igaro zuanean. Ordukotz zearo aulduta zegoan, eta unetxo batez begiak ertsirik, arnas-estuka etzan zan. Gero, bere einera etorrita, begiak zabaldu zituanean, zauskada batek atziturik, aurrera begira ta begira ametsetan bezela, danatzaz aaztuta luzaro samar iraun zuan.

Itsasoa iduri, ur-biltegi bateko ur garden, nareak, ikusmenaren mugaraiño edatzen ziran. Galdutako Para-

disua bezelakoa zan. Ain zuzen ere, ez zuan iñoiz ainbeste urketa ikusi izan, eta begiak edertasun artatik kendu eziñik, lilluratuta so egin baiño ez zuan besterik egiten. Gero bultz indartsu batek eraginda, ertzera oldartu ta ur eder aietan murgildu zan, or-emenka azkon bezela urak ildokatzen zituala. Ur-biltegian nai aiña amorrain gozo arrapatu zitzakean. Gero, ertz guztia ur-kolkoz beterik eta mota guztitariko landaretzaz ugaldua zala egiztatu aal izan zuan.

Benetako paradisua zan. Urzale'k *ez* bazekian ere, leku artan ugaderak arrapatzea debekatua zan, oraindik bizirik geratzen ziranak babestearren. Asmatu ezin alako toki paketsua zan. Zenbait egun geroago, Urzale, oiko ugadera malgua, azkarra, billakatu zan... Alabaiñan oraindik zerbaitek kezkatzen zuan..r

Gau batean, izarren pean igerika jardun ondoren, le-gorrera abiatzen zala, usain bereizi batek erakarri zuan. Ertzeko txara batetik sartu, eta andik laister, zoratzen zuan usain lilluragarri ura biziagoa biurtu zan. Il-gorak er-diz argituriko gau amesgarriak alako ukitze samurra oroz gain edatzen zuan, galdutako paradisuari iñolako kutsu sorgingarria zemaiola. Dar-dar bakanak menderaturiko Urzale'k aztarna batzuen usnatzeari eman zion, eta gero indar ezkutuak eraginda, oiñatz aien atzetik oldartu zan.

Txara betean zala, ugadera baten ibillera ariña aditu zuan, baiñan alako batean, ezabatu egin zitzaion. Txara igarorik, oiñatzak ur-kolko baten ertzean eten egiten ziran. Berantetsia, Urzale uretan murgildu zan, eta ur-kolkoa zearkatu ondoren, irrika bizian aztarnen billa ertza berriro ibilkatu zuan. Orbel batzuen artean idoro zituan ostera, eta pafa indartsuak jaulkiz, jarraipenari ekin zion. Eta noizbait, txara amaituta belar laburraz estalitako zelai aundi batean ikusi zuanr

Ugadera-eme txairoa zan. Il-gorak argitutako

gauean, buru txanbeliña Urzale'rantz zuzenduta, bere irudi zillarreztua geldi-geldi zegoan. Onela ikustean, Urzale ere gelditu zan, eta gero polliki-polliki urbidu zitzaion zorion-dardarrez jabetuta. Eme gazte bikaiña zan. Zutik zegoan, eta buruiño txairoan begi illun bizek, Urzale'ri us-te onaz beterik so egiten ziotenr Begi goxo biguiñak ziran, Txiki ta Zauli'ren izandakoak bezain samurrak.

Urzale ondoratu zitzaion, eta musturraz emearen buru txairoa laztanduz, asperen eta zaunka yorantsuz, bere bakartasuna ta gero maitasunaren billa egindako bidaia edestu zion, antza, baita galdutako paradisu artan bera aiñakorik ez zala. Eme gazteak ere, zein bakarrik oartzen zan adierazi zion, noski, eta suzmur laztangarriakaz, andik alde egin ez zezan eskatu zion.

Illargiak ezpal esnetsuak uren goikaldean ixurtzen ziotuan, eta paradisu artako zelaietan, noizbait, maitasun-billa egindako bidaldia burutua zan jadanik...

Uzi, erbiñudea

Uztailla-azkeneko arratsalde eguzkitsu batean, mendiko zelai batean erdiz amilduta agertzen zan Bordazarra'ko orma-zulo batetik, erbiñude-talde bat irten, eta mendian beera abiatu zan. Taldea, amak eta bost kumek eratzen zuten. Kumeak Loreilla'n jaio ziran, eta orain zazpi aste beteak, ba-zan aste bete bat amak lagunduta-koak kabitik irtetzen asi izan zirala. Beean, andik kilometro batera basetxe bat agertzen zan. Ama-erbiñudeak, arratsalde artan etxe artako oillotegia ikertzea asmatzen zuan. Iru egun aurretik, oillategiko bazter batean arraultzémeta aundia idororik, talde guztiak bere biziko asebeta izan zuan. Ain zuzen ere, gauza gutxi idoro ziteken arraultza baiño gozoagorik. Egun artan, amak kué meei irakatsi izan zien arraultza ustutzea oskola autsi gabe, barneko gaia zurrut egiñez. tanto bat bera ere isuré tzeke.

Asebeta artako oroitz lilluragarriak, erbiñude-taldea berriro zekarren. Bidean gandi zioztela, endaren olde geldi-eziñari jarraituz, amak eta kumeek zekusten guztia arakatzen zuten: enbor zaarrak, orbel-arteko utsuneak, arri-pilloetako ezkutuneak, eta bide-ertzeko arroillak batez ere. Alako batean, sagu ñimiño batek izuarenéizuz irten, eta igesari eman zion. Erbiñude-amak malda-gorako bidea eragotzi zion, eta marraka bereizi batez, kumei jazarri zezaten agindu zien, bera begirari jartzen zala. Tximistak bai'liran, kumeak saguari oldartu zitzaizkion, eta sagua soin gaztainkarako zurrunbillo artan, atzitu ta zatituta izan zan, kumeek aren puskak elkarri eztabaidatzen

zizkiotela. Bitartean, amak kumeen aurrerapenak begi onez ikusten zituan. Eta besterik gabe, illunabar orduko basetxera eldu ziran.

Orma zaar bateri jarraituz, oillategiko burdin-sarea aurki agertu zitzairen, eta lurrean zapal-zapal, aren azpitik igaro, eta gero erdiz idegitako atetik, oillategian sartu ziran. Goiko agaetan, oillo-andana bat lotan zegoan, eta oiko txokoan, belar-onduzko meta baten gainean, arraultzak zetzaten. Ama ta kumeak tximista gorritzak antzo aietara oldartu ziran, eta orduan...

Kirrinka bat ozen aditzen zala, atea ertsi ta sapaiko argia pizturik, zizpa bana zuten gizon bi agertu ziran. Izugarria izan zan. Zizpak berriro betetzeko soillik eten egiñez, erbiñude taldea tirokatua izan zan. Kinka larria ikusirik, kumeenganako maitasunak eraginda, amak gizonei eraso zien, oldartzen zitzaie. Egiketa kementsua baiñan alperrikoa. Eztanda bik ilda utzi zuten.

Amaren euspenik gabe, kumeak zalaparta bizian alde batetik bestera zioazen. Ez zan baiñan inondikan irtenbiderik agertzen, eta banan-banan illik erortzen asi ziran. Noizbait, erbiñude bat bera ere bizirik ikusi ez, eta erailketa bukatu zan. Gero, gizon biek gorputzak batzen asi ziran.

- Zenbat dituk? --bietariko zaarrenak galde egin zuan.

- Ama ta lau kume, aita.

- Ez al dituk bost kume sartu bada? Non zegoak boskarrena?

- Ez dakit, aita. Nerau ere bost ziralakoan naiz, baiñan sortutako zalapartagaitik, ez dezaket ziur jakin...

Bazter guztiak zeatz arakatu zituzten, bai goikaldea bai beekaldea, baiñan ez zan beste kumeren aztarnik



Pia Goiri 2020

azaldu. Noizbait, sartutako kumeak lau baiño ez zirala-koan, argia itzalita aita-semeak irten egin ziran.

Ixiltasun osoa zan, orma bateko zirrituan zerbait igitzen asi zanean. Soin luze, txiki, malgua, jauzi arin egiñez lurrera jetsi, eta alde batetik bestera igesbide baten billa asi zan. Bazter guztiak zeatz eta urduri arakatu zituan, eta irtenbiderik ez zala egiztatzean, ate-ondoan gelditurik, azkar ate--azpiko aztertzeari eman zion. Lurra arlasta zabalez estalita zegoan. Azkenik, bi arlasten artetik, lurrezko zerrenda bat aurkitu zuan, eta arloari buru-belarri ekin zion. Inñolako leiaz aurreko atzaparrak ustiatuz, zulo bat egiten asi zan, eta noizbait beste aldetik, gau izardunaren argi motela ikusi aal izan zuan. Suge baten antzera lerraturik, lekorerira irten zan, eta gelditzeke, mendian gora bordarako bidea artu uan.

Uzi, boskarren kumea zan, oztaéozta sagua baiño aundiagoa. Zazpi aste leenago jaió izan zan, eta ain zuzen ere, kumerik txikiena; augaitik noski, taldeko aulena etorria zan, alabaiñan bizi-joran batek jabetuta, aalegin beteaz irauntzeari ekin zion. Kumeei edoskaldia bukatu zitzaieneko, orduan Uzi'rentzat benetako burrukaldia asi zan. Geienetan, amak sagukiaz janaritzen zituan, baiñan beste kumeak sendoagoak izanik, zalaparta bizian zati aundienak iresten zituzten, Uzi gaixoak noizbeinkako zaititxo batez konpondu bear izaten zualarik. Olan bada, beste kumeen ondoan, Uzi gero-ta aulago, txikiago, gertatu zan.

Gau artan, basetxeko oillategian bere sendiko erailketa asi zanean, Uzi gaixoak oi bezela azkena, izuaren izuz ormako zirritu batean ezkutaturik, beretarren ondapena ikusi zuan. Gero, dana ixil eta paketsu billakatu zanean, zulotik irten, eta leen aipatu dan bezela, toki izugarri artatik aldendu zan.

Nekearen-nekez, mendi-gorako bidaian indarrak irabaztearren etenaldi ugariak egiñez, noizbait bordako arri-

arteko kabira eldu, eta lastozko oatzean kukuriotu zan. Etenaldiz beteriko lo urduri batek artu zuan, esnatzen zan bakoitzean, ama ta kumeen itzulpena itxaropen zoro-rogurikan eta igurikan. Azken loalditik itzarri zanean, eguzkiak kabiko sarrera argitzen zuan, eta orduantxe oartu zan benetan bakarrik zegoala, baita iñoren laguntzarik gabe, bizitzari aurre egin bear izango ziola. Alabaiñan, zoritxarrez, amagandik ainbeste gauza ikasi gaberik geratu zitzaizkion...!

Aultasun eta goseak eraginda, kabitik irten eta eguzki betean aurkitu zan. Zana-zala, zerbait arrapatu bear, osterantzean luzaro gabe aultasun utsaz, ezíndua gertatuko litzake. Unetxo batez, begi sarkorraz eta entzumen ernai-az inguruak aztertu zituan. Noizean bein, belar biguiñaren artetik saguen ibillera artega somatzen zuan, baiñan indarririk ez aien jazarpenari ekiteko. Zerbait eta laister idoro bear izango zuan. Orduan, bordako eskortako erdiz amildutako arresian, berak ez zekian zeren billa asi zan. Zulo batean itsatsita, barakuillo bat ikusi zuan. Atzaparrakaz askatu ta oskola apurtu ondoren, aren gaí lerdetsua irentsi zuan. Ain zuzen ere, ez zan gain-gaiñeko janaria, baiñan gose utsaz Uzi'ri gozo-gozoa iruditu zitzaion. Ondoko zuloetan beste asko idoro zituan, eta artu-ala irentsirik, noizbait eguzkipean etzanda, inguruetako begiratzeari eman zion.

Bere bizítzean lenengo aldiz asetua aurkitzen zan; baita eguzki betean inguratzen zitzaion edertasuna, lenengoz begizatzen zuan. Andik ez urrun arizti ederra zekusan, tarteko unea belar biguin leunaz estalita agertzen zala. Zerbaitek arizti artara dei egiten zion, eta besterik gabe, arako bidea artu zuan. Baso betean aurkitu zanean, areitz zaar sendo baten enborrean zulo bat ikusi zuan. Oi ez bezelako sentipen batek leengo kabitik uxatzen zuan, eta areitzeko zuloa zeatz aztertuta gero, kabitzat aukeratzea erabaki zuan.

Egorantz zuzenduriko egoitza txukun eta ongi babes-tua zan, eta besterik gabe barneratu ta etzan zan. Bakarrezko oarpena ta aurreguneko gertaera ez zitzaken burutik ken, baiñan lo-gurak menperatu zuan, eta illuntzerarte lotan egon zan.

Mendien atzetik eguzkiaren azkenengo printzak suntsitu ondoren, itzarri zan. Gose aundi batek zirikatzen zuan. Barakuilloz izandako janari motela egosia zan jadanik, eta bearrizanak kabitikéat eragiten zion, alabaiñan iraupen-sen ezkutuak gauaz soillik eiztatzea agintzen zion. Onela bada, gauaren asierari itxo egiñik, noizbait zulotik irten zan.

Odeiek estalitako gau illun aizetsua zan. Goseak menderatutako Uzi'k, inguruen usnatzeari eman zion. Alako batean, sagu baten usain sarkorra etorri zitzaion. Usainmen zorrotzekoa izanik, okertu gabe saguaren atzetik bideratu zan. Saguak txit gogokoak zitzaizkion, eta amak askotan emandako sagukia benetan atsegiña billakatua zan. Luzaro gabe ikusi zuan. Orbelez erdiz estalitako zerbait jaten ziarduan. Uzi urrats batzuk aurreratu, eta jauzi egiñik saguari oldartu zitzaion. Onek baiñan, jauzi baiño leen erbiñudearen ibillera oartuta, eraso orduko igesari eman zion. Lurreratu zanean, Uzi'k ez zuan besterik arrapatu aal izan, orbel puskak baiño; eta aserrez irakiten, saguaren jazarpenari eman zion; baiñan orbela-ren artetik sigi-sagaka lerratuz, arrapagaitza gertatu zan. Alako batean, orbela bakantzen asirik, eta noizbait areitz baten ondoan sagua ia elmenean zuala, enborreko zirritu batetik itzuri zitzaion.

Txuliatutako Uzi'k, zirrituaren ozkatzeari eman zion, baiñan azkenik sartzea eziñezkoa zitzaiola egiztaturik, lanari eten egin. eta aserre ta gosez sututa, beste norabait joan zan.

Gau artan asko aalegindu bazan ere, ez zuan ezer

atzitu aal izan, eta goíztirian gose utsaz bordako arresira barakuillo zakarren billa joatea bururatzten zitzaiola, ara non zelai batean sator-mukurru batzuk idoro zituan. Auen usaintzeari ematen ziola, barneko zerbaitek gazti-gatu zion, mukurru aien azpian zegoana, barakuilloak baiño askozaz gozoagoa zala. Meta aietako batetik, satorraren usain bereizia sarkorrigo zetorkion, eta aurreko atzaparrakaz lurra sakabanatuz, andik bertatik asi zuan jarraipena. Izan ere, satorra urbil zitzaion, eta onek atzetik zerbait zetorkiola igarri zuanean, adore berrituz zuloaren sakontzeari eman zion. Arrapagaia elmenean zalaren oldozkunak, Uzi'ri indar berriak eman zizkion, eta satorraren gibeletik aalegindu zan. Satorra bere biziko aitzur-laria zan, baiñan Uzi'ri errezagoa zitzaion arek egindako zulotik jarraitzea; eta onela laister urbildu zitzaion. Noizbait, atzaparrakaz atzetik oratu, eta narraz atera zuan. Lekorean, ortzetan atzituta lepoari astiñaldi azkarra ta satorra tximistak jota alakoa il zan. Larru leun beltza izan ezik, enparaua irentsi zuan. Gero, barakuilloak zearo aantziak, egunaren aurreneko argiak mendietatik agertu ziranean, kemen berriaz bizkortuta, areitzeko kabira itzuli zan. Bere buruarekiko uste ona irabazten asia zan, eta etorkizuna ez zitzaion ain illun iruditzen.

Egunen bidean, Uzi'ri bizi-ikaspena osotzen ari zitzaion. Ama bizirik izan ba'litz, askozaz errezagoa izango litzaiokean, baiñan ezinbestez, bizitzaren ezkutuak bere kabuz ikasi bear zituan. Alabaiñan soiñez txikia bazan ere, beragan kemen neurrigabea zetzan, eta bearrezkoa izanik, bera baiño etsai aundiagoei erasotea, ez zitzaion orren zailla iruditzen.

Berak ezagutzen ez zuan izkillu ezkutuaren jabea zan eta beiñola bizitzaren alde erabilli bear izan zuan.

Illabetea igaro zan, bakarrik geratu izan zanetik, eta leengo soin ñimiño ta makala eguneroko burruka ta era-gozenak bide ziralaéta, sendotu ta azkartu egin zitzaion.

Bein batean, ibarreko beekaldetik igelak arrapatzetik zetorrela, oi baiño beranduago billakatu zitzaion, eta ezkuntetik urrun samar aurkitzen zala, ezustean egunsentiak arrapatu zuan. Une artan bertan, ibarrean gora eiza-zakurren zalaparta aditu zan. Uzi'ri ez zitzaion eder atzetik zetorkion zaunkak aditzea, eta zirrara batek menderatué ta, aalik ariñen mendi-gora abiatu zan.

Jaubeak uiatutako iru zakur ziran, goizaldeko argiak agertutakoan, mendian gora erbiketara joiazala. Alako batean, aietariko batek Uzi'k leentxoago utzitako usaiña artuta, usnaturiko aztarnen atzetik oldartu zan. Laister somatu zuan Uzi'k, zakurra atzetik zetorkiola, eta aalik ariñen sarasti batetik barrendu zan. Andik laister zelai batera irten zaneko, zakurrari kentzen zion tartea bi metrora gutxitua zan.

Ustekabez, sumin basatiak jabetuta, Uzi biurtu zan, eta zakurrari aurre egin zion. Aoa zabalik, erbiñudeak ortzak erakutsi zizkion, eta illeak arrotzen zitzaizkiola, zan baiño aundiagoa itxuratuz, begiak dizdiraka, etsaiari basaki begiratu zion. Zur eta lur egindako zakurra ozta-ozta Uzi'ren aurrean gelditu, eta gero makurtuta, erbiñudeari erasotzeko gertatu zan.

Orduan bertan, tximista alakoa Uzi zakurrari oldartu zitzaion, eta musturrean bere biziko ozkada egin zion. Miñaren-miñez uluka, zakurra belar-gaiñean iraulkatu zan, bitartean Uzi'k igesari ematen ziola. Zakur zauritua-ren miñezko zinkuriñek, beste zakurrak erakarri, eta danak batera erbiñudearen aztarnen jarrai, mendian gora zaunka bizietan abiatu ziran.

Laister oartu zan Uzi, zakurrak berriz atzean zituala. Etsi-etsian aalik ariñen mendian gora zioan. Ba-zekian bere barrutiko baso-mugan aspaldi izandako borda baten utzikiñak zetzatela, eta ezkutune egokia zalakoan, ara abiatu zan. Eldu zanean, bera ta jarraitzailleen arteko

unea aski zan oraindik, eta zulo egokiaren billa asi zan. Andik laister irteera biko zulo luzea aurkiturik, erdian kokatu zan.

Zakurrak iritxi ziranean, zulo-sarreran zaunka ta zaunka asi ziran. Auetariko indartsuena, zulo-gaiñeko arrietan usnatuz, Uzi zetzan ondoan gelditu, eta gero arri-atzaparkatzeari eman zion. Bereala, beste biek lagundu zioten, eta noizbait arri bat eta gero beste bat alé deratu aal izan zituzten, eta orduan Uzi agirian billakatu zan. Eizarako kilikadurak eragindako zakurrek lanari jaé rrai zioten, atzapar eta musturrak Uzi'ganantz luzatuz. Alako batean, Uzi'k jaurtitako zurrut iguingarria artu zuten, mustur eta begiak isurkai nazkagarri batez bustitzen zitzaizkiela. Begiak erreminduta, sudurrak usain eroangaitzaz blei-blei, iru zakurrek mustur eta begiak belarrean igurtzi zituzten, iguingarri artatik jareitzearren.

Ordukotz, Uzi beste sarreratik irten zan, eta basoan zear kabirantz jo zuan. Uzi'k *ez* zekian bere baitan isurkai iguingarria botatzeko aalmena zuanik, baiñan bere burua zakurrek arrapatzeko zorian ikusirik, latz-ikara batek menperatuta, atzekaldean gingil bat berez estutu, eta isurkai salbagarria bota zuan. Kabira iritxi orduko, begi erreminduak eta usainmen ondatutako zakurrak mendian beera joiazan, Uzi'ren belarrietan aien zaunkak gero-ta urrutiago aditzen zirala.

Onela bada, gure erbiñudea izaeraren ezkutuneak ikasten ari zan. Amak bizirik iraun ba'lu, gauzak aisa ta ariñago ikasiko zituken. Basoan sagu asko zan, baiñan Uzi'k saguren bati jauzi malguz erasoten zionean, ez zuan besterik aurkitzen belar-izpiak eta orbelaren puskak baiño. Alabaiñan gosea maisurik onena izanik, noizbait eiza-bidea menperatu zuan.

Oartu zan noizbait, azken jauzia egin aurretik saguak egoera igartzen ziola, azkenengo arrapalada egiteko ger-

tatzen zanean, eta au zala-ta igesari garaiz ematen zion. Orduan eiza-araua bestelaturik, saguagana ixiltasun eta arretarik aundienaz urbildu, eta ustekabez tximista bezela oldartzen zitzaion. Ala ta guztiz ere, askotan uts egiten zuan, baiñan ari ta ari, aldiaren bidean trebetasun aundia lortu aal izan zuan. Ingurumari aietan sagu asko zan ez-kero, ba-zuan gosea non asetur

Egaztien arraultzez jabetzen ere ikasi zuan. Bene-benetan, jaki au zuan gogokoen. Goizalde batean oiko eiza gautiarretik zetorrela, areitz baten sarde-adarretik txori baten igesa ikusi zuanr Jakinnaiak sarde-adarrera erakarri zuan, eta atzaparrak enborrean tinkatuz igotzen asi zan. Orduan egiztatu aal izan zuan, zein erreza zitzaion arrastaka enborretan gora ibiltea. Sardera iritxi zanean, txori-kabi baten barruan arraultz txiki bi ikusi zituan. Arraultzak ikustean, izu gorri batek menperatu zuan; basetxe artako oillategian izandako bere sendiko ondapena zetorkion gogora. Une luze batez zer egin ez zekiala geratu zan. Gero, arreta aundienaz bat zulatu ta barnekoa zurgatu zuan. Izan ere, ez zuan ordurarte iñoiz gauza gozoagorik txastatu izan; eta bigarrena zurgaturik, zugaitzetik jetxi zan berekiko iñoala, arraultzak arrapatzearren aalegin guztiak egingo zitukela.

Arrezkero, zugaitz berari ikustaldi batzuk egin zizkion, baiñan kabia betiko utsik agertzen zitzaion. Ain zuzen ere ez da gauza erreza txori-arraultzak topatzea, baiñan Uzi'ri otu zitzaion, txoriak berak izan litezkela erakustaille. Orretarako txorien joan-etorriak aztertu, eta onela arraultz batzuk arrapatu zituan. Izan ere, ekintza onetarako egun-argiz jardun bear... alabaiñan egunsentiz ari izateak gero-ta gutxiago erakartzen zuan, eta ain zuzen ere, bazituan bere zioak.

Goizalde argitsu batean, kabien billa zugaitzen artean txorien egaketa aztertzen zuala, andik ez urrun, miru baten itzala belar gaiñean lerratu zan. Egazti arrapata-



riaren begi sarkorrek erbiñudearen soin luzanga ikusi zuten. Adi-adi barrandan ziarduan Uzi'k, ez zuan mirua ikusi, eta onek aukera osoan erbiñudearen gora-beerak, onen aunditasuna ta egoera batez ere aztertu zituan. Ez zuan gauza aundirik ematen, eta gaiñera baso-soil baten zelaian, gorantz begira ta begira zegoan. Ustekabez, egoak tolestu, eta tximista bai'litzan miru gosetiak Uzi'ri eraso zion...

Erbiñudea oartu zaneko, bi atzapar sendok bizkarretik atzitua zan, eta lurretik erauzita, eguratsean gaindi eramana. Atzapar zital aiek, burni goriak antzo aragian sartzen zitzaizkion. Miñarenémiñez, Uzi utsean iraulkatzten zan, indarrak galtzen zituala. Uzi baiña, idune luzekoa zan, eta alako biurketa batean, miruaren zango bat ortz zorrotzez atzitu, eta bere biziko sumiñaz irakiten, ozkatu zuan.

Karranka minberatsua jaulkiz, miruak atzipena lazotu, ta gero erbiñudea askatu zuan, zango zauritua lumen artean tolesten zuala. Uzi'k baiñan, ez zuan bere ozka laé zotu, eta zangoarekin batera jasoan izan zanean, atzaparrak miruaren soiñean iltzatu zituan, eta egaztiaren beste zango-orkaitzek bizkarretik atzituta bazan ere, miñarenmiñez eraginda, iñolako amorrus jabetuta, bere soin malgua luzaturik, ortz zorrotzakaz miruaren lepo-egurra billatu zuan. Karraska bat, eta tximistak jota bai'litzan, mirua utsean amildu zan.

Biek lurra jo zutenean, kaska izugarriak elkargandik banandu zituan, eta bizkarretik odola parrastaka zeriola, Uzi luzaro kordegabe geratu zan, miruaren gorputzaren ondoan. Bere einera etorrira, bizkarrean min eroangaitza oartuz eta ozta-ozta ibiltzeko gai zala, kabira abiatu zan begimena errezel gorritza batek moteltzen ziola. Ez zan gauzarik miruaren aragia jateko ere.

Sukar gaizto batek atzituta, zenbait egun iraun zuan, eta noizbait goiz batean, sukarra joanda itzarri zan. Gose

izugarriak eraginda, zulotik irten, eta nora ez zekiala zabalduan gaindi abiatu zan, baiñan eguzkiak erakartzen zuan, eta ia narrazka, noragabe, zelai baten zear alderrai ibilli zan. Iñarkun au gero-ta zaillago gertatzen zitzaion, eta alako batean ezinduta, ezagumena galdu ta bidean amildu zan. Ustekabez, soinpean oroldioaren ukitze biguiña oartu zuan, eta dana aaztuta, eguzkiak laztandurik, oatze gozo artan luzaro gabe lo geratu zan.

Eguzkia itzaltzeko zorian zala itzarri zan. Begiak zabaldu, eta zarrastada bakanak jabetuta, aurrera begira ta begira geratu zan. Bordazaarreko arresiaren ondoko goroldioan zetzan, eta aurrean, amaren eta kumetaroko oroitz kutunez laztanduriko, arresiaren zulo ta zirrituak bere igurikan bezela jeikitzen ziran. Zulo baten ondoan zegoan, eta onen itzaletan, barakuillo batzuen irudi igigeak, eguzki gorritzapean igartzen ziran... eta orduan, irentsi-ala janaria bere aukeran zuala konturatu zan...

Leku paketsu ta bakarti artan, iru egunez geratu zan. Gain-gaiñekoa ez ba'zan ere, janari nai aiña eskuar zuan ezker, indartzen asi zan. Janaldien bitartean, eguzkitan etzanda, miruak egindako Zauriak orbaintzen zitzaizkion, eta noizbait, irugarren goizaldean betikoa oartzten zala, ariztian zuan bere oiko zulora bideratu zan. Iru egun aietan izandako janariaz asetuta, ariztian ugari samar aurki zitzaken sagu gozoez janaritzea naiago zuan. Eta onela, indar berrituaz oiko bizierari eman zion. Ariztian, saguak bestalde, igelak, muskerrak, sugeak, satorrak eta abar idoro zitzaken. Baita urrialdietan, inguruetako zelaietan lipu ta matxingorriñoak.

Udazken-amaierako, zugaitzei ostoaak urre biurtu ondoren, Uzi erbiñude bizi, azkarra billakatua zan. Soin ta idune luzekoa, lau zango laburren gaiñean, tximista alakoa ba-zekian bere burua nola zaindu. Iñolako kemenduna, ez zuan ezeren edo ia ezeren aurrean atzera egiten, eta ba-zekian egunen batean erasoia izango ba'litz, bere

bizitzaren alde ausardi ta sutsu, azkeneraiño burrukatuko lukela.

Ille leun gaztainkaraz estalia zan. Belarri txikiak bazituan ere, entzumen zorrotzekoa zan, eta gaitasun au onura aundikoa zitzaion, batez ere gauaz eizan jarduteko. Begi ernai bizieri, aurpegian zearka jarriak, zerbaitek kilikatzen zituanean, suzkoak bai'liaran tximistak zerizkien. Atzapar zorrotzen bidez, ez zuan eragozpenik zuzaitzen enborretan gora igotzeko. Sudur txiki baten pean, ao txikia baiñan ortz zorrotzez ornituta zetzan. Musturretik buztaneraíño ogeitamar bat zentimetrokoa zan. Ba-zuan zirritu estuenetatik igazteko erreztasun siñeskaitza, eta onela aritzen zanean, ba-zirudian bere soiña zearo zapaltzen zala.

Negua urreratu zanean, arrapagaiak billatzea gero ta zaillago biurtu zitzaion. Aro onetan, arrapagai ugarienak sagu ta satorrak ziran, alabaiñan ez zituan udan baizen ugari aurkitzen. Ala ta guztiz ere, irauteko lain atzeman oi zuan. Eizan jarduten ez zanean, areitzeko kabian arildurik, lotan edo lo-kuma antzekoa zan egoera paketsuan zetzan. Orduan, soiñaren berotasuna oi baiño gutxiagoa izanik, ez zuan janari askoren bearrik. Noizean bein orde, goseak bere einera zekarren eta orduan arrapagaien billa, kabia utzi oi zuan.

Goiz batean, menditik ibarreraiño edatzen zan zabal-dia, elurraren pean agertu zitzaion. Azkurri-billatzeari geienetan gauaz ematen zion, egunez galtzoriak aundia-goak ziralako, eta bearrian gorrian aurkitzen ez ba'zan, illuntasunean eizatzea naiago zuan. Baiñan goiz artan, gose aundiak akuillatzen zuan ezkerro, kabitik irten eta elur-gaiñean ibiltzen asi zan. Elurra lenengoz ezagutzen zuan, eta berak ez zekian alako sentipen bakana sortzen zion. Onezaz gaiñera, berak iñoiz ez izandako otzak oiñarrak ozkatzen zizkion. Sagu batek elurrean marrazturi-ko oiñatzei jarraitu ondoren, zugaitz bateko zirritu ñimi-

ño batean bukatu ziran, eta or-emenka alperrik ibiltzeaz aspertu eraginda, zerbait berria idorotzeko asmoz, an beekaldean zekusan basetxe baterantz, mendian beera abiatu zan.

Neguko goiz artantxe, basetxe-ondoko labean gordelekua zuan arratoitzarra, zuloko illunzkatik lekorera begira asi zan. Bost urte bete izan zituan, eta negute guztietan gose gorri berberak menperatzen zuan. Illundu baiizen laister, etxeko inguruak utzikiñen billa aztertuko lituke, baiñan illundu gabe zerbait gozoa eskuar ba'litzaio...

Labeko arratoitzarra, utzikiñetan jarduteaz nazkatuta aurkitzen zan, ez bait-zituan besterik idorotzen barazki-puskak baiño, eta noizean bein ezur garbiren bat, edo geienez urdazpi-azaltxo mee landerra, besterik ez. Arratoitzarrak, gau-ibillaldietan etxean sartu aal izatea irrikatzen zuan, baiñan barnean zegoan zakur txiki zuriaren beldurrez, ez zan iñola ere ausartzen, arekin topo egitekotan bere azkena izango litzakela bait-zekian. Ametsetan bezela, aurreko udazkenean izandako asebeta gogora etorri zitzaion.

Etxeko orma bateri itxasita, untxitegia ageri zan. Beiñola, onen gelatxo batean untxi-kume andana aundia jaio zan. Arratoitzarrak, kumeak laister usnatu zituan, eta illuntasuna ustiaturik, ol-artean zulo bat egin zuan. Bigarren gauean zulotik igaro aal izan zuan, eta kumeen artean sarraski izugarria egin zuan, zoraldi batek atzituta bezela, eriotza sakabanatuz. Gosea baretzeko aski izango litzaiokean untxi-kume baten aragia, baiñan berarentzat abereiño errukigabe aien odola zan gauzarik bikaiñena, eta neurritasuna alde batera utzirik, kumeak banan-banan il eta auen odola xurgatu ondoren, etorria zan bideitik irten zan, atzean zazpi kumeen gorputzak eta auen izuz elbarritutako ama uzten zituala.

Urrengo egunean etxekoek gertatutakoa egiztatu zuten, eta iltzaillea arrapatzearren guztitariko arteak ezarri

zizkioten. Alabaiñan arratoitzarrak ba-zekian nola jokatu, eta etxekoen aalegin guztiak ustel billakatu ziran.

Goiz artan, elurrez estalitako zabaldiri begira ta begira ari zala, gose gorriak eragindako erratoitzarrak, arrapagai bizi baten odol epela zurgatzea amets egiten zuan. Bidean beera margo gaztainarako gauzatxo bat urbiltzen zan. Ibillera ariñez etxerantz zetorren, eta ibilli baiño geiago lerratuz zetorrela zirudian. Kilikadura basatiaz jabetuta, arratoitzarrak ez zuan Uzi'ren soin luzangatik begirik alderatzen. Ordurarte ez zuan iñoiz erbiñude-rik ikusi izan, baiñan barruko zerbaitek, berak amets egindako janaria elmenean zuala, iragartzen zion. Itxuren arabera, oi ez bezelako untxi ñimiño, luze, gorritzat, labe zaarraren ormatik urbiltxo igarotzeko zan, eta orduan ustekabez erasoko ziokean.

Labetik ur samar, aldamenak aztertzearren, Uzi unetxo batez gelditu zan. Begi sarkorrez inguruak arakatu ondoren, ezer bereizirik ez oartzean, etxeko atadirantz abiatu zan. Baiñan inguru aiek arrotzak zitzaizkionez, sen ezkutuak ernai jokatzeko eragiten zion. Onela bada, baratxe-baratxe zioan zeatz guztiak ongi aztertuz. Etxeko alde batean, ate bat ikusten zan, ikuillukoa noski, eta agi zanez, beekaldeko zirritutik igaro zitekean... Ezustean, zerbait illun indartsua oldartu zitzaion, eta idunean ortz zorrotzen ziztada oartu zuan...

Tximista baizen arin, Uzi elur-gaiñean iraulkatu zan, ozka mingarritik jareitzearren, etsaiari amorru itzelaz jarritzen zitzaiola; baiñan lepotik atzitua izanik, ezin zezaken burua bere aukeran erabilli bestea zauritzearren. Arratoitzarrak ez zion iñola ere ozkari uzten, erbiñudearen iraulketa basatiek alde batetik bestera iñarrosita ba'zan ere.

Alako batean, etsaiaren atzipenetik askatzearren, Uzi'k etsi-etsian teinkada basatia egin zuan, eta aragi-la-

rrua urraturik, jaregin zan. Zauritik odola bor-borka ze-riola, atsanka, unetxo batez Uzi'k geldi-geldi iraun zuan, arratoitzarrari begira ta begira. Alabaiñan ez zion igesari eman. Sumin basatiak eraginda, begiei txinpartak zerizkiola, erasotzeko gertatu zan. Ez zuan beldur-izpirik oartzten, arratoitzarra iltzearren joran neurrigabea baiño.

Biok aurrez-aurre zegozen. Uzi'ri arnasa baretzen zitzaion bitartean, eraso asteko gertatzen zan. Labeko arratoia orain oartzten zan lenengoz, begiei dizdirak zerizkion pizti gaztinkara txiki arek, untxi otzanekin antzik ez zuala; eta erbiñudea baiño askozaz aundiagoa bazan ere, arratoitzarra beldur bakan antzeko zerbaít oartzten asi zan... eta orduantxe bertan, iñusturi bai'litzan. Uzi'k eraso zion...

Arratoitzarra oartu zaneko, jauzi malgua egiñik, erbiñudea atzean jarri zitzaion, eta ozta-ozta Uzi'ren ozkada saiestu aal izan zuan. Labeko arratoia orduan konturatu zan, galtzoria atzetik etorri lekiokela, eta Uzi oldartzen zitzaion bakoitzean, aalik ariñen bira egiten zuan, etsaia etengabe aurrean izatearren. Arratoitzarra baiñan nekatzen asten zan, eta gaiñera ezin zezaken iñola ere, Uzi'gan atzipenik egin. Unetxo batez, iges egitea bururatu zitzaion, alabaiñan ori eriotza izan lekioken ezker, aurre egiteari jarrai zion... Ustekabez, aietariko eraso batean, Uzi'ren atzapar zorrotzak bizkarrean tinkatu zitzaizkion, eta lepo-ezurra ortzetan artuta, kraskatu zion, eta gertatzen zitzaiona oartu baiño leen, arratoitzarra tximistak jota alakoa, illik erori zan. Unerik galtzeke, Uzi'k zain lodi batean ozkatu, eta zerion odola iñolako atsegiñez zurgatu zion. Bukatu zanean, oiko Uzi azkar ernaiá biurtu izan zan, eta astirik galtzeke mendian gora abiatu zan.

Kabira iritxi zane kotz, arratsaldea zan jadanik, eta atsegin bakanak menperatuta, soiña arildurik loaldi atse-dengarriari eman zion. Udaberriaren urrats ernagarriak laister elduko ziran...

Eta udaberriaren laztan sorgingarriak iritxi zitzaizkion. Eguratsari lurrin berdingabeak zerizkion, eta aurreneko loreak bizitzaren asperenak bai'liran, buruiño margodunak jeiki, eta txoriak iratzarri zituzten, eguzkipean zeruko eresiak abes zezazkieten. Ortziak, eguzkiak emandako jantzi urdiña zerabillen, eta oneri agur egitearren, belarra orlegi bizi azalpeko muskil berrien kilikadura oartzen zuten... Uzi ere, joran aundi batek uztaipetuta aurkitzen zan. Berak ez ezagaturiko zerbaitek menperatzen zuan. Sarri askotan, burua jaso ta urrutirantz begira ta begira egoten zan.

Noizbait, udaberriaren sorgindurak zearo jabetuta, gau batean, nora ez zekiala, zabaldian zear zorionaren billa abiatu zan. Berak ere, lagun baten maitasun-txerak indar guztiz irrikatzen zituan... Ar baten laztanak alegia, Uzi eme jaio izan zan-eta...

Beiñola, basoan zear joiala, zerbaitek zerraikiola irudititu zitzaion. Zelai batera irten, eta emen igurikan geratu zan. Zorionezko zauskadak atzitu zuan... Bere endako ar bikain bat urbiltzen zitzaion...

Zenbait egunez iñoizkorik zoriontsuen izan zan, eta gero zorionaren egarria jabalduta, bakoitza bere aldetik banandu zan. Eta ez-arian ez-arian, beiñola Uzi bere barutian aurkitu zan. Orain ordea, gauzak ez ziran leen bezelakoak. Amets gozoak esnarazten zizkion zerbaite, erraieran igitzen asia bait-zitzaion...

Loreilla'ren illunabar arantz batean, eragin ezkutu bateri men egiñez, Bordazaar'eko bidea artu zuan. Iritxi orduko, eguzkia iltzeko zorian zan. Unetxo batez arresia aztertu ondoren, ibillera irmoz zirritu bereizi batean barna itzuri zan.

Zirritua, ama ta beste kumeekin basetxe artako oillategira azkenengoz bideratu zaneko kabia zan. Oroldio ta iñaurkiñezko oatzeak aspaldiko egun artan bezela zira-
rauan. Gero, sarreran etzanda, gau gardenean zerutik di-
lindan bezela agertzen zitzaizkion urrutiko ipurtargi aiei
begira ta begira geratu zan...

Bai, izarrek lagundurik, bera jaio izan zan ezkutu-
nean, bere kumeak ere munduratuko ziran.

Eta bere garaiaren begira, lokuma batek artu zuan...

Kizka, azkonarra

Goizalde artan, Kizka, Goienetxe inguruko azkonarra, mendian gora iradu gaberik abiatu zan. Egoalderantz jarrita zuan lurpeko bere gordelekura, poz-pozik biurtzen zan egunsentia baiño leen.

Gau artan, arazoak ongi samar joan zitzaizkion. Gauerdia gabe, grisol gozoak eta jarraiki irabelarraren erro samurrak idoro aal izan zituan. Gero, zenbait orduz or-emenka alderrai ibillia zan, azkurri geiago idorotzeko asmoz, eta azkenean goizabar aurretik, gaztaiñadi bateko arru sakonean, morkotsetatik jalgita, gaztain-pillo gozoa orbelpean aurkitu zuan..

Aspaldi zan azkenengo gaztaiñak jan izan zituanetik, eta berarentzat onenatariko janaria ziran gaztain aiek topo egitean, arin eta irrikan irentsi zituan. Gero, goizaldea gabe kabirantz abiatzen zalarik, ustekabez, zuloan biribilkatuta lotan zetzan sugaeren usaiña etorri zitzaion.

Kizka'k sugaeren gordelekua laister idoro zuan. Arte baten ondoko orbela sakabanatu, atzapar indartsuez lurra aitzurkatu, eta ara non agertu zitzaion erdi-lotan zegoan narraztia. Gertatzen zana oartu aurretik, ozkada batez sugeari burua moztu, eta atsegiñez gaiñezka jan zuan. Gau artako janariarentzat ezin mai-azken gozoagorik.

Olan bada, ibillera lasaiatz eta bere buruaz txit pozik, goizalde artan kabira abiatu zan. Urreratzen zala, goizabarraren aurreneko argiek bere soiñaren isla ta egitura agirian jartzen zituzten.

Zortzi bat urteko azkonar lodikote ta sendoa zan. Adin ortara iritxi izan zan, bere zuurtasunari esker, eta gizasemeengandik aalik eta urrunen bizi izaten zalako. Egunez ezkutunean etzanda, gaua asten zanean soillik iriteten zan janari-billa. Ba-zituan gizasemeekin bere gora-beerak izan, eta augaitik noski, aien beldur zan.

Goikaldean beltz-arreak eta saietsean zurixkagoak ziran zurda biguiñez apaindua zan. Zerbait zorrotza zan musturretik, begi ta belarrien gora edatzen ziran ille zurizko zerrenda bi nabari zituan. Begi txiki sarkorrek eta entzumen zorrotzeko belarriek, laguntza aundia ematen zioten, gau-eizaldian batez ere. Atzapar indartsuekaz ornitutako anak, lurrean zulo sakonak aisa egiteko gai ziran. Musturretik buztaneraño larogei bat zentimetrokoa izango zan.

Kabia edo gordelekua, egoarantz zuzendutako egi piku batean zegoan. Kabira irixteko, zulo luzeetako naasmaas biurria zearkatu bear izaten zuan. Bere bizitzan zear, Kizka'k gizasemeekin eta auen zakurrekin ba-zituan artu-emanak izan, eta irabazitako ikaspenak beartu izan zuan, kabi-inguruan zulo luze naasiak egitera.

Bost sarrera ezberdiñak bata bestetik urrun samar, baiñan txaraka betean ongi ostenduak sakabanatzen ziran. Barnetik, sarrera guztiak zulo luze naaspillen bidez elkartuak ziran, eta azkonarrak geienetan sarrera bat soillik erabiltzen bazuan ere, galtzori-susmoren bat aurkezé ten zanean, beste zuloak erabil zitzaken.

Goizalde artan, izandako janariagaitik aldarterik oneanean, Kizka bere oiko zulotik barrendu zan. Zear-bideetatik sakondu-ala, giroa gero ta epelagoa biurtzen zan. Ustekabez, bide-sare artako biurgunea igarorik, zur eta lur eginda aizeari usainka gelditu zan, kurrinka aserrekoa jaulkitzen zuala.



Kizka, azkonarra, olde aldakorrekoa zan, eta leengo alaitasuna aserre bizi biurtu zitzaion. Ain zuzen ere, Kizka'ren sumiña bidezkoa zan, bere usainmenak azeri baten urbiltasun gorrotogarria adierazten bai zion...

Bere bizitza luzean zear, azeriekin ba-zituan amaika goraébeera izan, eta ain zuzen ere, gauzak ez ziran beti Kizka'ren aukeran gertatu. Orregaitik, azkonarrak azeriari gero-ta gorroto aundiagoa zion. Au zala-ta, Kizka sumiñez orruka, zear-bide batetik aurrera oldartu zan. Azkenez, ongi ezagututako naas-maas artatik azeriari usaiña artuz, bere etzangelara iritxi zan.

Kizka'ren etzangela, sarreratik zuzenean amabi metrora inguru zetzan, baiñan zulo-sare artatik ogei ta bost metroko bidea egin bear izaten zuan. Etzangelara ozta-ozta iritxita, kurrinka aserrekoaia jaulkitzen zualarik gelditu zan.

Oroldioz eta belar biguiñez egindako oatze erosotik, erdiz ertsitako azeriaren begi pindartsuek txingarrak bai'liran begizatzen zuten. Illuntasuna aundia bazan ere, Kizka'k ba-zezaken azeriaren isla ezabatsua ikusi, illunpean bizi izateak eta eiztatzeak artaratu izan zutelako.

Baiñan azeria ere illunpean bizi izateari oitua zan, eta Kizka'k aserre bizian eraso zionean, tximista alakoa zulo batetik itzuri zan. Azeriaren usaiñak zuzenduta, azkonarra aren atzetik oldartu, eta orduan bere biziko jazarpena gertatu zan.

Azeria baiño aundiagoa ta indartsuagoa izanez gaiñera, Kizka'k obeki ezagutzen zituan bere gordelekuaren gora-beerak, baiñan azkonarra baiño arin ta malguagoa zan ezkeru, arrotzak gaiña zeraman. Bere etxean izanik baiñan, Kizka'k ez zion iñola ere lotsagabe aren uxatzeari uko egingo, eta amorruz irakiten, azeriaren atzetik nekatzeke joian.

Bazekian azeriak, aietako zulo-bideren batean azkonarrak artu ba'leza, bere burua oso gaizki ikusiko zukela, eta orregaitik aurrean beti irteera bat izatearren saiatzen zan. Azkonarrak zenbait aldiz azeria kanpora irtenerazi izan zuan, baiñan pizti barrabasa beste zulo batetik be-reala sartzen zan.

Ain zuzen ere, azeriak ba-zituan zioak azkonarraren gordelekua bereganatzekor Aste betea zan, amilduriko enbor zaar batean izandako neguko kabi epeletik, eiztari batzuk uxatua izan zanetik, eta beraren billa berriz ere etorriko litzaizkiola suzmo batek jota, beste kabi bat topatzea erabaki izan zuan. Astea igaro ondoren, eta or-emenka alperrik ibiltzeaz zearo aspertuta, noizbait Kizka azkonarraren bizilekua topo egin zuan. Gordelekua atsegin izan zitzaion ezker, nai-ta-ez berarentzat artzea erabaki zuan.

Ba-zekian azkonarrak, pizti arek bere gordelekuari ekar zezaioken arriskua, eta orregaitik azeriaren jazarpenari ez zion eten egiten. Ez-arian, baiñan, Kizka nekatzan asi zan, eta azkenez, azeria goiko zear-bidean babestu zalarik, ezin bestean, jazarpenari uko egin zion, bere buruari zesaiola, enparauko tokiak bakean uztekotan, azeriaren urruneko egotea jasango zukela. Orduan, bere buruarekiko pakean, eta leengo aldartea irabazita, Kizka, azkonarra, oroldioz eta belar biguiñez egindako oatzean, lo egiteko kokatu zan.

Olan bada, itz gabeko ituna bete izan zan. Azeriak beretutako goiko zulo-bidea izan ezik, azkonarrak berarentzat bizilekuaren geiena gorde zuan, bakoitzak bere oldeari zegokion bizierari ematen ziola, elkargandik ezer gutxi ere jakin gabe.

Leen esanda bezela, azkonarraren bizilekuak ego-alderantz bost sarrera zituan, baiñan bazan beste zulo ezkutua mendixkako iparraldera zuzenduta. Seigarren zulo

au, Kizka'k berak aspalditik itxi izan zuan, ez bai-zitzaion eder iparralderantz zuzendutako zuloa, aize-laister otzez gaiñera, arrotzen arriskua ugarituko litzakelako. Au zalata, seigarren sarrerak aspalditik ertsita zirauan.

Azkenengo sarrera onen zergaitia jakingarria da alegia. Ona emen nola gertatu zan...

Iru urte leenago jaso zan, bost urteko azkonar sendoa zalarik. Udaberria guztiz idorra izan zan, eta Kizka'ri oso zailla zitzaion oiko sustrai biguiñak aurkitzea, baita barakuillo, ar, mozorro ta igelak ere. Irauteko beraz, janaria beste nonbait billatu bear, eta bere kabitik oi baiño urrutiago eiztatzea erabaki zuan.

Olan bada, Uztailla'ko gau illun batean, urbillen zeztan auzorantz abiatu, eta aalik ezkutuen ibilliz, Goienetxe basetxera urbildu zan. Basoko mugan, etxaguntza onek ba-zuan okarandegi ederra. Urre antzoko okaran gozoak, gau artan saski baten erdiraiño metaturik zuden. Goienetxe'ko etxekojaunak, antza, ez zuan illunabar artan astirik izan saskia betetzeko, eta biaramonean osotuko zualakoan, saskia erdi bete okaran, sarrerako langaren ondoan geratu zan.

Mendian beera joiala, Kizka'ren usainmen sarkorraiño, okaranen atson berdingabea eldu zan. Ibillera arintzen zuala, gurdibide batera sartu, eta andik laister langa-ondoko saskia ikusi zuan, gaua txit illuna bazan ere. Saskia garbiro islatua nabaitzen zan, eta buru-belarri okaranen jateari eman zion, atsegiñezko kurrinka itoak jaulkitzen zitularik.

Olan bada, ezur eta guzti irentsiz, luzaro gabe danak garbitu zituan. Gero, musturrak milikatuz, okarandegian zear osteratxo bat egin zuan, zugaitzetatik lurrera jalgitakoez jabetzen zalarik.

Urrengo illuntzean, aurregunean izandako asebe-teak, beste ikerraldi bat egitera eragin zion, eta okaranak aurretiaz ago-sapaian txastatzen zituala, mendian beera Goienetxe baserrirantz abiatu zan.

Langara irixteko zorian zala, ustekabez, usain bereieé zi batek geldi-erazi zuan. Gizaseme batena zan, alegia, eta izu bakanaz jabetuta, gelditu zan. Ezin zezaken langa-ondoko sasien artetik ikusi, baiñan une artan, alboan eiza-zakur urduria zuala, etxejojaunak ikusi zuan, eta ozta-ozta illuntasunean igartzen ziran Kizka'ren aurpegiko zeé rrenda zurixkak zizpapean arturik, Goienetxe'ko nagusia danbada egiteko gertatu zan.

Une berean baiñan, beldurrezko zirrara batek iñarro-sita, Kizka'k atzera egin zuan. Berealakoan, danbada bi zabaldu ziran. Min eta izuz jabetutako Kizka, sasiz estalitako sastraka batetik urrundu zan, atzetik zaunka bizietan zakurrak zerraikiola.

Zakurra baiñan, ezin ziteken gauaz eta toki biurri artatik, azkonarrarekin neurtu. Gaiñera, ugazabagandik urrunago ta adore gutxiago. Onela bada, azkenean bel-dur bakanaz jabetuta, jazarpenari uko egin zion, eta etxejojaunagana biurtzen zalarik, zaunka zaratatsuen bi-dez menperatzen zuan aserre bizia adierazi zuan.

Ago bete agiriakaz utzitako Goienetxe'ko nagusia, aldarte illunean etxera biurtu zan. Bidean beera zioala, bere buruari zin egin zion, nola edo ala azkonar lapur arek, merezitakoa artuko zuala, bai orixe...!

Urrengo egunean goizean goizik, Goienetxe'ko etxe-jojaunak, zakurrari langa-ondoko azkonarraren aztarnak usaiñerazi zizkion, eta jarraian, aien atzetik mendian go-ra jo zuten. Ordu bete ta erdi igarorik, izerdi patsetan eta arnas-estuka, noizbait Kizka'ren gordelekuaren aurrean aurkitu ziran, eta tokia gogoan ondo marraztuta, etxejojauna ta zakurra etxera biurtu ziran.

Egun artan, Goienetxe'ko nagusiak auzokoekin batzarra izan zuan, eta arazoa guztiei zegokien ezker, erabakia auxe izan zan: illunabar guztietan, txandaka, base-rritar bana zegozkion zakurrekin, kabi-ondoan zelatan jarriko litzakela gau osoan, eta piztia agertu-ala tirokatuko lukela.

Olan bada, illuntze guztietan goizalderarte, Kizka'ren ezkutunea barrandatu zuten.

Gordelekua utzi baiño leen, azkonarrak sarreratik burua polliki-polliki atera oi zuan, galtzoriren bat izatekotan garaiz oartzearren.

Onela bada, okaranak jan zituaneko biaramonean, illundu baiño ez, burua arreta aundienaz atera zuan. Entzumeneraiño, zelatan zegoen zenbait zakurren atsanka etorri zitzaion, baita gizonaren usain bereizia ere. Beraz, gau artan gordelekutik ez irtetzea erabaki zuan.

Urrengo illunabarrean, gosez beterik eiza-billa abiatzeko zorian zala, berdin, etsaiez inguratuta zegoala oartu zan. Berriro etzategian beste egun bat irten gabe iraun bear izan zuan. Ostera barneratzen zalarik, aserrezko kurrikak jaulkitzen zituan.

Irugarren illunabarrean, sekulako gosez menderaturik, aldamenak begiz aztertzen zituala, aundiagoa egiten zitzaion kezkak menperaturik, egiztatu aal izan zuan, aurrekoan bezela, gizonak eta zakurrek an zirautela.

Goienetxe inguruko auzoan, azkonarrak arrapatzeko zakur bereiziak ez izanik, okaran-zalea barrandan eiztatzea erabaki zuten. Gosearen gosez, piztia irtengo zan, eta orduan zakurren laguntzaz eizatu zezaketen.

Kizka gure azkonarra, baiñan, oso zuurra zan, eta gose gorria jasaten bazuan ere, zentzu bereizi batek zabaldira irtetea eragozten zion. Irugarren aldiz iraupen-se-

nak barnera eragiten zuala, Kizka'ren gosea itzela zan. Gaiñera, aultasunak menderatzen zuan, eta oroldio biguiñez egindako oatzean etzaten zalarik, barruko zentzu batek zerbait egin zezan agintzen zion. Ustekabez, egitekoa argi ta garbi aurkeztu zitzaion. Mendixkako beste alde-rantz, ots, iparralderantz, aitzurrean bide berria zabaldu bear izango zuan...

Orduan, Kizka oatze erosotik jeiki, eta aurreko bi atzaparrekaz, irtenbidea zulatzen asi zan. Ozta-ozta metro bateko bidea aitzurkatu izan zualarik, baiñan, aserrez irakiten oartu zan, ezin zitekela aurrerago joan. Izan ere, aurrean arkaitz sendo batek jarraipena eragozten zion. Onela bada, sumin gorriaren menpe, beste toki batetik zuloa asi bear ízango zukean, leengo metro bateko zulo-bide itsuari uko egiñez.

Bigarrenez aukeratutako bidea egokia billakatu, eta buru-belarri lanari lotu zan. Aurrera ekiten zuala baiñan, oztopo aundia aurkeztu zitzaion. Kendutako lurra beste nonbait sartzeko bearra, alegia. Zorionez, Kizka'ren gela zabala zan, eta aurreko atzaparrekaz kendutako lurra, gibelerantz ibilliz, atzekoekaz lo-gelara botatzen zuan... Bost orduz onela jardun ondoren, noizbait guztiz auldua lanari eten egiñez, lotara joan zanr

Zenbait ordu igaro ziran, eta itzarrita, lanari berriro ekin zion. Orain baiñan, ez zan leen baizen arin jarduten, txit aul aurkitzen zan-ta. Atsedendaldia ugariak egín bear izan zituan, baiñan bidea etengabe luzatzen ari zan. Alako batean, nekearen-nekez kordegabe amildu zan. Bere einera etorri zanean, lurrari usain bereizia zerion... eta pozez gaiñezka, arte baten sustraiak inguratua zala, oartu zan. Andik laister zulo batean zear izarren argi dardartiak agur egin zion.

Izan ere, aitzurketan bi egun igaroak ziran, eta epe onetan berrogei ta amar metroko zear-zuloa atzean uz-

ten zuan. Zorionez, gau artan ar ugari ta sustrai gozoak aurkitu aal izan zituan, eta mai-azken gozotzat, arri-meta baten artean, barakuillo-andana ugaria ere bai. Goizalde gabe, betiko azkonar indartsua zala, gordelekura biurtuta, oatzean etzanda lo atsedengarriak artu zuan.

Eta onela, egoaldeko zuloen inguruan gizonak eta zakurrak barrandan jarriak zirala, iparraldeko irteera beé rritik Kizka'k iñoren susmorik gabe, oiko azkurri-billaé tzeari ematen zion. Egunak igaro ta azkonarra azaldu ez, Goienetxe'ko nagusia, onen auzokoak eta zakurrak aspertu egin ziran, eta noizbait nai-ta-ez, azkonarraren arrapatzeari uko egin bear izan zioten. Azkenengoz etxera biurtu ziralarik, Goienetxe'ko nagusiak bere buruari galde egiten zion, bere zakurrak azkonarraren benetako aztarnei jarraitu izan ote zien...

Andik zenbait egunera, Kizka'k bere betiko bizierari eman zion. Orain baiñan, iparreko irteera ez zan ezertarako gauza, eta gaiñera, iparbeltzak putz egiten zuanean, aizeélaister ez-egokiak sortzen ziran ezkerro, Kizka'k iparreko irteera lurraz ertsi zuan.

Au guztia, azeriak bere bizilekuan geratzea erabaki zuaneko iru urte leenago gertatu izan zan. Orain axe bere etxea bai'litzan, azeriak jaun eta jabe zirauan. Bein edo beste, sarraldi-irtenaldietan, azkonarrak eta azeriak elkar topo egiten zuten. Orduan, sumin basatiz irakiten, Kizka'k maister lepotarra etxetik-at botatzeko gurari bizia oartzen zuan. Tamalez, azeria bera baiño askozaz ariña-goa zan, eta besterik gabe etsi bear...

Udaleena txit idorra gertatu zan. Kizka'ri ain gogoak zitzaizkion grisolak eta baso-landareen sustrai samur gozoak. zimeldu ziran, eta oiko janari urtsua, idoietako inguruetan billatu bear izan zuan. Idoietako landareak baiñan, ez zitzaizkion eder, eta beeko ibarrera jeixtea otu zitzaion.

Onela bada, aspaldiz ez erabillitako zidor eta gurdibideen gaindi, lur apalagoen billa bideratu zan. Onetaraxe bada, gau batean igarri gabe Goienetxe'ko etxaguntzaren aurrean aurkitu zan. Beldur bakan batek jabetzen zuan, eta ixil-ixillik, polliki, etxe-inguruko soloetatik barrendu zan.

Alako batean, lurpetik zetorkion usain gozoak geldierazi zuan. Arbi-gorrien atson gozoa zan, eta zirikaldiri aurre egin eziñik, atzaparkatuz lurra kendu, ta iresteari eman zion. Neurrigabeko asebeta gertatu zan, eta goizaldea gabe, atzean baratza zearo ondatuta utzirik, mendian gora bere gordelekurantz abiatu zan.

Urrengo goizean, Goienetxe'ko nagusiak bere soloan izandako ondapena egiztatu zuanean, sumiñez irakiten bere bururari zin egin zion, gaizkillleari merezitakoa emango ziola.

Eiza-zakurra katetik askatu, eta usain-erazi zizkion azkonarrak berrikitan utzitako aztarnak. Tximista baizen azkar, zakurra mendian gora abiatu, eta andik bi ordura, aspaldian ezaguturiko Kizka'ren gordelekura eldu ziran.

- Azkonar madarikatua --agopean jaulki zuan etxeko jaunak--, i aiz ondapenaren egille maltzurra, baiñan oraingo ontan, ziñez, arrapatuko aut, bai orixe, alajaié ña...!

Besterik gabe, Goienetxe'ko nagusiak etxerako bide artu zuan, eta aalik ariñen urrundu zan.

Urrengo egunean, berak ongi ezaguturiko beste aué zoko lagun batengana jo zuan. Lagun onek bazituan azé konarraren eizarako iru zakur oituak. Urrengo igandé goizean, zakurrekin azkonarraren eizari ekingo ziotela, erabaki zuten.

Iru zakur onak ez-aundiak ziran. "Bat" eta "Lau" enda naasitako eiza-zakur arruntak. "Gorri" zeritzan iruga-

rena, ostera, gain-gaiñeko abere zolia zan. Azkonar eta azeri-eizarako zakur artaratuak. Azkenengo aldietan, azé konar gutxi ta azeri asko izanik baiñan, bigarren auek eizatzer a oituagoak ziran.

Onela bada, baserritarrek jarraitutako "Bat", "Lau" ta "Gorri", mendian gora igo ziran. Luzaro gabe, Gorri'k Kizka'ren aztarnak usaindu zituan, baita andik laister azeri batenak ere. Era ontan, noiz azkonarraren noiz azeriaren aztarnak artzen zituztela, muiñoko gordelekura iritxi ziran.

Ona eldutakoan, sarrerako zuloen ondoan jarriak, eiztariak zizpa gertatu, eta barrandan asi ziran. Iru zakurrak tximistak bai' liran, gordelekura sartu ziran, eta illuné tasunean aztarnen jarraitzeari ekin zioten. Ezin zitezken baiñan, nai bezenbat arin joan, illunpeko eizatzeak eragozpen ugariak zituan-eta. Alabaiñan beuren usainmen sarkorrek azkonarragana artez-arte zeramazkian, eta onela zaunka egiteari utzi gabe, naas-maas artatik barrendu ziran.

Goiz artako pakean, bere oatze biguiñean etzanda zegoala, zakurren zaunka urruntsuek Kizka iratzarri zuten. Gero, gordelekuan sartu ziran, zaunken iskanbilla ozenago biurtu zan. Iñolako sentipen izugarriaren menpe, zer egin ez zekiala, azkonarra ezpaitsu geratu zan.

Andik laister, zear-zulo batetik Kizka'ren gelan Lau zeritzan zakurra sartu zan. Azkonarraren urretasuna oartu zuanean, zaunka bizietan oldartu zitzaion. Iraupen-senak iges egin zezan agindu zion, eta ongi ezagututako bide-sare artatik, azkonarra aalik ariñen barrendu zan. Azkonarra baiñan, ez zan zakurrak baizen ariña, ta azkenez, Lau'k zango batean usigi egin zion...

Ozka oartzean, Kizka'ren izua aserre biurtu zan, eta kurrinkak jaulkitzen zituala gelditu zan, atzeko atzaparrak



erabilliz. Ustekabez, zakurra, mustur betean erpekada bat artuta, miñez aiurika gelditu zan, Kizka alboko zear-zulo batetik urruntzen zitzaiolarik.

Alako batean, zulo batetik zioala, Bat topo egin zuan, eta atzera agiñez, goikaldeko zear-zuloetara abiatu zan. Onela bada, noiz alde batera noiz bestera, aintziña egindako zulo itsuaren aurrean aurkitu zan. Zulo-bide artako alde bakoitzetik, zakur bana zetorkion. Orduan, iraupensenak aginduta, jauzi egin eta mutur itsuan kukuldu zan.

Baita garaiz ezkutatu ere, une artan bertan bide-erdian zulo itxuaren aurrean zakur biak elkartu baiéziran, eta zer egin ez zekitela, unetxo batez noragabe gelditu ziran. Andik bertatik, gora ematen zuan beste zear-zulo aldapatsua asten zan.

Zakur biek bide-gurutzea zeatz usnatu zuten. Zulo itsuari bazerion azkonarraren usaiña. Orraitiño, goikalderantz zuzenduta zegoanari ere, ba-zerion baita garbiago ere, maizago erabillia bai-zan...

Zulo itsuan kukurio jarrita, soiña zauskada bakanaz darédar, Kizka bere bizitzaren azkenengo burruka egiteko gertatzen zan. Atzean arkaitza zuala, erasoaren igurikan zegoan. Aurreko erpe indartsuekaz eriotzaraiño jarki zitekean, eta leengo ikara sumin basatiaz ordeztua izan zan.

Alako batean, Gorri'k goikaldera eramaten zuan bidea aukeratu, eta Bat'ek jarraitzen ziola, aalik ariñen zaunka bizietan urrundu zan. Epe laburreko izango zan noski, goiko zulo-bideetan ezer ez idorotzekotan, berriro itzuliko bai-ziran, eta orduan azkonarra ez zan onik irten-go

Ustakabez, Gorri'ren sudurrak azeri baten usaiña artu zuan, eta pozezko zaunka bizia jaulkiz, onen jarraian

oldartu zan. Gorri, azeriaren jarraipenari txit oitua zan, eta izan ere, ez zan ain zoriontsua biurtuko zukean beste eizarik. Onela bada, Bat jarraitzaille zuala, Gorri oraintsu artutako aztarnen atzetik oldartu zan, naas-maas artan ez-arian ez-arian goikaldera urbiltzen zalarik.

Aspaldi zan azeria itzarririk zegoala: kanpoan zakurren leenengo zaunkak aditu izan ziranetik, alegia. Leendabizi ez zan geiegi larritu izan, ongi bai-zekian azkonarra somatuko zutela lenen. Baiñan uneak igarotzen ziran giñoan, kezka batek gero-ta larriago menperatzen zuan. Alako batean, aztarnak lenengoz aurkitu zituaneko Gorri'ren zaunka aditurik, izu aundiz atzituta, irteerantz bideratu zan. Ain zuzen ere, lekoreko zabaldian bizitzaren alde ekitea naiago zuan, eta iges egiteko gertatu zan.

Une artantxe zalaparta bizian, zakurrak gorengo zear-zulotik barneratuta, beste muturrean somatzen zuten azeriaren aurka oldartu ziran...

Gar bizi alakoa, azeriaren irudi malgua urbil samar zegoan txarakara zuzendu zan. Baiñan onen babesari iritxi aurretik, danbada batzuk zabaldu ziran, eta txarakaren aterpera gabe, azeriari atzeko zango bat zaurituta gertatu zitzaion. Orain, atzetik iru zakurrek erasoten ziotela, azeria ariñeketa bizian zioan. Alabaiñan artutako zauriak epaituta zan, eta andik laister zakurrek inguratu zuten, eta lepo-gaiñetik artuta, Gorri'k ozka indartsu batez il egin zuan.

Azeriaren gorpua zintzillika zeramatela, zakurrek jarraituriko Goienetxe'ko nagusia ta bere laguna, poz-pozik mendian beera abiatu ziran. Gau artan etxeko atadian, oeratu baiño leen kebelar erretzeari ematen ziolarik, etxekojaunak bere buruari galdetzen zion, nola zitekean azeriari arbi-gorriak atsegin izatea... Alabaiñan azeriari dagozkion arazoetan batek ba'daki...! Ta bizkarrak uzkurtuz, etxekojauna mutxikiña bota, ta oera joan zan...

Gau artantxe, Kizka ez zan ausartu gordelekuetik kanpora irteten, eta oatzean zetzala, bere buruari zin egin zion, aurrerantzean ez zala iñola ere, gizonen bizilekue-tara urbilduko. Alabaiñan, azkonarrak olde aldakorrekoak dira, eta ezin auengan uste osoa jarrirr.!

Eta zergaitia somatzeke, lagun lepotarrik gabe, bere gordelekuan jaun eta jabe bakarra billakatu zan ostera. Kizka'k ez luke iñoiz jakingo. bizia azeri lepotar bateri zor ziola...

Urte artako udaldia ba-joian aurrera. Gau gardeneé tan, Kizka'ri eder zitzaion baso-unetan zear eizan jardutear Orduan, izadi guztia bizi-miñaz pil-pil non-nai iragartzen zan. Azkonarrak orduan azkurria erruz idorotzen zuan, eta mizkiña ez izanik, jangai guztietatik iresteko beti gerturik aurkitzen zan. Onela bada, Kizka idoro-ala sustrai, ar, suge, momorro, barakuillo, sagu ta satorrez elikatzen zan. Auentzat batez ere txit zaletua zan.

Sator-pilloen usaiñak erakarrita, oiko lur-metaren bat ikustean, aurreko atzaparrakaz aitzurkatu, eta zetorkion usaiñaren arabera, ba-zekian satorra urbil ala urrun aurkitzen ote zan. Urrun izatekotan, eizari uko egiten zion, baiñan urbil izanik, zuloari jarraitu, eta andik laister arrapatu oi zuan. Satorkia samurra ta gozoa zan benetan, saguena baiño askozaz atsegiñagoa, baiñan besterik ezean oneri ere ez zion muziñik egiten.

Igelak ere asko atsegin ziztzaizkion, eta auen maitasun-aroan jaulkitako kro-kroek, Kizka urrundik erakaritzen zuten, eta barrandan jarrita, putzuen ertzetan agertzen ziraneri erasoten zien. Igelak baiñan ez ziran arrapagai errezak, eta geienetan uts egiten zuan. Noizean bein ordea, igelen baten arrapaketak jasandako igurikal-dia ordaintzen zion, ago-sapairako mokau bikaiñak ziran-eta.

Uda artako eguraldia baiñan, guztiz oi ez bezelakoa

gertaturik, Dagonilla arras euritsua billakatu zan. Augaitik, landaretza urri ta txarra izanik, Kizka'ren oiko janaria ziran sustraiak, eta landaretzaz elikatzen ziran abereinñoak, peitzen asi zitzaizkion. Irauteko lain izanik ere, arrapagaien atzetik or-emenka beti gose ziarduan.

Baiñan Irailla asi zaneko, eguraldia osoki bestelatu zan. Euriteak eten eginda, ego-aize epelpean, eguzkiaren txirindola goriak oroz gaiñetik diz-dir egiten zuan. Euriteak zabaldian egiñiko kaltea ezin ziteken, ordea, itzetik ortzera atondu, eta orobat Kizka'ren gosea ez zan jabal-tzen.

Beiñola, mendi-beera abiatzen zala, ego-aizearen ats epelak, berri biituriko artoaren usain jarkigaitza ekarri zion. Kizka, usaiñentzako oso oarkorra zan ezker, abagune artan ego-aizeak zekarkionak, joranez pil-pil jarri zuan. Eta zirikal-diari aurka egin eziñik, naiz eta ibiltzeko azkarra ez izan, aalik ariñen malda-beera zuzendu zan.

Txaraka, iradi, baso ta zelaietan gaindi, noizbait gurdibide batera iritxi zan. Lekuari ezaguna zitzaiola antz eman zion. Ain zuzen ere, iru urte leenago bide artatik okaranak arrapatzearren joana zan, baita leengo udaberrian arbi-gorri gozoak iresteko ere. Berantetsia, aurre-joranaz eraginda, zuurtasunari jaramonik egiteke, aalik ixillen, gurdien gurrillek sakondutako bide-ertzetik, itzal narrastari alakoa jarraitu zuan.

Goienetxe'ra iritxi zanean, egurats garden pake-tsuan, illargiak zabaldia ta etxea zurizkatzen zituan. Etxegibelean, arto-solo zabala maldaégora edatzen zan, eta onen goikaldetik etengabeko jateari eman zion.

Azkonarraren oitura zan, mandian idorotako urretx, gurbitz eta basaranak bereganatzea. Orretarako ez zuan beste biderik, azpikaldea ortzakaz marraskatzea baiño, eta ondoskoa lurreratzen zanean, onen aleak jan oi zituan. Errez amillerazi zitzaiken artalastoak bere gorputza-

ren indar soillaz, baiñan bestera oituta, Kizka'k auek ere mendiko zugazñoak bai'lanan erabilli zituan, ots, enborra azpikaldetik ozkatu, artoak banan-banan lurreratzeke.

Artaburuak erori-ala, azala kendu, ta berriki eratutako ale samur esnetsuak irrikan iresten zituan. Ez zion lanari eten egiten, eta banan-banan artaburu mardulak suntzitzen ziran. Alako batean, eta asetzeko zorian zalarik, ertzeke artalasto bati ekiten ziola, atzeke zango batez, aintziña an utzitako latontzia zangoaz jo zuan. Egindako otsa ez zan aundi gertatu, baiñan gaueke pakean, Goienetxe'ko zakurraren belarriak artu zuan, eta zaunka bizietan, Kizka zegoan tokira oldartu zan. Aratu zanean, sabel-bete egindako azkonarra, ibillera traketsaz aalik ariñen bidean gora joian.

Zakurrak, urreratu zitzaionean, ozkada batez azkonarri buztaneko zenbait ille erauzi zizkion. Ezustean, Kizka ankaz gora jarri, eta zakur amorratuaren erasoari aurre egitearren, lau atzaparrakaz jarki zan. Arritutako zakurra unetxo batez gelditu zan, baiñan erasoari berriro ekin zion, eta ortzakaz azkonarra zango batetik atzitu zuan. Itsumustuan, tximista alakoa, Kizka'ren erpekada batek sabelpean urradura luze bat egin zion. Zakurra, miñez uluka, erasoari eten egin, eta parrastaka zerion odol la lur-gaiñean ixuriz, Goienetxe'ko atadian babestu zan.

Urrengo goizean, etxejojaunak zakurraren zauriak aalik ongien sendatuta gero, bere arto-soloan egindako kaltea egiztatu zuan. Leenengo begiraldia egin baiño ez, azkonar baten ekintza zala oartu zan. Artaburuetan laurdena ondatua izan zan, baiñan benetan mindu zuana, bere zakur zintzoa gaizki zaurituta, sukarpean txoko batean etzanik ikustea izan zan. Etxaurretik goiko arkaitzei so egiten ziola, bein eta berriz, itzok irten zitzaizkion:

- Azkonar madarikatu ori, arrapatuko aut, bai orixe...!

Egun artan bertan, auzoko baten zakurrari artalastoak usaiñerazi, eta aztarnen atzetik uiatu zuten. Eiza-zakur ernaia, azkonarrak utzitako aztarnei laister lotu zitzaaien, eta andik ordu bete ta erdira, irugarren aldiz, Kizka'ren gordelekuaren ondoan aurkitu ziran.

Mendian beera biurtzen zirala, Goienetxe'ko etxekojaunak eta auzoko lagunak, elkarrizketa luzeari eman zioten, autua zalarik, zein izango zan biderik egokiena azkonar maltzurra arrapatzeko. Goienetxe'koak ezin zezaken burutik ken, aurreko ekintzetan gertatutakoa, eta beste eginbideren bat erabiltzeko zala, erabaki zuan. Zein baiñan?

Goienetxe'ko nagusiak, urrengo egunetan arazoari jaramon aundia eman zion, eta auzia nola garbitzea berekiko ziardun bein batean, irtenbidea ustekabez otu zitzaion. Ba-ziran zenbait egun, ego-aizeak etengabe putz egiten zuala, ta kinka onek oztopoaren giltza eman zion.

Urrengo egunean, barazkiak salduta erritik etxera biurtzean, Goienetxe'ko etxekojaunak beste gaien artean, pardela bete sufre zekarren. Bazuan eginbidea ondo ausnartuta, azkonar barrabasa bein betiko garbitzeko. Gau artan apaldu ondoren, arreta aundienaz sufreárriak mailluka birrindu zituan, eta oialezko zizku batean sartuta, lotara joan zan.

Biamonean, egunsentia agertu baiño ez, etxekojaunak egiztatu zuan, ego-aizeko giroak irauten zuala. Orduan, berrikitan sendatutako zakurra laguntzaille zuala, mendian gora azkonarraren gordelekurantz abiatu zan. Iraduz gabe joian, azkonarrarentzat azkenengo eguna izan zitekeala, berekautan ausnartzen zuala. Eta apentzako gogoetan murgildurik, noizbait Kizka'ren *ezkutune-aurrean* aurkitu zan.

Ez larritu, Kirru --zakurrari esan zion-- gaurko on-

tan azkonar maltzur orrek ez dik kalterik egingo. Ez, alajaiña...!

Jarraiki, Kirru laguntzaille zuala, bein eta berriz zulo guztiak egiztatu zituan. Bost ziran. Egoéaize indartsua zuloetatik sartzen zan, barnerantz edatzen ziran naasi-bideak zearkatuz. Orduan, besoa aalik eta sakonen luzatuz, zenbait eskukada sufre zulo bakoitzean sartu zituan. Gero, sufre-meta bakoitzari su eman, arri baten gaiñean eseri, eta zizpa iztarren gaiñean jarrita, zigarro baten erretzeari eman zion.

Etxekojaunaren pentsabidea auxe zan: erdi-itotako azkonarra zuloren batetik irteteen, zizpaz ii egingo zukeala. Irten ezean, onek adieraziko ziokean, barnean itota geratu zala.

Astiro-astiro, aizearen eragiñez, sufrearen lurrin ilkoérra zear-zulo guztietatik barneratzen zan...

Oiko belar eta oroldiozko oatze erosoan, Kizka lotan zegoan, aurreko gauean arrapatutako janari gozoaren egosketa lasaiari ematen ziola. Bapatean, usainmen sarkorrean sufrearen lurriña sartu zitzaion. Erabatean itzარი, eta adi-adi jarri zan. Lurrin ilkorra gerota sarkorrigo biurtzen zan, Kizka'ri izua larriagotzen zitzaiola. Alako batean, jagi, ta sen ezkutu batek bultzatuta, zuloébideetako naas-maasetik, irteeraren billa abiatu zan. Alabaiñan, irteerago ta itoago aurkitzen zan ezkerero, atzera egin bear izan zuan, beste irtenbidearen billa. Baiña leen bezelaxe, asmoa ustel billakatu, eta zoro baten antzera oréemenka aalik ariñen asi zan, larritasun utsaz kurrinka ozenak jaulkitzen zituala.

Lekorean, etxekojaunak azkonarraren itotasun-kurrinkak aditu zituan, eta ernai jartzen zalarik, zizpari goégorrigo eutsi zion.

Kizka itotzer aurkitzen zan jadanik, sen basatiak iges

egitera eragiten ziola. Iges egin... iges egin... nora baiñan? Itsumustuan, iru urte leenago gosetik iges egitearren, aitzurkatu zuan iparraldeko zulo-bidea burura etorri zitzaion. Bide orren irteera ertsita izan arren, itxaropen bakarra zan. Eztul bizitan, iparraldeko zulorantz zuzendu zan, eta bide au erabilli ez izanik ere, noizbait idoro zuan.

Aalik ariñen aintziñako bideari ekin zion, itotzer oartzen zala. Barneratuéala, giroa garbiago biurtzen asirik, mutur itsura iritxi orduko, obeki aurkitzen zan. Unerik galtzeke, lurrezko oztopoari atzaparrakaz eraso zion, eta noizbait, argi-unetxo bat ikusi... ta eguerdiko argi betean aurkitu zan. Lekorera irtenda, aize garbiak laztantzen zuala ta arnasa baretzen zitzaiola, an bertan gelditu zan.

Mendizkako beste aldean, Goienetxe'ko nagusiak barrandari zirauan. Ordu bete bat igaro izan zan azkonarraren kurrinka etsiak azkenengoz aditu zituala. Enurarik gabe, bere etxaldeko ondatzaillea il izan zan... Eta oldozkun onek bizkortuta, zakurrari dei eginda, mendian beera etxerantz zuzendu zan.

Itopena baretu zitzaionean, Kizka mendian gora joan zan, ezkutuneran bat idorotzeko asmoz. Ez zitzaion eder, eguneko argi betean ibiltea, ikusmena illuntasunari oitu zitzaiolako, eta gaiñera ibillera azkarrekoa ez izanik, larri-larri aurkitzen zan. Orduak igarota, eguzkia gingingan beera makurtzen zalarik, eta berak jadaneko ezkutune ziuerra topatzeko itxaropena galdu zualarik, pago baten enbor zabalean, billatutakoa idoro zuan. Geroago, indarrak irabazi ondoren, eguteraren batean zulo-bidez zearaturiko ezkutune egokia egingo zukean.

Enborreko gordelekuan zenbait egunez iraun zuan, oi bezela gau-arrapaketari emana. Urrez margoturiko udazken eder-ederra billakatu zan, eta aro sorgingarri onek, beragan joranezko zirrara piztu zuan.

Aietariko gau batean, aizea ta lurra usnatuz, mendi-baso-zelaietan gaindi noragabe abiatu zan. Orain *ez* zituán oiko jangaiak billatzen, ez, erakartzen zuana endaren maitasun-deadarra, izadiaren uxa-eziñeko iraupendeia zan. Eta nekagaitz, ozta-ozta janaritzeko geldi-une ariñak egiñez, iru gauetz mendiko bazterrak arakatu zituán. Azkenez, ain leiatsu billaturiko jadetsi zuan. Aizearen besoetan etorritako mezu laztangarria zan.r. Berak ain joranki nai izandakoa nonbait zitxarokion...

Itsu alakoa, aurrera oldartu zan, eta elarrez jantzitaé ko zelai batean, illargi beteak argituta ikusi zuan. Azkonar-eme gazte liraiña zan. Geldi-geldi, Kizka zetorren biderantz so egiñez, ba-zirudian aspalditik Goienetxe'ko azkonarraren zain zegoala.

Elkarganako meitemindurik, amar egunez emearen gordelekuan iraun zuten, eta epe au bukatuta, etorria bezela bien arteko erakarpen bizia joan zitzaien. Orduan, bere olde bakartiari jarraituz, Kizka'k toki artatik alde egin, eta gordeleku baten atontzeari eman zion.

Andik urrun samar, egutera egokia idoro zuan, eta aldamenak baita lurraren gaitasuna aztertu ondoren ontzat emanik, leengo gordelekua aiña naasitako zulo-bideen sarea egin zuan. Zenbait egunen buruan, ezkutunea gertuta, belar eta oroldioz oatze erosoá antolatu, eta otza urreratzen zitzaiola oarturik, negutean irauteko bearezkoa zitzaion azkurriébillatzeári eman zion.

Oraingo egoitza, gizasemearen beldurrez onen bizilekutik guztiz urrunduta zetzan, eta izandako bizikaspenak bide zirala-ta, *ez* litzake iñoiz gizasemeagana urreratuko, bere burua iltzer ikusi nai ez ba'zuan beintzat.

Azkenengo janariébillaketa leiatsu artan, beiñola enbor zaar batean egindako baserlauntza idoro zuan. Bizitzaren zear leenengoz, erletegi baten aurrean zegoan. Zerbaitek esaten zion, barnekoa aztertzeá gauza zala,

eta usain gozo arek erakarrita, enborrari eraso, ta irentsi-ala jan zuan. Eztiaren erdia ostu ondoren jadanik ase, bere gordelekurantz abiatu zan. Izan ere, auxe ízan zan iñoiz jandako azkurrik gozoena, eta bere bururari erraiten zion eztiaren enparaua urrengo gauean irentsiko zukela. Alabaiñan asmo au ez zan bete...

Bidean beera joiala, elurketa lodiak artu zuan, eta gordelekura sartzen zala, lo-gura menperakaitzak garaituta, belar eta oroldioz egindako oatzean etzanda jarri, eta soiña kizkur eginda, neguko loaldi luzean murgildu zan.

Gure Euzkadi'ko zabaldietan orain azkonar gutxi da, baiñan Kizka kementsua bezelakoak ba-dira ala ere zenbait buru, eta aueri esker gure aberrian basabere arrigarrí auek iraungo dute.

Gorria, azeria

Lertegia, Bizkaia ta Gipuzkoa'ko mugatik edatzen zan. Toki batzutan, zugaitzak ederrak ziran eta azpikoa garbi ta ler-osto usaintsuz estalia. Beste lekuetan ordea, lerrak gazteak izanik, sastraka ta sasien naaspil ibilkaitzaren artetik jeikitzen ziran, piztieri ezkutune bikaiña eskeiñiz. Augaitik noski, aspaldi artan azeriak ugaldtu izan ziran.

Lerdoi zaar eta gazteen arteko muga-mugan, aspaldiko gure ariztien ezaugarri antzera, areitz baten enbor urtetsu, igarra, lurlean zetzan. Lerrak sartu ziranetik, an bertan aantzita geratu zan, eta tantai lerdan bikaiña billakatu izanik, enda apaleko lerren artean, erraldoi antzera irauten zuan. Beiñola, ekaitz baten tximistak jo zuan, eta zutik zirauan illotza gertatu zan. Noizbait, gau aizeti bateko putz indartsuak irauli zuan. Gero txingurritegi billakatu zan, eta egorantz begiratzen zuan saietsean, zauri zabalaren antzera, zulo aundia sortu zitzaion.

Loreilla-egun artako eguerdia baiño leen, odei alde rrai baten atzetik, eguzkia agertu, eta areitzaren enborra berotzen asi zan. Zuloko erraietatik, lau azeri-kumeren buruiñoak, bata bestearen atzetik ardura aundiaz agertu ziran... Illabetea ozta-ozta izango zuten. Lau buru txanbeliñak elkaturik, unetxo batez adi-adi geldirik iraun zuten, eta jarraiki lekoreko eguzkitara irtenda, galtzoriaren aztarnarik oartzen ez zanez geroz, jostatzeari eman zioten. Bi ar eta bi eme ziran. Oraindik kume gazteek, larru illuna zuten, azpikaldean zerbait zurizkatzen bazitzaion

ere. Ederrena, Gorria ar bikaiña zan, larruz besteak baiño gorritzagoa. Pirri, bigarren arra, ederra zan ere, alabaiñan ez Gorria baizen aundi ta indartsua, bere olde urduriak bear bezela gizentzea uzten ez ziolako noski. Onek, beti garaille irteteko lei bizia zuan, bai jostaketan, bai janari-banaketan, edo amaren laztan gozoak artzeko leenengoa izatearrenr Gero Alai eme eder xaloa, jolas egiteko beti gertuta, geldirik egon ezin zitekena, berarekin jolas egin zezaten, beste kumeak etengabe zirikatzen zituala.

Azkenez, Urrebegi, taldeko txikiena. Au jaiotzetik geisorik aurkitzen zan. Noizean bein, eztul erlatsak sointxoak astintzen zion. Eztul gutxiko uneetan, pozik eta bizkor azaltzen zan. Besteetan berriz, muzin eta uzkur kumekideen laguntza ta gezurrezko erasoak ezesten zituan, eta txokoren batean etzana, urrezkoak ziruditen begi ederrak erdiz ertsirik, geldi-geldi egoten zan.

Ankamotz eta Alu'ren ondorengoak ziran. Ankamotz... barruti artako jaun eta jabe... bost urteko azeri gorri, bikain, zuurra zan, eta ain zuzen ere, ainbeste leikideren artean errege izateko, egundoko kemena izan bear, kontuan arturik batez ere, aurre-zango bateko erpeak uts egiten ziola. Gertaera onek baiñan edespen bereizia merezi du...

Ba-ziran iru egun zabaldi osoa ibarretaraiño elurpean zetzala. Illuntze artan sastrakatik irtenda, azeri gorri ederra mendian gora abiatu zan. Gosearen-gosez, ikusmena ta entzumena arrapagairen baten billa zorrozten zituan. Gurdibide batera urbiltzen zala, sudurreraiño aragiaren ats erakarkorra iritxi zitzaion. Zugaitzetatik irtetean ikusi zuan..r Bidean, aragi-zatia bere igurikan bezela zegoan. Goseak zoro eginda, ari oldartzeko zorian zala baiñan, barneko oarmenak zuur jokatzera agindu zion, laiño artean bezela, berak bizi izandako gertaera izugarria oroi-menera zetorkiola. Bein batean, zugaitzez mugaturiko ze-



lai batean, bere endako bat arrapagailluan atzituta, illozik ikusi zuan. Ondoan, aragi-puska bat ageri zan...

Au zala-ta, gose gorriak eragiten bazion ere, irrika menperaturik aragi-ingurutik zirurika asi zan, elurraren gaiñaldea usnatu ta aztertuz. Ezer bereizirik oartzen ez zuanez geroz, inguraketak astiroéastiro laburtuz, aragi-zatiari urreratu zitzaion, eta orduan erpe batez puska ukiturik, egiztatu aal izan zuan, loturarik gabe elurégaiñean lerrotzen zala. Gero, arretarik aundienaz usaindu, eta ezer bereizirik oartu ezean, irentsi zuan. Zati txiki arek gosea zorroztu zion, eta irrikan geiagoren billa asi zan. Andik laister, usainmenak beste aragiépuska bateraiño eraman zuan. Leen bezelako inguruketari eman zion, eta azkenez au ere irentsi. Jarraiki, beste zati baten zantzua artu zuan...

Irugarren puska, besteen antzera zetzan, eta leengoa egin ondoren, azkenik, aurreko erpe batez atzitu zuan. Orduantxe, antz eman zion, janaria zerbaitei lotuta zegoala, eta beldur ezkutuak eraginda uzteko zorian zala, karraska bat aditu zan, eta aurreko ezker atzaparra, altzairuzko masail indartsuetan atzituta geratu zitzaion.

Basoko azeri gorri ederra, min izugarripean elurretan iraulkatu zan, aiuri etenak irteten zitzaizkiola, alabaiñan altzairuzko ozka anker artatik igesarik ez... Ebakitako zain bateri odola bor-borka zerion; isurketa onek eta goseak sorturiko aultasunak, kordegabe utzi zuten. Elurrean etzanda, ameskaitzez astindutako lokuma batek artu zuan.

Itzarri zanean, zauriak ez zion miñik egiten, belaunetik erperaiño zangoa soraiotu izan zitzaiolako, baiñan naigabe larriak menperatzen zuan. Gero, mendian beera edatzen ziran lerren adaburuen artetik, illargi eder garbia odeiésoil batetik agertu zan, basoa ta elurra iñolako lilluraz edertzen zituala. Orduan azeri gorri ederrari, lerte-

giaren suzmurra, aize garbia, eiza-laguna zuan illargi ixiltsua, eta ur gardenetako latsaren agur eresintsua, barneraiño sartu zitzaizkion... eta ustekabez, askatasun-egarri neurrigabeak artu zuan... Zoratuta, burua makurtu, eta ortz zorrotzakaz, arrapagailluaren gaiñetik zango-ebakitzeari eman zion. Kirioaren batek eten egiten zuan bakoitzean, pairamena zorrozten zitzaion, baiñan askatasun-egarriak eraginda, zeregin izugarriari gelditzeke ekin zion.

Lau aldiz illargia odeien artetik ostendu zan. Boskarrenez agertu zanean, azkenengo ezur-karraska aditu zan, azeria jarei gertatzen zalarik. Unetxo batez miñarenmiñez aiurika, toki berean igitzeke iraun zuan, eta gero bere einera etorrita, iruoinka leku gorrotagarri artatik urrundu zan, basoan barrentzen zala.

Goizalde-irian, bere ezkutunera eldu, eta indargeturik, sastrakapean zuan arri-arteko zuloan amildu zan. Aurreko atzapar bakarraz orbela alde batera egin, eta odoljarioka ari zitzaion moztutako zangoa, larrekian lurperatu zuan. Zorionez, andik laister elurra asi zan berriro, leen utzitako aztarna odolduak ezabatzen zirala. Gero, sukarrak jabetuta, lokuma batek artu zuan.

Bi egun igarorik, bere einera etorria itzarri zan. Lais-ter illunduko zan, eta iñoizkorik gosetuen, oi zuan eizarako jeiki, eta ezkutunea utzirik, basoan barrendu zan. Ordukotz, zango motzak ez zion miñik eragiten, eta iruoinka sastrakatik irtenda, basora sartu zan. Aalik ariñen zeozer elikatzeke idoro bear izango zuan, bestela, bazterren batean aultasun utsaz betiko suntzituko zitekean. Alabaiñan ereti artan arrigarri bat gertatzeko zan...

Mendian gora, zakurrek lagundutako eiztari batzuk goiz artan erbiketara joan ziran. Ba-zekiten, goiko iratzen erbiren bat idoro zezaketela, eta itxaropenak bultzaututa gorantz jo zuten. Ezin baiñan, goiz oso artan erbiren

aztarnarik topau aal izan, eta bazkaldu ondoren, etxera abiatzeko zirala, ara non elurrean erbi baten oiñatz berriak ikusi zituztela. Zakurrek usaiña laister artu zuten, eta zaunka bizitan erbiaren atzetik oldartu ziran. Ezusé tean, elar baten atzetik tximista alakoa, erbi ederra irten zitzaien. Eiztari batek garaiz ikusi, eta tirokatu zuan. Laister baiñan, elurrean odol-aztarnak uzten zituala, txaraka naasi batean babestu zan. Eiztariak aren atzetik txarakan sartu ziran. Luzaro gabe, naaspil artako sasi ta otadiek aurrera igarotzea galerazi zieten, eta noizbait mutur-utsik. etxerantz bideratu bear izan zuten, laister gautuko bait-zan. Illuntzean, saiets batetik isuritako odoé lagaitik zearo aul, erbia etzanda jarrita, gauleeneko izarrak agertu ziranean, odolustuta il egin zan.

Gau artan, iraupenerako joranak eragindako Anka-motz, basoan zear noragabe zioan. Txit indarge izanez gaiñera, iruoinka ibilli bearragaitik aurreko zango ona nekatzen asi zitzaion, eta noizean bein arranpak jotako, aurreko zangoari atsedena ematearren, geldiuene ugariak egin bear izan zituan. Senaren jabetasuna galtzeko zorrian zan, baiñan basabereek beuren baitan duten zer bereizi batek, aurrera eragiten zuan. Eta onela, lo-ibiltari baten antzera basoan zear joiala, txaraka batetik barren-du zan. Otadiz ugaldutako toki artan txori ta auen kabietan arraultzak arrapatu oi zituan. Txoriren bat lotan izango ote...?

Arranpak artutako anakak, berriro etenaldi bat egitea beartu zion, eta osteria ibiltze zoroari eman zion. Ustekabez, sudurra elurgaiñean jarri, eta geldi-geldi geratu zan. Otz aundia izan arren, odol berriaren oarpenak, senak iratzarri zizkion, eta itxaropen basatiak eraginda, aztarnen atzetik oldartu zan. Luzaro gabe, erbia illotza ikusi zuan, eta aultasun utsaz etzanik, danatzaz aantzita, ireste larri bateri eman zion.

Erobi ederra zan, eta asetu arte jan egin zuan. Jarrai-

ki, enparaua ortzetan artu ta elar baten pean etzanda jarrri zan. Babestune artan ez egoan elurrik, eta orbelaren artean arilduta, lo indargarriak artu zuan. Iru egunez, er-bikia jaten jardun zuan, eta bukatu zuanean, oiko indarren jaube zan. Gaiñera, elurra lurmendu zan, eta orain eiztatzea askozaz errezagoa zan. Baiñan ondikotz...! aurreko zango madarikatua...! iruoinka ibilli bearra benetako oztopoa zan. Alde batetik, ezin arrapagaiei bear beze-la eraso, eta bestetik jauzika ibilli bear izateagaitik, bereala oartua zan. Aspaldi batez, egoera errukarria jasan bear izan zuan, eta gose utsaz, txitxarak, lipuak, kotxor-roak eta abar, jatera beartu izan zan. Ozta-ozta bizirik irauteko lain. Oiko janari gozo ta indargarria, saguak alegia, ezin zitzaken arrapatu, bere ibillera nabarmenak uxatzen zituan-eta.

Alabaiñan Ankamotz zuurtasun eta naimen neurriga-beaz ornitua zan, eta ekiñaren-ekiñez, zango motzaz baliatzen ikasi zuan, zauria orbaindu zitzaionean batez ere. Orretarako baiñan, adimena zorroztu bear, baita oarmenak ernaiagotu ere, ibiltari ixiltsua biurtzen zala, beti aizearen norabidea ustiatuz. Gaizkiena, zugaitzetan gora ezin igo aal izatea zan.

Basoan katagorri asko zan, eta lerren emaitzaz ongi elikatuak, neguan kabietan gorderik zetzatenean arrapatu oi zituan. Zangoaren ezbear-aurretik, enborretan gora ixilka igotzen zan, eta kabi biribilletan erdi-lotan zirala, ustegabetzen zituan. Katagorriak arras gozoak zitzaizkion, eta sagukiaz aspertzen zanean, katagorrien eiza zaillari ekiten zion, naiz-eta askotan arrapaketa ustel irten. Alabaiñan leengo katagorri gozoak, beste arrapagaiaz ordeztu zituan...

Ankamoztu zanetiko zenbait egun igarorik, basotik zioala usainmenak aragi-zati bat zegoan tokira eraman zuan. Gose zan, eta jasadako ezbearra burura zetorkiola, ondoratu gabe so jorantsuz ari begira ta begira geratu

zanr Lur-gaiñean jarei ala amuzkia bezela arte bateri lotuta izango ote? Onela ari zala, aizeak erauzitako adar bat lurrean ikusi zuan. Biziera garratzak akuillatutako Ankamotz, asmamen zorrotzaren jaubea zan alegia. Adarra ikusi baiño ez, burutapen zuurra etorri zitzaion, eta besterik gabe, adaska ortzetan atzitu, eta amuzkira urreratuta, aragi-zatiari atzirrikatu zion. Eztanda bizi batekin orbelak sakabanatzen ziralarik, Ankamotz'ek tramankuluari adi-adi so egin zion, eta gero lasaituta, amuzkia irentsi egin zuan. Gauza berria ikasi zuan, eta andik laister bere onerako ustiatu zezakean.

Ankamotz'i kirikiñoak benetan atsegin zitzaizkion. Bein soillik auen aragitik jan aal izan zuan. Egun batean, ankaren zauria zearo orbaindu ondoren basotik janari-billa joiala, zaartasunak motelduriko entzumen urriagaitik noski, kirikiño urtetsu batek ez zuan azeriaren urbiltasuna garaiz oartu, eta biribil gertatu baiño leen, Ankamotz'ek ustekabez arrapatu ta il egin zuan. Aren aragia benetan atsegiña gertatu zitzaion, eta bere buruari zin egin zion arrapatu-ala jan egingo zukela.

Izan ere, zailla gertatu zitzaion zin egindakoa betetzea, aiengana gabe oartua izanez gaiñera, arantzeko pirla batekin aurkitzen zan. Alabaiñan manturioaren amuzkiaz kalterik gabe jabetzen ikasi zuanetik, gauzak gainbera bestelatu ziran. Arrezkero, leenengo kirikiñoa idoro zuanean, eta onen arroturiko arantzek arrapagai gozoa bereganatzea eragotzi ziotenez, besterik gabe inguruko adar egokia ortzetan eutsi, eta atzirrikatu zuan. Mindutako kirikiñoa noizbait, iges egitearren bere einera eratu zanean, Ankamotz'ek arrapatu ta irentsi zuan. Ordutik, kirikiñoek ez zuten beragandik onik irten aal.

Onela bada, egunen bidean udazkena iritxi, eta onekin batera urrezko sorgindura basoaz jabetu zan. Gero, lo-gura astunak menderatutako kirikiñoak, ez ziran iñondikan azaltzen, beuren ezkutunetan babesturik, neguko

loaldian suntziak ziran-eta... Baiñan jadaneko, Ankaé motz'ek ez zien jaramon aundirik egiten... Arrangura baé kanaren menpe, bere barrutiko mugak bein eta berriz ibilkatzen zituan. Zugaitz eta sastrakaz apainduriko mendi-zati ua berea zan, eta ez zitzakean leikideen urbiltasun eta lapurketarik jasan. Orain jabetzen zuan baso-bazterra, berea zan betiko, eta ez zukean iñola ere, beste ar baten agerpenik onartuko. Bere barrutiak, beste lau sail azeridunekin mugatzen zuan. Lur-zati onen barnean, eme baten izaera aspaldi batez onartu izan zuan, bakoie tzak bere aldetik eizatzeari ematen ziola. Eme au ardura aundienaz aalegintzen zan Ankamotz'en bideetatik urrun izaten. Baiñan beiñola lagun-emea basotik itzuri zan, gizasemeek ilda nonbait, iñoiz ez biurtzeko.

Negua urreratu zanean, Ankamotz'en jokaera bestelatu zan zearo. Illuntzea itzal asperentsuz basoaz jabetzen zalarik, sasi-arteko ezkutunea utzi, eta bere barrutiko mugak, bein eta berriz ikertu oi zituan, onela bere usaiñaz jabetzaren ezaugarriak jartzearren. Txoko ezkutuenetan txis egin oi zuan, ixuritako garnua zedarri antzera izan zedin. Inguruketa auen bitartean, zaunka irrikatsuak jaulkitzen zituan. Birritan jaurtitako oar-dei auen bidez, leikideeri gaztigatu nai izaten zien, ez zukeala iñola ere onartuko, bere barrutian beste iñor sartzerik.

Gau orotan, bere jabetzari oiko inguraketa batzuk egiñik, basoan zear barrentzen zan, leikideen aztarnak agertzen ote ziranentz egiztatzearren, eta ezer bereizirik gertatzen ez zala ikustean, oiko janari-billaketari ematen zion. Gero, berriz ere buru-belarriko axolaz, barrutiko muga ta zedarrien marratzeari, etengabe bi edo irutan berak jaurkitako zaunka sarkor, zorrotza, gauaren magal itzaltsuan aditzen zala. Naiz-eta berak ez jakin arren, endako maitasun-aroa iritxi zitzaion, eta noragabe, irrika menperakaitzaz itzal alderrai baten antzera, basoko sasko ta gurbiztegiak zearkatzen zituan. Alperrik baiñan.

Berak tirriatzen zuan laguna, ez zan iñondik agertzen; joana zan noski gizasemeen opari izateko, eta Anka-motz'en arrangurak ez ziran baretzen. Larritasunak eragindako bere uluei, ez zien iñork erantzunik ematen

Bakartasuna ezin eramanik, Urtarrilla'ko azkenetari-ko gau batean, bere barrutiko mugak zearkatu, eta ezaugean barrendu zan. Andik laister, beste azeriaren barrutian aurkitzen zala oartu zan, onen usain-ezaugarriak non-nai oartzen bait-ziran. Luzaro gabe, leikidearen uluak aditu aal izan zituan. Eupada aiengandik urruntzearen, ezkerretara jo zuan, eta onela gelditzeke, beste azeri baten barrutian sartu, baita beste batenean ere gero. Aurrera joiala dana usnatzen zuan, zantzu txikienik galé tzeke. Alako batean, iltzaturik alakoa, lurrari usainka gelditu zan, eta jarraiki oiú biguiña irteten zitzaiola, arrapalada bizian malda-beera oldartu zan. Luzaro gabe basotik irtenda, sasiz inguraturiko zelai batean aurkitu zan, eta irrikatzen zuana, noizbait sasi baten pean agertu zitzaión.

Aurreko udaberrian jaioriko Alu eme gaztea zan. Bere garaia elduta, udazkenean jaiotokia utzi bear izan zuan, lurralde artako lertegietara abiatzen zala. Alabaiñan bazter guztiak jabetuak izanik, ibarreko aldean geratu bear izan zuan. Egunez, sasipeko ezkutunean etzanda iraun zuan, eta gauez ibarrean gaindi zebillen, eskuar zetorkion zeinnai janaritik elikatzen zala. Biziera doakabea jasaten zuan benetan. Beiñola basoan zear joiala, azeri-eme batek zemaitsu uxatu zuan, eta sastegi ta utzikiñen artean janaria billatzen zuala, ibarreko zabaldia bizilekutzat aukeratu zuan.

Ankamotz zetorkiola ikusirik, Alu'ren aurreneko ekintza, igesari ematea izan zan, baiñan gero arrotzagan zekusan zerbait lasaigarriak, geldierazi zuan. Anka-motz'ek usnatu zuan, eta gero mendian gora abiatu zan, zaunka bereiziakaz dei egiten ziola. Onetaraxe bada, noi-

zean bein geldi-une laburrak egiñez, Alu'k basoko ar gorri ederrari jarraitu zion. Gelditzen zan bakoitzean, Anka-motz'ek burua arengana biurtu, eta zaunka leun maiteko-rraz jarrai zezaiola adierazten zion.

Onela bada, basoan barrendu ziran, Ankamotz bere barrutirantz bideratzen zala. Alabaiñan bere mugatik ur-bil, baso-alde artako azeriak, Alu'ren usaiña artu, eta onen jazarpenari ekin zion. Urbiltxo zala, Ankamotz biurtuta, ortz-erakuska aurre gin zion. Toki artan arrotza zan, baiñan ez ziokean iñola ere, Alu txairo gazteari uko egingo. Bitartean, eme gaztea gelditu, eta burrukaren le-kukoa izateko gertatu zan.

Orduan, Ankamotz'ek joera bakan bateri eman zion. Ago zabalik ulu erlatsak jaulkitzen zituala, etsaiari aurre egin zion, baratxe-baratxe atzera egiten zuala. Bere bar-rutian ez izanik, ez zuan burrukarako lei aundirik oar-tzen. Bestaldetik baiñan, ez zuan iñola ere Alu zoraga-riari uko egin nai, eta onela ez-arian ez-arian bere mu-gara urbiltzen zan. Leikidea asarrez gaiñezka bazan ere, benetako burrukari ekiten ez zan ausartzen; aski zitzai- on Ankamotz'en atzera egiteari begiratzea. Onela bada, et-saiak bien arteko muga gurutzatu zuten, eta azeri gorri ederraren barrutian sartu ziran. Alako batean, bere baso-aldean zala oartzean, sumin bizi batek eraginda, Anka-motz bestearen aurka oldartu zan, eta belarrian ozka egi-ñik, alde batetik bestera iñarrosi zuan belarria urratu ar-te. Bestearen burrukarako adorea oztu zan, eta are geia-go bere barrutian ez zala oartzean. Orduan, anka egiñik, lertegian zear ostendu zan.

Ankamotz'ek bereala garaipen-oiva jaulki... ta Alu'ren begiratze gozoa beragan josita ikusirik, irrintzi gudakoia zan beste zaunka sarkorra lau aizeetara barreia-tu zuan. Gero, Alu'gana joan, míazketa maitekorrak musturrean egin, eta ondoren dei samurraz jarrai zekion

adierazirik, lertegian barrendu zan. Alu'k azeri eder gorri arengan uste osoa jarriarik, otzan-otzan jarraitu zion.

Eta onela, baso-soil bateko zelaira iritxi ziran. Elduta-koan, bere nagusitasun-ezaugarritzat, Ankamotz'ek burua zugaitzen adaburuetarantz jaso, eta aginkor, ozen, zaunka bizi batzuk jaulki zituan. Zelai-mugatik, Alu'k azeri gorriaren irudi bikaiña ederresten zuan, eta zaunkaldia bukatu-rik, astiro-astiro menpeko urreratu zitzaion. Urtarrilla'ko gau otza zan, eta ortzian illargiaren diz-dir esne-tsua-k, toki oro lillurazko laztanakaz edertzen zituan. Alu eme gaztea, buztana gorantz jasota urbildu zitzaionean, Ankamotz'ek aren inguruan dantza arin bati eman zion. Tarteka gelditzen zan, eta burua illargirantz luzatuta, bere biziko zaunka aginkorrak botatzen zituan, basoko bizi-lia-r guztiei. toki artako nagusia zala adieraztearren, baita Alu gazte pollitagan iñolako zarrastada egitearren noski. Gero, berriz ere dantzari ekin zion. Ikustekoa zan nolako txairotasunaz Alu'ren inguruan igitzen zan, iragartzeke aurreko erpe bat peitzen zitzaiola.

Noizbait, Ankamotz'en ezkon-dantza amaitu zan, eta jarraian musturraz Alu'ren buru txairoa bein eta berriz laztandu zuan. Gero, une goren bateko besarkada, eta bere txokoan onartua zala ezaugarritzat, lurralde-inguru-tiko osteratxoa egitera dei egin zion. Gau artan berean, goizaldeírian enbor baten babespean lotan zegoan kata-gorri bat arrapatu zuan Ankamotz'ek, eta ezkon-saritzat Alu'ri eman zion. Egun bi ozta-ozta igarorik, elkarrekiko maitasuna epelduta, bakoitza bere aldetik joan zan. Alu'k baiñan, ba-zekian toki artan betiko geratu zitekela, eta basoa zeatz arakatu ondoren, areitz baten enborpean le-ku egokia aurkituta, bizilekutzat aukeratu zuan.

Egunez emen babesten zan, eta gaua elduta, ezkutu-nea utzi ta janari-billatzeari ematen zion. Sagu ugari iza-nik, auxe zuan oiko arrapagaia, baiñan noizik bein kata-gorriren bat ere arrapatzen zuan.

Egunen bidean, bere baitan bizitza berrien iñarrospe-
na oartu zuan, maitasun eta kezkaeren naastea zan sentié
pen esangaítza beratza z jabetzen zalarik. Sabeleko illeak
erortzen asi zitzaizkion, kabirako azpigarri biguiña billa-
katuz. Oi bezela, gauean eizari ematen zion, alabaiñan
gero ta astunago biurtzen zan. Alabearrez, udaberria
zan eta arrapagaiak non-nai ugari.

Noizbait, Jorrailla'ren egun argitsu batean, kumeak
egiteko garaia eldurik, kabiko azpigarri epelean lau kume
jaio ziran. Begiak ertsirik zituzten, eta ille nabar-illunak
mutur zuriko buztan txairoz apainduak. Alu'k bein eta
berriz maitasun utsaz miazkatzen zituan. Egunez kabian
iraun oi zuan, kumeak bulartu ta berotzearren. Gaua *el-*
*du-*ala kabitik irtenda, janari-billa abiatzen zan. Oiko
arintasun eta malgutasuna irabazita, betiko eiztari trebea
biurtu zan berriro, edo areago esan bear, oraingo amataé
sunak eta kumeenganako betebearrak, eizarekiko sen be-
reizia ematen ziotelako. Arrapagaiak betikoak izaten zi-
ran, ots, sagu, katagorri, suge, txori, grisolak eta abar.
Kumeek, amaren itzulpena irrikan igurikatzen zuten, eta
ikustekoak ziran agertzen zitzaientean, elkarrekiko poz-
kurrinkak eta laztanak.

Jaiotzetik aste bi igarota, itsu izandako kumeei be-
giak zabaldu zitzaizkien, eta enda-senak eraginda, kabiko
sarreratik ikusmiñez gaiñezka, lekorera irten nai izaten
zuten. Alu'k baiñan ez zien orretarako baimenik ematen,
eta kumeren bat kanpora ausartzen ba'zan, zaunka berei-
zi baten bidez, atzera egitea agintzen zion, eta esanetara
makurtzen ez baldin ba'zan, atzaparkada ariñaz sartueé
razten zuan. Loreilla'ko egun eder batean baiñan, kabian
gero-ta biurriago billakatzen ziran kumeei, irteteko esku
eman zien.

Eta onela bana-banaka, basoko lau laztanak antzo zi-
ran lau azerikume zoragarriak, eguzki betetara irten zi-
ran. Leendabizi, amaren kutuna zan Gorria, ar bikaiña

agertu zan. Kumetarik margo gorrienekoa izanda, egunen batean aitaren bikaintasun eta jankinduria lortuko zituan noski. Bigarrena, Pirri ar pollita, ez Gorria baizen ederra, baiñan bizitasunaz pil-pil, baita olde urduriduneko ta aserrekoa ere. Jarraiki, emetxo bi irten ziran. Alaia, aurrena, kume pinpirin txanbeliña, beti jolas egiteko gerturik. Azkenean, ibillera kolokariaz, Urrebegi txiki dardartsua, begi ñabar ameskordun kumetxo erabetia.

Kumeak argi betean ikusita, Alu'ren soak maitasunaz piztu ziran, Gorria'ren irudi bikaiña ikustean batez ere. Orduan, bere zaletasuna ezkutatu eziñik, kutuntxoaren larru biguiña miazkatzen asi zan.

Andik egun batzuetara, Alu'k zuloko bizitzari uko egin zion. Gaua asi baiño ez, eizan ziarduan, eta lo egiteko, txaraka bateko babesa kumeen kabitik ez urrun aukeratu zuan. Egunez irutan ikertzen zituan; leendabizi agunsentia zanean, arratsaldean bigarrenez, eta illunabarrean azkenengoz. Eízalditik kumeekana itzultzen zalarik, ez zuan bide zuzenik aukeratzen, zear eta inguru-bideak baikizik. Begi zoliz eta entzumen ernaiatz beretarren zuloa inguratzen zuan, eta iñondiko galtzoririk ez zala egiztatzean, zaunka alaiatz kumeekana oldartzen zan. Iritxi baié ño ez, berak leen irentsitako janaria, goitika egiten zuan, ontatik jan zezaten. Iru kume aundienak janariari leiatsu ekiten zioten. Urrebegi gaixoak ordea, janarirako ez zuan irrika aundirik erakusten, eta gaiñera, batzutan eztul-aldi gaitzek soin ñimiñoa iñarosten zioten.

Amaren ikerraldirik atsegiñena, arratsaldekoa izaten zan. Kumeek, amaren etorrera urduri igurikatzen zuten, eta agertu baiño ez, ikotika oldartzen zitzaizkion. Gero, amak goitika egindako janaritik irentsi ondoren, bere zaindaritza-pean jolasteari ematen zioten. Gorria, Pirri, ta Elaia jolasean asten ziran zaunka aulez elkarri erasoz. Sasi-burruka auetan, Gorria garaille gertatzen zan, baiñan au *ez* an gauza erreza, Pirri iñolako kemenaz jarki-

tzen bait-zan, eta amorru bizian anaiaren erasoetatik jarreitzen zan. Azkenik ordea, Gorria'ren indarrak gaiña artu oi zuan, eta garaituriko Pirri'k sumiñaz irakiten, ortz txiki zorrotzak erakutsi oi zizkion. Sasi-burruka auek ger-tatu bitartean, musturka ta bultzaka, Alai-a batengandik besteagana zioan jolasaldia biziagotuz.

Urrebegi gaixoa aitzitik, begiak erdiz ertsiak zituala, txoko batean etzanda, anai-arteke zalapartari zerraikion, eta aurkariak neke utsaz etzanda jartzen ziranean, polli-ki-polliki Gorria'gana zioan, eta onen alboan etzanik, miikada batzuk egin oi zizkion, eta gero buruiñoa anaiaren lepo sendoan ezarrita, betazalak astun bai'litzaizkion, lotan bezela geratzen zan, eztulaldi gaitzaren batek bular erkiña iñarrosten ez baldin ba'zion. Urrebegi gaixoa jaiotzetik eritasun sendakaitzak joa zan, eta augaitik noski, bizitzak beldur neurrigabea ematen zion. Amaren naiz Gorria'ren ondoan aurkitzen zanean soillik, kentzen ziztaion beldurra.

Alabaiñan aunditu-ala, kumeei amaren laztanak urriagotu zitzaizkien, eta ordaiñez, Urrebegi'ren Gorria'rekiko zaletasuna gero ta sendoagoa biurtu zan. Kume guztiak izatez berekoiak ziran, baiñan egunen bidean, Gorria arrebaren atxikitasun eta laztanetara oitu zan, eta bera ere Urrebegi'rekiko maitasun apurñoa oartzen asi zan, baita onen eztul-erasoak eroapenez jasaten ere.

Arratsaldeko ikerraldietan, eta giro ona izatekotan, kabiaren aurrean edatzen zan baso-soillean, amak eiza-irakaspentak eman oi zizkien. Sagu naiz sugereren bat bizi-rik kumeen aurrean uzten zuan, eta zaunka uiagarriak jaulkiz, arrapagaia il zezaten adierazten zien. Arazoa errezagoa biurtzearen, Alu'k berak kume ezpaitsuen aurrean, arrapagaia il oi zuan, eta onela luzaro gabe, kumee beurek janaria erailten ikasi zuten.

Uztailla amaitzeko zan garaian, basoko ezkutuak ikas zitzaten, baita soiñak bizkortu zekizkien, kumeek atera-

tzen asi zan Alu. Axe bai benetan, biziera kilikagarria! Amak zantzu ta ezaugarri guztiak garaiz oartzen irakatsi zizkien, era berean zuertasuna zorrozten zitzaiera. Gosea baretu ondoren, ikustekoa zan, amaren so arduratsuen pean, nolako adoreaz jolasteari ematen zioten. Alabaiñan kumeen jolasaldiak gerota zakarragoak, basatiagoak, biurtzen ziran, eta Gorria'ren erasoei, Pirri'ren erantzunak oso sumiñak billakatu ziran.

Sagu ta sugeak izaten zituzten oiko janaria, baiñan uda igaro-ala, txorien errunaldia asirik, auen arraultzak arrapatzen ikasi zuten. Bitarikoak ziran. Bata, sastrapeko kabietan, eta bestea berriz, zugaitzen adarretan aurkitzen zana. Ez zuten kabi askorik idorotzen, baiñan ago-sapaiak ederretsitako arraultz gozoak arrapatzeak, zein-nai aalegin merezi zuan, eta amaren irakaslaritza-pean, txorien joan-etorriak begiz jarraitzea ikasi zuten. Onela bada, zugaitzetan gora igonik, kabi banaka batzuk arrapatu aal izan zituzten. Orretarako, leenbizi amak lauazka igotzea irakatsi zien.

Eguraldia gero-ta beroago biurtzen zan, eta leengo kabia utzita, egunez edozein sasi edo otapetan ezkututzen ziran, zuertasunak eragindakoek gauez soillik eizatzuten zuten-eta. Euria baldin ba'zan, enbor baten aizalpean arildurik, atertu arte iraun oi zuten, eta gero goseak bultzatuta, adore berrituaz arrapagaien billa, osterairten.

Dagonilla'ko gau sargoritsu batean, amaren atzetik janari-billa zioaztela, zeru illunean ozta-ozta marraztua, goseak eragindako ontz erraldoi batek, arrapagaien billa basoa aztertzen zuan. Alako batean, Alaia'k adar igarra zapaldu, ta krask! aula aditu zan. Ontzak oartu zuan, baita berealakoan azerikumea nabaitu ere. Tximista bezelaxe, ontza beerantz murgildu zan, eta eguratsean zear bere lumadi leunari eskerrak, txistu txikienik ere egiteke, azeri-taldeagana oldartu, eta Alaia atziturik, itzala alako

ixilla eguratsean gaindi itzuri zan, besterik aditzen ez zala, laister itzaliko ziran Alaia'ren izu-miñezko eiagorak baiño...

Iltzatuak bezela, Alu ta beste kumeek, zegozen tokian gelditu ziran, eta gero, Alaia'ren eriotzézinkuriñek eraginda, izu gorriaren menpe txaraka lodian babesturik, zenbait ordu iraun zuten.

Irailla'ren asieraz batera, kumeei amaren laguntasuna murrizten asi zitzairen, eta andik zenbait egunera, Alu'ren euspena betiko galdu zuten. Elkarrekiko atxikitasuna era berean galdurik, kume bakoitza bere bidetik joan zan, eta Pirri'k barrutiko sortaldea bizilekutzat aukeraturik, Gorria basoko sartaldean geratu zan... Alabaiñan sasitako naaspil batean gordelekua ozta-ozta aukeratuta, ara non berak ongi ezgutzen zuan ez tul batek burua biurterazi ziola. Erabeti, astiro, arrenka bezela, Urrebegi txikia urreratu zitzaion. Ondoraturik, zenbait miatzeta egín zizkion, eta gero, oi zuan bezelaxe, anaiaren ondoan etzanda jarri zan, urrezko begiakaz laztantzen zuala. Gorria'ren leenbiziko bultzada, Urrebegi uxatzea izan zan, alabaiñan ezin zezaken arrebá ñimiñoaren itxura eskaritsuari uko egiterik, eta azkenez onen ondoan etzanda, so oldozkorraz argi-eriotzaren igurikan geratu zan. Gaua elduta, oi bezela eizari emango ziokean bizitzari eustearren, baita alboan zetzakion begi urredunen laé guntxoá janaritzeko ere, Urrebegi gaixoa bere buruarentzat eizatzeko gauza *ez* zan-eta.

Eta ez-arian ez-arian udazkena iritxi zan, eta onekin batera, ego-aizeko sorgindura epelak, basoan urrezko laztanak ezarri zituan. Lertegian oraindik janari ugaritsu idoro zezaketen, eta bera ta Urrebegi aularentzat beaé rrezkoa zitzaiena, egunoro iritx zezaken. Saguak non-nai ageri ziran, baita neguko loaldian suntsitu baiño leen, sugereren bat ere arrapatzeko era izango zuten.

Beiñola, oi bezela gau betean arrapagaien billa zioa-

la, il-beerako argi motelpean, azeri baten irudi ederra ikusi zuan. Ankamotz bere aita zan. Gorria'k leenengoz ikusten zuan, eta sekulako begirunez jabetuta, lurrean iitzatua bezela geratu zan' Azeri eder argan zerbaitek kiltzen zuan. Anakamotz'en begiak pindar bizi alakoak dizdiraka, ortzetan adar bat atziturik zuan, eta arantzez arrotutako irudi biribillaren aurrean zegoan. Ustekabez, eraso zuan, eta miñez akuillaturiko kirikiñoak igesari eman zion. Orduan, jauzí malgua eginda Ankamotz'ek musturretik atzitu ta ito zuan. Jarraian, sabeletik asita irentsi zuan leiatsu. Janaria bukatuta, azeri nagusia itzaltan ostendu zan.

Anakamotz'ek alde egin eta gero, Gorria ondakiñetara oldartu zan, baiñan ez zuan besterik idoro aal, azala ta arantzak baiño. Usainmenak jakiñerazi zion janari bikaiñaren ondakiñak zirala, eta bere buruari zin egin zion, urrengo abagunean berak ere kirikiñoen bat txastatuko zuala. Ain zuzen ere, zenbait egunen buruan, aukera etorri zitzaion, eta adar bat ustiatuta, bere aitari ikusitakoa egin, eta besterik gabe kirikiñoaz jabetu zan. Jakia benetan gozoa gertatu zitzaion, eta Urrebegi'k lagunduta, azkenengo puskaraiño irentsi zuan. Aragia arras indargarria gertatu zan, eta Urrebegi'k aspalditxo batez itxura ohea erakutsi zuan.

Egunen jarraigo uxaeziña udazkenean sakontzen zan, eta Azilla'ren ateetan euritea asi zan, basoa illun eta goibel billakatzen zala. Euri-jasak eragindako lo-guraren menpe, enbor bateko uskunean babesturiko Gorria ta Urrebegi, elkarrekin arildurik zetzaten. Gaua zetorkienean, goseak bultzaturiko Gorria'k, zulotik irten, eta arrapatzeari ekiten zion. Uxol aspergarri artan arrapagai gutxi ikusten zuten. Alare, Gorria'k sagu banaka batzuk arrapatzen zituan, eta auetariko azkena agoan eutsita, enbor-zulora biurtzen zan, Urrebegi'ri janaritxoa ematearren. Gero, ezkutune artako orbelez inguraturik, lotara berriro.



Baiñan guenez odeiak ostenduta, basoan zear eguzki-printzak igazirik, bazterrak txorien txintaz, zomorroen burrunbaz, eta azkenengo loretxoen agerpenaz alaitu ziran. Martin Deunaren uda-kondarra zan, eta eguzki epe-laren pean, urrutiko Anboto ta Aitzkorri'ko gaillurrak egurats gardenean zear urbillagotuak ziruditen. Ego-aize zakarrak erauzitakoak, negarrezko aienekin zugaitzen adaburu ñabarrek ostoak bana-banaka galdu zituzten, eta orbel biurturik, lur berria sortzearren, lurraren ukitze atsedengarria billatzen zuten. Urteko azken urre-ixuria zan, erakarpen bereizia basoaz jabetzen zalarik. Aizeak orraztutako lerrondoan pean, gauak iñoizkorik ederren ematen zuan. Oi bezela, Gorria'k bere zeregiñei ekiten zien, illargiak dana edertzen zuala, eta eguratsean gaindi sorgiñen aiuriak ziruditen suzmurrak non-nai aditzen ziralalar

Aldiune eder artan, Gorria'k arrapagai asko eizatu zuan, bai berarentzat, bai etengabe zerraikion Urrebegi'rentzat ere. Alabaiñan illuntze batean, odei arre astunek ortzia estali zuten, eta ats erbalgarria oroz jabetu zan. Kezka bakanaren pean, Gorria'k sarri askotan burua beeko ibarrerantz zuzentzen zuan, beste nonbait dei uxaeziña bere igurikan bai'litzan.

Barruti artako txoko ta zedarrri guztiei, Ankamotz'en usain-ezaugarria zerien, eta Gorria'ri ezin esan alako oarpen ezkutuak, beste lur berrien billa abia zedilla agintzen zion. Bizpairu aldiz eizan zebillela, Ankamotz'ekin aurrez-aurre billakatu izan zan, eta bakoitzean, azeri nagusiagandik zerion agintza indartsuak beldurturik, igesari eman izan zion. Azkenengoan baiñan, aserre bizian Ankamotz'ek ortzak erakutsi zizkion erasotzen ziolarik. Iges zoro bateri ekin zion, ezkutuneko babesera eldu arte. Azerien iñausaldia asten zan, eta barruti artan ez zegoan tokirik ar bakar batentzat baiño.

Kadenezko errezelpean, arratsaldea iltzen ari zan. Zuloan etzanik, so goibelaz Gorria'k urrutiko irudi mote-

lei so egiten zien. Ondoan arilduta, Urrebegi'ren soin txikia lotan zetzan. Gero, gau betea billakaturik, Gorria ixillez jeiki, eta kabitik irten zan. Dei urrundari batek erakarpen jarki-eziñaz ibarreko lur apaletara eragiten zion. Unetxo batez izarrerri begira geldiégeldi egon, eta gero mendi-beera abiatu zan. Ozta-ozta urrats batzuk eginda baiñan, Urrebegi zetzan zulorantz begiratu zuan. Urrebegi gaixoa...! Alabaiñan ez zuan ezeren kezkarik izan bear. Eme izanik, barruti artan betiko geratu ziteken... Eta besterik gabe, jaiotokia azkenengoz zapalduta, basoan barrendu zan.

Andik laister, gurdibide bat artu, eta ibarreko norabidean murgildu zanr Begi ta entzumen eranaiaz zebillen, edozein arrapagai ustegabetzearren, baita galtzoriren bat garaiz oartzeko ere. Bideko biurgune batean, sagu bat arrapatu zuan, eta gosea aunditu zion mokaua irentsita, bidean beera berriro. Noizbait, lertegia amaituta, zelai batetik barrendu zan. Luzaro gabe, sagardoi ederra aurkeztu zitzaionr Jalgitako sagarrak or-emenka sakabana-tuak zetzaten, eta Gorria'ren begi zorrotzek aiek ikusi baiño ez, usnatu zituan eta berealakoan jateari eman zion. Bostkantoi motakoa ziran, eta leenengoz jandako sagarrak atsegin zitzaizkion benetan. Irentsi-ala jan ondoren, ezkutune egokiaren billa asi, eta luzaro gabe, sasi lodipean aurkituta, etzanda jarri zan, sagarren egospena lo-bitartean egitekor

Gau artan, oarpen bakanak eta otzak atzituta, Urrebegi itzarri zan. Lotan zanean, beti zuan Gorria ondoan, eta onek bero ta ziurtasuna ematen zizkion. Gaueko eizara abiatzen zanean, Gorria'k musturkada batez iratzarri oi zuan, eta orduan arrebak jarraitutako, janari-arrapatzeari ematen zion. Bildotsa bai'litzan atzetik zerraikion, eta Gorriak lortutako janari-ondakiñak jan oi zituan, bere soin erkiñarentzat azkurri aundirik ez zuan bear izaé ten-eta. Lagun gabe egoteak, Urrebegi gaixoari izu esangaitza sortzen zion. Gau-erdia zan itzarri zanean, eta ba-

karrik zegoala oartu zanean, beldur bakanak jota, kabitik irten, eta eiagora bezelakoak ziran aiuriakaz, nebari deika asi zitzaion. Gau ixillean ez zuan erantzunik jaso, eta etsia, or-emenka izu gorriaren menpe, anaiaren jarraipenari eman zion.

Barrutia mugatzen zuan gurdibide bateko ertzean, Gorria'ren usaiña artuta, onen jarraian asi zan. Aztarnak gero ta agiriagoak ziran, eta bide artatik ibiltzeko egokia bazan ere, Urrebegi txikiak sarri askotan, neke utsaz zenbait geldiuene egin bear izan zituan. Goizaldean azkenik, sagardoira eldu zan, eta ale batzuk irentsirik, beti anaiaren aztarnei jarraika, sasi usu batetik barrendu zan. Orduko, egunsentiaren agerpenak zabaldua argitzen zuan.

Ezustean, erdi-lotan zetzan Gorria itzarri zan. Adar txo baten karraska bere oarmenera etorria zan. Begietan itxaropen-dizdira erakutsiz, Urrebegi uste osoaz urbiltzen zitzaion. Orduantxe, sumin basatiz eraginda, ortz zorrotzak erakusten zizkiola, Gorria, uxatzeko asmoz oldartu zitzaion arrebari. Lagun erkin aren oztopoa, ez zuan luzaroagorik jasango. Orain egiteko zuan bidai ezaugean, ez zukean iñola ere eragozpenik jasango. Lepoko illeak latz eginda, bizkarretik eldu ta...

Baiñan ez zion kalterik egin aal. Aiene aulak jaulkiz, betazalak ertsita, jarki gabe ta otzan-otzan Urrebegi markurtu zan... Orduan, sumindutako Gorria konturatu zan ezin zezaiokeala kalterik egin, eta aserrealdia joanda, leengo tokira biurtu, eta berriro etzanda jarri zan. Orduan, ain sarritan egiña zuan bezelaxe, Urrebegi urbildu zitzaion, eta nebari musturra miazkatu ondoren, onen ondoan etzanda, buruiñoa lepoan ezarri zion.

Iru ordu igaro ziran jadanik gautu zanetik. Itzarrita zetzan Gorria, eizarako garaia zala erabakirik, jeiki zan, eta oi zuan bezela, musturkada batez Urrebegi iratzarri

zuan. Odei lodiez estalitako gau illun eta ixilla zan. Sagar batzuk jan ondoren, azkurri indargarriagoren billa abiatu ziran. Sagarrak gogoko gertatu izan zitzaizkien, baiñan aragi-jaleak izanda, beste jangairik bear izaten zuten. Baé setxe batzuen ondotik igarotzean, zakurren iskanbillak izutu zituan, eta leku paketsuagoetatik joatea erabaki zuten. Gau osoa alderrai ibilli ondoren, goizaldea gabe, txaraka batean babestu ziran.

Urrengo gauean ere, janari-billa irten ziran. Euria mara-mara ari zan, baiñan goseak eraginda, gordelekua utzi zuten. Bidexka baten gaindi joiazala, Gorriari arratoi baten usaiña etorri zitzaion, eta onen jazarpinari eman zion, ixiltsu ta arin, basoan ikasita bezelaxe. Noizbait, arratoitzar baten irudia begiztatu zuten, eta arrapalada bizian Gorria'k eraso zion. Alabaiñan besteak azeriaren oldarra garaiz oartu, eta aalik ariñen zulo batetik itzuri zan.

Gorria ta Urrebegi oartu ziran, erpe-azpikoa epeltxoa zala, eta toki batzuetatik ke-jario sakabanatuek ingurutzen zituztela. Erri aundi bateko ondakintegia zan. Zikintegi osotik, arratoiak ikusten ziran, beuren ezkutune epeletatik janari-ondakiñen billa irteten zirala. Ondakintegitik osteratxo bat egin ondoren, goseak eragindako Gorria'k, aietariko arratoitzarren bat arrapatzea erabaki zuan. Alabaiñan eraso egiten zuan bakoitzean, arrapalada bizian arratoia urbilleko zuloren batetik ezkututzen zan.

Egunsentia baiño leen, mutur-uts egindako bikoteak, ondakintegiko goikaldera jo zuan. Emen, ondotik igarotzen zan bidezabaletik, ondakiñak etengabe iraultzen ziran, beraz janari-kondarretan lekurik aberatsena, eta onezaz gaiñera, berri ixuritako gaiek zulo guztiak ezaltzen zituzten. Orduan, Gorrai sastraka baten ertzean -'etzanda, zelatari jarri zan. Andik laister, arratoi bat ixurtegian agertu, eta janari-billa or-emenka asi zan. Begiak

pindar eta giarrak atezuan, Gorria'k aren gora-beerak barrandatzen zituanr Alako batean, ur samar billakaturik, arrapalada batean oldartu, lepotik atzitu, ta astiñaldi batez lepo-ezurra autsi zion. Gero, sarats usu batean ezkutataturik, gose gorriak eraginda, azeri-bikoteak jan zuan arratoia. Ain zuzen ere, arratoikia ez zan benetako janaririk gertatu, baiñan nolabait ere gosea arindu zien.

Neba-arrebak, ondakintegiko inguruetan geratzea erabaki zuten. Orretarako, gordeleku ziuorra billatzeari eman zioten, beuren zuurtasunak onela agintzen baitzuen.

Egunen bidean oartu ziran, toki artako azeri bakarrak ez zirala. Gau oro, ikus zitzaketen beste nonbaitetik etorritako azerikideak. Ez ziran baiñan, mendiko azeri ainiñako abere bikaiñak, osasuntsuak, ernaiak, azkarrak, zoliak. Ez, ondakintegiko bizierak kutsutuak noski, ez zuten besterik ezagutzen zikintegi artako bazterrak baizik, eta arratoiekin naasiak, janari berdiñari ekiten zioten, ondakiñek eta marraskari inguingarri aiek kutsutuak, gero ta izaera zitalagoan ondatzen zirala.

Ez-arian ez-arian, Gorria ta Urrebegi biziera artako ondoreak ezagutzen asi ziran. Oiko bizitasun eta zolitasuna moteltzen ari zitzaizkien, eta onela jarraitzekotan, beste azerien zitalkerian eroriko ziran...

Gorria'ri baiñan, leku bakarti ta mendiekiko oroi-miéña gero ta nabariago zetorkion. Gaiñera, ondakintegiko janaria ugingarri izateraiño gertatzen asi zitzaion.

Beñola, bera ta Urrebegi geisorik billakatu ziran. Andik laister, biok oka egin, eta egun oso batez, min aundiaren menpe iraun zuten. Noizbait, il-gorak zurizkatu-rik gau izartsua egin zan, eta biak beuren einera zer- bait etorrira, toki madarikatua betiko uztea erabakirik, bi- dai noragabeari berriro eman zioten.

Eta norabiderik ez zutela, oartzeke sortalderako bi-deari ekiñez, egun batean noizbait, Naparroa'ko muga zearkatuta, Aralar mailloan sartu ziran. Orduko, lerdoiak bakantzen asi ziran. Auen ordaiñez, arizti ta pagadi eder eta ugariak aurkitu zituzten. Pago-basoek bereiziki, Gorria'gan iñolako erakarpena esnarazten zuten. Izaerako zerbaitek adierazten zion, bere benetako biziera pagadietan idoroko lukela, txarakak tartekoak izatekotan batez ere.

Jadaneko, zugaitzek ostoak galdu zituzten, baiñan zoragarria zan benetan, erpe-azpian orbelek sorturiko biguintasuna oartzea. Sasoi artan ez zuten azkurri aundirik aurkitu, alabaiñan beti gose izanda ere, ondakintegiko bizierarekin bekaldetuta, oraingoa beuren oldeari ongien zetorkiona zan. Arrapagai urri oiko janariari bagagozkio, baiñan gaztaiñadietan morkotsen artetik bazíran gaztaiñak idorotzeko, eta gorengo janaria ez izanik ere, bitzari eusteko lain aurkitzen zuten.

Negu-miñean elurtea asi zan, eta gose utsaz ibar apaletara beartuak izan ziran. Gorria'k baiñan ez zituan toki aiek maite, eta artega bizi zalarik, ezkutunea egunero aldatu oi zuan. Beiñola, ur orrularietako latsa zearkatzten zutela, Urrebegi arri labainkorrean lerratu, eta uretara erori zan. Ura txirrioan zeriola irten zan, alabaiñan andik laister otzez dar-dar asi, eta eztulaldi zakarrak iñarrosita, goizaldea gabe sukarrak artu zuan. Arkaitz baten uskunean ezkutatu ziran, oi bezela Urrebegi anaiaren ondoan arilkatzen zala. Gaua iritxi zitzaienean, ameskaitzaren menpe zetzan Urrebegi dardartsua, Gorria'k orbelez estali zuan, eta gero mendi-beera abiatu zan. Arkaitzaren babesetik urruntzen zala, Gorria'k erabaki zuan Urrebegi betiko uztea, benetako eragozpena gertatua bait-zitzaion.

Andik luzaro samar, borda baten aurrean aurkituta, ukuilluko atepetik zapal-zapal eginda sartu zan. Agaetan kokaturik, zenbait oillo epeltasun atsegiñean lotan zego-

leiarra apurtu ta lekorean aurkitu zan. Leiar zatiek atzeko zango batean egindako zauritik, odola zerion. Bere begira zegoan Urrebegi'rekin bildu ondoren, eta ixurita-ko odolak elur-gaiñean ari gorria marrazten zuala, mendi-gorako bidea artu zuan.

Laister baiñan, zakurrak urreratu zitzaizkien. Au oar- turik, Urrebegi'k zearkako arinketa bateri eman zion, Gorria'gandik urruntzen zalarik, onela zakur baten jazar- pena bereganatuz. Egitan, bere lagunaren kinka larria arindu zan, alabaiñan Gorria'ri zerraikion zakurra, bieta- riko ariñen eta indartsuena zan. Ortzetan atzitua zera- man arrapakiña, Gorria'ri astun billakatzen asi zitzaion, eta gaiñera, ixuritako odolagaitik unez-une aultzen ari zan. Orduan, aurrean agertutako sastraka baterantz zu- zendu, eta araturik azkar barrendu zan. Orduan oilloa lu- rrean utzita, beste aldetik irten zan arrapalada bizian, elur izoztuaren aurreko aldatzari ekiten ziola. Zakurrak ere, noizbait sasi-matasatik jarei, zaunka bizietan aren irudi gorritzari jarraitu zion, ariñeketan urbiltzen zitzaio- la. Ozta-ozta arrapatzeko zorian zala baiñan, gauza arri- garia gertatu zan...

Ustekabez, Gorria biurtu zan, eta ago idekitik ortzak erakusten zizkiola, aiuri izugarriak jaulki zizkion. Ain zu- zen ere, ille-arrotutako azeriaren itxura beldurgarria zan, eta gaiñera etxetik urrun samar aurkitzen zan ezker- o, za- kurrari adorea epeldu egin zitzaion, eta izu bakanaren menpe, Gorria'ren aurrean tinkatuta, orru luzeen bidez onen eupadari erantzuten zion. Alabaiñan Gorria'k be- rean zirauanez, zakurra zirurika asi zitzaion, ustegabetze- ko asmoz nonbait. Azkenean jokoaz gogait eraginda, za- kurrak iruzpalau zaunka ozenak jaulki zizkion eta ibillera arroaz etxerako bidea artu zuan.

Gau-itzaletan zakurra suntsitu zanean, Gorria leengo satrakara itzuli, eta arrapakiña berriro atzituta, mendi-go- ra abiatu zan Urrebegi'ren deiari jarraian. Andik ordu bi-

tara aitezko naasi batean gordelekua idororik, gose gorriak eraginda, oillo iresteari ekin zioten, eta izarren argi aulak egunsentiari bidea uzten ziola, lo arin batek artu ziotuan.

Goizaldea gabe, ibarreko etxetik ibillera azkarreko gizon baten irudia malda-beera abiatu zan. Andik laister, bostpasei etxetako auzo batera eldu zan, eta emen zenbait lagun iratzarri ta gero, egunsentia doi-doi asita, iru gizon eta sei zakurreko talde bizkorrak malda-gorako bideari ekin zion. Goiko etxe bakartira iritxirik, inguruak aztertzen asi ziran. Aurreko gauean Gorria'ri isuritako odol-aztarnak, argi marraztuak elurraren gaiñean agertzen ziran, eta zakurrek, auek usnatuz geroz, zalaparta bizian goiko arkaítzetarantz abiatu ziran.

Arkaitzetako ezkutunean, zirrara larri batez, erdi-lotan zetzaten Gorria ta Urrebegi iratzarri ziran. Etxe bakarretik gora, beurek gauean utzitako aztarnetatik, talde gorrotogarria urreratzen ari zitzairen. Taldea, luzaro samar elkartuta ibilli zan, eta gero eiztari bakoitzak zakur bina arturik, iru taldetan banandu ziran. Enurarik gabe, iru aldetatik inguratuko zituzten. Galtzoria ikusita, Gorria'k igesari ematea erabaki zuan, eta Urrebegi'k jarraiturik, mendiko beste egitik aldatz-beera asi zan. Azeriak ikusi baiño ez, tartea laburtzen zutela, zakurrak zaunka ta zaunka atzetik oldartu ziran.

Aran artako sakonean, ibai orrulari apartsua arru malkartsuan beera amiltzen zan. Gorria aurrelaria zala, aalik ariñen azeri biak beeko ibairantz bideratu ziran, —atzetik uztai zabalaren arabera, gizon eta zakurrezko taldeak urbiltzen zitzaizkiela. Ertzera elduta, azeriak ur otzetan sartu, eta legorrera irten gabe, ibaian gora abiatu ziran. Eiztariak ibaira eldu ziranean, zakurrak zantzua galdurik or-emenka zebiltzen nora jo ez zekitela. Orduan, batzar ariña izan ondoren, eiztariak iru taldetan jarraitzea

erabaki zuten. Bat ibaiéertzetik gora, ta beste biak goiko egi bakoitzetik joango ziran.

Ur otzgarrietatik ibiltzea arras mingarria zan, Urrebegi'rentzat batez ere, eta azkenean aurrera joan eziñik, arri zabal baten gainean kokatu zan dardarrez jabetuta. Gorria'k ere otzaren ondoreak pairatzen zituan, eta inguruak begi zorrotzez arakatu ondoren, amildegi bezelakoak ziran ertzetan, igarobide bat ikusi zuan. andik arkaitzégora abiatu zan, atzetik Urrebegi gaixoak nekez zerraikiola. Gora eldutakoan, orbel eta abarrez eraturiko ezkutune egokia aurkitu zuten, eta besterik gabe, antxe bertan babestu ziran. Gorria'ren ondoan etzanda, otzak ozkaturiko Urrebegi'k dar-dar egiten zuan, alabaiñan orbelaren epeltasunean, polliki-polliki bere einera biurtzen asi zan. Azkenez lo-arin batek artu zuan. Gorria aitzitik, begi sarkorrez zelatari jarri zan.

Onela ari zirala, leengo bustialdiak eragindakoa nosé ki, Urrebegi eztulka asi zan. Egurats barean, onen otsa mendiko egietatik barreiatu zan. Bapatean, alde artatik zelatan zebiltzen zakurrek, zaunka ozenakaz erantzun zioten, eta aalik ariñen ezkutunerantz jo zuten. Zirrara batek iñarrosita, Gorria zutitu, eta Urrebegi iratzarri zuan. Zakurrek zerraizkiela, azeriak ibai-gaiñetiko amildegia ertzetik bideratu ziran. Asieran zakurrak urreraé tu zitzaizkien, baiñan bidea gero ta malkartsuagoa billakaturik, eta bestetik txapartegi usuan zear barrentzen ziralakoa, azeriek tartea aunditu zuten. Ez-arian ez-arian zaunkak moteldu ziran, eta ibillera lazotu gabe, Gorriari arrenkurak jabaltzen asi zitzaizkion. Sukarrak jota, Urrebegi osta-ozta anaiaren atzetik joian.

Alako batean, ibaiko beste amildegitik, eiztari batek ikusi zituan. Zioazen zuzenbidetik irautekotan, amildegiko beste ertzetik igaroko ziran, eta zizparen elmenean gertatuko zirakean. Orduan, izkillua arri baten gainean ezarri, eta patxada osoan itxo egin zuan. Luzaro gabe,

buztana gar bizi alakoa igitzen zitzaiola, Gorria'ren irudi txairoa jauzika igaro zan. Eiztariak katuari eragiten zion une berean, adar bat saiestearren, Gorria'k izkintxo egin, eta danbadaren txirri lodiak utsunean galdu ziran. Eiztariari "Ondikotz!" ozenak iges egiten zitzaiola, bigarren danbada egiteko gertatu zan, alabaiñan orduantxe, Gorria arkaitz-une batetik ostendu zan. Azeriaren aurka gorriak jaulkitzen zituala, begirari jarri zan berriro... ta ara non bigarren azeria aurkeztu zitzaion. Arreta aundienaz, eiztariak izkillua gertatu, eta bigarren dunbota aditu zan.

Urrebegi gaixoak txirri ilgarri bat sabelean artu zuan. Unetxo batez, ariñeketan irauñ zuan, baiñan bapatean arri aundi baten atzetik iraulka ostendu, eta an bertan geldi-geldi geratu zan. Min jasangaitzpean aiene bezelakoak ziran aiuri etenak irten zitzaizkion, Gorria'ri dei ta deika. Urrebegi'ren bizitza guztia bere nebarenari lotua izan zan, eta orain iñoizkorik indartsuen, onen urbiltasuna irrikatzen zuan. Eta gaixoak miñezko zinkuriñakaz beragana etor zedin arrenkatzen ziola, bizitza parrastaka iges egiten ari zitzaion.

Bitartean, Gorria'k laisterka zoroari ematen zion, baiñan ara non arrastiriko eguratsean zear, aize biguiñak oiñazezko aiuri etenak ekarri zizkiola. Bere olde basatiak aurrera nai zuan ez-entzun egiten zuala, alabaiñan dei eskaritsu aiek gero-ta barrenago sartzten zitzaizkion, eta aurrerago joan eziñik gelditu zan. Gibelerantz usnatu, eta lauazka bizian atzera egin zuan.

Aieneka ta begiak ertsirik, Urrebegi odol-une zabaLEAN zetzan. Bere ondoan Gorria oartu zuanean, zinkuriñak itzali zitzaizkion, eta begiak idekirik musturra miazkatu zion. Gero, aiots etenaz min izugarria ken zezaiola eskatu zion. Itzela zan alegia, bere kutuna, bere maitasun bakarra onela pairatzen ikusi, eta ezin gauzarik egin. Alako batean, argi ta uxakaitz, endaren deiak bear zuana

egitea agindu zion. Azken agurra bai'litzan, buruiñoa laz-tankiro miaskatu zion, eta jarraiki, lepo-ezurra ortzetan atzitu ta ausi zion. Tximistak jota alakoa Urrebegi amildu zan, eta pairamenak joanda, iñularreko magalean lotan bezela geratu zan.

Andik ez urrun, zakurren zaunkak ostera aditu ziran, eta zauskada baten menpean, Gorria'k berriz ere igesari eman zion. Larritasun-sentipenak iñoizkorik indartsuen aurrera zeraman, eta sortalderantz taigabe eragiten zuan indar ezkutupean, illunabarra bukatu ordukotz, jazarleak atzean betiko utzi zituan.

Udaberria iritxi zan. Jorrailla'ren goizalde batean, Abodi mailloan gora, azeri gorri eder bat mendiko bizkarrara zearkatzeko zorian zan. Gutxitan baiki, ikusi liteke bera bezelako azeri ederra. Begi gaztainakara urratuen dizdirak, iñolako kemen eta zuertasuna erakusten zituan, baita gorri biziz jantzitako gorputzak, malgutasun bikaiña ere. Bekoki zabal leuna, belarri tinko bik edertzen zuten. Orban zuri batez amaituriko buztana lurrerantz zuzenduta, iraduz gabeko ibilleraz mendian gora joian.

Illebeteak ziran alderrai baten bizierari emana zala; beti igeska, aurkitu ez zezakena joran eta joran, atzeko mendietan utzitako kutunaren oroitza gogotik kendu eziñik. Egunen batean noski, Urrebegi'rekiko gomutapena ezabatu zitzaiokean, alabaiñan bitartean gau ta egun kendu eziñik gogoan zeukan.

Noizbait, Abodi mailloko bizkarra zearkatu... ta zauskada batek atzituta, ametsetan bezela, gelditu zan... Aurrean, Ori mendiko tontor elurduna goizaldeko eguzki-printzen pean, argi gorrizko irazekian ñir-ñir, erraldoi antzera jeikitzen zan. Alabaiñan mendi goren onek ez zuan Gorria'ren arritasuna eragiten, ez, Ori ta Abodi artean uztai aundiaren arabera edatzen zan oian joriak bai-zik. Iñoiz ez ikusitako pagadirik aundiena zan. Eta iñola-

ko lilluraz erakarritako, abiada bizian mendian beera oian ederrerantz oldartu zan.

Gero, toki artako bikaintasuna osotzen zuten zertzelada batzuk oartu zituan. Pagadi amaigabearen artean, ibai bizi baten ur eresintsuak tarteka ikusten ziran, eta ezkerrean eraturiko ur-biltegi ederraren ertzetan, basoko tantaiak ur gardenetan ispillutzen ziran. Basoan zear sakabanatutako arkaitzek, benetako ezkutuneak eskeintzen zizkioten. Tantaiei, kimu berriak irten ari zitzaizkien.

Axe zan benetan, Gorria'k amets egindako lurra. Bizitzaren aztarnak non-nai agertzen ziran, eta oian-sarree'ran pozez ler egiteko zorian bai'litzan, tantai batetik txantxangorri baten txio maitagarriak ongi-etorriaren eskeintza bezela, aditzen zituan.

Irati'ko oian berdingabea, emaitza joria bai'litzan aurkezten zitzaion. Emen egoitza berriak nonbait zitxarokion, eta zegokion barrutia bein aukeraturik, aalik kementsuen burukatuko zukean, bizitzari aurre egitea ondo ikasi izan baitézuan. Gero, udazkeneko amaieran, paradisu artako txokoren batean, lagunéeme txanbeliña bere igurikan egongo zitzaiokean noski...

Ulkiz, basurdea

Elur lodiko gau otz artan, Lizarmendi'ko egian gora, Ulkiz, amabi urteko basurde ederra ekiñalean zioan. Pago-adar billutsen zear iragazitako illargiaren izpi zurizkek, aren irudi sendoa islatzen zuten. Ulkiz'en laisterketa zuzena zan, pago-enborrak itzuriz, sastraka ta iradia azkon bezain zuzen zearkatzen zituala. Soin trinkokoa izanik ere, ibillera arin eta malgukoa zan, bere zangoen taka-taka nekez aditzen zalarik.

Pagadiko ertzera irixtean, belarria zutik edozein otsen zain unetxo batez gelditu zan, aurrean aurkezten zitzaion zabalune zuria begiz aztertzearren. Dana paketsu ta isillik zetzan, eta aize meeak ez zekarkion iñongo galzoriren aztarnarik. Ezker-eskubira begiratu zuan, eta bultz indartsuaz ekin zion bide izoztuari. Gau artan, basurdeak irurogei kilometro ibilliak zituan, eta beste ainbeste egiteko gai bazan ere, izarren dizdir eta egoerak, gaua laister bukatuko zala adierazten zioten.

Benetan bai atsegiña zala, Ulkiz'en soin sendoa ta bere arintasun arrigarria ikustea, azkon beltz alakoa gaua ildokatzen zualarik...! Alabaiñan basurdearen gogoa une artan ez zan arintasun-erakusketan jardutea. Illuntasuna laster amaituko zitzaion, eta goizabarra baiño leen, gordelekuren bat idoro bear zuan.

Aurrean, tontorreko amildegi arritsua orma arrearen antzera aurkezten zitzaion; ezkerreko malda leunak erri-rantz ematen zuan; eskubikoak, ordea, basatiagoa zirur-

dian, eta ikusmen-mugan, sastraka zabal baten orban illuna islatzen zan. Ulkiz'en begimen motelak ikusi zuan, eta aalik ariñen aurrerantz oldartu zan. Garaieta'ko sastraka lodia zurrean aurkezten zitzaion. Zurbeltzaz estalitako edadura aundia zan, eta txara-soilletan, otadi usu garai batek igarobidea eragozten zuan.

Laster iritxi zan sastrakara, eta besterik gabe naaspil artatik barrendu zan. Otak eta zurbeltzak bere soin sendoa igortzi zuten, eta azkenean ur gardenetako errekatxo baten joaira bizia aurkeztu zitzaion. Zurrutada batzuk egarritsu edan ondoren, ibillera lasaiaz errekatxoa zearkatu, eta andik laister orbel eta iñaurkiñaz eratutako txoko egokia aurkitu zuan. Ezkutunea egokia iruditu zitzaion, eta Iasaitasunezko oarpenaz, iñaurkín artan etzanda jarri zan.

Ulkiz, Asturi ta Santander arteko mugatik zetorren. Ia bizitza osoa toki basati ta urbilgaitz aietan iraun izan zuan, bere izaeraren aldez etengabeko burrukan, mota guztitariko makurrak garaituz. Ustekabez, amabi urte ozta-ozta beteak zituala, neguémiñeko egun batean, yoran jarkigaitza bere naimenaz jabetu zan, eta zoro biurtu izan bai'litzan, leendabizi astiro baiña gero ariñago, sortalderantz bideratua zan. Berak ez bazekian ere, urrutian Naparra'ko Auñamendiak erakarten zuan, eta bere ikus-yorana baretu lezakioken lurralde artarantz ameskeriz uztarpeturik zioan. Bidean ez zuan janari askorik idoro izan, eta amargarren egunean, gosez makalduta Garaíeta'ko zumeldira eldu zan.

Amabi urte leenagoko udaberri batean, Naparra'ko Erro arana mugatzen duten mendietan, basurdeme batek bost kume egin zituan; iru eme ta ar bi, alegia. Arrak, Ulkiz eta Elkiz ziran, biok bizitasunez gaiñezka, ausartak eta burrukalari yaioak. Andik laister, zangotxuen gaiñean eusteko gai ziran, eta bostak leiaz jabeturik, amaren erro edo titiak billatu zituzten. Ulkiz'ek bereala lodiena bera-



rentzat aukeratu zuan, eta edoskitzen ari zala, Elkiz aren aurka oldartu zan, berak ere titi uaxe nai zualako. Orduan, bien artean egundoko burruka sortu zan, ortz-karraska ta aginka elkarri erasotzen ziotela. Laister, baiñan, Ulkiz'en uzutasunak garaitu zuan, eta enparauek beste titi bana aukeratu zuten. Aurrerantzean, kume bakoitzak leenengoz aukeratutako tititik edoskitzea nai zukean betiko.

Kabia, enbor baten babesean, adarrez, iraz, eta oroldioz jantzitako zuloa zaur Kumeen larruak gorritzat izanik, luzeeran zenbait mendel orixkaz apainduta agertzen ziran, ain zuzen ere, etsaien begietatik ikuskaitz izateko, beuren soiñak inguruarekin berdintzen bai-ziran. Buruiño pollitak, mustur labur batean bukatzen ziran, eta agin ñimiñoz ornitutako agoek, amaren kurrinka maitekorrei ortz-karraskaz erantzun oi zieten.

Asieran, basurdamak ez zituan egiten irtenaldi laburak baiño, kumeak bakarrik luzaro ez uztearren, baiña irteten zan bakoitzean, kabia iñarraz estali oi zuan. Itzultzean, ikustekoak ziran kumeen zalaparta ta bultzadak aren errapea aurkitzearren, eta asetu arte edoski ondoren, sointxoak bildurik, loak artzen zituan.

Amar bat egun igarorik, kumeak amarekin irteten asi ziran, eta onen inguruan jostatu oi zuten, ama bezela indusketari ematen ziotela, sustrai ta grisola gozoen billa batez ere. Amagandik, laster, mendiko sugeak arrapatzen ikasi zuten. Sagu baten usain berezia artzen zutenean, aren jarraian asten ziran zulotxoak idoro arte, eta orduan, induska, lurra ildokatzen zuten sagua bere kabian aurkitu arte. Beiñola, txingurritegi bat topo egin zuten; egun artan oso gutxi arrapatu zutenez, ama-kumeak gose ziran, eta lur-meta ikusirik, atsegiñezko kurrinkak jaulkirik, ama txingurritegira oldartu zan, eta lur-metan musturkatuz, laister txingurri-gai gozoz beteriko utsune bat estalgetu zuan. Gero, ur gardenetako lats batean, ku-

meek bustialdi atsegiña leenengoz artu ondoren, zugaitz baten enborrean soiña igortzítzea erakutsi zien amak. Arrezkero, ikasi zuan Ulkiz'ek zein egokia zan noizbeinkako bustialdiren bat artzea.

Amar aste igaro ziranean, edoskaldia bukatu zan. Amak ez zuan luzatu nai izan, eta kumeek amaren saiet-sak aserrez musturkatu arren, basurdamak ez zien jaramonik egin. Orduan, amaren laguntzaz ikastaldi gogorra asi zitzaien, baiñan aren ardurak etengabe babesten zituán, eta kumeren bat zegokion baiño geiago urruntzen baldin ba'zan, musturka, taldera itzuli-erazten zuan berri-ro. Amaren entzumen zorrotzak otsen bat ezéoitua adié tzen zuanean, kurrinka bereizi batez galtzori-deia adierazten zien, kumeak sakabanatu zitezen. Orduan, edozein txokotan etzanik, galtzoria itzuri arte igige zirauten.

Zein-nai janariz elikatzen ikasi zuten, eta sustrai ta belar samurrez gaiñera, sugeak, muskerrak, igelak, lurgartzak, kirikiñoak eta abar eizatzea ikasi zuten. Udarako egun beroetan, idoietako lokatzean iraulkatzen ziran, eta gero, lokatza txirrian zeriela, enbor lodi batean soiña igortziten zuten, eta jarraiki, orbelen gaiñean zorionezko oarpen bakanaz, etzanda jartzen ziran. Egun otzetan, amaren inguruan estu-estu metatuz, elkar berotzen zuten. Asieratik eizatzen irakatsi zien amak, eta goizaldeko argia asten zane kotz, baso edo zumeldietako babespean ezkutaturik, lo-kuma indargarrian murgiltzen ziran, entzumena beti ernai, suzmur ez-oituak garaiz aditzearren.

Udazkena iritxi zitzaientean, kumeak zearo bestera-tuak billakatu ziran, eta amaren ardurapean, basoko ez-kutu geienak ezagutzen zituzten. Asierako mendel zuriz-kak ezabatuak ziran, larrua gorritza biurtu zitzaien, ortz-agiñak osotu, leengo mustur laburra zorrotzagotuz.

Beñola, beeko ibarrean gora, zakurtalde baten zaunka sarkorrek aditu ziran. Zirrara batek basurdamaren soi-

ña iñarrosi zuan, eta lepoko zurdak lazturik, adi-adi gelditu zan. Ulkiz eta beste kumeei ere, belarriak zutitu ta lepoko zurdak arrotu zitzaizkien, beldur-antzeko zerbaitek dardarrez jartzen zituala. Amak, orduan, kurrinka motela jaulki zuan, eta egunsentia bazan ere, danak batera txaraka lodi batetik sartu ziran. Ordu bi igarorik, noizbait, basurde-taldea gelditu zan. Baretzen asi ziranean, ara non berriz ere lengo zakurren zaunkak urbillago aditu zituzten. Kumeeek zerraizkiola, basurdama ekiñalean mendian gora abiatu zan pafa biziak jaulkitzen zituala. Mendiko bizkarrera iritxi ziran, eta elardi usu baten zear, tontorrez-tontor arana mugatzen zuten mendiak ibilkatu zituzten, arnasarik artzeko ere gelditzeke. Arratsalde-irian, eiza-zakurren zaunkak itzaliak ziran jadanik, eta orduan txapar lodi baten babesean, atsedeen-billa etzan ziran. Noizean bein, basurdamak ortziari so egiten zion, urdin amaigabe artan egunaren eriotza irakurri nai bai'luan. Azkenik, izarrak laister piztuko ziralako sentipen lasaigarria oartu zuan. Bazekian gaua beurena zala, ez eiztariena.

Illargi gabeko gau artan izarren argia biziagotu, eta gau beteak billakatu zanean, ibilliera biziak, sartalderantz, Belate'ko mendietarantz alegia, abiatu ziran. Pago ta areitzetatik aurreneko ezkurak jalgitzen asiak ziran, eta noizean bein geldialdi laburrak egiñez, ezkur gozoak jaé ten zituzten, berriz ere bideari ekiteko. Ulkiz'ek luzarogo gelditu nai izango zukean, leenengoz txastaturiko ezkurak benetan atsegin zitzaizkiolako, baiñan amaren kué rrinka agintzailleek, aurrera bultzatzen zuten. Goizabarra eldu zitzaientean, Erro ibarretik mendebalerantz ogei kilometroko tartea ibillia zuten, eta eiztarietik beldurra joanda, taldea areitzezko txaraka batean ezkutatu zan.

Eta onela iraduz gabe, beti sartalderantz ekiten zutela, Aralar mailloa zearkaturik, Gipuzkoa'ko mugara urbildu ziran. Negua laister etorriko zitzaien, baiña aro artan, ezkurrez gaiñera, ibarretan gaztain ugari aurkitu zuten.

Ulkiz'en txastamenerako, ez zan gairik gaztaiña baiño gozoagorik. Laister ikasi zuan gaztaiñak morkotsetatik jalgitzea. Eta bai bere soiña, bai beste kumeenak ere, noiz ezkurraz noiz gaztaiñaz, loditzen eta koipez betetzen asi ziran.

Naparra ta Gipuzkoa arteko muga zearkatzen asi ziralara, aroko leenengo elurketa erori zitzaien, eta orduan taldea aalik ariñen ibarrerantz abiatu zan. Ulkiz'eri elurak iñolako zarrastada atsegiña egin zion, baiña gero aspergarria gertatu zitzaion, ta azkenean nardagarria, sabeleraíño sakontzen zanean batez ere.

Arrezkero, janari urriagaitik gauzak zearo gaizkitu ziran, eta Naparra'ko mendietan irabazitako koipea, lermatzen asi zitzaien. Noizean bein elurraren geruza meagotzen zan, eta orduan taldeak indusketari ematen zion, elurpeko azkenengo ezkurak irestearren. Onela bada, Aitzkorri mendia atzean utzi zuten, eta Anboto'tik Bizkaia'ra sartu ziran, gero Gorbea'tik Orduña'ko mendietaraiño irixteko. Bizkaia'n zear zebiltzala, txit argalak billakatu izan ziran, eta batzutan janari-ezagaitik, taldea baserrietako barazkiak erasoten ausartu zan, basurdama iñolako beldurpean aurkitzen bazan ere. Alabaiñan lapurketa aiek ez zuten luzaro irauten, egunsentia baiño leen ekintza-lekutik urrun aurkitzen bai-ziran.

Negu-miñeko gau illun batean, basurde-taldeak bidezabal bat topo egin zuan, eta ertzean ezpaitsu gelditu zan. Gizasemeek erabillitako bideek, basurdamari iñolako izu gorria ematen zioten, eta auetarikoren bat aurkezten zitzaionean, luzaro samar entzumen ernaiaz egon oi zan, eta ezer bereizirik aditzen ez bazan, arreta aundienaz zearkatzen zuan, berriz ere basoan sartzeko.

Gau artan bide-ertzean geldi-geldi, Basurdamak ezer ez-oitua aditzen ez zala egiztaturik, kurrinka motel batez kumeei aurrera ekin zezatela agindu zien. Andik laister,

baiñan, basoa amildegi bateko ertzean bukatzen zan ezkerro, saiestu bear izan zuten, eta bidezabala berriro aurkitu eben. Basurdamak, orduan, bidezabaletik joatea erabaki zuan, basoan bide egokiren bat idoro arte, eta ariñeketan amildegiko ertzetik abiatu ziran. Alako batean, biurgune batetik urbil zioala, burrunba ozenaz lagundutako, dizdir bat agertu zitzaien, eta kamioi aunditzarra aien aurka oldartu zan, bere argiz basurde gaixoak itsutuz. Bidezabalean gaindi taldeak egindako taka-takak, eta leku aretan igarobide bat aurkitzeko larritasunak, basurdeei kamioiaren burrunba entzutea eragotzi zieten.

Bide-erdian iltzatua, kumeek inguratutako basurdamak, argi itsugarri aiei lilluratuta begiratzen zien. Gero... kaska indartsua, eta kamioia gelditu zan, basurdama ta iru kumeen gorputzak aren inguruan sakabanatuak agertzen zirala. Lauok illik zetzaaten, eta aien zorionerako, eriotza berealakoan gertatu zitzaien.

Erasoa baiño zerbait leentxeago, barneko bultz batek Ulkiz alde batera eragin zuan, eta izu aundipean iges zoé ro bateri eman zion. Azkenean, andik irteteko igarobide bat idoro zuan, eta biotza taupadaka zebilkiola, txaraka baten zear ostendu zan. Elkiz, ostera, azkeneraiño talé dearekin geratu zan, baiña makurtuta zegoanez, berebilla gaiñetik igaro zitzaion kalterik egiteke, eta nora jo ez zekiala, iges zoro bateri eman zion.

Ulkiz, ezbearrak egindako zarrastadak eta igesaren nekeak, atsedean artzera beartu zuten, eta belardi baten etzanda, larri ta etsia amaren kurrinka maiteak itxaron zituan. Gero, aultasun utsaz lo-kuma batean murgildu zan, eta onela zalarik, bere entzumen zorrotzeraiño abar-sarriaren artetik zetorkion zerbaiten otsak iratzarri zuan. Jeiki, eta mustur idekiaz galtzoriari aurre egiteko gertatu zan. Andik laister, kurrinka ezagunak jaulkirik, soin illun bat urreratu zitzaion, eta noizbait Elkiz'en maitasunezko musturkadak oartu zituan. Ulkiz ere, kurrinka asi zan

anaiaren musturkada biguiñeri erantzunez. Gero, soiñak estu-estu, elar baten babespean, urrengo gau arte erdi-lotan irauñ zuten. Orduan eizatzera irten, eta mendebalerantz abiatu ziran.

Ordudanik, basurde gazte biek istillu gorriak ezagutu zituzten, amaren gabeziaz gaiñera, janariaren aldetik urteko arorik urriena zan-eta. Egun batean, beti sakalderantz abiaturik, urki gazteetako basotxo batera iritxi ziran, eta bear utsaz zugaitz samurren zillarrezko azalaren jateari eman zioten. Gero, baso-ertzeko arridi batean, lurgartzak arrapatzearren, aztalka egin zuten beuren amak ain sarritan erakutsi zienez, eta, noizbait, neguko otzaz erdi-lo zeuden zenbait aurkitu zituzten. Baiñan toki artan janaririk ugariena, satorrak gertatu ziran, eta auei eskerak, basurde gazteek bizirik irauñ aal izan zuten. Satorren lur-metak ikusten zituztenean, zuloari jarraituz satorra aurkitu arte induskatzen zuten. Auen aragia oso atsegiña gertatu zitzairen, eta negu artan makiña bat jan zuten.

Onela bada, negua igarotzen zioan. Basurde gazteen larrua illuntzen asi zitzairen, eta beeko letagiñak iru beatz luze inguruko izango ziran. Letagin nagusiek goikoen igurtziaz, benetako zorroztasuna iritxi zuten, eta oraindik aunditasun osora eldu ez arren, zauri izugarriak egiteko gai ziran.

Neguko asieran, Asturi-Santander arteko mugatik urbiltxo ziran, eta arkaitz usu aien beeko aldetik ibilliz, baso ta txaraken babesabagune guztietan billatzen zuten.

Negu luze ta gorri artako gau illun batean, lau otso goseti baso-soil bateko zelaitik ibillera malguz arrapagai baten billa zioazten. Alako batean, aurretik zebillen otsoa gelditu zan, eta elur-gaiñean ikusten ziran oiñats batzuen usaintzeari eman zion. Lau otsoak laister oartu ziran bi basurde gazteen aztarna barriak zirala, eta begietan gosseko leiñurua piztutzen zitzairela, eraso antolatu zuten.

Mako luzearen arabera sakabanatu ziran, eta urrats arin eta isillez, aurrean zetzakien pagadirantz bideratu ziran, bazter guztiak begi sarkorrez zeatz aztertzen zituztela. Elurpean musturka, basurde gazte bien isla illuna ikusi zuten. Otsoak unetxo batez gelditu ziran, eta gero ezkutan Ulkiz eta Elkiz'engandik urbil samar zirala, arrapalada baten eraso zieten.

Otsoak oldartzen zitzaizkien une berean ikusi zituan Ulkiz'ek, eta urbillen zetorkionari aurre egin zion, aoa zabaltzen zuala letagiñak erabiltzearren. Otsoak zintzurretik oratzen zuala, beste bat lepo-gaiñean kokatu zió tzaion. Miñez zoraturiko Ulkiz, burua astintzen asi zan, otsoa piltzarra baten antzera aidean astintzen zalarik, ozka lazotu gabe. Alako batean, Ulkiz'en letagin bat sabeletik sartu zitzaion. Miñezko aiuriak jaulkitzen zituala, otsoak ozka lazotu, eta lurrera erori ondoren, igesari eman nai izan zion. Ulkiz, baiñan, artutako miñak suminduta, aren aurka oldartu zan, eta letaginkada itzelak jaurtitzen zizkiola, bereala il zuan.

Beste otsoak lepoan egiten zion miña izaugarria zan, eta ezin bestez, basurdea elur-gaiñean iraulkatu, eta azkenik jareitu zan. Otsoa berriro Ulkiz'en aurka oldartu zan, baiña oraingoan, Ulkiz'en letagiñak aidean artu zuan, eta atzeko zango bat goitik-beera urratu zion. Odo-la bor-borka zeriola, otsoak igesari eman zion.

Bitartean, Elkiz beste otso biek eraso izan zan. Batek musturretik oratuta zeukala, bestea, aietariko aundiena, alegia, besaburutik zintzillikatu zitzaion sarraski izugarria egiten ziola. Ulkiz, orduan onen aurka jaurtiki zan, letaginkadaz josten zuala. Otso aundi au zer gertatzen zan oartu zaneko, beranduegi billakatu, eta illik amildu zan.

Beste otsoak, orduan, bere burua bakarrik ikustean, leen beste otso zauritua joan zan bidetik igesari eman

zion. Basurdeek otso bien jazarpenari ekin zioten, baiña luzaro gabe uko egin bear izan zuten, artutako zauritik Elkiz'eri odola parrastaka zeriolako. Nabari zan Elkiz odolustutzen ari zala, zain nagusiren bat ebakita, noski, eta andik laister elurrean etzanda, dardarrez asi zan. Noizbait, odolezko agokada batzuk irten zitzaizkion, eta begietako dizdira moteldurik, zendu zan.

Gau oso aretan, Ulkiz'ek bere anaiaren ondoan iraun zuan, oraindik bizirik bai'litzan, baiña egun sentia agertu zanean, andik urrundu zan, bere anaiak zergaitik bakarrik uzten zuan ulertu eziñik. Mendian gora zioala, aurreko gauean ildako otso bien gorputzak ikusi zituan, eta gose gorriak eraginda, batengana urreratu, eta aren aragitik jaten asi zan. Bostpasei egunez toki artan iraun zuan otsokiz elikatzen zala, eta janaria bukatu zitzaionean, bidai bakarti bateri eman zion. Ordukotz, elurra gesaltzen asia zan, eta nonaitik udaberriaren zantzuak nabari ziran.

Udaberri ederra gertatu zan, bizitza edonon bizkor ernetzen zala, zernai janaria basabereei eskeiñiz. Ulkiz'en soiña biribiltzen asi zan. Irautearren, tokirik ezkutenak billatu oi zituan. Dana-dala, bakartasunaren pairamenak berarekin etengabe zeramazkian, eta beste kideen laguntasuna irrikatzen zuan.


Beñola, arte-txaraka baten zear zioala, basurde-talde baten usaiña artu zuan, eta besterik gabe aztarnen jarraian oldartu zan. Luzaro gabe, taldea zelai txiki batean ikusi zuan. Amabi basurdek osotzen zuten: bi eme aundi, eta amar basurde gazte adin ezberdiñekoak. Zenbait, Ulkiz baiño gotorragoak, baita berdiñak eta txikiagoak ere. Zelaitik barrendu zanean, taldeko eme zaarrena urbildu ta usainka asi zitzaion; gero lasaituta, saietsean musturkada batzuk eman zizkion, eta jarraiki taldeaganantz bulztatu zuan. Basurde gazteek bereala inguratu zuten, eta musturkatu ondoren, beuretarikotzat gogoz artu zuten.

Arrezkero, Ulkiz'en bizierak taldearekin iraun zuan, eta igarotako bakartasunaz aantzita, sendi berriarekin zorionsu egokitu zan. Arindu gabe baiñan beti egoarantz, Palentzi-Leoi arteko mugara abiatu ziran. Udara-asierako, mendiak atzean utzirik, muiño batzuk aurkeztu zitzaizkien, eta urrutian galburu-itsaso amaigabea ikusi zuten. Uaxe zan baiki, basurdeek billatzen zuten uzta.

Gau batean, mendietako zumeldia ta txarakak atzean utzirik, isiltasunik aundienaz taldea galsoroetara jetxi, eta laister auetariko batetik barrendu ziran. Orduan, galsorua aldez-alde zearkatu zuten, zapaltzen zituzten gari-azubillak lurreratuz, jarraian galburuen iresteari ematen ziotela. Goizaldea baiño leen, iñolako ondapena atzean utzita gero, mendiko babesa billatu zuten.

Ekintza auxe maiz gertatzen zan; baita beiñola zorro bete ale-pillo aundia aurkituta, letagiñakaz estalkia urratu, eta bere-biziko asebeta izan zuten. Leendabizi, lapurketak ez zituzten toki berean egiten, bakoitza leengotik urrundua baizik, baiñan zigor-gabetasunak neurria aantzi-erazi zien, eta sarraskiak galsoro berean egiten asi ziran. Beiñola, auetariko batean sartzeko zorian zirala, eztanda batzuk aditu zituzten, eta eme aundei bat eta bi kume illik amildu ziran. Gau aartan eiztari-talde bat beuren igurikan arroil batean ezkutatu izan zan, eta basurdeak agertu-ala, tirokatu zituan. Ulkiz'ek eta enparauek iges zoro bateri eman zioten, eta orain, bederatziko taldea, izuaren-izuz mendietako ezkutunetara leiatu zan.

Arrezkero, basurdeak ez ziran galsoroetara berriz itzuli, eta artutako zigorraren oroitza ez zitzaien iñoiz gogotik kenduko. Txaraka ta basoetako ezkutunetan taldeak betiko bizitzari eman zion, bere elmenera gertatzen zan zeinai janaria, naiz abereki naiz landarekia irentsiz. Taldearen batasunak, Ulkiz'eri lasaitasunaz gaiñera, azkurri ugariagoa ta eskiertasuna zekarzkion. Onela bada,



Ulkiz aunditzen ari zan, eta bere letagin luzeekin basurde eder baten itxura artu zuan.

Zenbait urte igaro ziran, eta oiko aroan irausaldia eldu zitzaien. Ameskerizko sentipenaren mende, uruduri ta ezkibel, Ulkiz leenengoz oréemenka urduri zebillen. Zerbait ezéoitua, yoran bakanak beragan ernarazten zizkion, eta jangartzu basoan zear noragabe zebillen, ziorik gabe betiko lagunei erasoten ziela. Laister oartu zan, Mikize'k eme gazte txairoak, iñolako lilluraz erakartzen zuaé la, eta ordudanik aal zuan bakoitzean onen atzetik zioan, laztanak bezelako mausturkadaz jotzen zuala. Gau batean, Mikize'n atzetik zebilela, baso-soil batean geldirik ikusi zuan. Urbildu zitzaion, eta kurrinka leunekin laztanak bai'liran musturka asi zitzaion. Ulkiz'en limurketa onarturik, Mikize elur-gaiñean geldi-geldi lilluratuta alako zegoan.

Onela ari zirala, itsumustuan zugaitzetatik irudi beltz, aundia, irten eta biakanantz oldartu zan. Ulkiz'ek talkada izugarria saietsen artu zuan, eta itzulipurdika elurraren gaiñean erori zan. Tximista bezain azkar, zutitu, eta etsaiari eraso zion. Arerioa, Ankiz, ar baakartia zan, Ulkiz baiño askozaz zaarrago ta indartsuagoa. Orduan, ilbeberen argi motelpean, Mikize'n aurrean burruka izugarria gertatu zan.

Ar biek, letagiñaz etsaiaren soiña zauritzea billatzen zuten, eta saietsak elkar estutuz, sastaka biziakaz bestearen larrua zearkatu nai izaten zuten. Ulkiz ariñagoa zan, baiñan Ankiz'ek letagin luzeagoak eta batez ere larruillauneko lodiagoa izanik, gaiña zeraman. Ulkiz'eri zintzur eta leptik odol ugaria zerion, eta azkenik eztarrian sastakada izugarria artuta, aultasun utsaz lurrera amildu zan. Gero, ikusmena laiñotuta, kordegabetu zan. Amildu ondoren, ez zuan eretirik izan ikusteko, nola Mikize ta Ankiz ostentzen ziran basoan.

Urrengo goizean, eguzkiaren izpi epelek Ulkiz'en soin etzana berotu zutenean, igitzen asi zan dardartsu, eta gero nekez jeikita, ibillera kulunkatsuaz basotik barrendu zan, etzanik egondako tokian odol-une aundia utzirik. Janari-billa lurra induska aztertzen zuala, ozta-ozta zutik zírauken. Arte baten pean, zenbait ezkur idoro zituan, eta danak jan ondoren, indar-bukaeran orbel-meta baten gainean amildu zan, eta lo-kumaren mende, egun osoa leku artan iraun zuan. Gero, gauean, adar billutsen artetik izarrak agertu ziran, eta orduan iratzarrita, berriz ere zerbaiten billa abiatu zan.

Len jandako ezkurrek arean indartu bazuten ere, oraindik aul eta zorabiatuta zebillen. Izarren argipean janaria arin aurkitu bear, bestela ez zezakean iraun. Alako batean, baso-sarritik argitxu keiñulari bi ikusi zituan, sudurreraiño usain bereizia zetorkiola: azeriarena, alegia. Berealakoan, begien dizdira itzalita, bere usainmen sarkorraren bidez, azeriaren jarrai joan zan. Azerikia benetan atsegin zitzaion, eta leiaz beterik, aztarnen atzetik oldartu zan, bizirik irauteko bearrezkoa zitzaion arrapagaiaren billa. Txara ta lats batzuen zear, aztarnen atzetik pago-enbor bateraiño iritxi zan. Ara eldutakoan, aultasun utsaz atsanka gelditu zan, aurrean zekusan zulo bateri begira ta begira. Bazekian kabi baten aurrean zala. Ain zuzen ere, zulo artan azeria bere lau kumeekin ezkutatzen zan.

Gero, goseak akuilluturik, itsua bezela zuloari ekin zion. Ulkiz'ek burua zulotik sartu aal izan zuan, baiñan azeria ta onen kumeak, basurdearen ortz-elmendik baiño urrunago zegozen. Lei sukartsuak eraginda, letagiñakaz sarrera zabaltzen asi zan, ezpalak erauzten zituala. Zuloa aunditu zanean, azeriak bere burua galdutzat joaz, kumeekiko maitasunak eraginda, basurdeari aurre egin zion, musturrean ozka ta atzaparka. Alako baten, Ulkiz'ek begian arramaska bat artu zuan, eta miñez zoraturik, azeria kabiko alde baten aurka zapaldu ta letagin zo-

rrotzez josi zuan. Gero, azeria ta kumeak irentsita, indar berriak sortzen zitzaizkiola, basoan zear barrendu zan.

Arrezkero, nai izatekotan taldeagana itzuli baziteken ere, Ulkiz'ek ez zuan ostera kideen laguntasuna billatu nai izan. Ankiz'ek emandako astiñaldia zioa zala nonbait, edo-ta garaia eldu izan zitzaiolako, dana-dala basurde baktien bizierari eman zion.

Neguko amaierantz Palentzi aldera abiatu zan, eta onen ordoki-aurreko mendiak bizilekutzat aukeraturik, janari billa asi zan. Leku aietan untxi basati ugari zan, eta auen arrapatzeari buru-belarri eman zion, baiñan asieran eiza ustel gertatu zitzaion. Azkenik, auziaren garaipena lortu zuan. Basurdea ulermen ernaikoa zan ezkerro, bat izan ezik, zulo guztiak ixtea otu zitzaion, eta leenengo zulotik asita, musturraz, lurpeko untxi-bideak ildokatu oi zituan, irten-eziñeko arrapagaia idoro arte.

Toki aretan zenbait illabetez bizi izan zan, baiñan udako sasoi iritxi ala, ain ongi ezagutzen zituan mendi garaietara itzuli zan. Baiñola, txara batean etzanda zegoala, abarrotsen zartak iratzarri zuan. Ustekabez, basuré dekume bat taka-taka agertu zan, eta kurrinka alaiak jaulkiz, ondoratu zitzaion. Jarraiki, adiskidetsu, musturka biguñakaz laztandu nai izan zuan. Ulkiz'en aiurri ezkibela, baiñan, agerian jarri zan, kurrinka basatiak jaulkitzen zité tuala, eta letagiñak erakusten zizkiola. Kumetxoa oré duan, oinkada batzuk atzera egiñik, etzanda jarri zan. Bost illabete inguruko kumea zan, eta zirudianez, talde bateko bizirik billakaturiko bakarra zanr Aultasun utsaz gaixoa ozta-ozta ibilli zitekean, eta Ulkiz'en laguntasunari eutsi zion, itotzeko zorian dagoana ol bateri oratzen zaion bezela.

Ordudanik, kumea Ulkiz'en itzala biurtu zan, eta arkume baten antzera noranai zerraikion, janari-utzikiñak jorantsu iresten zituala. Asieran, Ulkiz'ek musturka uxat-

zen zuan, alabaiñan ez-arian ez-arian kumearen laguntasunera oitu zan, eta azkenik, bere janaria laguntxoarekin banatzen asi ere. Au, kumearen loditasunean nabari zan, alegia. Laister bien artean itz gabeko ituna sortu zan: bide edo toki arriskutsuren bat zearkatu bear baldin ba'zuten, kumea aurretik igarotzen zan, eta gero Ulkiz, ezer bereizirik gertatzen ez ba'zan.

Udazkena euritsua gertatu zan, eta arroturiko errekek bitsezko zurrunbillotan mendian beera oldartzen ziran. Illuntze ekaiztsu baten. basurde biak egi malkartsuko bidezkatik zioaztela, kumeak azpiko bustiñean irrist egin zuan, eta euskarria galdurik, maldan beera pillirikan erori egin zan. Kumeak aalegiñak egin zituan irristada eten egitearren, baiña errekaeren ertzean gelditzeko zorian zala, berriro bustiñean labandu, eta ur orrularietan amildu zan, igeri egiten saiatzen zala. Itsumustuak elbarrituta bezela. Ulkiz'ek laguntxoaren erorpene ikusi zuan, bai ta aren soiñaren orbantxo ur apartsuetan betiko itzali zanean.

Berriz ere, galtzoriz inguratutako biziera bakartiari eman zion, itotako lagunaren oroi-miñak nonai zerraikiola. Alabaiñan bere etsairik ankerrenak, gose gorria alegia, egunoroko burrukari aurre egiteko beartu zuan, ildako kutuntxoaren oroitza aldiaren laiñoan ezabatzen zizaiola.

Eta egunen jarraigo isillak, amabitsu urteko ar bikain eta sendo biurtu zuan. Negu artan, elurrez jantziriko bidezkatik zioala, zarrastada batek bidean iltzatuta bezela utzi zuan, irrikitsu, azkazalatz batzuen usnatzeari ematen ziola. Urte aunitz igaro izan ziran, baiñan orain artzen zuan usaiñak amaika oroitz zekarzkion... Mikize eme malguaren erakarpen gorena, alegia...

Bere aurretik ere, beste ar batek Mikize'ri usaiña artu izan zion, eta mendian gora elardi ta abarisketatik eki-

ñalean zioan, Ulkiz'eri ordu bitako aurea zeramakiola. Gazteagoa izanik, baiñan, tartea laburtzen zuan Mikize'n aztarnak galtzeke. Alako batean, usainmenera, emearenakin basurde ar baten usaiña etorri zitzaionr Urte asko igaro izan arren, usain arek bere baitan iñolako sumiña ernarazi zuan, Ankiz'ek basurde bakarti aaltsuak emandako astiñaldia oroimenera zetorkiola, eta kurrinka usuak erdiz irekitako agotik iges irten zitzaizkiola, mendian gora oldartu zan.

Iñularrean, aztarnen usaiña biziagotu zan, eta gau-leenean, txaraka-soil baten illargi betepean irudi ezabatsu bí begíztatu zituan. Txikiena geldirik zegoan; bestea aitzitik, inguruan zebilkion noizean bein musturkada biguiñez laztantzen zuala. Amorrú basatiak eraginda, itzetik ortzera zelaia zearkatu, eta begietatik txinpartak zerizkiola, Ankiz'en aurrean gelditu zan. Berealakoan burruka itzela sortu zan.

Geienetan, basurdeek ez dute eriotz-burrukarik egingen. Saietsak estu-estu jarrita, letagiñakaz elkarri erasotzen diote, illauna ta larru lodia zulatu naiez. Burruka galtzen asten danak, iges egiteari ematen dio, eta besterik gabe istillua or bukatzen da. Oraingoan, baiñan, aserre utsaz dana aztuta, Ulkiz'ek aurrez-aurre eraso zion bestearen zintzurra urratzeko asmoz, baiñan Ankiz burrukalari yaio ta zaarra izanik, bestearen letaginkadak arin bazterten zituan. Onela bada, ar aaltsu bien arteko burrukak txit berdintsua zirauan. Baiñan ez-arian ez-arian Ankiz nekatzen asi zan, eta etsaiaren talkadak ez zituan leengo azkartasunaz alderatzen. Ulkiz'en letagiñek zau-riak eta gero benetako sarraskia egiten zizkioten, bera indargetzen zalarik.

Ankiz'ek igesari eman nai izan **balo**, bizirik atera zitekean, baiñan ulermena moteltzen zioakion, eta burruka eten egin nai izan zuanekotz, beranduegia zan jadanik, Ulkiz'ek letaginkada izugarri batez zain nagusi bat ebaki

bait-zion. Ankiz'i belaunek uts egin zioten, eta odola borborka zeriola, elur-gaiñean erori zan beiñere ez jeikitze-ko.

Une batez, Ulkiz bere etsaiaren gorputz-ondoan atsanka bizian egon zan. Gero, Mikize'gana biurtu, eta kurrinka bereiziak irteten zitzaizkiola, laztandu zuan. Jarraki, txaraka-barrenean, izaeraren goraldi batean elkaré tu ziran. Udaberriko egunen batean, nonbaiteko txoko baten, iñaurkiñezko oatzean bostpasei basurde-kume bizkor, beuren enda azkarraren iraupenerako jaioko ziran.

Zenbait egun igarorik, biziera bakartiari oitutako Ulkiz'ek, bere laguna utzi, eta berriro leengo baso ta mandietako bidaiei eman zien. Orain, ordea, barneko zerbait-tek kezkatzen zuan, eta zergaitia ez bazekian ere, sortaldeko dei jarkigaitzak urrundik erakartzen zuan, eta begiratze yorantsuaz eguzki-alderantz maiz usnatzen zuan, ango lurraldean bazter zoragarriren bat bere igurikan bai'litzan. Gau batean, erakarpenari jarki eziñik, berrikitan erori zan elurtza lodipean, eguzki-aldeko norabidea artu zuan.

Sortalderako bidaian, dei ura gero-ta indartsuagoa zetorkion, ibillune luzeak egiten zituala, ozta-ozta mokaurren bat or-emen artzen zuala. Elurra ta arkaitzak izan ezik, oztopo gutxi aurkitu zuan, mendi ta basoak utsik zait-ziran. Onela bada, Naparroa'ko mendiak norabidez arturik, elurketa aundiko gau artan gure barrutira eldu, eta Lizarmendi arkaitzpean, Garaieta'ko sastraka usuan geriztatu zan.

Etzanda jarri zanean, Ulkiz indarren bukaeran aurkitzen zan. Janari-billaketari ekin zion, baiñan ez zuan arri baten azpian musker bakar bat baiño idoro aal izan. Etsia, berriz ere etzanda jarri zan. Onela egoala, lo-kuma batek artu zuan, egunak irauten zuan bitartean. Illuntzea etorri zanean, baiñan, goseak eraginda, jeiki, eta sastra-

karen ertzeraiño joanda, zai geratu zan. Pake betea nonai. Ulkiz'ek orduan, ibarreraiño jeistea erabaki zuan. Mendiko bizkarra zearkaturik, beeko ibarrean gure erriko argi-mordotxoa ikusi zuan, eta ara abiatu zan. Leendabizi, lizardi eder batetik mendian beera abiatu zan, gero iratze bat eta azkenik gartzaiñadi urtetsua zearkaturik, Bié degain auzoa aurkeztu zitzaion.

Pakearen-pakez lotan zirudian auzora urbiltzen zala, leendabizi zakur bat, eta gero auzoko beste zakur guztiak zaunka bizitan asi ziran. Arresi baten babespean, zenbait une geldi-geldi iraun zituan, eta gero, alboko aza-baratz batera sartuta, aza-jateari eman zion, irrika bizian jan-ala iresten zuala. Aldameneko zakurra ez zan iñola ere ixiltzen, baiñan gosez eragindako basurdeak, ez zion aza-sakaillari uzten. Gau-erdi inguruan asetuta, leen etorritako bidetik Garaieta'ko ezkutunera itzuli zan. Noizbait, gorde-lekura eldurik, load eman zion paketsu, urrengo gauean sortalderantz abiatzeko asmoz.

Egunsentian, Bidegain auzokoek sakailla oartu zuten, baita laister ikusi ere, basurdearen aztarnak elurretan marraztuta. Berria azkar edatu zan, eta erriko bi ta Atxandi'ko iru eiztari trebe bost zakurrekin aztarnen atzetik abiatu ziran. Eguerdian, Garaieta'ko sastraka-ertzean elkar aurkitu zuten. Sastraka au gizakientzat ibilkaitza zan ezkeru, zeramazkiten zakurren bidez, basurdea gorde-lekutik uxatzea erabaki zuten. Iru eiztarik bost zakurrekin, sastraka iru aldetik inguratu zuten, eta beste bi, onenak alegia, zelaiaren mugako pagadi-ertzean begirari jarri ziran. Lenengo iru eiztariak zakurrak askatu ta uiatu zituzten, aiek ertzean gelditzen zirala. Tximista alakoak, zakurrak sastrakara sartu, eta pakea zaunka bizitan astinduz, ekiñalean aztarnen atzetik oldartu ziran.

Bazan luzaro samar jadanik, eizterien oiuek Ulkiz iratzarri izan zutela, eta zentzuak ernai, gertaerak igurikatzen zituan. Uiatutako zakurren zaunka sarkorrak en-

tzun ala, zirrara batek basurdearen soiña astindu zuan; ez zan iñola ere zakurren beldur, otsoekin izandako buruketan, beti garaille billakatua bai-zan. Alabaiñan, bazekian atzetik eiztariak zetorzkiela, eta auen beldur zan alegia. Zenbait aldiz gizasemeek jazarritako izan zan, eta beti izu gorri batek menderatu izan zuan, batez ere Palentzi aldeko mendietan bere taldea tirokatua izan zane-tik, iru kide galdurik.

Ulkiz'ek etzanda zirauan igesari emateko gerturik. Zakurrek eraturako obo-erdia urbiltzen ari zitzaion, bazterrak aztertuz, oraindik basurdearen aztarnak ez bai-zuten oartu aal izan. Itsumustuan, aize-putz batek Ulkiz'en usaiña zakur bateri ekarri zion. Amorratuta, zaunka bi-ziak botatzen zituala, Ulkiz'en ezkutunerantz oldartu zan, beste zakurrek itsu eginda zerraizkiola.

Ulkiz'ek aintzindariaren erasoari ekin zion, eta zakurra eztarrira oldartzen zitzaiola, letaginkada indartsuz sabela urratu zion. Esteak sakabanatuz, eriotz-aiuri motela irten zitzaion, eta zerraldo erori zan. Urrengo zakurrari zauri aundia zango batean egin zion, baiña bitartean, beste irurek ozkatzen zuten; bik lepoan eta irugarrenak atzeko zango batean Orduan, miñaren-miñez Ulkiz'ek arinketa zoro bateri eman zion, zintzillika iru zakurrak narraz zeramazkiola. Laister, baiñan, sastrakak zakurrei egiten zizkien zauriek, basurdea azkatzera beartu zituzten, eta azkenean, Ulkiz sastrakatik jarei irten zan. Zabalu-ne artan, berriz ere atzituteko zorian zala, tximista alako biurtu, eta bapatean aurreko zakurrari bularrean zauri ilgarria egin zion. Beldurrez atzeraturako beste biak, ez ziran erasoari berriz oldartzen ausartu, eta Ulkiz pagadira-ntz abiatu zan, zakurrek urrundik jarraitzen ziotela.

Basoan sartzen zalarik, zizpen eztandak zabaldu ziran, balakada bi soiñean sartzen zitzaizkiola. Igesaren zauskadagaitik, noski, Ulkiz'ek ez zuan min aundirik oartzen, baiñan sumin gorri batek menderatzen zuan,

pagadian zear ekiñalean aurrera oldartzen zalar Ixiltasuna ta pakea basora biurtzen zirala, ogeiren bat metroko bitartera, ara non itzal bat aurkeztu zitzaion. Zizpa tinko oratuz, bigarren eiztaria agertu zan, etengabe su egiten ziola. Balakada bat besaburuan artuta, Ulkiz sumiñez irakiten, eiztariaren aurka oldartu zan. Berriz ere eiztariak danba egin zion, baiña uts egiñik, basurdeak itsua bezela eraso zion. Eiztaria irixteko zorian zala, baiñan, onek irugarrenez danba egin, eta jaurtigaia burutik sartu zitzaion. Ulkiz iltzen ari zan, baiñan azken unean burua jaso, eta eiztariari letagin-zastada batez, iztarra goitik beera urratu zion.

Biak erori ziran, Ulkiz ilda, eta eiztaria kordegabetutar Beste lagunak bereala eldu ziran, eta aalik ariñen arkitxak gertaturik, zauritua errirantz eraman zuten.

Illunabarra urrats lotiaz iritxi zan. Gero, gauleena ozkarbiaz jabetu zan. asperen beltzez izarrak urrumatzen zituuala. Lizarmendi gaiñetik illargi betea jeiki zan, basoa ta elurra, bere kutunak, edertzearren. Adar billutsen artetik, aren izpiek odolez inguratutako Ulkiz'en gorputz etzana laztandu zuten. Basoko nagusia, mendietako ibiltaria, beldur gabeko burrukalaria, elur-gaiñean zetzan, bizigabeko begiak sortalderantz zuzenduak, eriotzeko loan Napparra'ko mendiak azkenengoz itzulémiñez ikusi naiean bezela.

Illargiak eta basoak ixillezko malkoz basurde kementsuaren eriotza negar egiten zuten... Basabere bat iltzen danean, aiengandik zerbait maite-maitea suntsiten baida...

Ernaia, baserlea

Ori ta Iru Erregeen Maia mendietatik iparrerantz zabaltzen dan Zuberoa'ko lurralde maitagarrian, Epaila'ko goizalde eguzkitsu batean, Ernaia baserlea jaio zan.

Bere jaiotetxea, oian aundiko arkaitzetan eraikia zan eultz txanbeliña, Kakueta'ko amildetigitik urbiltxo zegoan. Eultzak, erle-iri aundiak, irurogei milla biztanle baiño geiago bazituan, danak etengabeko lanean leiaz gainezka, beuren abendaren arnas aspergaitzak eraginda.

Ernaia, erle-gaiaren lotatik itzarri zanean, inguratzen zuan zikiriozko estalkitik ekiñalean askatu, eta bizi-miñaz jabetuta, kabi-atearen aurka zoratuta bezala oldartu zan, mundu zoragarrirako oztopo zitzaion argizagizko atea urratu naiean. Bere sointxoaren indar guztiaz berri eraturako zango ta ago biguiñekaz, itopenezko oztopo aren aurka ekin zuan. Asko aalegindu ondoren, zulo txiki bat lortuz geroz, pixkanaka zabaltzen asi zan; alabaiñan, egindako indarraldia bere sointxoarentzat geiegi izanik, lanari nai-ta-ez utzi bear izan zion; eta nekaturik, unetxo batez igige geratu zan, aize pizgarriak eta otsen zuzmur gozoek ekartzen ziotenari adi-adi. Kabi-zuloaren ondoan onela zegoalarik, beste baten ortz zorrotzen kris-kras entzun zuan; ate-zuloa aundiagotzen asi zan laister, eta noizbait, erle sendo baten burua agertu zitzaion: Aloa'rena, bere iñudearena zan. Onek antz emana zion, laguntza bear zuan erle berria jaio zala, eta betarik galtzeke, ate-urratzeari ekin zion. Azkenik, kabi-sarreran zear, bi adarrek Ernaia'ren soiña, --oraindik ezoa--, laztandu zuten, eta iñudearen laguntzaz irten zan kabitik.

Ezker-eskubi argizagizko abarasken bidez ertzaturiko kale luzean aurkitu zan. Sarreratik zetorkion argi gozo batek, zekusan oro dizdir biguiñaz edertzen zuan; kalean beera ta gora, erleketa amaigabea alde guztietara saka-banatzten zan. Ernaia'k baiñan, ez zekusan besterik, non-baitetik zetorren eta, izpiz beterik, ludi zoragarria iragar-tzen zion argi biguiña baizik. Ezaugabea zan zerbaitek, argirantz erakartzen zuan, eta zangotxo aul dardartsua-kaz, ibiltzeari eman nai izan zion; baiñan Aloa'k azkar, aren gorputzari eutsi egin zion, eta edarrekaez laztané tzen zualarik, onela mintzatu zitzaion:

- Nora joan nai den? Nik ikusitako erlerik bizkorren eta zoliena aiz, beraz "Ernaia" izendatuko aunat. I zain-tzeko ta iri erakusteko aukeratu naune. Orregaitik, oro-tan nere menpeko izango aiz. Ni, Aloa, ire iñude nau-kan.

- Oi Aloa --arrendu zion Ernaia'k-- utz nazan, non edo nondik datorren argi eder ori ikustera joaten...!

- Ori ezin ziteken --Aloa'k irri-parrez esan zion--. Oraindik gazteegia aiz. Ire egoak soiñari itsasiak zego-zen, zangoak aulak ditun, eta begiok ez zezaketen ikusi. Egunen batean, argi eder ori ikusiko dun, eta bere izpie-tan murgilduko aiz; bitartean ordea, asko ikasi bear dun. Ara, orain ire sointxoak legortuko diñat, gero janari apur bat artu, eta bizkorrago aizanean, gure erriko biziera ta oiturak erakutsiko dizkiñatr

Aloa, mingaiñaz Ernaia'ren soiña garbitzen asi zan; andik laister, Ernaia'k egoak zabaldu, adarrak zutitu, eta pozaren pozez burrunba egiteari eman zion. Arrituta, Aloa'k ez zituan begiak bere kutunagandik kendu aal, ain sendoa zan-eta. Igartzen zitzaizkion ongi eraturiko sei zangotxoak, geroago soin eta illea apaintzeko egokiak izango ziranak; baita lore-iriña ekartzeko ere. Adar luze txairoek, entzumen eta usainmen bikaiñak erakusten zi-



tuzten; auen alboan ikusmen aundiko begiak zeuzkan, eta egunen batean, beuren lau milla aldeek, landareen ezkutune zoragarri guztiak aztertuko lituzkete; eta loreen gaiñean jarrita, su ta adorez gaiñezka, begi aiek lore-os-toak arakatu ondoren, eztiégai gozoa turutaren bidez até rako liekete.

Urre-beltzeran antzoko soiña, sabela eratzen zuten zenbait ereztunetan bukatzen zan. Azkenengoan, ezten izugarria nabari zan. Edena zerion izkillu eraikor onen bidez, abendakoren etsai guztiak ondatuko lituke.

Aloa'k baézekian bere zainpekoa nolako burrukalari adoretsua billakatuko zan, garaia etor zekionean, eta aspergabe, arrotasunez gaiñezka begiztatzen zuan. Ernaia'gan geien atsegin zitzaiona, aren lau ego jori ta garé denak ziran, zillarrezko dizdiraren antzekoak; egoak bularrean asten zitzaizkion, eta bakoitzak ogei ta bost zain zituan. Ego sendo aien bitartez, gai zan orduan ogeitam kilometro baiño geiago egiteko, eta dardar-aldiak segundokian berreuntsu izango zirakean. Aloa'ri otu zitzaion, ez zala jaio erlerik, egada batean Ernaia'rekin neurtu zitekenik.

Ernaia gose zan; janari-eske bezala mingaiña atera zuan, eta egoak erle jaio-berrien igikun bereiziz dardar zegiten. Aloa'k, kutunaren begiratzeari utzita, janari-billa abiatu zan. Agobete ezti zekarkiola agertu zitzaion laister. Ernaia'k atsegin biziaz jaki gozoa miazkatu zuan, iné dar eta bero pizgarriak sortzen zitzaizkiolarik.

- Ator enekin --agindu zion iñudeak--. Lanean asi aurretik, gauza batzuk erakutsiko dizkiñat. Leendabizi, Amerle erregiña, gure etxeko ama maitea ezagutuko dun.

Aloa ibiltzen asi zan, eta atzetik zerraikion Ernaia'k, erleen joan-etorriak arrituta begiztatzen zituan.

- Or-emenka leiatsu dabilzan erle oiek, ezti-gai ta lore-iriñaren biltzailleak ditun --Aloa'k eratxiki zuan--. Urta-rilla'n urritz-loreetan uztatzen ziguten; orain, bukatzen ari zaizkigun urki-loreetan, eta laister, ezti gozo-gozoa ateratzen diñagun elarraren loreetan. Maizenik, biltzailleak ez ditun urruntzen bi kilometrotatik gora, bestela geiegi nekatuko ítuken. Orra! Begira, or urbiltzen zaigun ezti-gaiaz zamaturiko erle orri.

Aloa'k erakutsitako erlea, aberaskatik gora zioan eta erle-zulo batera elduta, barnean ostendu zan.

é Erle orrek --Aloa'k adarren mintzairaren bidez esan zion-- paparra urki-lorearen ezti-gaiaz beterik zeraman. Orain, kurintxo batzuei darien guriñaren bidez, ezti-gaia ezti urtsu biurtzen ari dun... Bereala ezarriko zetin tantotxo biak; atean dagozen erle-aizegilleek eragindako aizeak, enparauko ura lurrinduko din, eta gero, berri egindako ezti aberasken goikaldeko zuloetan gordeko diñagu; erle-zuloren bat betetzen dan bakoitzean, eden-tanto bat ezartzen din, ezti artzi edo legami biur ez dadin, eta jarraiki, argizagizko estalki batez, bear dan arte itxita iraungo din. Eultz ontan amabi abaraska zetiñagu, baiñan orain batetik soillik jaten diñagu, besteak gerorako bait-ditun.

Aurrera joiazala, aberaskez ertzaturiko zenbait kale zearkatu zituzten, eta auetariko batean ikus-naiatz menperatuta gelditu ziran. Une artan berean, Amerle, erriko andre ta erregiña, arraultza errun ondoren, kabi batetik irtetzen zan; eta lipar batez geldi-geldi, erle leiatsu batzuk inguratu zuten, janariéeskeinka ta soiñean izandako eragabeak atontzen zizkiotela.

Orduan Ernaia'k aukera osoa izan zuan, erregiña aurpegiz-aurpegi begiztatzeko. Langilleak baiño zeozer aundiagoa, soin lerdenekoa zan, egoak oi baiño laburragoak bazituan ere; otarrik gabeko zango orixkak, eultze-

tik irteteko bearrik ez zuan-eta; buru txairoa ille dizdiratsuakaz estalia, ta mingain luze estuduna zan. Itzal eta maitasunaz bere erregiñari begiratzen ziola, aren soiñetik usain bereizi pizgarria zeriola oartu zan Ernaia.

Andik laister, beste kabi-zulo batean sartu zan Amerle, eta begimenetik ostendu egin zitzaien.

- Orain, langilleen arraultzak erruntzen ari den --zuzé murka bezala esan zion Aloa'k, adarren izkuntza bereié ziaz--. Udaberrian auen bearra izango diñagu, gerorako eztia gertatzearren. Ondoren, erle-nagianak, eta azkenik, erregiñenak. Oi Ernaia, orduan gauza izugarriak gertatzen ornen ditun...! Baiñan goazen aurrera.

Aloa onela mintzatzen zitzaiola, aurreko abaraskara iritxi ziran.

- Leengo udan jaio unan gure erregiñak, egunean milla ta berreun arraultz erruntzen zetin, txit sendo ta maratza bait-den. Arraultzak makilla txiki ta zuriak antzo ditun, eta il ez daitezzen, ogeitamairu berotasun-mailla bear zetiñagu. Eguraldia ozten zaigunean, eztia jaten diñagu gure soiñek eultza bero dezaten; eta berriz, beroegia ba'den, egoak astintzen zetiñagu oztearren. Lau egunen buruan, arraultzak erleégai biurtzen ditun. Arestian auetariko bat intzan, baiñan iñudeok orretarako gagozen.

- Iñude al aiz i?

- Bai, ala naun.

Iñude ona izateko, zazpi egun gutxienez izan bear zetiñagu; baiñan ori baiño leen, irugarren eguna betetzean, ezti, lore-irin eta urez elikatzen gaitun; eta zazpi-garreneko, sarna-azkenean zetiñagun kulintxo bietatik, esne gozo-gozoa zerionagun, eta onen bidez erle-gaiak iru egunez janaritzen ditun. Esne au "errege-aia" izendatzen diñagu, ta Amerle'k aia ontatik ugari jaten ornen din ...

Onaiño elduta, Aloa'k unetxo batez ixildu zan, gero onela jarraitu zuan:

- Iru egunok igarorik, ezti ta lore-iriña ematen asten gaitun. Ezin asma ditzaken erle-gaiek bear zetiñen ardurak, baiñan bai zoragarriak ditunala agotxoak beti zabalik janari-eske...! Bost egun igarorik, logura astun batek menderatuta, jateari uzten zioten, eta orduan argizagizko estalkiaz kabia ixten diñagu, erleégaien loa egin dezaten. Egun bat eta erdiz, beuren zikiriozko estalkia edo jantzia euntzen ari oi ditun; eta zazpigarrenean, loak artutako sointxoetan gorpuzki tolestuak agertzen ditun, adarrak eta egoak batez ere marrazten zaizkiela. Askatsun-garaia eldu dun, eta erlea jadanik eratuta, bizitzaz egarriturik, bultz menperakaitzaz kabi-atea ixten dion eragozpenaren aurka oldartzen dun; baiñan gaixoak ezin ireki, ta ate-joka aditzen diñagunean, kabira urreratu, ta andik irteten laguntzen zionagu. Onela jaioa aiz i ere bizitasun eta leiaz gaiñezka. Oi Ernaia, nik neuk egundo ikusitako erlerik sendoen eta ederrena aiz...!

- Esaidan Aloa --ebaki zion Ernaia'k soiña adarreka lastantzen ziolarik--. I ote aiz aspaldi ontan zaindu ta janaritu nauna?

- Bai, Ernaia --Aloa'k irrikoi jardetsi zion--. Ene ardurapean zenbait erle-gai nituan, eta aien artean i intzaidan kutunena. Urreratzen nintzakiñan baizen laister, an egonan, jauzika ta agoa idekita janariaren eske, beti bizkor, beti ernai ta joranez beterik. Ain maitekorra izan aizen ezkerro, oartu gabe, gaiñontzekoei baiño janari geiago eman niñan. Orregaitik aiz noski, orren indartsu ta ederra.

- Eskerrik asko Aloa. Aurrerantzean biok lagun miñak izango gaitun, eta egun oro ikustalditxo bat egingo diñat.

Une artan, itxura zorrotzeko erle bikain bat urbildu zitzaien. Soñean, burruka izugarrien aztarnak nabari ziztuan, eta aren begiek irmo ta aginkor so egiten zuten.

- Nor ote dun urreratzen zaigun ori?

- Erlezarra dun --Aloa'k zuzmurka esan zion--. Gure erriko erlerik ospetsuenetako bat; Amerle'ren ertzaiñen aintzindaria ta orobat gure eultzeko onularia. Gudari izugarria dun, eta txintik ateratzeke, danok men egiten zionagu.

Erlezarra txit urbil zitzaien jadanik, eta besterik gabe galde egin zien aginkor:

- Zertan diarduzute emen?

- Jaioberria zaigun Ernaia'ri gure abendako oiturak azaltzen ari natzaio-- otzan-otzan erantzun zion Aloa'k.

Erlezarra'k Ernaia unetxo batez adi-adi begiztatu zuan, eta gero:

- Erle sendoa aiz --begiak pindar esan zion-é. Garbi-ketako lanetan jardungo den lendabizi; kabietatik eroritaé ko argizagizko estalki guztiak, erle-gaien zikiriozko jantzi-ondakiñak, baita aurkitutako zeinnai zikinkeria, eultzatic at narrazka jaurtiko zitun. Zeregin ontan zazpi egunez arituko aiz; gero, ego indartsuak ditunan ezker, atezaié ña izango aiz eta egoak eraginka, eultza aizatuko dun. Gure baitatik urbil etsairen bat ba'dakusan, euk erailgo dun; eta au eziñezkoa baldin ba'zain, guri jakinéraziko digun, baiñan ez dion iñola ere igesari emango, gurean saldukeririk ez bait-dun ezaguna. Iru asteren buruan egan egiteko gauza izanik, ezti-gaia ta lore-iriñaren billa abiatuko aiz. Ezagutu gabeko lore-mintegiren bat idoro-tzean, guri jakiéraziko digun, baita galtzoriren baten susmoak izatekotan ere. Ire buruari uko egingo dion, enparauak bizi daitezen, orretarako bizia galdu bear ba'dun

ere. Orain abia zaitezte bai i ta bai Aloa zuen zeregiñetara.

Itz auek esanik, Erlezarra urrundu zan, eta elkarri agur bero egiñik, Aloa ta Ernaia beuren zeregiñetara arindu ziran.

Aginduta bezala, aurreneko zazpi egunetan, Ernaia'k eultz-garbiketako lanetan jardun zuan. Masail indartsuz ornitutako agoaz, erle berriek urraturiko argizagizko estalkiak, ateraiño zeramazkian eta emendik kanpora jaurti oi zituan. Ernaia'ri arazo au txit gogoko zitzaion, garbizale izanaz gaiñera, abagune ugari ematen ziolako eultzaren bazter guztiak ezagutzeko.

Geien atsegin zitzaiona baiñan, kanpoko ikusgaiak begizatzea zan. Zugaitzen abaro-artean borborka zetorkion argi ernagarria; zabaldiko gardentasun jorian eguzki-peko ostoak urrezko dizdiraz blei eginda; ortzi urdinpean belar sorberriaren artean bizi-naiaz gaiñezka oremenka zebiltzan izaki amaigabeak; aize ibiltariaren zuzmur eresintsuak basadi oro besarkatu naiean; loreen margo ta lurrin zoragarriak... Au danak Ernaiz'gan lillura jarkigaitza ernarazi zuan, eta irrikan zegoan berari ere noiz etorriko zitzaiokean garaia, argizko ludi artan murgiltzeko...

Andik ere, erle-multzo amaigabeen egaldiak ikusten zituan, eguzkipean urrezko txinpartak antzera, artegaturik, beti iraduz atzituakr Eultzara eldu-ala, abaraskez mugaturiko kaleen artean galtzen ziran, eta aurkeztutako lekura iritxirik, otarratxoetan ekarritako lore-iriña ustu ondoren, erle-kabietan sartzen ziran, paparrean zekarten gaia ezti biurtzearren; eta gero, landan zitxarokien edertasuna galtzeko beldur bai'liran, berriz ere eguratsean zear oldartzen ziran etengabe burrunbaka, bizitzarako atsegiñak zearo menderaturik.

Ernaia'k zekusan guztia, txundituta bezala, begizatzen zuan, baiñan bere garaia oraindik iritxi gabe zitzaio-la jakiñik, adorez gaiñezka, barruan izaki berriak elika-

tzen eta negurako altxorrak metatzen ari ziran erleki-deengana itzultzen zan.

Bere garaia elduta, garbiketako lanak utzirik, aizegintzan eta atezaindaritzan jardun zuan. Ate-ondoan jarrita, ego sendoekaz aizea eragiten zuan, arintasun arri-garriaz egoak igitzen zitzaizkiola. Aize berriaren bidez, arintasun geiegizko ezotasuna lurrintzen zuan, eta bidebategarriaren barneko giroa egokitzen. Lan onek guztiz zorutzen zuan, onela eguzkiaren asiera ta mendien atzetiko itzalé tzea ikus bait-zitzaken, baita ain maite zituan ortzia ta oiana ere. Adarrak aurrerantz zuzendurik zituala, barneratzen ziran erle guztiak begi sarkorrez aztertzen zituan, atzerritarren bat ateraiño ausartzen baldin ba'zan, iltzeko gerturik. Alabaiñan ez zan gauza nabarmenik gertatzen. Egunak ederrak ziran, eta erleek uzta naroa gerorako biltzeari buru-belarri ematen ziotenr

Beiñola, arriturik bai'litzan, Ernaia'k ikusgai gogoangarria begiztatu zuan. Aspaldi artan, bear-bearrezkoa zitzaien lore-iriña, egunean milla ta berreun erle jaiotzen bait-ziran, urriagotzen zioakien. Etengabe, erle-talde ugariak loreíriñezko mintegi berri baten billa ateratzen ziran. Jadanik, bilketa orretarako gai zan Aloa, azterlarie-netakoa zan, eta oi bezala Ernaia'ren aurretik igarotzean, lipar batez gelditu ta agur gartsua egiñik, ortzi uré diñean murgildu zan. Egun artan azterlari guztiak ezer lortzeke ta txit nekatuak itzultzen zirala oartu zan.

é Beste egun bat geiago loreíriñik gabe --berekiko iñoan Ernaia'k betillun--. Gure Erlezarra artega dabil, eta ori agerkun txarra da.

Ozta-ozta gogapen auek izanda, ara non ikusi zuan Aloa azterralditik unatuta zetorrela. Ateéerlaizean kokatu, eta unerik galtzeke barrendu zan. Ernaia'k zerbait ez-oitua nabaitu zuan bere adiskidearen igikunetan, baita soiñetik zerion usain bereizian ere. Sartu-ala, inguratu zi-

tzaizkion erleei, Aloa'k otarratxoetan zekarren auts gorri-beillegia eman zien, eta bereala gauza arrigarria gertatu zan: Zoraturik bai'litzan, urrats labur eta ariñez, dantza egin bitartean Aloa'k 8 antzoko irudia marrazten zuan. Adi-adi, adarrak Aloa'ganantz zuzenduak zituzten beste erleek, dantzaren irudi ta igikunei zerraizkieten. Aloa'k zenbait unez onela jardun zuan, eta dantzaren iraupena-gaitik, gero ta ugariago inguratzen zuten erleek ulertu zioten, idorokunde aundia izan bear zala.

- Lore-iriña, lore-iriña --adierazten zien Aloa'k dantzari ekiñez-- benetan ugaria, erle-multzo berri bat elikatzeke lain. Izaiak lore-iriñaz gaiñezka, eguzkipean guri begira bezala ditugu, emendik kilometro ta erdira, gorosti-txaraka igarota, Kakueta'ko amildegian oldartzen dan erreka zearkatuz geroz.

Bat-batean, Aloa'k dantza eten egin zuan. Sabeleko azken erestuna makurturik, bere lagunek txik ongi eza-gutzen zuten usain bereizia edatu zuan, eta urrezko txinparta bai'litzan, ortzi aratzean sarkalderantz makurtzen ari zan eguzkipean, ostendu zan Aloa.

Aloa'ren jarraian erle bat oldartu zan, gero beste bat eta beste bat. Azkenean, gudaroste burrunbalaria altxor-raren billa abiatu zan, Aloa'gandik zerion endaren usai-ñak erakarrita.

- II -

Zenbait egun igaroak ziran jadanik, eta Ernaia oartu zan bere garaia irixten ari zitzaiola, eta berak ere murgildu bear zuala erakarpen bizi-bizia zan argizko ludi zoraé garri artan. Jorrailla'ko erdi-aldetsua zan, eta osoki zabalik zegoan elarrak, atson samurraz estali zituan zelaiak. Goiz batean, Ernaia'ri egoak zabaldu zitzaizkion, eta ordurarte iñoiz ez izandako zorionak eraginda, tximista alako eguratsean zear oldartu zan.

Zuzen-zuzen, egoak bizkor eragiten zituala, oian bettera barrendu zan. Osto dardartiek eta lore-kolko ñabarrrek dei egiten zioten, azkar eta burrunbatsu argi-itsaso lilluragarri artan zear, amaika lurriñez inguraturiko, ordituta bezala zioalarik. Emen, abaroaren ospel betean; gero, argiunetan dizdirak blei eginda; an, belarraren ukitze epel eta gozoak laztanduta. Uraxe zan baiki berak amets egindako biotz eta begientzako zerua, noizbait egi biurturik.

Zugaitzak bakantzen asi ziran, eta andik laister, eguzkiak lits askoren argiaz apaindutako zelai orlegi zabalean aurkitu zan. Ortzi gardenean, pakez eta aunditasunez inguraturiko Auñamendi'ko tontor urdiñak argiro bereizten ziran...

Bereala oartu zan Ernaia, mendi ordin eta goren aiek maite izango zitukela baso maitagarria aiña. Zerbait aurrerago, zelaiaren beekaldean lats baten zuzmurrak aditu zituan, belar eta arkaitzen artean amiltzen zalarik. Uztarpetuta bai'litzan, Ernaia uren gaiñaldera oldartu zan, eta aparrezko zurrunbilloak ukitzeko zorian zala, geldi-geldi unetxo batez, egoak burrunbaka geratu zan, latsaren zillarrezko erkarpenak zearo lilluratuta. Bat-batean, erreKaren sorgindura baiño indartsuagoa zan zerbaitetek, aurrera eragin zion... Errekaz arainditik zetorkion usain ernagarria zan. Egan egiteari eman zion berriro,

eta txaraka usua igarorik, muiño baten egian elarrez zipriztindutako zelai zabalean aurkitu zan.

Unerik galtzeke, jetxi ta elar-txorta baten gainean kokatu zan. Aize biguiñak elarraren loretxo zuri-gorriak gorgoñatzen zituan, eta Ernaia'ri zeru yaukulean murgiltzen zala iruditu zitzaion. Lore-osto baten barneko joritasunak dei egiten zion. Lore-atalak zertxobait aldendurik, buruan zeuzkan iru begiekaz lorearen ixilpeko guztiak aztertu zituan... Bai, antxen bere etorkundearen irrikan bezala, ezti-gaiaren malkotxo bat zitxarokion... Pistiloen beekaldean zetzan, dizdir dardartsuz keiñu ta keiñuka, goizaldeko agurra bai'litzan. Axolkiro, min eragiteko beldurrez bezala, turuta-muturra luzatuz, Ernaia'k ezti-gaia paparreraiño igo-erazi zuan. Onela, lore-osto batzuk ikertu zituan, eta paparra bete zitzaionean, tximista baiizen azkar, eultzerantz itzuli, ta luzaro gabe etxean aurkitu zan.

Beti iraduz, aldia alperrik galtzea mingarri bai'litzan, sartu-ala, ezti-biltzerako bereizturiko abaraska baten goikaldera igo, eta kabi batera sartu zan. Zuloa erdiraiño beterik aurkitzen zan, eta gainaldea zertxobait gogortzen asia zan ezkerreko, gogorturiko mintza kendu zuan aurreko zangoakaz. Bitartean, urdail-guriñaz ezti-gaia ezti biurtzen ziarduan, eta une batzuk igarorik, urrezko tantotxo antzekoa zan ezti apur bat agertu zitzaion, eta enparauko eztiarekin naasita, berriz ere urdail-lanari eman zion, bigarren tantotxo erion arte. Gero, ixuritako ezti zapaldu zuan bestearekin naas zedin, eta betarik galtzeke irteerantz abiatu zan.

Arratsalde orduko egarriturik, latsaren ertzean kokatu zan, eta aren zuzmur eresintsuak inguratuta, lenengo aldiz ur gardenen ozkirri atsedengarria ezagutu zuan. Arrezkerre, errekarren lillurak erakarrita, maiz itzultzen zan bere tokirik kutunenara: aparrez erdi-estalitako ur bi-zietan barrentzen zan oroldioz itsasiriko enbor igar batera.

Egun artan berean, illunabarrak gentzazko laztan illunak nonnai barreiatzen zituan garaian, Ernaia guztiz nekatuta aurkitu zan. Ogeitsu joan-etorri bete izan zituan jadaneko, eta azkenengoz ezti-gaiaz zamatuta, Benaparra'ko mendien atzetik itzaltzen ari zan argipean zetorrela, ustekabez, nekearen-nekez egoak elabarritu zitzaizkion, eta zugaitz baten ondoko belarretan zerraldo erori zan. Illik alakoa, zenbait unez lokumaren menpe irau zuan. Dizdir beltz ankerra zuten bi begi lilluratzaille baratxe-baratxe urbildu zitzaizkion. Kemen gabe etzanda zegoan Ernaia'ren soak, irudi argandik aldendu eziñik jarri ziran. Urbil samar zirala, begi maltzur aiek leiñuru gaiztoz bete ziran, eta aalgeturiko Ernaia'k nai-ta-ez agoa zabaldu bear zuan ezti-tantotxoia zeriola. Txingurri baten soin lerdena oldartu zitzaion, eta eztia azkeneraiño zurrupatu zion. Gero arin, belarraren artean ostendu zan. Andik laister itzarrita, Ernaia'k pixkanaka indarrak berrartu zituan, eta eultzara mutur-utsik eta aserre bizian biurtu zan, igarri eziñik nork ebatsi zion ain nekez irabazitako janaria.

Egunak arin igaroten ziran, eta eultzean ez zuan iñork atsedetik artzen. Jorrailla aurrera joian, eta eguraldi aratza txit egokia zan lanean jarduteko. Noizean bein, odeiek ortzi garbia estaltzen zuten, eta orobat erleen bizé kortasuna ta alaitsuna itzaltzen ziran. Zerbait astuna, logarria, erleen leiaz jabetzen zan, eta kikilduta, ez ziran ezertarako gauza. Alabaiñan eguzkia garaille ateratzen zan berriro, eta onekin batera joran berrituak eragiñik, erleen soiñak urrezko pindarñoak antzera ortzia osteria il-dokatzen zuten.

Jorrailla'ren azkenerantz, erle-taldea arras ugaritua zan. Egoitza estu ta urri billakatu zan ainbeste lagunentzat. Dei ezkutuari men egiñez, Amerle'k erlenagien erruntzeari ekin zion, eta langilleek oi baiño kabi aundia-goak antolatzen ziarduten, geroago jaioko ziran erregi-

ñek kabi egokiak izan zitzen. Erlenagien arraultzak errun eta gero, Amerle'k erregiñen erruntzeari eman zion. Onen arraultzak, langilleenen antzekoak, baiñan kabiak zerbait aundiagoak ziran, eta erregingaiek ez zuten besterik artzen errege-aia baizik. Erregin-gaiak lotan asi ziranean, langilleek aien kabiak argizagizko estalkiakaz itxi zituzten eta orduan erregin-gaiak buztaneko zimur batetik zintzillika, burua soillik estaltzen zien ziriko-zo-ko jan tzia euntzen asi ziran.

Errunaldia bukatuta, Amerle'k gero-ta urduriago zirudian, eta jasaten zuan artegatasuna erri guztiari zabaltzen zion. Ba-zekian Amerle'k, oraindik itxiak zegoen kabi aietatik, etsai berri ta amorratuak sortu litzaizkiokela, eta noragabe an-emendik zioan erregin-gaien kabietatik itsua bezala, noizean bein kabien aurka oldartzen zala, abagune egokiren billa, ezten izugarriaz aien soin samurrak alderik-alde sastakatzearren. Baiñan Erlezarra'k eta berarekin zaindari ospetsuenak, abendaren olde zaarrari jarraituz, erregiñaren asmoak eragotzi, eta alde batera bortxaz eragiten zuten. Ez zizkioten leengo loxintak egiten, ezta janaria itzalkiro eskeintzen ere. Erregiñak berak artu bear izaten zuan kabietan idoro aal izaten zuana. Nabari zan erritar orok erregiñaganako begirune otzana galdu izan zutela. Topo egiten zutenean, ez ziran aintziña bezala alde batera baztertzen, eta Amerle aserre bizian burrunbaka, eultzean zear zoro antzera laisterka zebillen, bera aiña bezalaxe burutik eginda zirudian erle-talde ugariak laguntzaille zuala.

Ekainilla'ren erdi-alde inguruan, kabi batean lau egunen epea igarorik, erregin gazte bat esnatzen ari zan. Ago samurraz ziriko-zoko jantzia urratzen ziarduan, kris-kras aula aditzen zalarik. Jaiotzeko zan leikidearen aalegiñak oartzean, iñoizkorik sumiñen billakaturiko Amerle, ateari oldartzen zitzaion erregin gaztea erailtzearren, baiñan Erlezarrak eta bere lagunek ez zioten uztenr Lei ez-

kutu batek eraginda, betiko mirabe zintzo ta arduratsuek, goreneko abagunean, ordurarte nagusi izandakoari, erriaren onari zegokiona indarrez ezartzen zioten.

Amerle kabitik osteraz baztertu zan, baiñan besteen lazokeriren bat ustiatuz, kabiaren aurka oldartzen zan berriro. Soin lerdena atean jarrita, erdiz tolesturiko egoak eragiñez, Amerle'k eresi bakan eta lilluragarriari eman zion. Inguruan zegozen erlekideek, lilluraldiaren pean ametsetan ziruditen, erregiña maltzurki etsaiari eztena sartzeko gertatzen zan bitartean. Sastakaia sartzera zioa-kion une berean, abesti amesgarriari eten egin bear izan zion, eta lillura joanda, ertzaiñak oldartu zitzaizkion, eta narrazka urrutiratu zuten.

Amerle'k aserre bizia, erotasun itsu biurtu zan. Laisé terka, eultzean gora ta beera, bazter guztietatik noragabe zebillen erle-multzo burrunbalaríak zalaparta bizian zerraikiola. Eultz-barruan, giro beroa, aize arnaskaitza ta agintzauspena, ziran nagusi. Ustekabez, Amerle'ren atzetik zebiltzanak asaldatuta, abaraskeri eraso zieten, eta aal aiña ezti paparrean sartu zuten, askatasun eta egoitza berria lortzeko azmoz.

Amerle ate-erlaizeraiño irten zan. Une batez geldié geldi, eguzkiak urrezaturiko zugaitzen ostoak, zeru urdinzka ta belar ezotsua, irrikan begiztatu zituan, eta jarraiki, arratseko edertasunak erakarrita, ortzi gardenean burrunbaka barrendu zan. Ugolde zaratatsua bai'liran, berrogeitsu milla erle, atzetik oldartu zitzaizkion, beuren erregiñaren soin ederretsia babestearren, eta bere kutunek inguratua zala ikustean, pozaren-pozez zorionezko abesti sarkorra jaulkirik, Amerle egoitza berriaren billa abiatu zan.

Atzean utzitako eultzean, erregin gazteak kabi-atean zulo bat eginda, askatasun eta itxaropen-deia zan bere lelo zoragarria abesten asi zan. Inguruan, pozez menpe-

ratuta zegozen erleek, zorion berrien eskeintza zan eresiari edi-adi zentzukioten. Urren aurkitzen ziranez, argizagizko atea agoakaz urratu zuten, eta noizbait yaukal eta ederra, Bakerle erregin berria bizitzaz gainezka agertu zitzairen. Erleak inguruan jarri zitzaizkion, batzuek egoak legortu, besteek gorputza miazkatu ta urrengoek errege-aia gogotsu eskeintzen ziotela.

Onela jaten ari zala, batbatean Bakerle arrituta bezala gelditu zan; aldameneko kabian, beste erregin gaztearen soin samurra bizi-miñaz iratzarrita, igitzeari eman zion. Tximista baizen azkar, Bakerle etsaiari oldartu zitzaion, eta anker, atearen zear eztena sartu, ta sastakatu zuan. Tximistak jota bezala, etsaiaren bizitza berria erioztzaren gelditasunean betiko itzali zan. Alabaiñan aski ez izanik, aurki bere agintzarena eztabaidan jarriko zuten beste erregiñak, beuren kabietan itzarten bait-ziran, errukigabe, erriaren oitura zorrotzari jarraituz, Bakerle'k bana-banaka oro erail zituan. Orain benetako erregiña, erriari iraupen eta bizi-joran emango zizkion nagusia zan.

Andik sei egunera, erriko bazter guztiak ezagututa, Bakerle ateraiño urbildu zan, eta lekorean bere igurikan zegoan zabaldi zoragarriari joranez dardar so egin zion. Eguraldia eguzkitsu ta aratza zan; ortzi garbiak batez ere egundoko erakarpena bere baitan ezartzen zuan, eta dei arek izaki osoan urruntze-miñak sorterazten zizkion. Aterlaizean agertu-ala, eguzkipean oporketan ari zan soin mardulezko erlenagi-taldeak maitasunez gainezka inguratu zuan, begi aundi beltzeranak erregin gaztearen erakarpenagaitik, zabal-zabal eginda. Une batez, Bakerle'k ortziaren urdiñari adi-adi begiratu zion; gero, zango bellegiakaz buruko ille-galparra orraztu, eta itsu-mustuan eguratsean zear oldartu zan, lilluraturiko erlenagiek zalaparta bizian zerraizkiola.

Asieran, jauzika egan egin zuan erlauntzetik begiak

kendu gabe, itzultzean galtzeko beldurrez noski, egoitzaren irudia begietan marraztu naí izango bai'luan. Gero, zugaitz baten adarrean kokatu zan, alde guztietara so egiten zuala, ta noizbait ortziaren gardentasunak erakaé rrita, azkon baizen arin gorengo bazterretarantz joran nausigaitzaz bideratu zan. Beti gora ta gora urdiñaren deiari jarraituz, bere leiarik aundierna zeruko erpiña irixtea bai'litzan. Erregin gaztearen lilluraz uztarpeturiko eré lenagiak, itsuak bezala egoak zein baiño zein azkarrago eragiñez, norleenka bizian atzetik lerroka zetorzkion, baiñan askorentzat indarraldia geiegi izanik, gorputz lodikoteak lertu, eta beerantz amildu ziran.

Noizbait, aietariko bat aalegin itzelaren ondoren urreratu zitzaion, baita eztei-besarkada maitekorra eman ere, alabaiñan azkenengo erlenagia zan auxe ere ler eginda, maitasun-ametsa ozta-ozta beterik, ausita amildu zan. Bere erriko etorkizunaren jaubea jadanik, Bakerle illuntzen ari zan ortzí garbíaren zear, bere igurikan zegozen errikideakana itzuli zan. Laguntza bezala, atean, erle batzuk azkenengo sabel-erestuna beerantz jarrita, lurrin bereziaren bidez, etengabeko geznak igortzen zizkioten.

Arin eta oierteke Bakerle eultzera biurtu zan. Ezteiegaldia bukatu rik, sarreran kokatu baizen laister, erriaren poza adierazten zuan burrunba ozenak, ongi-etorria eman zion. Astirik galtzeke, erle-talde batek janari eskeiñi, ta mingaiñaz, egaldian izandako eragabeak atondu zizkion.

Orain benetako erregiña zan, eta aurrerantzean erria izakide berriez ugalduko zuan ama guztiz maitea.

- III -

Eultzetik irten eta gero, inguruan zuan multzoarekin. Amerle zugaitz baten adarrean kokatu zan, mordo estua inguruan eratzen zitzaiola. Erlezarra, Ernaia ta Aloa, egoitza berriaren billa joian taldean aurkitzen ziran. Bereala, multzotik alde guztietara zenbait azterlari sakabaé natu ziran, bear zuten aterpea leenbaitleen idorotzearren.

Ikusmen eta oldeagaitik azterlaria izateko txit egokia zan ezker, ego sendoak taigabe eragiñez, Ernaia oianean zear barneratu zan. Zugaitz zaarren bat ikusten zuan bakoitzean, zirurika asten zitzaion, ezkutu guztiak aztertzen zizkiola. Onela luzaro samar iraun zuan ezer bereizirik aurkitu gabe. Ustekabez, oian betean aurkitzen zala, belar laburrez estalirik eta tantaiek inguraturiko baso-soil eguzkitsua ageri zitzaion. Zelai-ertzean, beste zugaitzen artean argiro bereiztuta, areitz zaar sendoak Ernaia'ren arreta irabazi zuan. Urbiltzean, bereala konturatu zan uskune bi zituala; bata aundia sarkalderantz, eta bestea txikiagoa egoalderantz begira.

Eguzkiaren azkenengo izpiek, sarkaldeko zulotik enbor-barnekoa urrezko argi epelaz bete zuten, eta enborean kokaturik, zuloan zear begiratu zuanean, Ernaia'k ezin izan zuan pozezko zirrara menperatu aal... An aurrean, tokirik egokiena, egokirik ba'zan, aurkezten zitzaion. Zenbait unez uskunearen aunditasuna gogoaz neurtu ondoren, eta asierako arritasuna joanda bere eina etorri zanean, zulotik barrendu zan, bazter guztiak zeatz arakatzen zituala. Izan be, bizileku gain-gaiñekoa zan. Aunditasunaz gaiñera, aterpe txukun eta egokia negua igarotzeko.

Aalik ariñen multzoagana itzuli, ta Amerle'ren aurrean aurkeztu zan.

- Oian usuko basoésoil batean --erregiñar jakiñerazo zion--, bear dugun egoitza, tantai sendoan ikusi dut. Urbil samar, errekaxo baten ur biziak malda-beera oldaritzen dira, ta aren zuzmurrek gure bizilekua inguratuko dute. Amerle, gure erriari dagokion tokia duzu, ta enurarik gabe areitz zaar artan bakean bizi izango gera.

Idorokunde berriaren albisteak entzutean, Amerle atsegin utsaz burrunbaka asi zan bere menpekoekin batera. Andik laister, zerbait bareturik, lekua erakus zezaiela agindu zion erregiñak, eta Ernaia aurrelari zutela, itxaropenak eraginda, egoitza berrirantz abiatu ziran.

Areitzaren aterpera eldutakoan, eguzkia Benaparra'ko mendien atzetik itzaltzen zan jadanik, eta illunabar otza izanik, erleak Amerle'ren inguruan uskune artan estutu ziran.

Biaramonean, egun eder-ederra goiztu zan. Egunsentiak iratzarritako erleek, lei berrituak zirikatuta, lan garrantzitsu bateri eman zioten. Lanik beiñena, abarasken eraikigintza zan, bilduko zuten ezta gordetzearren, eta Amerle'k errungo litukean arraultzek kabi izan zezaten.

Errezel antzera bata bestearen gaiñean dilindan, zenbait erle aitugarria zan argizagiaren sortzeari buru-belarri ekin zioten. Eraiki bear zuten argizagirako, iru edo laukoz eztitan jan bear... Leen izandako eultza utzi aurretik, paparrean sartu-ala ezti gorde zuten, baiñan oraingo lanerako ez zan naikorik; eta lanean ari zirala, beste erleek bearrezkoa zitzaien ezta eskeintzen zietenr Barneko beé rotasuna polliki-polliki geiagorutzen joan zan, eta ordu-bete batzuk igarorik, sabeleko erestunen artetik, argizagizko ezkatatxoak irteten asi zitzaizkien.

Orduantxe, erleen orma eraindu zan, eta erlezko bat sapaira igonik, ezkatatxoa agora eraman zuan. Une baé tez txeetu ondoren. argizagizko galartzu mee-meea ago-

tik irten zitzaion. Gero, sapaian eratziki zuan jo ta teink egiñez. Lenengo erleak bere zeregiña amaitu zuanean, beste batek lanari jarraitu zion, gero beste batek eta abar. Argizagia sapatik beera ezarri ta gero, eratu izan bear, eta orretarako, zango ta agoaren bidez zulo batzuk zabaldu zituzten, seiki zeatzak moldatu arte. Langilletari-koren bati, gaztea izanik batez bere, eraikigintza yaukal artan uts banakaren bat irteten baldin ba'zitzaion, ikasien edo trebeenek, egindako eragabea bereala atontzen zuten. Bitartean, erle-saldo ugaritsuak, tarteko zalarik Er-naia, errekarren ertzeari jarraituz, kimu samurrez estalita-kor sarats-sail bateko lore-iriña, otarretan zekarten.

Beste zenbaitek, elar-lorearen eztingaiari ekin zioten, erriaren etorkizuna janari ontan oiñarritzekoa zan-eta.

Egun batzuk igarorik, Erletegi zeritzan erlauntz beé rriak, itxura arrigarria zerakusan. Barnean, atz bateko bié tartera zazpi abarasken oiñarriak eraikita ageri ziran. Amerle nekegaitzak, bearrezkoa zitzaaien langilleen erruntzea asi zuan. Sarkaldeko zulo aundia, proporiozko mintz batez osoki estalia agertzen zan, argi motela leko-retik irazten zala. Ego-aldeko zulo txikia izan ezik, egoitza osoa ertsita zegoan, eta erleek sar-irtenbide izan zezaten, zulo txikia erlaiz batez osotua agertzen zan. Erletegitarrei benetako urrezko aroa asten zitzaaien.

Arratsalde batean, Ernaia oi bezala eztingaiatz zamatuta eultzean sartzen zala, begien aurrean agertzen zitzaion ikusgaia nabaitzean, ametsetan bezala gelditu zan. Proporiozko mintzak, ez zuan loditasun berdiñik alde guztietan, eta eguzkiaren azkenengo izpiek barnera iragazirik, ortzadarraren zazpi margoak eratzen zituzten, eultz guztia ametsezko kabi biurtzen zutela. Zazpi margoetako bakoitza, kale banan erortzen zan argi epelaz ñir-ñirka. Ate-ondoko kalean argi gorrizko ugoldea zetzan; bigarrenak margo larraran zerakusan; irugarrenak urrezko bellegi epela; Amerle errunketan ari zan laugarrenean, orle-



gizko jauztiri batek bazter oro laztantzen zituan; boskarena urdin samur txeragarriaz dizdiratsua; seigarrena indigo joriaz blei-blei eginda zetzan; eta zazpigarrena amusko gardenaz, lainoetan galdurik amets dagiten eusko mendiak alakoxe. Ernaia zearo lilluratuta, bazter batek bestera joian, ikus-joranaz orditurik bai'litzan, begietan ibaika sartzan zitzaiola zerutarra zirudian margo-aintza.

Ordudanik, egun orotan illunabar-garaia urrezko urratsaz urbil zetorkiola, edertasun-miñaz bere biotzaz nausiturik, Ernaia'k margoébetetasun ixiltsuari zitzarokion, maitaleak kutunaren begien argia billatu oi duan antzera. Ikuspen arrigarriak ez zituan une batzuk baiño irauten, alabaiñan berarentzat zorionezko lipar gorena zan.

Elarraren lore-aroa amaitzen zioan, eta Erletegi'ko biztanleek beste eztigaien uzta idoro bear zuten, negurako janaria ziurtatzearen, abaraskaren eraikintza orduko bukatua bait-zan. Aietariko egun batean argiak esnatuta, azterlari-talde bat aldameneko bazter guztietara bideratu zan. Zugaitzen enbor eta abaroen artetik zear-mearka, Ernaia'k oiana atzean utzi, eta laister argi beteko zabal-dian aurkitu zan, txapar baten gainean egakatz. Aur-rean, itzal izugarrietan ezkutaturik, Kakueta'ko amildegia sakon, zemaikorra zetzan. Amildegia zearkatu ondoren, ego-eragiteari utzi gabe, une batez eguratsean gelditu zan, soak alde guztietara jo zituala. Egoalderantz, andik urrun samar zelai aundi batean bellegizko margo antzoko zerbait ikusi bide zuan. Luzaroagorik gelditzeke, zerbait onuragarria aurkitu izan zualakoan, aalik ariñen aurrera oldartu zan. Edadura osoa orbantxo bellegiakaz estalia, zelai zabala bere igurikan bezala zetzan... Lore, lore ugari belar-artean txairo dilindan. Betetasunean zabal-zabalik, lore-ostoak toles lerdnetan islatuak, aizeak barreiaturiko sorgin-belarraren lurrin sarkorra barne-muiñetaraiño iritxi zitzaion.

Pozez dar-dar, aietako lore bikain batean biguinki kokatu zan. Lore-ostoaren sakonenean, ariek inguratutako orratz lerdena jeikirik zegoan, beekaldean zeukan ez-tigaiaren altxorra babestu nai bai'luanr Ernaia'k burua lore-ostoen azpikaldera urreratu, eta bere iru begiakaz, usain eta margo zoragarrien ludi ñimiño artan barrendu zan, zorionak blei-blei eginda. Orratzaren asieran, eguzkiak argituriko intz-tantotxo baten gaiñean igerika, arietatik jalgitako lore-iriñezko auts-zatiño batzuk suzko itsasontziak bai'liran, batetik bestera igitzen ziran, aize-asperen batek lore basatia kulunkatzen zuala.

Maitekiro, lorea lotan bai'litzan eta onen ametsak eten egitea tamal izango bai'luan, Ernaia'k turutaren murraraz eztigaia miazkatu ondoren, zurrut egiñez paparraiño igo-erazi zuan. Loretik irtetea, iriñaz estalia zegoan ezkerreko, burua, bularra, egoak eta sabela, zangoekaz igortzi, ta erantsitako autsa otarretan sartu zuan, birlatxo bat eratuz geroz. Jarraiki, beste lore batzuk ikertu zituan geiagoren billa, eta azkenez sorgin-belarraren zelaila atzean utzirik, aalik ariñen Erletegi'ra biurtu zan.

Eultzera eldutakoan, abarasketan eztigintzan jardun bearrean, bere itxura bakanak eta beragandik zerion usain bereziak erakarritako erleei, zekarren zama eman zien, eta gero pozaren pozez burrunbaka, adarrak aurre-rantz zuzenduak, dantza arrigarri bateri eman zion. Urrats laburrez obo bat antzertu zien, noiz eskubi noiz ezkerretara joaz, Ernaia'gandik zerion lillurak jabetuta, erlekideek adarrak beraganantz makurtuak zituztela.

- Amildegiz araindik --adierazi nai izan zien Ernaia'k-mendi garaietarantz, urre antzoko sorgin-belar bikai-ñez bete, zelai aundia aurkitu dizuet. Gure erriak bear duan aiña eztigai gure igurikan dugu, loreak ikusmen mugaraiño edatzen bait-dira

Alako batean, Ernaia'k dantza egiteari eten egin

zion. Sabeleko azken erestuna beerantz jarririk, erriari zegokion usain bereizia barreaitu, eta tximista alakoa aterantz oldartu zan, eguratsean zear ostentzen zala. Berrri pozgarria aditu zioten lagunak, Ernaia'gandik zerion usaiñak erakarrita, atzetik oldartu zitzaizkion idorokunde berriaren billa.

Onela, Ernaia'ren bidez Erletegi'ko arazoez aurrerapen aundia artu zuten, eta ezitia abarasketan gaiñezka metatzen ari zan.

Beñola, Ernaia eztigaiz abailduta eultzera zetorrela, izugarrizko gertaera begiztatu zuan. Erletegi'tik urbil jadanik, bera bezala eztigaiaz zamatuta etxeratzen zan Aloa ikusi zuan. Bere iñude kutuna nabaitzean, egada arindu zuan oiko itzulipurdia aren inguruan egitearren, era ontan iñudearekiko atxikitasuna maiz erakusten zuan-eta. Urreratzeke zorian zala baiñan, Aloa'k lipar batez alboka egin zuan, eta gero tximistak jota bezala lurrera amildu zan. Erlobi'k, listor odolzaleak, eraso izan zion Aloa gaixoari. Laister, bien artean iñolako burruka amorratua sortu zan. Liskarra ordean, ez zan iraupen luze-koa gertatu, Aloa zamatuta, egindako egaldi luzeagaitik guztiz aul aurkitzen zan-eta. Aurki, Erlobi'ren aginkada izugarriek, Aloa zintzoaren soiña gerritik erdibitu zuten.

Ernaia eldu zaneko, ez zuan besterik aurkitu bere iñudearen burua ta bularra baiño, Erlobi'k erlearen sabe-la masail indartsuen bidez atzituta, aalik ariñen igesari eman baitézion. Atsekabeturik, lipar batez adiskide maitearen ondakiñak begiratu zituan, eta gero aserre biziko amorrak bultzatuta, Erlobi'ren atzetik oldartu zan. Laister baiñan eizari uko egin bear izan zion, oso aul aurkitzen zalako. Nai-ta-ez, Erlobi anker alena ostentzen zalarik, eultzera biurtu zan.

Aloa maitearen eriotza izugarriak, Ernaia'gan apentzarako lera neurrigabea irazeki zuan, eta illunabar artan

berean ate-erlaizean atseden laburra artzen zuala, bere buruari zin egin zion ez zala geldituko Erlobi erail arte.

Urrengo egunean gau-atsedenaz indarrak irabazita, goiztu baiño ez, eultz-gaiñeko adar batean zelatari kokaé tu zan. Goizaldeáurreneko orduak astiro ta gogaitsuak igaro ziran, alabaiñan eguerdi-irian, liztor baten egapen bereizia orbantxo baten antzera urreratzen zitzaiola ikusi zuan. Erlobi bera zan. Urbil samar elduta, eultzaren gaiñean zirurika asi zan, ilgairen bat noiz atzemango garai egokiaren begira. Luzaro gabe, arnas-estuka Erletegi'ra biurtzen zan erle batengana amildu zan. Berriz ere aurreguneko eginkizuna gertatu zan, eta aurki Erlobi'k erle illaren sabela atzituta zeramala, nekez egan egiñez urrundu zan... Oraingo ontan ordeá ez joian bakarrik: Erloé bi'gandik urbil samar, iltzeko egarriz barne-muiñak irakié ten zitzaizkiola, Ernaia'k atzetik zerraikion.

Lats-ondoan kabia zuan zulora irixtean, Erlobi lurre-ra jetxi, ta gudakiña masail sendoen artean zeramala, zulo estutik barrendu zan. Luzeeran amar bat atz izango zié tuan zulo estu, biurria, areto zabal eta txukunean amaitzen zan. Gelako sapaítik dilindan, egur ustelaz egindako zizku mardula ikusten zan, eta onen barnean, listorrek eraikitako abaraska batzuk langilleégaiez gaiñezka nabarmentzen ziran. Andik zenbait egunera, langilleak jaioko ziran, ta beuren erriari zegokion arauz, liztor-gaiek janarituko zituzten, alabaiñan bitartean Erlobi bakarrik aurkitzen zanez, jaio-ebak elikatzearren, beartu izan zan lapurketari ematen. Gurin gozo ta indargarriaz beteriko erlesabel bana kabietan ezarririk, janari benetan egokia izan zezaketen azi-aldia bukatu arte. Langilleak jaio ondoren, ar-emeen erruntzeari emango ziokean udaren bidean, eta onela leiñu odolzaleari iraun-eraziko zion erria sortuko litzake.

Lapurketa, kabi baten ondoan utzirik, Erlobi kabi bi-kaiñeko zulo batetik irten zan, eta begiak leiñuru gose-

tiaz argituta, atarira abiatu zan opariégai berriak egiteko asmoz.

Kanpoko argi betera ozta-ozta irtenda, guda-irrintzia alakoa zan burrunba ozena aditu zan, eta itsumustuan aserre bizian listorraren agerpena itxo egiten zuan Ernaia'k, bultz basatiaz eraso zion. Elkar besarkatuta, oremenka iraulkatu ziran leikidea iltzeko abagune egokia noiz aurkeztuko zitzaien begira. Eztenaz gaiñera, Erlobi'k ortz zorrotzez ornitutako masail indartsuak zituan. Eré naia'k aitzitik eztena soillik, erleen agoa ez baitéda zaurié tzeko egiña, baiñan onen sendotasunak eta une artako sumin itsuak batez ere, etsai bildurgarri biurtzen zuten. Sabelak elkar itsasiak zituztela, alde batetik bestera zebiltzen, Erlobi'ren agin zorrotzek Ernaia'ri bere biziko zauriak egiten zizkiotela.

Alako batean, erlea txit unatua zalakoan, liztorrak eztena gertu nai izan zuan eriotz-zauria egitearren. Ortarako baiñan, erlearen soiña zerbait lazotu bear... Uaxe zan baiki Ernaia'k aukeratutako abagunea. Tximista alakoa, liztorrar sabela eztenaz aldezáalde zearkatu zion. Une batez, Erlobi'k burni goría sartzen zitziola uste izan zuan... eta ustekabez, eriotzaren arnas izoztuak amillera-zi zuan.

Etsaiaren ondoan garaille, Ernaia'k Aloa adiskide miñari eskeiñitako gurendaren aintza txastatu zuan. Zerbaié tek esaten zion, aurrerantzean ez zukeala ezeren beldué rrik izango.

- IV -

Oian-zear egin oi zituan egaldietan, Ernaia'k margo dizdiratsuetako egodun auskorra zan Tximeleta'rekin ezaguera miña egin zuan. Tximeleta izaki alaiari, egapen axolagabe ta dantzari, gerokoa ez zitzaion arduririk, ongi bait-zekian bere bizitza laburrak ozta-ozta udazé keneraiño iraungo zukeala. Eguratsean gaindi zioalarik, zirikoizkoak ziruditen lau ego yaukalak, erdiko aldera suzko litsadunak biurtzen ziran, eta soin-ondoan urrezko dizdirak erakusten zituzten. Goikaldeko ego aundietan, orban bana nabarmentzen zan, eta beekoetan, begi gorriak ziruditen beste bana. Buruan bi adar mee luze, ta agoan turuta malgua loreen guna xurgatzeko.

Ernaia'k, Tximeleta'ren egoera ariña basoan zear zeé kusan bakoitzean, atzetik jostalari zerraikion, eta ingurué ka asten zitzaion sare ikusgaitzaz Tximeleta ikaratia atzeé man nai izango bai'luan. Pozarenépozez luzaro ziarduten onela; gero, lana gogora ekarrita, erlea, azken agurra zan bira ariña eginda, eta bere igurikan ziruditen zelai usaintsuetara abiatzen zan. Tximeleta ordea, bizitza laburra betetasun osoan txastatzearren, iraduz gabe lorerik-lore joian, egazkera dardartiaz or-emenka zirikoizko igortziaz laztantzen zituala.

Goiz batean goízik, oianean zear eztígaiaren billa zioala, Ernaia'k gar bizia zirudian orbantxo gorritzta eguratsean ikusi zuan. Urbiltzean, izuaren izuz dar-dar, Tximeleta gaixoa amaraun-sare batean atzitura ikusi zuan. Armiarma aundi arre batek, aurrégunean eundutako seé gada zirikotsu zitalean, oarkabez zebillan Tximeleta, atzitura izan zan, eta izuzko latz-ikaraz jabetuta, alperriko iñarrosteari ematen zion. Amarauneko astiñaldiak oartu-ala, armiarma azkon baizen arin, Tximeleta'ri oldartu zitzaion, begietan ñir-ñir egarritsua agiri zuala. Ernaia ur-

biltzen zitzaion une berean, Tximeleta'ren soin lerdena eiztariaren zango iguingarrien artean eutsita, zauri ilgarrria artzeko zorian aurkitzen zan. Betarik galtzeke, Ernaia amaraunaren aurka oldartu zan. Txunditutako aré miarmak astiñaldi gogorra oartzean, Tximeleta utzi zuan, zer zala-ta jakiteko, baiñan ezer berezirik oartzen ez zala, lengo zeregiñari ekin zion.

Amarauna osteraleen baño bortizkiago astindu zan; orain ordea, armiarmak erle bizkor ausartia urreratzen zitzaiola ikusi zuan. Arrotza oartu-ala, armiarmak eraso zion, ulertzeke nola zomorro ganorabako ura berari aurre egiten ausartzen zan. Sumin, bai ta pozik era berean, beste opari bat izango zualakoan, Ernaia'ri oldartu zitzaion, eta zango luzeakaz erlearen bularra atzitu zuan, masail indartsuz jantzitako agoa, toki aularen billa saiatzen zan une berean. Ezustean, sabel lodi-zear sastakai alakoxea zan min sarkor izugarriak armiarmari igikunak elbarritu zizkion, eta begiak eriotzaren laiñoan itzaltzen zitzaizkiola, erle-inguruko besarkada lazotu zuan. Eztena sartu-ala, Ernaia, bira-igikun arin egiñez askatuta, Tximeleta'gana arindu zan, ari batetik zintzillika, armiarmaren illotza aizeak eraginda kulunkatzen zala.

Adiskide zintzoaren urbiltasuna oartzean, Tximeleta'k iñarrosteari utzi zion. Agoaren bidez, lagunaren soin auskorra atzeman zuten lokarri guztiak ebaki zituan Ernaia'k, eta gero ezer berezirik gertatu ez bai'litzan, oi bezalako alai ta axolakabe, Tximeleta lorerik-lore egan egiten asi zan, atzetik Ernaia'k biraka zerraikiola.

Oiana zearkatu ondoren, Dagonilla'ko goiz artako eguzkipean, Kakueta'rako norabidea artu zuten. Anemen sastraka orlegi-illunez estalirik, eta beekaldea erreka orrulari batek ebakitako amildegi izugarri aietan, ikara ta ametsezko ludia antzo ziran itzalgune orlegi, arre ta urdiñek, gogo aunditasun eta kezka betetzen zuten. Gaiñetik, ortzi urdiñak eta aldamaneko argiz blei-blei egi-

ñiko zelai ta basoak, toki artako illuntasunari nabarmen bizia zemaioten.

Noiz argi betean noiz itzalen artean, Ernaia'k eta Txímeleta'k amildegi aietatik luzaro samar egan egin zuten. Era ontan ziardutela, Ernaia'ri errekaen orru-arteon zerbait ez-oitua aditzen zala, iruditu zitzaion. Adarrak aurrerantz zutik zituala, ots bakana zetorkion alderantz jo zuan. Aurki, burrunba ozena sortzen zitzaion txapar batera iritxi zan, eta adarño batean kokaturik, bazterrak begiz astertzen asi zan.

Zarata gero ta ozenago biurtzen zan, egundoko burrunba gertatu arte. Andik laister, orban lodi illuna aserre bizipean irakiten bezala ikusi zuan. Beingoan igarri zuan Ernaia'k burrunbearen jatorria, baita kezkatu oartu ere, Erletegi'ri zetorkioken galtzoriaz. Artz batek abaraskak ondatutako baserle-multzoa zan, eta ongi zekusanez, erle basati aiek bear gorriak eraginda, gosez il baiño leen zernai egiteko gai ziran, batez ere janariz beteriko beste eultze bat topo egitekotan, alegia. Multzoa arras naroa zan Ernaia'k aisa egiztatu zezakenez, larogei milla nonbait. Erletegitarrak ostera ozta-ozta berrogei ta amar miliara iritxi zitezken. Multzo artatik, alde guztietara azterlariak taigabe sakabanatzen ziran, erriaren iraupena izan ziteken zerbaiten billa.

Latz-ikara batez iñarrosita, Ernaia'k oartu zuan, bere erriari zemaitzen zion galtzoria, Erletegi andik urrun ez zegoan-eta... Kezka izugarri aren pean, etxerako bidea artu, ta abiada bizian urrundu zan. Ozta-ozta basoan sartzen zala, Erletegi'ko zuzenbidetik zetorren azterlari etsai batekin gurutzatu zan. Aalik ariñen itzuli, ta azterlariaren jazarkundeari ekin zion.

Ezpairik gabe, azterlaria artez-arte Kakueta'rantz abiatu zan, eta onen egazkerak iragartzen zionez, berri aundietako mezularia zan. Indar guztiak bildurik, Ernaia

azterlariaren atzetik ekiñaalean joian, Kakueta'ra baiño leen erailtzeko asmoz, alabaiñan unatu arteraiño aalegin-du ba'zan ere, azkenean etsaia begimenetik ostendu ziztaion.

Biotza iraulka, Erletegi'rako bidea artu zuan, buruan arazo bakar auxe zerabilela: erriari leenbaitleen galtzoriaren albisteak ematea. Erletegi'tik urbiltxo zala baiñan, indarraldiak aulduta ta ikusmena lausotuta, egoak ausita bezala zintzillika billakatu zitzaizkion, eta indargeturik, basoko belar-gaiñean amildu zan.

Zorabio-alditik bere einera etorri zanean, eguzkia gingan beera joian jadanik. Lo-itzarria zegoala, egoak aurrenik eta gero zangoak igitzen asi zitzaizkion, inguruak polliki-polliki ezagutzen asten zalarik. Ustekabez, ameskaitz alakoa multzo etsaiaren burrunba sumiña burura etorri zitzaion, baita azterlariaren igesa ta batez ere Erletegi'ri etorri lekioken ondapena. Unerik galtzeke, berriro eultzarantz bideratu zan, garaiz ala aitzitik berandu ote zan oldozkunari etengabe ematen ziola.

Erletegira irixtean, oarpen lasaigarriaz egiztatu zuan danak berdin zirauala. Erlekideek betiko lanetan ziarduten, kez karen aztarnarik adierazi gabe. Eultzean sartu baiño ez, ate-ondoan jarrita, burrunba bereiziaz deadar egin zien onela:

- Gertu zaitezte, gertu zaitezte unerik galtzeke...! Neronek etsaia ikusi dizuet Kakuetakoko amildegietan. Erlemultzo basati izugarria laister emen izango dugu, erail eta lapurketa noski baiño noskiago, aien azterlari bat emendik itzultzen zala ikusi dut-eta. Aunitz, ezin zenbatu alakoak dituzute, gu baiño askozaz ugariagoak, eta gaiñera gosez aserre bizian, artz batek beuren eultza ondatu bait-die. Bene-benetan diñotzuet: emen etorriko zaizkigu luzaro gabe...!

Ernaia'ren galtzori-deia egundoko burrunbaz erantzuna izan zan; eta aberriaren irrintzia entzutean, abendarekiko maitasun zintzoa mailla goreneraño goratu zitzaion Ernaia'ri. Eta eultz osoan "erail bizitzeko!" "erail bizitzeko!" deiadar bakarra aditzen zualarik, neke utsaz narrazka, Ernaia abarasketara urreratu zan, ezti zuzpergarria jatearren, kordegabe erortzeko zorian aurkitzen bait-zan.

Arrezkero, eultzetik ez zan erlerik irten. Lekorean ez zan besterik ageri, lerro ta lerroka etengabe Erletegi'ra itzultzen ziranak baiño, laister barnekoekin guda-irrintzia oiukatzeko. Erleketa aundia ate-ondoan metatu zan, etsaiaren leendabiziko eraso basatiari aurre egiteko. Beste talde bat, gudari adoretzu ta oituenetakoen artean aukeraturik, erregiñaren ertzaindi bikaiña, Amerle'ren oné doan bildu zan. Erlezarra'k berak guda-gerkunak agintzen zituan, Amerle'gandik ateraiño etengabe zebilela joan-etorri ugari egiñez. Ez Erlezarra'ri ez beste gudarieri, ez zitzaien burura etorri, proporioz itzitako sarkaldeko ataka meea zaintzea...

Babes-gerkunak egiten zirautela, abaraska baten ondoan jarrita, jandako ezti az Ernaia polikiépolliki zuzperetzen ari zan, eta atsedenaldi laburra izan ondoren, Amerle-ondoan biltzen ziran ertzaiñen artean ostendu zan, aderez eraginda bere irrintzia besteenarekin naasten zuala.

Luzaro gabe, asieran aul, urrutiko iñusturia bai'liztan, oianean burrunba zemaikorra aditu zan; baiñan iñusturia antzera itzali bearrean, orrua ozenagotzen zan, eta azkenik, zalaparta bizian zugaitzen adarburuetatik azkon bezala igarorik, erleémultzo arrotza etsipen utsaz itsu eginda, Erletegiéaurrean zetzan baso-zelaira iritxi zan, etxetiarrak axolageturik artuko zituelakoan. Baiñan atehondoan bilduak, an zegozen Erletegitarrak irmo, "erail bizitzeko" leloa taigabe jaulkitzen zutela.

Begi-keiñu alakoak, arrotzek baso-soilla zearkatu zuten, eta sarreraren aurka oldartu ziran. Aurreneko eraso izugarria izan zan; atea igaro-ala, etxetiarrek inguratuturiko arrotzek, iñolako zalapartan naasiak, burruka ilkorri eman zioten. Soiñak elkar besarkatuak, pillirikan, iraulka, naas-maas irudigaitzean aalegintzen ziran nork etsaiari eztena leenen sartu, gurenda ariñenaren alde bait-zan. Erleran batek eztena iltzatu-ala, bira azkarra egiñaz, bestearen gorputzagandik jareitzen zan, bereala joran eraikorra, beste etsai bateri oldartzen zitzaioa. Irakite izugarri artan, ildakoen gorputz ixillak ate-ondoan eunka metatzen asi ziran.

Arrotzek aurre zabalaren arabera burrukatu aal izan ba'lute, ezpairik gabe garaille billakatuko zirakean, Erletegitarrak baiño bi aldiz ugariago ziran-eta, baiñan ate estuagaitik lerro meearen arauz burrukatu bear izan zuten. Alabaiñan eultzeaz jabetu aal ez izatea, burutapen soillak, arrotzeri indar aundiak sortzen zizkien, Erletegi'ko ondasunaz jabetzea baiño, beste biderik ez zuten-eta. Barnekaldean liskar izugarriak zirauala, erlaizean tinco jarrita, arrotzen talde batek ortzakaz ate-zabaltzeari ekin zion, atetik landa kanpotarrak nagusi bait-ziran.

Unez-une, atea aundiagotzen ari zan eta arerioak ugolde antzera bor-borka sartzen ziran, barneko erasotzailleekin indarrak biltzen zituztela. Arrotzen oldar kementsuaren pean, etxeakoak baratxe-baratxe atzera bear tuak izan iran. Azkenik, etxetiarrek kikilduta aurea austeko zorian aurkitzen zirala, or-emenka agintari zebillen Erleiarra'k, gerta lekieken ondapenaz oarturik, atea babesteko agintzaz, Amerle'ren ertzaintalde erdia igorri zuan. Ernaia'k aitzindutako talde bikain au, eultzean parastaka sartzen ziran arrotzeri bultz gartsuz oldartu zitzaien. Ustekabeturiko etsaiak, gurenda lortzeko zorian zirala uste bait-zuten, burrukari uko egin gabe, atzera egiten asi ziran. Au ikustean, Erletegitar guztiek kemen

berrituaz eraginda, arrotzeri eraso, eztenakaz erailketa izugarria egiten zietela. Aurki, kanpotarrak eultzetik uxatuak izan ziran, eta sarrera etxetiarren eskuetan berriz ere, lekorean burrukan jarraitu arren.

Galtzoria urrundu zitzaizela ikusirik, Ernaia Amerle'gana biurtu zan. Itsumustuan, kaleetan zear joiala, oiko bere ametsezko ordua zala oartu zan, berarentzat zerrua alako lipar maitagarria, iltzeko zorian eguzkiak argituriko zazpi kaleen margo-aintzaren une gorena. Zergaitik baiñan, gaur bere begiek ez zuten margozko edertasuna ikusten...?

Ez zuan besterik oartzen, argi moteltxo baizik, aldiaurreko gauak oro lo beltzean murgildu nai bai'lukean. Arrituta, proportioz estalitako sarkaldeko argi-zulora bideratu zan, eta arakoan gertatzen zana oartzean, otz-ikara batek elbarrituta bezala, gelditu zan...

Ate-ondoko burruka gertatu bitartean, arrotzen talde ugari bat sarkaldeko leiotik sarrera bat ixillean egiten ari zan, proportiozko alde aulenetik ekiñez, alegia. Kanpotik itsasita, mordo izugarri batek eguzkiaren argia itzaltzen zuan, ozka ariñez itxituraren urratzeari ekiten ziola. Lais-ter, zuloa aunditu ondoren, oarkabeturiko etxe-koek etsaiaren eraso basatia artuko zutekean. Bereala zerbait egiten ez ba'zuten, Erletegi'ko ondapena nai-ta-ez gertatuko zitzaien.

Arrotzen gudarozte-aurrekoa proportioan egindako zulotik barneratzen zala, Ameskaitz batetik iratzarrita bezala, Ernaia kale orlegian aurkitzen ziran erregiñaren ertzain kementsuengana aalik ariñen oldartu zan. Ernaia'ren dei larriak, Erletegi'ko talderik autuen eta adoret-suenagan egundoko amorrua piztu zuan, eta Erlezarra aintzindari zutela, bultz basatiaz zulora oldartu ziran, baita garaiz ere...

Une artantxe, egindako sarreratik arrotzen gudarozteak eultzean barna parrastaka sakabanatzen ziran, erail eta ostu elburu bakarra zutela. Amerle'ren ertzain bikaiñek "erail bizitzeko" leloa jaulkiz, leiatsu jarki zitzaizkien, jarki ere. Soin biziakaz esi bat eratu zuten, kanpotik zertorzkieneen erasoak eragozten zituztela. Barnean zegozen arrotz sakabanatuak, lekoreko lagunen euspina galduta, noragabe zebiltzan, eta Amerle'ren ertzain adoretsuek, erail eta erail arerio bizirik bat bera be ez zuten utzi. Arrotzen illotzak nonnai zetzaten, zazpi kaleen azpikoa zearo estalirik. Gero, guztiak sarkaldeko zuloan eusten ziraneri laguntzearren arindu ziran, eta bultzada izugarriaz, sarreran aurkitzen ziran arrotz guztiak uxatu zituzten. Azkenez, ondatutako etsaiek igesari eman zioten, eta oianean zer betiko suntsitu ziran.

Une artan, eguzkiak sarkaldeko errezel urratua zearkaturik, illunabar-aurreko margoen aintzak zapi kaleak laztandu zituan, eta ainbesteko kemenez bizi-iraupena lortu zuten Erletegi'tarrek, gurenda-irrintzia ozenki abestu zuten.

Etxeko aunitz ere il ziran. Unerik galtzeke, erleek eultz-garbiketari ekin zioten, gorputzak edonon metaturik agertzen bait-ziran. Gaua eldutakoan, areitzpean ildakoen pillo aundia ikus zezaketen... eta aien artean, Erlezar aundia, kementsua, Erletegi'ko kondairaren gorenetako bat... sarkaldeko zulo-ondoan erriko askatasunaren alde, bere bizitza emankorra betiko loan itzalia bait-zan...

Iraila guztiz idorra gertatu zan. Erletegi'tik urbil samar igarotzen zan errkatxoa, ur-ari meea biurtu zan, eta aintziña nonnai uren ozkirria eskeintzen zuten idoi garbiek, leiarrezko gardentasuna galduta, landara illen artean usteltzen ziran.

Sargori astunak egarritutako erle askok, aietako ur kutsudunen erakarpena ezin zuten nausitu aal izanr Laister gaixoak, "Elbarri beltzak" izurrituak, leendabizi dizdir beltzizka artu, ta azkenean egoak ezin eragiñik, illik erortzen ziran. Ur ustelak ez kutsututako erleek, iturburuarena baiño edan ez bait-zuten, zaindaritza zorrotza atean ezarri zuten, "Elbarri beltzaz" kutsuturikoak sar ez zekizkien. Alabaiñan ala ta guztiz ere, makiña bat il ziran, eta beuren illotzak erlauntz-alboan ikus zitezken, eriotzaren besarkada baizen beltzak.

Izurriteak Erletegi'ko bizitza ondatuko zukeala zirudianean, itsu-mustuan zenbait odei lodik eguzkiaren musu gorria estali, eta lur idorraren gaiñean euri-jasa naroa igorririk, losko ustelak garbitu zituzten, eta oianeko bide laisterrak errekatxo biurtu ziran. Laister irabazi zuten Erletegi'terrek oiko itxura alai ta paketsua. Berriz ere erleen burrunba ta joan-etorriek bazterrak piztu zituzten. Bizirik gertatutakoen artean aurkitzen zan Ernaia, ez bait-zuan edan nai izan, ain maite zuan iturburuko uretatik baiño.

Illargiak argituriko gau aratz eta amesgarriak, laiño gardenaz estalitako oianari lillura berezia zemaion, ostosperen eta intzezko itsaso diamantetsuen artean.

Aietariko gau batean, Erletegi'ko etsai maltzur batek eultzeko atea zearkatu zuan, zazpi kaleen norabidea zekarrela. Ilburuaren Andereluna zeritzan gau-tximeleta gosetia zan. Bereala erle-talde batek nabaitu zuan, eta ase-

re bizipean eraso zion soiña eztenkadaz josten ziola, baiñan dana alperrik. Oroldio antzekoa zan estalki motelean sartzen ziran eztenak, tximeletaren soiña iritxi gabe. Arrotza erailtzea gaitz zitzaiera ikusirik, indar batuakaz gau-tximeleta narraz igorri nai izan zuten, baiñan au ikutu-ala, tximistak jota bezala Andereluna'gandik aldendu ziran, abesti bakan, ituna, illuntasunean aditzen zala. Eresi lilluragarriak arritutako erleak zirkin egin gabe, geldi-geldi lotu ziran, gau-tximeletak ezker-eskubi ezta ebasten ziela.

Andereluna'k gau osoan iraun zuan ekintza ontan, eta goiztirian, sartuta bezala itzuri zan. Egunsentian, erleek ikusi aal izan zuten, kale gorri ta larraren arteko abaraskan egindako ondapena. Azpikaldeak utsune aundia zerakusan, eta noski baiño noskiago, egiketa onela jarraitzekotan, zenbait egunen buruan Erletegitarren gerokoa, galtzori gorrian ezarria izango litzake.

Eguzkia agertu baizen laister, Ernaia'k agindutako talde batek propio-bildumari eman zion buru-belarri, eta arratsalde orduko, ozta-ozta erle baten soiña sartuko zan zear-mearka eraikitako esi sendoa ikus ziteken.

Berriz ere, illargiaren dizdir esnetsuaz apaindutako gaua iritxi zan. aurreko gauean gertaturikoaren oroitzak erakarri zuan Andereluna. Sarreratik urreratzen zala baiñan, bide-naasi igarogaitza aurkeztu zitzaion. Alabaiñan goseak eraginda, masailen bidez lan zail bateri eman zion adorez beterik. Ez zuan gauza aundirik aurreratu orma gogor aietan ordea, eta azkenean arloa zaillegia zala ikusirik, mutur-utsik betiko aldendu zan. Eultzetik urrun-tzen zala, illargiaren aurpegi maxiatzaillea tximeletaren lepotik par egiten zirudian.

Erletegi'ko biztanleen aalegiñak ezetiketa joria bildu aal izan zuan, erleen bizitza urrengo udaberri arte iraunerazteko lain, alegia. Lanean ez ziarduten bakarrak, erlenagiak ziran, beti jateko gerturik, edo soin mardul, lo-

diak, eguzkipean etzanak, besteen ardurak axolagabe ikusirik. Ordukotz, loreak urriagotzen asi zitzaizkien, eta gau otz, luzeak, laister iritxiko zirakean, aize ta euriteekin lagundutako udazkenaren urbiltasuna iragarritz.

Alako egun batez, arrigarrizko dei ezkutu batek eraginda, eta Erletegi'ko pake maratza iraulkatuz, erle guztiek erlenagier eraso zieten, eta adar-zagoetatik atzituak zituztela, errukigabe eultzetik-at igorri, orain ez bait-ziran ezertarako gauza. Erlenagiak ordea, erleen zernai oarkabetasun ustiatuz, berriro eultzean sartzen ziran, gaixoek bait-zekien, beuren gain soillik ez lezaketela irau.

Erleek ostera erlenagian egozteari ekin zioten; orain ordea leen baiño bortizkiago. Egiketa au zenbiat aldiz berriro zuten... Alabaiñan alako batean, itsu eginda bezala, erleek erlenagian erailketa izugarriari ekin zioten. Nonnai erlenagiren bat aurkitzen zutenean, sumiñez irakiten ezten ilgarriakaz alde-alde sastakatzen zuten, bein eta berriz erail-joranak egarriturik. Erlenagiak izuaren-izuz non ezkutatu jakin ezik, noragabe zebiltzen. Bana-banaka danak atzituak izan ziran, eta tximistak jota bezala, bat bera ere bizirik gertatzeke, betiko loan suntsitu ziran.

Gero, egindakoa naikorik ez bai'litzan, gorpuetara oldartu ziran, oroitzeke leentxoago soin samur lodikote aiek, maitekiro elikatu izan zituztela, ta soin-barneko guna gozoak zurgatu zizkieten, eultzetik lekorera igorriak izan baiño leen.

Areitzaren inguruan gorpuzketa ugaria metatu zan, baiñan sarraskia ez zan artean amaitu, beste eultzetatik lerroka zetorzkien iges egindako erlenagiek ere, jazar-kunde berdiña izaten bait-zuten, erail bear izaten zituztelako, eta auen illotzak ego zabalik, etxekoekin naasi ziran.

- VI -

Udazkena eldu zan, laister egun argiak bukatuko zirala iragarritz. Ota-lorearen uzta amaitua zan jadanik, eta eztiz beteriko abaraskek gerorako eskiertasun eta itxaropena eskeintzen zituzten. Erleen lei bizia sortarazten zuten eguzkiaren laztan ernagarriak moteldu ziran. Aintziñako jorana galdu zuten erleek, eta Amerle'ren inguruan soiñak elkar itsasiak zituztela, iraupenerako bearrezkoa zitzairen berotasuna billatzen zuten. Lo-gura astun, menderakaitzak, beuren naimen eta burrukarako oldea ezeztzen zizkien.

Urrilla'ko erdi-aldetsua igaro zan. Odei arrez estaliriko ortziak oiana argi zurbillaz apaintzen zuan, eta egoaizeak zugaitzeri erauzitako ostoa negartiak, praka-gorriak antzo, uzkur eta itun pillirikan zebiltzan, il aurretik adia erostariaz eguzkiari laztan bat eta txorieri azkenengo txinta, eskatzen zizkietela.

Orbelaren artetik, Txanko, musker gaztearen irudi lerdan orlegizkak ibillera urduri ta ariñaz, ildo luzanga marrazten zuan, orbeletan zear kirri aulak aditzen zirala. Gero, aren irudi narrastaria ezabatu, eta azkenik Erletegi'tik urbiltxo agertu zan berriro. Ingurumaria aztertu zuan, eta lekune artako pake beteaz lasaiturik, Erletegi'ko biztanleak lasai lotan ari ziran areitzara urreratu zan arrapalada batean. Unetxo batez, enbor-oiñarritik gorantz begira geldigeldi geratu ta gero, atzaparrak areitz-azalean tinkaturik, igikun bipillaz, zear-mearka igo zan, noizik bein geldiuene laburrak egiñez gorantz begiratzearren. Onela Erletegi'ko ateraiño iritxi zan. Barnetik zetorkion lurrin bereziak iltzatuta bezala geldierazi zuan. Erleek ain nekez irabazitako ezti atsegin zitzaion benetan; berak ere luzaro gabe bazterren batean lo egingo zukean, baiñan neguko lo-aldian suntsitu aurretik, erletegitarren ezti az jabetu nai zuan; eta gero, urdailla eztiz bete-

ta, atseden artuko zukean zitxarokion neguko gau luzearen magalean.

Ego-aize ibiltariaren zuzmur epelak, udazkeneko gar
etengabe asperenka, mintzo lillural
bere amets eta oar-deiak nonnai barreiatzen zituan.

- Txanko, Txanko --aizeak musker gazteari esaten bide zion--, ez adi sar, ire burua ondatu nai ez ba'duk. Gzteegia aiz Erletegitarren kemena ezagutzeko. Ba'ekik urrezko sointxo oieri darieten indar kiskaltsua, zerbaitek mintzen zetikenean...! Benetan diñoat Txanko, alde egik... alde egik...

Alabaiñan Txanko, musker gazteak, lilluraturiko bate-zear so egiten zuan. Barruan dana paketsu ta ixillik zegoan, eta usain zirikatzaillak eraso asteko bulztatu zuan. Sarrera baiña txit estua zanez geroz, atzapar eta ortzakaz zabaltzeari eman zion. Proporio-artean egindako zuloa aundiagotzen asi zan, eta azkenegiztatu aal izan zuan, bere soiñarentzat igarobide naikoa zala. Sartu baiño leen, lipar batez ezpaitsu gelditu zan; alabaiñan barnetik zetorkion ixiltasunak bareturik, leendabizi burua, gero soiña ta buztan zorrotza sarreratik itzuri zitzaizkion. Lekorean, ego-aizearen oar-dei epelak osterada aditu bide ziran:

- Txanko, alde egik... alde egik...!

Barneko illunzkan, Txanko'k bero zuzpergarria oartu zuan. Begimena argi urriari egokitu ondoren, bere aurrean abaraskez ertzeturiko zazpi kale begiztatu zituan. Asieran erabeti, unetxu batez gelditu zan, baiña erdi-aldetik zetorkion berotasun aundiagoak erakarrita, laister kale orlegiaren beekaldea ondatzen asi zan...

Salokeriak itsu egindako muskerrak, buru-belarri iresteari eman zion, argizagiaren puskatzeak eultzeari ze-

karkioken ondapenari jaramonik egiteke. Zenbait erle eragiten asi ziran kezkatu, baiñan beuren naimena baiño aaltsuagoa zan lo-gurak ezerezturik, leengo igigetasunera biurtzen ziran. Musker sabelkoiak iresteari zerraikion ase-kaitz; ez zan asetzen aski zitzaionaz; ez, geiago... geiago nai zuan...

- Txanko, Txanko, --berriz ego-aizeak eskaritsu esan bide zion-- aski duk jadaneko. Alde egik orain, berandu izan baiño leen. Oianean, arkaitzen artean duk, asunez estalitako zulo txukuna, neguko lo-aldian irauteko. Antxe ene susmurrek urrumatuko aute, udaberriaren urrats alaiak entzun ditzakan arte. Txanko, Erletegitarren olde sutua iratzarriko ba'u orain...! i gaixoa...! Benetan diñoat, alde egik... alde egik...!

Baiñan Txanko'ren zoramenak zentzutasun guztia menperatu zuan, eta ain zuzen ere, bere arinkeriak ekartzekoak ekarri zizkion...

Burugabeko leiaz eraginda, abaraskaren puskatzeari ekin zion goikaldera urreratuz. Amerle'ren inguruan zegoen erleengana urbiltzen zala, alegia. Muskerraren ortzek sortutako karraskotsak, erdiélotan zegoan Ernaia'ri entzumeneraiño iritxi zitzaizkion. Ameskaitz batean atzié tuta bezala, nolabaiteko galtzori biziak erriko etorkizunari zemaia egiten ziola oartzen zuan, alabaiñan ezin... ezin zezaken zentzunen moteltasuna garaitu. Ez-arian ez-arian, Txanko'k sakaila aurrera zeraman. Alako batean, Ernaia bere oarmen-jabetzaz itzarri zan...

Bereala, galtzoriko garrantzi betea oartu zuan, eta guda-irrintzia sarkor jaulki ere bai, aldameneko erleak iratzarri. Sumin itzelaz dar-dar, arrituriko Txanko'ri oldartu zitzaizkion. Itsu egindako erleek, edenaz beteriko ezten zorrotzak arrotzari soiñean iltzatu nai izan zizkion; alperrik baiñan: muskerraren larru zimela zearkaitza gertatu zitzaien. Aalge, egiztatu zuten itsumustuko ikaral-

dia joanda, arrotzak bere lanari zerraikiola. Zenbait aldiz eztena sartzen saiatu zan Ernaia, alako batean, toki aulagoren bat idorotzearren musker-gaiñean zuan jarrera aldaturik, burura urreratu zitzaion.

Orduantxe, eta Txanko asetua bere zeregiñari uzteko zorian zala, adur aldakorrak nai izan zuan eztenkada batek musker gaztearen begi batean jo zezan. Tximista batek iritxita bezala, miñez zoraturiko Txanko, abaraskaren beekalderaiño iraulka amildu zan. Aietariko itzulipurdi batean, muskerraren sabel zurixka, une batez agirian billakatu zan. Eunka, alde guztietatik sabeleko larru zularkorrean ezten goriak errukigabe sartu zitzaizkion. Miñaren-miñez igesari eman nai izan zion, baiñan beranduegi, kale gorrira iritxi baiño leen, muskerra ustekabez illik erori bait-zan. Leiarrezko diz-dir motela begietan, anak zabal-zabal eginda, aintziñako erensuge baten antzera, muskerrak eriotzaren ezpain odolgetsuen musu itzaltsua artu zuan....

Lekorean, ego-aize ibiltariaren zuzmur epelei, nigarrak bide zerizkieten, Txanko musker gaztearen eriotzagaitik...

Alabaiñan, Erletegitarrentzat galtzoria ez zan artean amaitu. Laister ustelduko zitzaien muskerraren gorpuzak, ezpairik gabe eultz-barneko bizi-aalmena ondatuko ziekean. Muskerrari, zetzan leku berean, illobia egin bearra izango zuten. Zerbait aalik ariñen betetzekoa zan, alabaiñan erleek berriz ere lo-guraren menpe, galtzori aztuta ziruditen.

Zenbait egun geroago gertatu zan. Eguzki epel batek odei-soil batean zear agerturik, erleak iratzarri zituan, eta orduan zarrastada larriak iñarrosita, kezka aundipean galtzoria uxatzeko gertatu ziran.

Erle-talde bateko aintzindaria zala, Ernaia'k urteko azken egaldia bete zuan. Arin, aldia iñoizkorik ariñen

igesi joango bai'litzaieken, egun artan etengabeko lanari eman zioten, bein eta berriz proportioz abaildurik zetoze-la. Illunabarrean, gardentasun yaukaleko illobia eraiki zuten, eta errege baten duiña zan leiar iduriko il-kutxaren barnean, Erletegi'ko pakea austen ausartu zan Txanko musker gaztearen soin orlegizka, betiereko igigetasunean zetzan. Basoan, lekorean, aizearen ulu negartsuei maiko mingotsez naasitako zinkuriñak bide zerizkieten...

Berriz ere, lo-gura Erletegi'ko biztanlez jabetzen ari zan. Noizbeinka, eguzki-izpiren batek berotutako erleen urrezko sointxoak itzarriko zirakean, ezti apur bat jatearren, ametsetan jarraitu aurretik. Ernaia konturatzen zan lo-kuma gozoan murgiltzen zala...

Lore bikaiñez estalitako zelaiak eguzki-ugolde baten pean zetzaten... eta lorerik-lore Tximeleta txairoak egapen alaiatz aizea laztandu naiean bezala... bai ta ain maite izan zuan Aloa'ren begikera maitekorra ere... Eta gero, illunabarreko argi samurrak Erletegi'ko kaleetan margo-aintza gorena edatzen zuan, oroldio ta arkaitzen artetik, latsaren zuzmur gozoak Euzkadi'ko udaberri jorian aditzen ziralarik...

Uri, otsoa

Udaberriko goiz argitsu artan, lau mutil gazte mendian gora joiazan. Beeko ibarrean, bostpasei etxeko baserria edo auzoa iru ordu leenago utzi zuten, eta zizpa bana zeramatela, bost zakurrekin, Tina Mendietan (Europa'ko Arkaitzak) gora, malkorrez mugatutako bidezka aldapatsuan, ibillera menditarrez abiatu ziran. Ustekabez, biurgune arritsua igarorik, zelai eder batean aurkitu ziran.

- An goian, emendik ordu erdiko bidean, beor illa datza --Kotu zeritzan gazte batek esan zuan--. Obe dugu amaiketakoa ementxe jan, eta gero bideari jarraitu.

Itz auek esatean, Kotu ta onen lagunak belarretan eseri, eta pardeltxoak askaturik, jaten asi ziran. Ain zuzen ere, ez zan gauza aundirik: etxeko ogi bellegixka, urdazpi ta gaztaz lagundutako eta zato bateko ardoz bustita. Goseak eragindako eiztariiek itz egiteari eten egin gabe, jateari azkar eman zioten.

Leku bakarti artatik, egundoko ikusgai eder-ederra gauditzen zuten: Arkaitz zorrotzak, amildegi izugarriak, lats gardenez ebakitako aitzarte sakon okertsuak, zelai ezeak, elurrez apaindutako gaillur goitsuak, ortzi urdiñean oial-ontzi alderraiak ziruditen odei ariñak, eta an beeko ibarretan basoetako orlegi berria... Biotz-begientzat aintza aztuéeziña, alegia.

Janaria amaitu ondoren, mutil gazteak mendi-gora abiatu ziran. Egun bi aurretik, etxeko beorrak ikustearren

goiko erri-alagunetatik osteratxo bat egiten zebillen Kotu'k, bere taldeko beor zaarrena illik aurkitu zuan. Abe-rea erdiz irentsia aurkitu zuanez, eta lepo-ezur ondoko zauritzarragaitik, bereala otso baten ekintza zala igarri zuan. Nolanai ere, otsoari jazarri bear zion, osterantzean beortalde osoa kinka larrian billakatu zitekean. Auxegaitik, udaberriko goiz eguzkitsu artan, baserriko beste iru lagun eta zenbait zakurrekin, otsoaren billa abiatu zan.

Izan ere, otseme baten ekintza zuten...

Sortaldetik, bere lagun otsar eder batekin, Tina Mendietara bideratzen zalarik bein batean, egunsentia egin-da, arkaitzez ertzaturiko baso txiki batean, biak ezkutatu ziran gauaz bideari berriro ekiteko asmoz. Itsumustuan, arruko mutur batetik zetorkien eiztari-talde baten zalaparta aditu zuten. Atzerantz egin nai orduko, beste irteeran ere eiztari ta zakurrek igurikatzen zituztela oartu ziran. Orduan otso biak leengo bidetik abiatu ziran, eta eskubian agertu zitzaien bidezka antzekoa zan lubaki bate-tik iges egin zuten.

Bíde ontatik jarraitzekotan, galtzoritik aterako zira-kean, eiztarien ikusmenetik gordeta bait-ziran. Alabaiñan lubakitik irtetean, zelai bat zearkatu bear, eta babesik ezean, alde guztietatik tirokatuak izango zirakean.

Orduan otsarrak gauza arrigarria egin zuan: Jauzi arin batez lubakitik irten, eta berriro lubakian ezkutatu zan. Ekintza au zenbait aldiz egin zuan, otsemea zelaira urreratzen zan bitartean. Bere laguna zelaitik iges egiten asi zanean, otsarra uluka, arkaitzetan gora ariñeketan ol-dartu zan, agirian jartzen zala. Balakada bat ankan artu zuan, eta orduan erdi-narrazka aurrerantz ekin zuan, ala-baiñan luzaro gabe zauriz josita, illik amildu zan.

Eiztarien arreta otsarrari ezarria zan bitartean, otse-me-a lubakitik irten, eta aalik ariñen zelaian zear abiatu zan. Gertatzen zanaz oartuta, eiztari bat oi-u ta danbaka



asi zitzaion, baiñan beranduegi jadanik; otsemea arkaitz batek babestuta, balaz iritxi-eziña zanez beste aldeko ibarrean beera tximista aalakoia bideratu zan.

Iru egun geroago, zearo aul eta bakartasu-sentipen uxakaitzaz menderaturik, Tina Mendi-biotzeko goietan, otsemeak ongi ezguturiko zulo batera, goizalde -irian iritxi zan. Egun artako illunabarrean, bost kume izan zituan. Bizirik izan ba'litz, lagun otsarrari etorri zitzaiokean janari-billaketa, berak ezkutunean kume-zaindaritzari eman bitartean. Orain baiñan, berak bakarrik kumeak eradoski bear, baita janaria billatu bear ere...

Egun garratzak iraun bear izan zituan, arrapagai askorik ez bait-zuan idorotzen, eta kume bete-eziñek bere indarrak aspergabe xurgatzen zizkioten. Ozta-ozta astea igarorik, gose gorriak beeko zelaietara bultzatu zuan, eta gautu baiño ez, urrutiko algunetarantz abiatu zan, gau ixil illuna ustiatzeko asmoz. Ardura aundiz joiala, entzumeneraiño beor baten irrintzia etorri zitzaion. Luzaro gabe beortaldea ikusita, aalik ixillen urreratu zitzaien, zeatz guztiak aztertzen zituala. Azkenean, arri baten ezkutunetik beorrak aukera osoan ikusi zituan, eta ondo begiztatuz geroz, taldeko zaarrena arrapa-gaitzat bereiztu zuan. Zorionez, gau-aizeñoak bere alde jokatzen zuan, eta onela bere burua agertzeke, beor zarrari urreratu zitzaion. Ba-zekian, eraso baiño leen igesari ematekotan, aultasun utsaz ezin zezakela beorra atzitu.

Noizbait, urbil samar zegoala, indarrak bilduta, azkon alakoa eraso zion. Beorra oartu zanekotz berandu zan jadanik, eta doi-doi lauroinka asi orduko, lepo-ezurra ausita, tximistak jota bezala izuzko irrintzia jaulki, eta illik erori zan.

Otsemeak asetu arte irentsi zuan, eta ordu betea igarorik, kabira biurtu zan, bere irrikan zegozen kumeak eradoskitzearren. Bigarren gauean beorretik jatearren

berriro jetxi zan, baita iraugarreanean ere... Alabaiñan oraingo ontan, latz-ikara batek inñarrosi zuan... Beor illaren ondoan, gizasemearen usain bereizi, gorrotogarria oartu zuan... Izu bakanak menderaturik, jaten aantzi egin zitzaion, eta astirik galtzeke, aalik ariñen mendian gora abiatu zan.

Bazekian egin bear zuana... Beste kabi ziurragoa aurkitu, ta gero banan-banan kumeak leengo gordeleku-tik berrira aldatu. Onela bada, otsokumeak eradoski ondoren, begi zorrotzez inguruko bazter guztiak arakatu, eta ezeren suzmo txarrik oartu ez zuan ezkerero, mendian gora bideratu zan. Arkaitzak, zuloak, zugaitz bakartiak, eta beste gora-beerak alperrik arakatu zituan. Ezustean, lats txiki bat zearkatuta, billatzen zuana agertu zitzaion: arkaitzpeko gorde-leku aizezkutua. Toki onek gaiñera, alde aundia zuan: latsean gora ibiltzekotan, ez zuan aztar-narik utziko, eta onela, ezkutunea igarrigaitza gertatuko zitzaiekan.

Unerik galdu gabe, kumeengana itzuli ta arloari ekin zion, ots, leenik kume ederrena gaizkatu. Onela bada, otsokumerik bikaiñena ortzetan artu, eta lepoko larruari eutsita, egoitza berrira abiatu zan. Ona eldurik, arreta aundiaz lurrean utzi zuan, eta aalik azkarren enparauekana itzuli zan.

Leengo kabi-zulotik urbil samar, arkaitz baten babe-setik, mintzoen otsak aditu zituan. Darédar bakanaren mende, ibillera lazotu, eta arkaitzeko aterpetik, beerantz so egin zuan. Zakurrek lagundutako gizatalde bat, beste kumeak zegozen tokirantz bideratzen ari zan.

Otsamak ez zuan beste oldozkizunik izan, bere kumeen ziurtasuna baiño, eta aiuri ozena jaulkiz batera, zearkako arinketa bateri eman zion, eiztarien arreta be-reganatzearren, eta onela kumeak idoro ez zitzaten.

Iskilluak danbaka asi ziran. Otsama arkaitzen babes-

petik arin zioan, baiñan aldizka eiztarieri agertzen zitzaien, jazarpenari utz ez zezaioten. Alako batean, arkaitz baten gaiñean islatzen zalarik, aurreko belaun batean tiro batek jo zuan, eta oreka galduta, zilipurdika erori zan. Gero, igesari jarraitu nai izan zion, alabaiñan indargeturik, zakurrak urreratu zitzaizkion. Lau ziran, eta ba-zekiten nola jokatu. auetariko bat, ausartegi edo gazteegia nonbait, ozkatzeko asmoz urreratu zitzaion. Tximista alakoa, otsemeak letagin zorrotzez zauri izugarria egin zion. Beste zakurrek abagunea ustiatuz, eraso zioten, eta otsemea iraulkatzen zala, aietariko batek lepoko ezurra ausi egin zion.

Eiztariak urbildu ziranean, otsama illik zetzan baita zakur gaztea ere. Alabaiñan Kotu ta onen lagunak oartu izan ziran, otsemearen jokabidea oi ez bezalakoa izan zala, ta susmoek eraginda, inguruak aztertzen asi ziran. Andik laister, zakur batek ezkutunea usnatu zuan, eta lau kumeak idororik, zizpaëukaldiekaz il zituzten.

Gero, otsama ta lau kumeak aga luzeetan jarri zituzten. Baserrira biurtzeko zorian zirala baiñan, zakur batek, otsemeak leen utzitako aztarnak topo egin zituan, eta zaunka biziari eman zion. Au entzutean, Kotu'k iskillua artu, eta aren jarraian jo zuan. Beste lagunek, zertxobait nekaturik noski, edo-ta solas-naiean, elkarrizketan eta erretzen, bestearen itzulera itxaron zuten.

Kotu ta zakurra latseraiño iritxi ziran, baiñan emen zantzua galdurik, zakurra aiko-maiko geratu zan. Ertz bietatik gora ta beera ibilli ziran, eta Kotu'k, lagunengae na biurtzea erabakitzeko zorian zala, zenbait erosta negartsu aditu zituan. Auek erakarrita, luzaro gabe kume gaixoa aurkitu zuan. Otzez dar-dar eta bakartasunak izututa, abereiñoak amaren laztanak irrikatzen zituan.

Kotu'k eskuetan artu, eta zergaitia ez zekiala, lepo ta buruiñoa laztandu zizkion. Orduan kumeak mingain la-

rrosakaraz eskua miazkatu zion, eta negarrari utzita, bu-lar-ondoan kiribilkatu zitzaion. Kume eder-ederra, larru illunzka, garbi, biguiñaz jantzita zegoan, eta bultz bakana-eraginda, Kotu'k aurpegia aren lepoan ezarri, eta ille samur aiek bere larmintz menditar, latza, laztandu zio-ten. Gero, gogora etorri zitzaion zertara etorria zan... Kumetxoa il egin bear zuan... Alabaiñan orduantxe kon-turatu zan, ezin zezakeala olakorik egin. ezta beste iñork il zezan utzi ere...

Andik laister, lagunekin bildu zan. Katxo zeritzan auetariko batek, galde egin zion:

- I Kotu, zer arraioa daramak or?

- An goian boskarren otsokumea aurkitu ziat. Begira zeñen pollita dekanr..!

- Utikan Kotu...! --besteak erantzun zion--. Il ezak oraintxe bertan. Pizti oiengandik ez dek ezer onik atera-tzen. Il ezak...! Il ezak...!, bestela egunen batean damu izango dek. Begira ezak bein batean gertatutakoa...

Beste lagunek ere, Katxo'ren esanari eutsi zioten, baiñan dana alperrik, Kotu'k bere artan iraun zuan, eta noizbait baserrirako bidea artu zuten. Andik laister, ku-me-a otzez dar-dar asi zan, eiagora negartsuak jaulkitzen zituala. Kumea otzez aika zala oarturik, Kotu'k kolkoan sartu zuan.

Azkenez, baserri-inguruko baso zabalera iritxi ziran, eta luzaro gabe illunabarko argi motelpean, auzoko etxeak agertu zitzaizkien. Elkargandik agurtu baiño leen, gazteek erabaki zuten, urrengo egunean, andik ordu bita-ko joanaldian aurkitzen zan erriko udaletxera, ildako otseme ta kumeak eramango zituztela, oiko piztien eiza-sariak jasotzearren.

Kotu, baserriko gorengo etxean izeba Donga'rekin bizi zan. Txikitandik umezurtz gertatu zanetik, izeba zaar

au beste baserri batetik umea jagotearren etorri zan, eta semea bai'litzan maite zuan. Gazteak ere, izeba Donga amatzat zeukan.

Illunabar artan etxean sartzean. Kotu'k oiu egin zuan:

- Izeba, begira zer dakartsudan...!
- Baiñan Kotu, non aurkitu duzu zakurkume ori?
- Izeba, ez da zakurkumerik, otsokumea baiño.

Eta jarraiki, goiko arkaitzetan gertaturikoa edestu zion. Bukatu zuanean, otsokumea laztanduz esan zion:

- Begira izeba. zakur on bat izatea beti amets egin dizut. On Prudentzio'rena baizen eder eta ernaia. Oroitzen zara, ezta izeba? Neuk ez dut egundo axe baiño zakur ederragorik ikusi. Nolako naigabea artu nuan bere ugazabarekin joan zitzaigunean...!

- Bai, Kotu, baiñan au ez dogu zakurra, otsokume baiño. Beldur naiz...r Beldur naiz egunen batean ezbearririk ekarriko ez ote digun... Eraman zazu berriro mendira, eta an utz zazu... Beldur naiz...

Baiñan kotu'k ez entzunarena egin zuan, eta oialpuska batez estalita, otsokumea otar batean jarri, eta sutondoan laga zuan. Laister baiñan, goseak eragindako kumetxoak negarrari eman zion. Orduan Kotu'k, kaiku batean berri jetxitako esnea ekarri zion, alabaiñan oraindik itsua zan kumeak, *ez* zekian miazkatzen, eta usainmenak erakarrita, ozta-ozta lapada batzuk eman ondoren, otarrean arildurik sutondoan lo geratu zan.

Gau artan Kotu'ri loa ez zitzaion oi baizen azkar etorri. Oean etzanda, batetik bestera iraulkatzen zan, aspaldiko gertaera bat burura zetorkiola.

Beiñola, iruzpalau urte leenago, euskaldun bat base-

rrira etorri zan gidari baten billa. Zurketaria zan, eta inguruetako basoak aztertu nai zituan, oiko erosketak egi-tearren. Kotu, gidaritzat aurkeztu zan, eta arrezkero, iñoiz aaztuko ez zitzaiokean aspaldirik zoriotsuena irauñ zuan. Zurketariak eta mutillak arras ongi elkar artu zuten. On Prudentzio, gizon arrai ta eskuzabalari, bereala atsegin zitzaion prestu ta begikoa zan Kotu, eta onela, mutillak benetako aspaldi aantzi-eziña izan zuan.

Ba-zan baiñan, mutillak maite izaten zuan beste zerbait: Uri, On Prudentzi'ren zakur bikaiña. Kotu'k iñoiz ikusiriko zakurrik ederren eta argiena. Asieratik elkar maite izan zuten, eta luzaro gabe, Uri'k mutillaren aginduak tximista baizen azkar betetzen zituan.

Onela bada, lurralde artako oian joriak ikertu zituzten, eta noizbait, elkargandik agurtzeko garaia iritxi zan. On Prudentzio ta Uri etxera itzultzearen, berebillean sartu ziranean, Kotu'k sakela bete ogerleko, baita begiak bete malko ere izan zituan.

- Agur Kotu, aspaldi aztugaitza gertatu zait --On Prudentzio'k esan zion-- datorren urtean emen izango naitzaizu berriz.

Baiñan korapillo bat eztarrian, Kotu'k ez zezaioken erantzunik eman. Mutillaren naigabea ikustean, zurketariak auxe esan zion:

- Adi ezaidazu Kotu; urrengo udaberrian, Uri'ren kumerik ederrena ekarriko dizut, eta emen betiko izango duzu. Agur Kotu, biotz on...!

Eta joan zan. Itxaropen berriak mutikoaren malkoak ezabatu zituan, eta adore berrituaz etxeko arazoei ekin zien. Urrerigo udaberrian baiñan, On Prudentzio ez zan azaldu, ezta beste urrengoetan ere... Noizbait Euzkadi'tik etorritako beste zurketari batek jakin-erazi zion, On Prudentzio aspalditik il zala... Arrezkero, Kotu'ri biotzean

amets baten utsunea eratu zitzaion, eta urteak joan urteak etorri, Uri'ren oroitz kutunak nonnai eta noiznai go-goan iltzatuta zeramazkian.

Gau artan oean zetzala, iñoizkorik argien egun aaztugaitz aien gomutapena, bizi-bizi etorri zitzaion. Gau-erdiko izarren asperen ixillek baserria laztantzen zuten garaian, loak artu zuan.

Goizaldean, Otsokumearen negarrek iratzarri zuten Kotu, eta sutondora joanda, su itzaliaren ondoan, kumea otzez dar-dar aurkitu zuan. Eskuetan artu, ta oera biurtu zan, eta itz samurrak esaten zizkiola, berarekin oean sartu zuan. Buruiñoa mutillaren bularrean ezarrita, epeltasunak eraginda, kumea lotan asi zan bereala.

Baiñan Kotu'k ez zezaken lorik egin: otsokumeari izen egokia eman bear zion. Burura etorri zitzaizkion lurralde artan zakurrei ematen zizkieten izenak, baiñan ez egokitzat baztertu zituan danak. Kume arek zerbait berezia merezi zuan. Onela bada, jo batera jo bestera, alako batean, tximista baizen azkar eta argi, izen bat oroz gaiñetik etorri zitzaion, eta barne-barnetik oi u egin zuan:

- Uri, bai, Uri deituko aut. Beiñola, On Prudentzio zanak eskeiñitako Uri'ren kumea uts egin zitzaidan, baiñan i Jainkoak bialitakoa izan atzait, aspaldiko Uri maitearen utsunea bete dezakidakan noski...

Urrengo goizean, ildako otseme ta otsokumeekin, aurreguneko eiztariak udaletxera jetxi ziran, eta oiko diru-saria artuta, bere lagunek ardanegi batean gero-ta bi ziago entzularrei eizako gora-beerak kontatzen zizkietela, Kotu erriko denda nagusira abiatu zan erosketa bat egitearren. Aurrenik, autapen zeatzaren ondoren, edoski-ttuttu bat aukeratu, eta gero oi zuan bezalaxe, izeba Donga'rentzat esku-erakutsi bat erosi zuan, buru-zapi dotorea, alegia. Saletxetik irteteko zorian zala, ate-ondoan eskegitako lepoko ederra begiz jo zuan. Metalezko iltzez

apainduriko larruzkoa zan. Axe zan baiki Uri'k bear zua-na, eta diruari jaramonik egin gabe, erosi egin zuan.

Etxera biurtzearren larri zan ezkeru, lagunak ardan-degian utzi, eta etxeko miñaz bultzatuta, ordu biko bidea-ri ibillera ariñaz ekin zion. Eldutakoan, izeba Donga'ri bezuza eman zion, eta betarik galtzeke, ukuilluko bei bat jetxi, eta bonbiltxu bete esnari ttuttua jarrita, Uri'gana joan zan, Otsokumea gose utsaz negarrez ari zan, eta ttuttuari igarri baiño ez, itsua bezala oldartu zitzaion. Erabatean ustu zuan, eta amaitutakoan lo geratu zan. Lepokoak ez zuan ainbesteko arrakastarik izan, kumeari zegokiona baiño askozaz aundiagoa zalako. Kotu'k beste urrengo baterako gordetzea erabaki zuan.

Jatun betegaitza billakatu zan Uri, eta pirla illuneko itxura biribilla artzen asi zan. Lenengo gaueko oitura jarraituz, oerakoan kumea besoetan artu, eta berarekin etzaten zan. Zenbait egun igarorik, begiak ireki zitzaizkion, eta arrezkeru, ibillera kolokaz mutillari etxeko bazter guztietan barna zerraikion. Kumea aunditzen ari bazan ere, gauak oraindik ozkirriak izanik, mutillak berarekin sartzan zuan oean. Ugazabaren ondoan oartzan zanean, Uri'k aurpegia miazkatzen zion, eta gero, epeltasun gozo artan pake betean loak artzen zuan.

Zerbait aunditu zanean, eguraldia epelagoa izanik, Kotu'k kumea oe-ondoko artz baten larruan etzan-erazi zuan. Otsokumea txit ernai ta maitekorra gertatu zan, beti mutillaren atzetik zebillela. Baiñan kanpoko lanak egitearren, Kotu'k irten bear izaten zuanean, Uri etxean erdi-negarrez geratzen zan, ugazaba noiz etorriko zitzaion igurikan. Ikustekoak ziran otsokumearen alaitasun eta laztanak, etxean barriro ikustean...!

Kotu ta izeba Donga, etxeko sei beiek ematen zituzten esne ta txalez bizi ziran bereiziki. Egunero, errirako bide-gurutzean oiko esne-pegarrak laga oi zituzten, eta

kamioi batek baserriko enparauekin errira eramaten zitu-
tuan. Onezaz gaiñera, goiko arkaitzetako zelaietan obari
oneko beortalde apaiña ere ba-zuten. Eta gauzak biribil-
tzeko, bearrezko zitzaien janari geiena etxe-ondoko or-
tuan jaso oi zuten. Baserriko bost etheen inguruan edatu-
rik zeuden belardi joriak, eta goragoko arkaitzeta-
raño edatzen zan erri-baso bikaiñean, etxerako nai bezainbat
egur bil zezaketen.

Onela bada, naiz beiak alatzera eraman, naiz beor-
taldea ikertu, edo bere garaian belarra moztu ta ondu,
bazan etxetik-at zeri begira. Beraz, Kotu sarri askotan le-
korean aritzen zan. Etxera itzultzean baiñan, Uri'ren po-
za neurrigabea izaten zan, zaunka ta jauzika eskuak
miazkatzen zizkiola, ugazabari ongi-etorria emateko irrié
kan.

Illabete bi igaro ondoren, zailla billakatu zan Uri
etxean gorderik uztea. Sumin basatiak eraginda, edozein
leiotik iges egiten zuan, eta au eziñezkoa gertatzen bal-
din ba'zitzaion, amorru bizian ate-ozkatzeari ekiten zion,
ezpalak erauzten zizkiola. Onela bada, Kotu'k ez zuan
beste biderik izan, kanpoko zeregin guztietara otsokoa
berarekin eramatea baiño. Bere olde basatiari zegokio-
nez, Urik mendi-bizitzarekiko zaletasun neurrigabea ze-
rakusan.

Andik laister, esnari uko egiñik, guztitariko azku-
rrietatik jaten asi zan; alabaiñan ez zezaken aragiarekiko
zaletasuna ezkutatu, batez ere gordiñik izatekotan. Ko-
tu'ren etxean ez zan maiz aragirik jaten, baiñan izaten
zan abagune urrietan, Uri'k irrika bizian jan oi zuan.

Egunen bidean, otsokoak itxura bikaiña artu zuan.
Soin illuna zurizkatzen asita, gaztain orixka biurtu zi-
tzaion, bizkarrean illunagoa bazan ere. Burua, zakurre-
nak baiño aundiagoa zan, eta belarri tenteak aitzitik labu-
rragoak. Baiñan geien bereizten zuana, "adimen" ernai

baten jaubea izatea zan. Onela bada, ez-arian ez-arfan, beiak zaintzen ikasi zuan. Ez zan ardurarik beiek larradiaren mugak zearkatu zitzen; azkonn baizen arin uluka oldartzen zitzaien, ortz zorrotzen erakuspenaz aserretuarena egiñez. Bazkaldia bukatu, etxera lerroan zeramazkian bide-auspen txikienik ere uzten ez ziela. Urrengo egunean berdin, errezkadan alatzera.

Kotu'k, beortaldeko zaindaritza bete zezan, irakatsi nai izan zion, baiñan asieratik au eziñezkoa billakatu zan. Mutilla, astean edo amabostean bein, beortaldea ikustera joan oi zan, alabaiñan otsokoaren usaiña artu baiño ez, beldurrez zoroturiko beorrek igesari ematen zioten. Baiñan nola edo ala Ud' ren laguntza onuratsua gertatu zan. Beorrek urrundik ikusi baiño ez, Kotu'k keiñu ta oiuka, inguru-bide egin zezan adierazten zion, baita norantz eraman bear zituan ere. Laister ikasi zuan Urik, inguru-bide batez beorren atzetik gertatzen, eta gero urrutitxotik, mutillak nai izaten zuan tokira eramaten.

Ez-arian ez-arfan, mutilla ta otsokoaren artean elkarrekiko ulermen-loturak sortu ziran, eta gero etengabe aunditu zan maitasun bizia; batez ere Uri'rentzat: mutillak bizitza osoa betetzen zion, otsama zanaren oroipen bizirik ez zuan-eta. Sarri askotan, ugazabaren ondoan geldi-geldi, erdiz ertsitako begiakaz so egiten ziola, biotza maitasun neurrigabeaz betetzen zitzaion, eta Kotu'k buru ta lepoa laztantzen zizkiola, zorion aundia ozta-ozta menderaturik, kurrinka leunak irteten zitzaizkion.

Uri'k baiñan, ez zekian biotz-erdigarrizko agur uxaeziña urbildu zitzaielara. Gudari-aldia betetzearen, bere ugazaba etxetik urrun joatekoa zan. Aldi artan, susmo bakanaz jabeturik bai'litzan, Uri'rekiko iñoizkorik maitekorren biurtu zan Kotu, etengabe laztantzen zuala. Azkenengo egunetan, izeba Donga'ri bein eta berriz esaten zion:

- Izeba, zaindu ezazu Uri. Berak ere lagunduko dizu, beiak larratzera eraman eta zaintzeko batez ere. Eskutitz bakoitzean aren gora-beerak emango dizkidazu, ezta?

- Bai, seme; badakizu zainduko dudala, neronek ere maite dut-etar..

Abialdia iritxi zan. Goizean goizik, izeba Donga negartsua besarkatu ta gero, Uri besoetan artuta bein eta berriz laztandu zuan. Ustekabez, zerbait burura etorri ziztaion:

- Joan baiño leen, oroigarri bat emango dizut.

Au esanik, arasa batetik sei illabete leenago errian erosiriko lepokoa atera zuan. Metalezko apaingarriek urrezko izarñoak ziruditen. Gero, lepo-inguruan ipiñi zion, eta itz egiteko gauza ez zalarik, azkenengo aldiz izeba Donga besarkatuta, bide-zorroa artu ta irten zan.

Atea bere atzetik ertsi zan, eta eztarrian korapillo askatueziña zuala, errirako bidea artu zuan.

Ugazabaren atzetik atea itxi zanean, etsipen bakana naz menderatutako Uri'k ulu negartsuari ekin zion, noiz ate-ozka, noiz etxeko bazter guztiak zoraturik arakatzen zituala. Gauean noizbait, izeba Donga'ren ez-axola batek atea zabalik utzi zuan, eta etsipenaz itsututa, ugazabaren aztarnen atzetik oldartu zan otsokoa.

Gau betea zan errira iritxi zanean. Oiñatzek erriko enparantzraiño eraman zuten, baiñan ustekabez an bertan ezabatu ziran. Naiz batera, naiz bestera jo, ez zuan jadanik ugazabaren usaiñik artu aal izan. Azkenez, biotza iñoiz ez ezagaturiko sentipen larri batez jabetuta, goizalde-irian baserrira itzuli zan.

Arrezkero, Uri'ren izaera osoki aldatu zan. Aspaldi-ko begien bizitasuna ta zernaitarako adorea, joan zitzaizkion, eta maiz ate-ondoan etzana, so jorantsuaz errira

zeraman bidea begiztaten zuan, itzultzen ez zan ugazabaren begira ta begira... Beien zaindaritza ondo betetzen ba'zuan ere, betebear ontan aintziña aurkitzen zuan alaitasuna joana zan, eta batzuetan sumin basatiak eraginda, beiren bati ozka egiteko zorian gertatua zan. Jateko guraria galdurik, ozta-ozta bizirik irauteko lain artzen zuan soillik. Gero, gaua irixten zanean sutondoan etzanda, garrerri begira ta begira, Kotu'ren ondoan aspaldi egin oi zuan bezalaxe; orain baiñan mutillaren eskuek ez zuten bere burua laztantzen. Kotu'ren utsa betetzearren, izeba Donga aalegintzen zan, baiñan Uri'k ez zion jaramonik egiten. Gero, sua itzaltzen zanean otsokoa mutillaren logela utsera joian, eta oiko artz-larruan etzanda jarrita, lo geratzen zan; eta amets egiten zuan mintzo maitekorrez batera, Kotu'k laztanak egiten zizkiola...

Katxo'k, Kotu'ren lagunak, ez zion bere buruari parkatu izan, aspaldiko egun artan goiko arkaitzetan, enparauko otsokumeak il zituztenean, Uri bizirik utzi izana. Betidanik nabaritu izan zuan otsoekiko gorroto itzali-eziña, erri menditarretan ain ugariak izan oi diran otso-ipurkaitik, edo noskiago, bere artaldean, noizean bein bildotsen bat galdu izan zitzaiolako. Dana-dala, Uri'ganako gorroto neurrigabea oartzen zuan. Sen ezkutu batek eraginda, otsokoak Katxo'ren gorrotoa igartzen zuan, eta bere aldetik gorroto berdiñaz ordaintzen zion, beldur esangaitzaz naasia bazan ere.

Kotu joan eta bereala, Katxo'ren artaldetik bildots bat suntsitu zan. Aldamaneko bazter guztiak arakatu arren, mutillak ez zuan aren aztarnarik idoro aal izan. Andik zenbait egunera, beste bat peitu zan. Oraingo ontan ordea, artaldetik urrun samar, Katxo'k goiko zelai batean idoro zuan. Iduneko zauri batetik odolustua, erdiz irentsitako gorpua odolune baten gainean zetzan. Ezparrik gabe, axe otso baten ekintza zan.

- Otso bat izatekotan --sumiñaren-sumiñez bere bu-

ruari esan zion-- zeñek au egin, Kotu'ren otsoko madari-
katuak baiño?

Egun artan etxera eldutakoan, soka ta makilla artu-
rik, izeba Donga'ren etxera joan zan. Ate-ondoan etzan-
da, Uri ikusi zuan. Onengana urbilduta, ezustean lepoko
ubeletik oratu, sokaz lotu, ta jarraiki, etxe-aurrean ze-
goan gaztaiñondo bateri estekatu zuan.

- Ilgo aut, pizti ori...! --bere einetatik irtenda oiu egin
zion--. Ilgo aut, ire lau anaiak zizpa-ukaldiz il nitukan be-
zalaxe. Oraingo ontan ez aiz bizirik aterako...

Sumiñez itsu eginda, jotzen asi zitzaion. Artutako mi-
ñak, Uri kizkortu-erazi zuan, gaztaiñondoaren enborrean
zapaltzen zalarik. Zigorraldi errukigabeak jarraitzen zuan
bitartean, zinkuriñik jaulki gabe, Uri ixillik zegoan. Astin-
ketak onela zirauala, etxetik orduan irten zan izeba Don-
ga'k ekintza zitala ikusi zuan, eta aserrea menperatu ezi-
ñik, onela bota zion:

- Katxo, utz ezazu bakean abere gaixo ori, bestela
Kotu'ri esango diot, eta itzultzean zatarkeri onen garbi-
ketak eskatuko dizkizu...!

- Pizti onek bildots bi il dizkit, eta berea artu bear du.
Makillaka il egingo dut...!

- Katxo, ez olakorik egin, arren, utz ezazu...!

Baiñan aserre neurrigabearen menpe, mutillak ez
zion jaramonik egin, aitzitik, gero ta basatiago jotzen
zuan.

Begiak gorroto basatiaz dizdiraka, ta beldurrak kiki-
duriko otsokumeak makurtuta zirauan, alabaiñan miña
aundiagotzen zitzaion, eta onekin batera, iñoiz ez bezala-
ko amorru neurrigabeak artu zuan. Alako batean, aiuri
basatia jaulkirik, bere zigortzailleari oldartu zitzaion, eta
makilla zeukan besoari ozkada izugarria egin zion. Miña-

ren-miñez oiuka, Katxo'ri makilla eskutik lerratu zitzaion, eta besoan beera odola parrastaka zeriola, deadar bizietan sartu etxean, eta andik laister zizpa batekin agertu zan.

Bizkitartean izeba Donga eskuan aizto bat zekarrela, Uri'gana urreratu, eta zartada batez lokarria eten zuan. Une artantxe berean, Katxo agertu zan, eta igesari ematen zion otsokoa birritan torokatzen zuala, bapatean konortea galdurik, Katxo lurrera amildu zan.

Berunezko txirri lodi bat sartu zitzaion Uri'ri sabeletik, eta !arruan arramaska luzea egiñik, saiets batean zapaldu zan. Miñezko aiuriak ozta-ozta menderaturik, tximista baizen azkar larradian gora abiatu, eta odolezko aria lurrean utzita, noizbait basoan itzuri zan.

Katxo, iriburuko gaixotegira eraman zuten, eta andik illabete batera, etxera itzuli zan. Besoak baiñan orban izugarria zerakusan, eta arrezkero ez zan iñoiz leengoa gertatu, lan ariñak egiteko gai ba'zan ere. Alabaiñan gogoan sortutako zauria besoarena baiño izugarriagoa gertatu zitzaion, eta artatik ezin jareitu...

Uri'ren oroitzak etengabe jazarten zuan. Artaldea ikustera zioala, edo-ta basotik egurketara zebillela, uste izaten zuan edozein bazterretan Uri bere zelatan zegoala, eta bizitza ozka kentzearren, itsumustuan erasoko ziola. Basoko zeinnai suzmurrek latzéikarak eragiten zizkion, otsokoaren aiuriak ziralakoan. Gauez ere, ez zuan pakerik aurkitzen. Sarri askotan, ameskaitzek jazarrita, Uri eztarrira oldartzen zitzaiola, eta besoan artutako bezain zauri izugarria egiten ziola, gogora zetorkion. Bestetan amets egiten zuan, gertatutakoa garbitzearren Kotu ase-
rrez irakiten agertzen zitzaiola, eta sumiñaldi itsuan, ar-
kaitzetatik beera bultzatzen zuala...

Ez-arian ez-arfan, Katxo zoro-bidetik lerratzen joian. Zorionez, basetxe artako bizitza betiko uztea otu zi-

tzaion, eta itsasaldeko norabidea artuta, mariñel biurtu zan, legor eraman-gaitzatik urrun abiatzen zalarik, baita irudipen izugarri aietatik ere. Ez zan iñoiz errira itzuliko.

Andik laister, eiztari batzuk beste bildots bat iresteko zorian azeri aundi bat il zutenean, Uri'ren errugabetasuna azaldu zan.

Katxo'ren izkilluak iritxitako Uri, bultz zoroak eraginda, baserri-inguruko larradia zearkatuta, oian babesgariaren sakoneraiño barrendu zan. Zauritutako saietsak min aundia ematen zion, ezusteko igikunak egiten zituanen batez ere. Onela bada, orbel-gaiñean etzanda, larruko arramaska miazkatu zuan, odol-ixurketa eten arte.

Onela, egun bi igaro ziran, eta noizbait goseak bear-tuta. illuntzean janari-billa irten zan. Udazkena laister bué katuko zan, eta jangaiak gero ta urriagoak ziran. Inguru areitan bazan oraindik zerbait eiztatzeko, baiñan berak zakur bateri zegokion azkuntza baiño ez zuan artu izan, eta orregaitik bearrezko zitzaiona, orain ezin arrapatur Basabere bati zegokion biziera, egunen bidean bere kabuz ikasi bear izango zuan. Illunabar artan untxi-arrapaketan saiatu zan leendabizi, baiñan aalegin guztiak ustel irten zitzaizkion. Untxiek usaiña berealakoan artzen zioten, eta tximistak bezala zuloetan ostentzen ziran. Gaiñé ra, saietsaren zauriagaitik, ez zezaieken bear baizen arin eraso. Orregaitik, gau-saio artako utsak lur jota, eta goseak jazarrita, leengo tokira itzuli. eta an lo urduri batek artu zuan.

Irugarren gauean, gose jasangaitzak iratzarri zuan. Bizirik irauteko zerbait irentsi bear zuan. Bi orduz aalegindu arren, ez zuan azkurririk idoro aal izan. Alako batean, sen ezkutuak lurra aztarrika zezan agindu zion. Urte askotako orbelaz, basoko azpigarria lurbeltz aberatsa billakatu izan zan, eta bereala txitxara lodi ugari agertu zitzaion. Idoro-ala irentsi zituan, eta gero urdailla jabal-

duta, lo atsedengarriari eman zion. Txitxarekia bere txas-tamenerako janari gozoa ez bazan ere, bizirik irauteko lagundu zion, eta onela egunen bidean, saietsa baratxe-baratxe sendatu zitzaion, gerota ariñago basotik ibiltzeko gai zala. Orduan, sagu-arrapaketari eman zion. Azkurri au indargarriagoa gertatu zitzaion, eta luzaro gabe, aalmen osoen jabe, untxien eizatzeari eman zion.

Ekin eta ekin, untxiak arrapatzen ikasi zuan. Leenik konturatu zan, aizearen laguntza noraezekoa zitzaiola oarkabez urreratzeko. Baita gero orduak geldi-geldi iraun, eta urbil samar gertatu ondoren, arrapakiñari aida baten eraso, untxiak bera baiño askozaz ariñagoak ziran-eta. Elar-usaiña zerion odol garbiko aragi menditar ura, otsokoari iñoiz ez jandako jakirik gozoena gertatu zitzaion. Ordutik, saguéarrapatzeari uko egin zion. Ez zezaken baiñan nai baizen sarri untxikia lortu, baiñan bataz beste ongi samar antolatzen zan.

Tontorretako elurra gero ta beerago jeixten zan, eta onekin batera, basoko janari negutiarraren billa, goiko arkaitz-arteke zelaietatik, ostu gabeko pagadian orkatzak agertu ziran. Uri'k, basoan zear egindako ibilladietan aurkitu oi zituan, alabaiñan bakarrik zegoan ezkerro, aalegindu bazan ere, ez zitzaken abere bikain aiek arrapatu. Beiñola soillik, anka batean zauritutako orkatz zaar bat lortu aal izan zuan. Ekintza au onela gertatu zan:

Arratsalde batean, atzendentako orkatz bat ikussi zuan. Onen atzetik oldartzen zala, oartu zan ezin zezakeala aurreko zango bat bear bezala erabilli, eta au oarturik, adore berrituaz jazarpenari buru-belarri eman zion. Iruazka ibilli arren, orkatz bakartia arin joian, baiñan Uri'k bere endako oiturari jarraituz, aren atzetik nekegaitza zirauan. Orkatza basotik irten, eta mendian gorra asi zan iritxi-eziñeko arkaitzen bat idorotzeko asmoz. Alabaiñan jazarpenak nekatu-rik orkatzaren biotza, tau-pada bizietan leer egiteko zorian aurkitzen zan. Begime-

na moteldutako abere gaixoa unetxo batez konortea gal-
tzer gelditu zan. Arrapalada batean Uri oldartu zitzaion,
eta ortz zorrotzez lepo-ezurra ausi zion, orkatza illik
amiltzen zala. Orkazkia txit gogokoa gertatu zitzaion,
baiñan bakarrik izanda, aurrerantzean ez zuan beste or-
katzik arrapatu aal.

Billutsik billakatutako basoa, noizbait elurrez estali
zan, janaria gero ta zaillagoa biurtzen zala. Illabete bi
igaro ziran, Uri basoan babestu zanetik, eta dei bakan
batek andik iges egin zezan esaten zion, eta bere enda-
koeri zegokienez, biziera alderraiari eman zezaiola. Illu-
nabar batean, baso-soil batean etzanda, sortalderantz lo-
turiko odei arreen igarotze ixilla begizatzen zuala, oar-
dei ezkutua iñoizkorik argien mintzatu zitzaion, eta gaua
asi orduko, bera ere sortalderantz lotuta, odei ibiltarien
atzetik abiatu zan.

Berak iñoiz ez ikusitako mendi malkartsu ta beldur-
garrietatik, iraduz gabe zioan. Elurpeko zelaiak, lats gar-
biak, arkaitz zorrotzak, arru sakonak, elar zimeletako le-
kuneak, zearkatu zituan, eta urrengo goizaldean ikusgai
zabaltsua an beean edatzen zala, arkaitzetan erroturiko
elorri zimel baten babesean kokatu zan.

Illuntzean sagu bi arrapatu ondoren, bidai orron ari
berriro eman zion, eta aurregunean egiña bezalako bi-
daia egin ondoren, goiztirian arkaitz baten estalpean
etzanda jarrita, lo geratu zan. Illunabarra zan itzarri zane-
ko, eta elur-maluta lodiek ikustasuna eragozten zioten.
Laister illuntasun osoa billakatu zan, eta janaririk artze-
ke, bidaiari berriz ekin zion.

Ille-azpiko illaun lodiari eskerrak, ez zan otzik, bai-
ñan gose izugarriak erraiak ozkatzen zizkion. Ustekabez,
bidea beera ta beera egiten asi zan arkaitzak urriagotzen
zirala, eta noizbait elarrak eta gero zugaitzak agertzen asi
zitzaizkion, erpeak lur biguiñagoan tinkatzen zirala. Or-

dukotz arras unaturik aurkitzen zan, eta auleri batek, elur-gaiñean etzan zedin, bein eta berriz zirikatzen zuan. Makalaldia baiño sendoagoa zan basa-sen batek ordea aurrera bultzatzen zuan. Alako batean, muiño baten bizkarra zearkatzen zuala, indarrak irabaztearren gelditu zan... Ustekabez, barneko olde basatiari men egiñez, burua jaso, agoa zabaldu, ta aiuri sarkor luzea irten zitzaion...

Ez zuan beste erantzunik izan, elardiaren zear aizeak egindako txistua baiño. Bein eta berriz ulu-jaulkitzeari eman zion, baiñan erantzupenik ezean, noizbait ixildu egin zan.

Ibillera iroz, bidai ilgarriari berriz ere ekiteko gertatzen zala baiñan, ara non eguratsean zear, ulu urrundaria bezalakoa aditzen zuala iruditu zitzaion. Gero, onen atzetik, ozenago, aiuri naasiak entzun zituan... Itxaropenaz beterik, zuzenbide artarantz bideratu zan. Zarrastada jorantsuak eraginda joian, endako deiari uko egin eziñik. Mendixka baten bizkarra zearkatzen zuala, ustekabez zelai batean elur-maluten artean ikusi zituan...

Mako aundia eratuz, otsotalde bat bere igurikan zegoan, begiratze sarkorraz so egiten ziola. Ezpaitsu, iltzaturik bai'litzan, Uri geldi-geldi geratu zan. Gau betea zan, baiñan otsoen irudiak elurrean ongi marraztatzen ziran, begieri dizdir motela zeriela. Orduan, taldetik otso ederrera urrats irmoz urreratu zitzaion. Auli, taldeko otso nagusia, aintzindari zuur eta azkarra zan. Onen irudiari, indarrez beteriko zerbait zerion. Zear-begi txiki aiek agintza ta ausardia adierazten zituzten, ago idekitik kurrinka basatiak iges egiten zitzaizkiola. Ustekabez, arroztza ondatzeko asmoz, Uri'ganantz oldartu zan.

Izu otz batek Uri menderatu zuan, baiñan azkenengo unean, endaren legeari esanekoa, otzan-otzan elurrean etzanda jarri zan, Auli izugarriari eztarria eskeintzen zio-

la. Uri'k ez zekian ekintza onen zergaitia, alabaiñan endako oldeak onela egitera beartzen zuan, eta ain zuzen ere, au egitean bizitza onik atera zuan. Berealaxe, etzandako Uri'ren soñña usaintzen zuala, Auli ixildu zan, eta aserrea joanda, erdeiñuzko itxuraz atzekoa eman zionr Jarraiki, taldeko beste otso ta otsokoak urreratu zitzaizkion, eta bere usaiña artu ondoren, pakean utzi zuten. Otsotaldeak onartua izan zan, eta aurrerantzean onen alkartasunaren babesa izango zukean.

Andik ez urrun, basurde baten ondakiñak zetzaten, eta unerik galtzeke, eten egindako otorduari jarraitu zioten. Gosez itsu eginda, Uri ondakiñeri oldartu, eta oraindik epel zegoan basurdekiari eraso zion. Jaki gozo-gozoa gertatu zitzaion, eta luzaro gabe indarrak irabazita, iñoizkorik kementsuen oartu zan. Otsoek ez zioten jateari uko egin, basurdearen larru ta ezurrak garbirik utzi arte. Joranez nausiturik, aragiketa siñeskaitza irentsi zuten. Bazirudian gosete itzela jasan berria zutela. Noizean bein, mail goienetako otsoren batek, kurrinkaz lagundutako ozkadaz, menpekoak uxatzen zituan, puska onenak pakean jaten utz zitzaaten. Alabaiñan auek odolgabeko agerpenak ziranr

Janaldia bukatu rik, otsotaldea, andik urbiltxo zegoan gurbiztegi bateraiño abiatu zan. Barranda-leku garaia zan sarreran, otso bat begirari jarri zan, taldea txaraka-sarririko barrenean ezkututzen zala, laister goiztuko zan eguna lo-itzarririk irauteko. Etorkiarekiko itxaropenaz gaiñezka, Uri atsedean artzeko gertatu zan. Taldea garaiz aurkitu ez ba'lu, bereak egingo zukean...

Onela bada, Uri'k Auli'ren taldearekin, otsoek neguan oi duten biziera alderraiari eman zion. Taldea ama-bi kidek osotzen zuten. Leen esanda bezala, nagusia edo aintzindaria, zazpi urtedun Auli kementsu ta zurra zan. Bigarren mailla, bost urteko Elki'ri ar bikaiñari zegokion. Gero. iru otseme ziran, eta era berean bakoitza bere



maillean egokiturik. Gorengo maillean zegoanak, beste guztiak menperatzen zituan, ozka ta kurrinkaz bere nagusitasuna gordetzeko beti gerturik. Jakiña, arrek ez zieten urruseri ozkarik egiten. Maillak, ar eta emeen artean soilik gertatzen ziran, ar-eme arteko naasterik gabe. Bigarren maillekoak, leenengoa izan ezik, beste guztiak garaitzen zituan, etabr.. Auli, Elki, ta iru otsemeak kendu ezkeru, enparauak zazpi otsoko ziran (auen artean Uri zala). Zazpiak aurreko udaberrian jaio ziran, beraz zortzi bat illabeteko.

Otsotaldea etengabe ibilli zebillen, Kantauri mendi-lerroa mutur batetik besteraíño ikertuz. Ibiltari yaio aiek, ez zuten beíñere leku berean luzaro irauten; goseak eragindakoak eta gizasemearen beldurrez, betiereko bidariak bai'liran, toki batean agerturik, berala ezabatzen ziran, leen íñoiz ez ikusitako lekuetan ustekabez agertzeko. Egunean irurogeitsu kilometro egiteko gai ziran; geienetan baiñan, amar edo ogeitsu betetzen zituzten soilik, etengabe arrapagaien usnatzeari emanak.

Bein eizaren zantzua somaturik, Auli'k taldeko aurrea artu, eta beste otsoek zerraizkiotela, danak iraduz gabeko lauazka neurritsu bateri ematen zioten. Zabaldietako bizierak eta eizarekiko bearrizanak, ibiltari yaioak biurtu izan zituzten. Lauazka dantzaritsu, malgu, nekaezin artan, bakoitzak baézekian nola jokatur Arrapagai bakarra ba'zan, aukerarik eman gabe jarraitzen zioten; saillekoa izatekotan baiñan, begiraldi arin batez, Auli'k ilgai errezena bereizten zuan, eta esan ziteken, aukeratutako arrapagaiak geienetan eriotzéepaia bereganatzen zuala. Bereiztutakoa, taldeko zaarrena, erbalena, izaten zan.

Ezkutuko oar-aalmenaz yantzita bai'liran, beste otsoek ba-zekiten zein zan Auli'k aukeraturiko ilgaia, eta uztai baten arabera zabalduta, izuaren-izuz iges egindako taldeari jarraitzen zioten. Asieran, jazartutakoek tartea aundiagotzen zuten, baiñan ibiltari nekegaitzak izanik,

otsoek ez zuten beuren arrapalada dantzaritsu, malgua, arintzen. Luzaro gabe, Auli'k bereiztutako arrapagaia atzenduta, otsoen makoa onen inguruan ertsiten zan, eta iges zoro larriagaitik igeslariari biotza leer egiteko zorian gertatzen zitzaiola, urbilleneko otsoek eraso, eta lepozurra ausita, arrapagaia amiltzen zan.

Jarraiki, irrika itsuan iresten zuten, oiko murruskada eta ozkadak gertatzen zirala. Ildako aberea aundi samar izatekotan, esaterako beor bat, asetu arte irentsi ondoren, egospena egin oi zuten, eta iruzpalau ordu igarorik, bigarren asebeteari ematen zioten. Janaria bukatuta, goizaldea baiño leen, baso edo txaraka baten babesean ezkutatzen ziran, oiko begiraria ikusgune garaitsu batean barrandari jartzen zala. Urrengo gauean berriz oiko orron-aldiari ematen zioten.

Azeriak ziran batzutan otsotaldearen eizagai. Ugari ziran baso ta txaparretan bizi-lekua zuten azeriak. Abere arrapagaitz auek garaitzeko, negua sasoirik errezena da, orduan iñausaldia dutelako, eta augaitik ez dute oi bezalako zuurtasuna gordetzen, eta gainera usain sarkorragoa darie. Alaz guztiz ere, eiza-mota au ez zitzairen erreza gertatzen, edozein estugunetik iges egiten bai-zuan azeriak, baiñan zabaldian gorde-zulotik urruntxo ustekabetua zanean, gero-ta txikiago billakatzen zan mako baten erdian otsoek azeria inguratzen zuten, eta onek orduan zuloen bat aurkitzen ez baldin ba'zuan, ezinbestean arrapatua izaten zan.

Ain zuzen ere, basurdeak ziran otsoen janari beiñenetakoa. Baso, txaraka ta zumeldietan batez ere, basurdeen kopurua arin emendatzen zan. Otsoek erabillitako jokabidea, basurdea inguratzea zan, eta indarge gertatzen zanean, alderdi guztietatik erasoten zioten.

Gaua asita, otsotaldea janari-billa abiatzen zanean, zabaldia elurraz estalia izatekotan batez ere, otso bakoí-

tzak aurrekoak egindako oiñatzetan bere erpak ezarri oi zituan, otso bakar baten aztarnak bai'liran. Ezeren usaiña gal ez zekien, sudurrak zabal-zabal eginda, basurdea usnaten baldin ba'zuten, taldeko bi edo iru ibillera azkartuta urbiltzen zitzaizkion, eta basurdearen atzean jarrita, urrun ez zegoan taldera bideratzen zuten, eta gero otsotaldeak inguratutako erasoaldia gertatzen zan.

Ez zan baiñan beti erreza abere zangar auek nekarazten, basurdeak ibiltari bikaiñak bait-dirar Augaitik noski, eraso bereala asten zan, alde guztietatik oldartzen zitzaizkiola. Jazarritako basurdeak, bere olde kementsuari zegokionez, jarkitzen zitzaien letagin ilgarriakaz aurre egiten ziela. Azkenez baiñan, alde guztietatik erasotako basurdea zauritzarrez odolduta, illik lurreratzen zanr

Sarri askotan, burruka auek otsoeri sarraski aundiak egiten zizkieten, eta basurde zangarrarekin batera otso-oren bat illik gertatzen zan, baita geienetan otso asko zauri gaitzaz beterik ere.

Negu artan, Uri zenbait basurdek zauriturik billakatu zan, eta etsai kementsu auenganako begirune ta zuurtasuna gordetzen ikasi zuan. Baiñan beuren letagiñetatik urrun gertatzea ez zan beti gauza erreza.

Gau batean, otsoak iru egunez ezer jan gabe or-emenka ibilli izan zirala, basurdearen usaiña artu zuten. Auli ta Elki aurreratu, eta luzaro gabe zumeldi batetik barrendu ziran. Basurde aundi baten aztarnak laister idoro zituzten. Jarraipena asi ta bereala, basurde bakarti aunditzarra lurrean musturka ikusi zuten. Unetxo batez, Auli ezpaitsu geratu zan, aren aunditasunak zerbaitxo izututa. Gose aundia bazan ere, berak iñoiz ikusitako basurderik beldurgarriena zan. Laister baiñan taldea urreratu zitzaien, eta onen urbiltasunak zangartuta, Auli'k eraso agindu zuan. Oi bezala, otsoak basurdearen inguruan jarrita, bera ta Elki atzetik oldartu zitzaizkion.

Etsaiak oartuta, basurdetzarrak iges egiteari eman zion, zumel-naasitik barrentzen zala. Otso biak etengabe urreratzen zitzaizkiola, gudaégurdi baten antzera, basurdeak zumelditik zulo-bidea eratzen zuan, jarraitzailleen ekintza errezagotuz, alabaiñan landaretzaren naaspil artan, otsoek ezin zezaioketen alboetatik ekin... Alako batean, Auli'k zango bateri eldu zion. Kurrinka basatia jaulkiz, basurdea tximista baizen azkar biurtu zan. Itsumustuan artutako Auli, ozkada lazotu ta ortzak erakuska unetxo batez aurre-aurre geratu zan, beldur antzoko zerbaitek menperatzen zuala. Orduan, basurdeak iñolako sumiñaz eraso, eta letaginkada batez, Auli'ri begi bat ateratzen zion, buruko larruan arramaska itzela egiñez. Zauritutako Auli'k, ulu bizietan igesari eman zion, eta zumeldiko ertzean taldearekin bilduta, luzaro samar zinkurinka egon zan, basurde kementsuaren irudia, txaraka-sarritik ezabatzen zala.

Arrezkero, Auli ez zan iñoiz leengoa gertatu. Eizarako bearrezkoa zitzaion begimenaren ziurtasuna joan zitzaion, eta bere agintzapean taldeak ez zuan aintziñako arrakasta lortzen. Aietariko gau batean, orkatz eder baten eiza ustel gertatu zitzaion, Auli'k eraso aurretiaz agindu izan zualako. Ustekabez, ago idekitik murruskada basatiak irteten zitzaizkiola, Elki oldartu zitzaion. Begi bakarrari txinpartak zerizkiola, Auli'k erantzun zion, eta jarraiki, bien arteko burruka basatiak leer egin zuan...

Auli, leikidea baiño indartsuagoa zan, eta ezpairik gabe, oiko baldintzetan gaiña artuko zukean, alabaiñan ezin zezaken etsaia bear bezala ikusi, ezta bitartea zeatz neurtu ere. Augaitik, ozkada geienak utsean jotzen zituanez Elki'k ordea, burruka zearo menperatzen zuan, eta bere letagiñek arerioari sekulako sarraskia egiten zioten. Idunea zauriz beterik, eta odola lurreraiño zeriola, auldutako Auli, illik erortzeko zorian billakatzen zan.

Alabaiñan bere burua galdurik ikusita, ustekabez,

Auli lurrean etzanda jarri zan, otzan-otzan Elki'ri lepoa eskeintzen ziola. Bapatean, Elki'ren sumiña ezabatu zan. eta eroritako etsaiari garaillearen itxuraz so egiñik, arro-arro atzekaldea aurkeztu zion. Ba-zuan otsotaldeak aintzindari berria, ta onek etengabe ortz-erakuska ta kurrinka basatiak jaurtitzen zizkiela, taldeko ar guztieri nagusia zala bein betiko adierazi zien.

Negua igaro ala, eguraldia zakartu zan, eta ibarrak izan ezik, dana elurraren estalkipean zetzan. Goiko arkaitzetan bizitza joana zeritzan, abere guztiak beeko bazterren babesa billatzen zutela. Otsotaldea ere. ibarretako janariaren atzetik bortxatuta, gizasemearen egoitzaraiño jetxi zan. Gosea zan beti otsoen akuillularia, eta gizonaren beldur baziran ere, gautu baiño *ez*, zentzumen ernaiakaz, baserrietara urreratzen ziran, eta araturik, ibilleé ra ixillaz inguratzen zituzten, zernai bizirik arrapatzearrenr Beorren bati usaiña artuta, aizearen aurka urbiltzen zitzaizkion, eta garaia izanik, arrapalada batean erasotzen zioten. Izuak menderaturiko azkazalduna, iges egin nai orduko, lepoéezurra ausita erortzen zan.

Auetariko ekintzetan, baserri-inguruetako arrapagaririk topatzen ez baldin ba'zuten, etxeetaraiño jetxirik, baé naébanaka aztertu oi zituzten, zeinnai janari etxe-inguruetan aurkitzeko asmoz. Eta besterik ezean, noizbait zeozer aurkezten zitzaien... Bai, or-emenka zebillen etxeko zakur zaindaria. Ozta-ozta onek galtzoria nabaiturik, gorpu zan, eta etxekoen eraso baztertzearren, ortzetan atzitu, mendian gora zeramaten, eta gero ziurrean, irentsi oi zuten.

Elurra lurmenu-ala, gaindegietara berriro, otsoek naiena zuten bizierari jarraitzeko. Onela bada, egunen bié dean negua bukatzeko zorian gertatu zan... eta orduan otsokara etorri zitzaien. Elki'k berarentzat otsemerik ederrera artuta, Auli'k bigarren maillako bat artu bear izan zuan. Onela bada, ezarianéezarian bikote magusiek tal-

dea utzi zuten, eta bakarrik billakaturiko otsokoak bakoitza bere aldetik sakabanatu zan.

Jaiotokiarekiko joran nagusigaitzak menderaturiko Uri, Tina'ko Mendien erdiko maillora abiatu zan, eta emengo barruti malkartsuan bizilekua aukeratu zuan. Ez zan beti toki berean bizi izaten, aitzitik, barruti artako alde batetik besteraino, beti gauaz ibilli zebillan. Bazuan jaketeko lain idorotzen, bizitza berrira ernetzen ari zan izadi artan. Arkaitz-baso-arruetan, untxi, kirikiño, sator, katagorri, suge, ta egazti ugari zan. Goizaldea urreratzen zanean, berriro goiko ezkutunetara, eta emen, begiratoki egokiren batean etzanda, eguna irautzen zuan, gizasemeen agerpena erdiz iratzarritako oarmenaz beti zelatan.

Onela bada, barruti artako gora-beera guztiak arian-arian ikasi zituan, baita eiza-leku onenak ere. Zeinnai tokitara abiatzean ba'zan, bidezka ibilgaitzenak aukeratu oi zituan. Ez zitzaion eder zabalune irikietatik ibiltzea, ta bearrezkoa izatekotan, ikusgaitza gertatzearren, inguruko gora-beera guztiak ustiatzen zituan. Eguneko barrandegietatik, aldameneko igikun eta otsen zain zegoan. Zentbaitek arrenkurak sortzen baldin ba'zizkion, bere larruko margoa ondoko arkaitzenarekin bat eginda, arin eta ixil, beste leku urbilgaitz batera bideratzen zan.

Joanéetorri aietan, noizean bein Kotu'ren baserria an beeko baso ederraren ondoan agertzen zitzaion. Zauskada esangaitzaren menpe, lurrean etzanda, orduak eta orduak igite iraun oi zituan, ametsetan bezala, Kotu'ren irudi txairoa gogo ta begietan itxuratuta. Gizaseme guztieri gorroto zien, baita inñolako beldurra ere. Kotu baiñan Aita-ama-anai-lagun-jainkotzat dana batera zeukan. Ez zuan ezer, bere biotzeko ugazaba aiña maite izaten... Egunen batean ikusi aal izango ba'lu...! Gero, gaua elduta, paradisu eder bat betiko galdu izan zuanaren sentipenaz, ibillaldi alderraiaren itzal illunetan galtzen zan.

Uda amaitu zan, baita udazken-aurreneko egun eguzkitsuak erer Berriz ere tontorrek elurrez estali ziran, eta mendietako ur garbiak arrotuak jeixten zirala, ta basoari ostoak orbeltzen zitzaizkion garaian, zabaldietako bizitza ostera moteldu zan. Gerota aundiago egiten zitzaion lagunekin berriro egotearen joran biziak artu zuan, eta ango bazter maiteak utzirik, Tina Mendietan barna, sortalderantz abiatu zan. Beiñola, gau illun baten zear, otsokideen aiuri jorantsuak aizearen egoetan eldu zitzaizkion, eta laguntasun-miñez uztarpetuta, aiengana jo zuan. Bidean gaindi joiala, burura etorri zitzaizkion, urte bat leenago gosez iltzer zearkatutako bazterrak. Zabaldi berbera zan, eta kideen deiari erantzunez, itxaropentsu aratu zan... Eta aurreko urtean bezalaxe, zelai bereaan kideak aurkitu zituan...

Oraingoa baiñan, talde ugaritsua zan. Uri iritxi zane-ko, Elki'ren agintaritzapean, amasei lagun bilduak ziran jadanik. Eldu baiño ez, ortzak erakuska Elki urreratu zitzaion, oiko menpetasuna eskeintzera beartzen zuala. Uri'k, agindutako ezaugarriak eskeiñi zizkion, eta Elki'ren ongi-etorria jardetsita, besteekin bildu zan.

Oraingo batzarrean orraitño, uts asko nabarmentzen zan. Auli, igaz begi-bakar gertaturiko aintzindari-oia, peitzen zan. Ez zuan garaitu aal izan noski, begimenaren akatsa, eta zabaldiko bazterren batean, goseak jazarritako ta arrapakiñen gabeziagaitik gerota aulago, zendua zan aurki. Otsoar aundi bi taldekoak ziran, jakiña Elki'ren nagusitasuna onetsi ondoren. Gero, lau otseme malgu pollitak, eta azkenik, zortziko otsoko-andana. Auen artean, Uri aiñako eder eta sendoa zan Luni, Somiedo'ko mendietan jaiotako otsoko bikaiña. Uri ta Luni otso elduak ez izanik, ez zuten nagusitzaren araueri jarraitu bear, eta laister elkarren pakean bizi izaten oitu ziran.

Eta berriro, Elki'ren aintzindaritzapean taldeko bizie-

rá geldieziñari ekin zioten, noiz basurdeeri erasoka, noiz beortalde baten usaiñaren atzetik, edo-ta basoan orkatzeri jazarpen tematsuen bidez, arnasa galdu-erazi ta gero ozkadakaz il. Neguko elurketa-garaian, beekaldeko base-rietara oiko azkurriaren billa, ots, ardi, beor, eta zakur-rrak. Arrapaketa ustel irteten baldin ba'zitzaien, zernai jateari ematen zioten, au da, sagu, satorrak etab...

Otsoen bizitza zakar eta errukigabe izanik, ezarian- ezarian taldea etengabe murrizten zan. Batzuk gosez ilda, gazteenak batez ere; bestetzuk geisotasunak jota, eta enparauak basurde-aurkako burruketan artutako zauri ii- garriakaitik. Otsokoak zigortuenak beti, gose ta eritasu- nak egiten zizkieten sarraskieri jarkitzeko, aulenak zirala- ko.

Oi bezala, negua amaitzeko zorian zala, sakabanatu egin ziran. Leengo amaseiko taldea amar bat kidek oso- tzen zuten jadaneko. Otsarrak zegozkien emeekin oiko kabiak antolatzearren aldendu ziran, eta gazteak berriz, bakoitzak naiago zuan bazterretara abiatu ziran. Onela bada, Uri'k bere jaiotegiko lurralde ederraren irrikan, ar- kaitz goitsuetao norabidea artu zuan, eta tontorretako elurra gesaltzen asten zan garaian, bere txoko kutunena- ra iritxi zan, eta oiko bizitza bakartiari eman zion.

Berriz ere, negua eldu zitzaion, eta endako deiari men egiñez, betiko zelaian bere taldearekin bildu zan. Eta oi bezala, eraso ta erail, etengabe arrapakiñen billa, askatasunaren alde ildako lagun en ezurrek, arkaitz, baso, ta zelaiak zurizkatuko lituzkete. Gosea betiko bide-laguna zuten, eta otsoren bat gaizki zauritua edo ilda gertatzen baldin ba'zan, enparauak eraso ta jan egiten zuten. Jar- rraiki, ezur-meta ezaugarritzat utzi eta aurrera. Bizitzak eta eriotzak elkarri jarrai zioten, baiñan otsoen enda az- karrak irauten zuan.

Beste udazken bat bukatzeko zorian zan. Oiko deiari jarraituz, Uri'k, elurrez estalitako Tina erdiko arkaitz mal-

kartsuak utzita, urte oro bezalaxe, batzarreko zelai urrundarira abiatu zan. Bere soin gaztainkara orixka, musturretik buztneraiño 1,75 metro luze zan. Soin argal malgua, orduak eta orduak ibillera neurtsu bereiziaz nekatzeé ke ibiltzeko gai zan. Negutearen atean izanik, aroari zeé gokionez, illea luzatzen asi izan zitzaion. Ibilli zebillela buztana lurrerantz zintzillika, zearka jarritako begi sarkor bizietan, bere endako ausardi ta zuurtasuna ageri zituan. Eta onela iraduz gabe, iru eguneko bidaia beteta, batzarregira iritxi zan.

Jadaneko, taldea elkartua zan, eta oraingo ontan ere, Elki zuten aintzindaria. Taldea amabi kidek osotzen zuten. Nagusia zan Elki, Somiedo mendietatik etorria zan Luni, eta Uri. Gero, otseme bi: Miñe ta Ziñe. Azkenik, adin ezberdiñetako sei otsoko.

Asieratik nabari gertatu zan, Uri ta Luni ez lirakela aintziñako pakean bizi izango. Garaia eldu zitzaien, eta taldean zegokien tokia artu bear izango zuten. Bietariko bateri, Elki'ren urrengoko agintaritza zegokion. Aurreneko egunetan, bien arteko eztabaida, ortz-erakuspen eta zemai-kurrinkaz bukatu zan, alabaiñan egoera ezpaitsu ontan ez zezaketen betiko iraun, eta ain zuzen ere, etoré tekoa etorri zan.

Neguko sarreran, aldi-aurretiko elur-jasa aundia izanda, taldeak ibarretara jetxi bear izan zuan, eta goseak erakarrita, baserri baten inguruan alatzten ziarduan artaldeari, Elki'k illunabarra gabe erasotea erabaki zuan.

Artzanora sendo batek artaldea zaintzen zuan, eta zeatz guztiak azterturik, Elki arengana abiatu zan. Artzanora zakur zangarra zan, eta zaunka bizietan otsoari oldartu zitzaion. Orduan, Elki zuurra taldeari arazoa erreztearren, artzanorak zeri-aikiola artaldetik urrundu, eta txaraka usu batetik barrendu zan.

Au gertatu bitartean, enparauko otsoek artaldeari ekin zioten. Beldurrak elbarrituriko ardiek, marraka bi-ziak jaulkitzen zituztela, sakabanatu ziran. Jokabide onek otsoak ero biurtu zituan, eta zentzungabeko odol-egarriz jabetuta, idoro-ala erail zuten, luzaro gabe gorpuzketa aundia illotzik zetzala. Otsoek baiñan ez zioten erasoari utzi aal izan, artaldearen otzantasun eta odol berriaren usaiñak, itsu biurtu izan zituztelako, eta zentzugabeko il ketari jarrai zioten.

Bitartean, txarakako ertzean, artzanorak eta Elki'k burruka itzelari ekin zioten. Otsoa ariñagoa ta artzanora sendoagoa izanik, burrukak berdintsu zirauan, baiñan artzanorak bazuan zerbait bere alde: ezten zorrotzez es-talitako metalezko lepokoa, alegia. Otso ta zakurren ar-teko zauri ilgarriak, zintzur ta lepo-ezurrean gertatzen di-ra. Alabaiñan Elki'ren letagiñek ez zezaioketen etsaiaren lepoari eldu, au egitean eztenkada mingarriak artzen bait-zituan. Ezin bestez, artzanorari aurreko zango ba-tean ozka izugarria egin zion. Miñaren-miñez, tximista alakoa artzanoraren masail indartsuek Elki'ren lepo-ezu-rrean gorrikatuta, krask!! aditzen zala, lepoa ausi zion. Oiñazkarrak jota izan bai'litzan, Elki illik erori zan.

Zaunka bizietan, artzanora aalik ariñen izuak sakaba-naturiko artaldeagana itzuli zan. Gertaera guzti auek sor-tutako iskanbillak, leku artako baserritarrak erakarri zi-tuan, eta gaueko itzalak baserriaz jabetzen zirala, danba-da bizietan otsoak bereala uxatu zituzten.

Ordu bi geroago, otsotaldea goiko zumeldi batean babestu zan. Elkiz gaiñera, Ziñe otseme ederra ere zen-dua zan, eta taldeko batzuk zauriturik gertatu izan ziran. Artaldeari buruz lortutako garaipen erreza, eta zentzuga-beko ilketa, oso garestia billakatu izan zan. Ain zuzen ere, otsoeri ez zitzaien gertaera au iñoiz aztukor

Alabaiñan, bizitzaren iraupenari eutsi bear, eta aurreneko betebearra, aintzindari egokia aukeratzea zan. Arazoa Uri ta Luni'ren artean garbitzekoa zan, eta aalik azkarren gaiñera. Taldea. zumeldiko soillune batean etzanda zegoala, agoa zabalik eta kurrinka basatiak jaulkiz, Luni Uri'gana urreratu zan. Tina Mendietako otsar azkarrak, tximista bezala jaikita, Somiedo'koari aurre egin zion. Zein baiño zein sendo ta ederragoak ziran, eta abere bikain aieri zegokien aiñako burruka itzela gertatu zan, bakoitza aalegintzen zala etsaia lepoan zauritzen. Elur eta illargizko dizdirak apaindutako zelaia. burrukarako leku ezin egokiagoa billakatu zan.

Ulu izugarriak jaulkiz eta lerdea zeriela, elur-gaiñean noiz etsaiaren gaiñean noiz azpian iraulkatzen ziran. Burruka gerota basatiagoa zan, elurra ta ixuritako odola naasten ziralarik. Indarren mugaraiño eldutakoan, berriero aurrez-aurre jartzen ziran, so ilgarriakaz elkarri begiratzen ziotela. Atsedean ariña artuta, erasoari ostera ekiten zioten. Luni baiñan aurrenik nekatzen asi zan, eta Uri'ren ortz zorrotzek zauri sakonak egiten zizkiotela, bere burua galdutzat jota, elurrean ankaz gora jarri zan, leikideari lepoa otzan-otzan eskeintzen ziola.

Uri'ren begiak garaipenezko dizdiraz piztu ziran, eta burua illargi beterantz zuzenduta, aintzindari berri bateri zegokion arauz, nagusitasun-irrintzia ulu luze baten bidez, zabaldiko guztieri jaulki zien, eta jarraiki, menpekoak lagundutako, arrapagai baten billa gaueko itzaletan murgildu zan.

Uri, buruzagi bikaiña billakatu zan, taldeko laguntzaz bear bezenbat janari lortzen zuala. Bein edo bein ordea, eiza ustel irteten zitzaion. Baiñola, Tina Mendietatik urbiltxo, baso jori batean orkatz bateri usaiña artuta, jazarpena antolatu, eta luzaro gabe otsoek iru alderditik inguraturiko, benetako orkatz ederrak aizea baizen arin igesari eman zion. Betiko eginkizuna zan: neke ta izuak

unatutako arrapagaia, jazartzailleek inguratuta, illik amilduko zan.

Orkatzagandik urbil samar zirala, ara non oneri amildegi batek igesa eragotzi zion. Aberea atsanka ertzean gelditu zan, eta otsoek arrapatzeko zorian zala, sakontasunean murgildu zan, eta orduan gauza arrigarria gertatu zan... Amildegiko arkaitzezéarkaitz jauzika, zirritu ta irtegunen ñimiñoenak ustiatu rik, maillezémail beeko latse-raiño jetxi, eta illunpetan galdu zan. Ago bete agiriakaz utzitako taldeak, gau artan barau egin bear izan zuan.

Berriz ere egunak luzatzen ari ziran, eta negua amaitu baiño leen, taldeko nagusia zan ezkerro, Uri'k taldeko otseme bakar ederra zan Miñe, berarentzat aukeratu zuan, eta Otsailla'ren bukaeran uztartu ziran. Berarentzat emea nai izaten zuan Luni'k, Uri'ren aukerapenari aurka egin zion, alabaiñan berriro menperatua izan zan.

Epailla'ren asieran bultz ezkutuari men egiñaz, Uri'k eta Miñe'k Tina Mendietako norabidea artu zuten. Atzetik taldeak zerraikiela, Uri'ren biozkada zan, bera jaio izan zan barrutian, bere ondorengoak ere mundura zitezzen. Taldeko azken bidaldia zan, zenbait egunen buruan otsoak sakabanatuko bait'zirakean, eta bakoitzak naiago zuan bizilekura abiatuko, oiko bizitzari urrengo udazke nerarte emateko.

Epailla'asierako egun eder artan, bere barrutiko bazter maiteak ezagutzean, Uri'ri biotz-taupadak ariñagotu zitzaizkion. Azkeneraiño maite izango zitukean, zerurantz jeikitzen ziran arkaitz zorrotzak, lats gardenez laz-tanduriko zelai ezoak, mendate malkartsuak, eta aize garaiaren ukitze osasungarria. Gau artan bertan, Miñe'k la-gunduta, taldea utzi ta an goiko amildegi aietako pago urtetsu biur baten ondoan zetzan ezkutunean, ondorengoentzat kabi txukuna antolatuko zukean. Aurrenik baiñan, taldearekin janariaren billa azkenengo ekitaldia betetzeko zan.

Ortziaren gardentasuna ezarian-ezarian illuntzen ari ziran. Arkaitzen tontorrek laino lodiz estaltzen ziran, baiñan beeko ibarren giroak ez zuan itxura txarrik erakusten. Alako batean, Uri'k beortalde baten usaiña artu zuan, eta oi bezala, arrapagaia ustegabetzeko asmoz, otsoak sakabanatu ziran. Alabaiñan orduantxe bertan, goietan alatzen ari ziran zenbait orkatzek, otsoak usnatu zituzten, eta izuaren izuz zalaparta bizian arkaitz-gora abiatu ziran, oiñazkal ariñakaz arri batzuk amillerazten zituztela. Arri-iraulketa entzun zutenean, pottokoek lagunduriko bost beorrek zerbait makur somaturik, adi-adi jarri ziran, eta auetariko batek otsotaldea ikusita, oar-irrintzia bota zuan. Iru aldeetatik inguraturiko beortaldearen igesbide bakarra, arkaitzégora joatea zan, alabaiñan au irtenbide gaitza zan baiki, eta orduan otsoen ekintzari erantzutea erabaki zuten.

Beorrek pottokoak bildu, eta auen inguruan jarri ziran otsotaldeari atzekoa ematen ziotela. Otsoren bat urreratzen zitzaizenean, sekulako ostikada botatzen zioten, eta onela esi zearkaitza eratuta, otsoen erasoak uxatu zituzten. Noizbait, gogait eragindako otsoek uko egin zuten, eta iñoizkorik gosetuen beste zerbaiten billa urrunduz ziran.

Andik laister, goiko lainoa tontorretatik jetxi, eta errezel zxearkaitzaz dana ezkutatu zuan, elur-jasa lodia asten zala. Arratsaldean, aldi-aurretiko illuntasuna danaz jabetu zan. Ustekabez, taldeko aurrelaria zan Uri, iltzatu bezala gelditu zan. Aurreko zuritasunean, oinkada batzuen aztarnak marrazten ziran, eta ain zuzen ere gizaseme batenak. Urbilduta, Uri'k usnatu zituan... Une artantxe berean, aizeak laguntza-eskeko oivak ekarri zizkion... Ai ene, oiñatzeri zerien usaiña ta aizeak zekarzkion oivak...!

Egun artan bazkaldu ta bereala, beorrei ikustaldia egítearren, Kotu etxetik irten, eta goiko arkaitzetarantz bideratu zan. Basoan gaindi zioala, burura etorri zitzaion leku artatik zenbait urte leenago, Uri'rekin beorrak ikus-tearren egin oi zituan bidaiak.

Gudaritzatik etxera etorri zanean, eta izeba Donga'ri Uri'k egindako igesaren gora-beerak entzun zizkionean, bere bizitzako naigaberik aundiena artu zuan. Bai sarritan etxetik urrun, bere Uri maiteatzaz amets egin izan zuala...! Bere itxaropenak ustel irten izan zitzaizkion, eta arekiko maitasunaren-maitasunez, ez zuan arrezkero etxean zakurrik ikusi nai izan, bere otsokoaren oroitzari zintzo eusten ziola... Gaiñera, bai azkarra zala Uri...! Bere otsokoak laguntzen ziola, zuzen-zuzen beorrak bazkatzan ari ziran zelaietara zuzendu, eta gero berak agindutako lekuetra artez-arte eraman oi zituan.

Kotu'ri oroitz-miñezko asperen bat irten zitzaion, eta gero basotik irtenda, goiko malkarretatik bideratu zan. Andik ordu bietara aurkitzen zan mendatetik, ikusgai zabalala nonnai edatzen zan, eta emendik beortaldea ikusteko aukera ona izango zukean. Eguraldia *ez* zan txarra, negua bukatzeko zorian bazan ere. Goiza eguzkitsua izan zan, baiñan orain elurrez beteriko tontorrek laiñoz estaliak agertzen ziran. Ala ta guztiz ere, eguraldiak ez zuan itxura txarrik erakusten.

Mendatera eldu, eta orduan beortaldea urrun samar goiko zelai batean ikusi zuan. Gelditzeke, ibillera menditarrak aien billa abiatu zan.

Alako batean, beerantz amiltzen dan egazti erraldoiaren antzera, goiko laiñoak iñolako arintasunaz jetxi, eta inguratu zuan. Iñularra bezalakoa zan argi aul artan, elur maluta usuak erortzen asi ziran. Unerik galtzeke, Kotu'k etxera biurtzea erabaki zuan, ongi ezagutzen bait-zuan sasoi artako giro aldakorra, eta itzultzeari ekin

zion. Ibilli-ala baiñan, gero ta gogorrago ozkatzen zuan beldur bakanak menperatu zuan... Berrikitan zearkatutako mendatea ez zan iñondik ere agertzen, eta barneko beldur-zirrara batek atzitu zuan galdurik zebillela oartu zanean... Errezena mendian beera joatea izango litzake, baiñan alde artatik amildegi izugarria zala bazekian ezke-ro, zearkako bidea artu zuan.

Arkaitzezko naasémaas batetik ordu bete bat-edo zirauala, iñoiz ez ibillitako bideko gogortasunak eta elurgaiñetik ibilli bearrak, indarren mugaraiño auldu zuten, eta aurrera joan eziñik, illunabarreko argi motelaren pean gelditu zan. Otz izugarriak elbarriturik, ezin ziteken baserrira itzuli, eta iñoiz ez nonbait... Orduan etsia, deardarka asi zan.

Oiuka jardun ondoren eta itxaropena galduta, indarrak irabaztearren arnas-estuka geldi-geldi zirauala, uste-kabez, aizearen magalean ulu bat aditu zan, eta jarraian beste ta beste batzuk. Orduan Kotu'k eriotzaren egaketa bezalakoa zan zerbait oartu zuan, eta beldurrak eraginda gorostizko makillari eutsita, eten egindako bidaiari jarraitu zion. Ba-zekian mutillak, otsotalde bat atzetik zetorkiola, uluak gero ta ozenago aditzen ziran-eta..r

Kotu gelditu zan, eta makillari oratzen ziola, jazar-tzailleeri aurre egitea erabaki zuan. Aiuriak urbil aditzen ziran jadanik... Ustekabez, illunabarreko argi urripean, azkona bai'litzan otso aunditzar bat oldartu zitzaion. Kotu'k makillazjarki nai izan zuan, baiñan neke erbalgarri artan ezin... Otso aunditzarra jauzi egifiñik zutundu zan, aurreko zangoak bular-gaiñean ezartzen zizkiola, eta muruskada maitekorrak jaulkitzen zituala, aurpegia miazkatzen asi zitzaion.

Asieran, Kotu'k ez zuan ulertu, eta eskuakaz otso erraldoia atzerantz bultzatu nai izan zuan. Une artan be-rean, mutillaren eskuek metalezko apaingarriz babestuta-

ko lepoko bat unkitu zuten. Aspaldiko laiñotik argi bizia antzo, oroitz naasien artean, ustekabez egia aurkeztu ziztaion.

- Uri, Uri, neure maitea...! --Kotu'k oiur egin zuan--. Danek esan zidatean, gaizki eritua mendira iges egin uae la, ta iltzat aute... Baiñan bizirik aurkitu aut... Au nere poza...!

Uri'k baiñan, ez zizkion azkenengo itzok entzun. Txie mista baizen azkar, urrats batzuk atzera egiñik, kurrinka aginkorrez, Luni'k aintzindatutako taldeari gelditzeko agindu zionr Nork baiñan, goseak eragindako Luni indartsu sumiña geldi-erazi? Gaiñera, Somiedo mendietako otsoak, ezkutuan beti Uri'ren nagusitasunarekiko gorroto itzali-eziña gorde izan zuan... Eta au gutxi ba'litz, zenbait egun leenago Miñe ederraren maitasuna kendu izan zion. Oldozkun auk, eta aurrean zekusan arrapagaiak itsutu zuten, eta Uri'ren agintza aintzakotzat artzeke, Kotu'ren aurka oldartu zan.

Alabaiñan. Uri'k Luni'ren erasoia aidean eten zuan. Sumin neurrigabearen menpe, Kotu ta Luni'ren artean jarri zan, eta orduantxe otso eder bi aien arteko burruka basatiak leer egin zuan. Kotu'k eta otsotaldeko enparauek, iltzatuak bezala burrukalari yaioak begizatzen ziztuzten. Burruka, laburra baiña itzela billakatu zan. Luni ta Uri deabruak artuta bai'liran, amorru itzelaz elkar ozkatzen zuten. Baiñan Urik, bene-benetan maite zuan mutillaren alde burrukatzen zuanez, sumin zoro batek eraginda, Luni'ri sekulako sarraskia egiten zion, odola parrastaka zeriola. Alako batean, krask...! aditu zan, eta lepo-ezurra ausita, Luni illik lurreratu zan.

Au gertatu baiño ez, otsotaldeak Luni'ren gorputz-iresteari eman zion. Uri baiñan, ez zan tarteko; Kotu'gana biurtu zan, eta zorion bakanaz jabetuta, bere biotzeko nagusiari aurpegia ta eskuak miazkatzen zizkion.

- Uri, Uri, --Bein eta berriz mutillak esaten zion--, noizbait idoro aut...

Eta gero,

- Galduta nebillek Uri. Eraman nazak etxera...

Eta otsotaldeak ildako otsoa zalaparta bizian iresten zuala, Kotu'k zerraikiola Uri mendian beera abiatu zan, eta illun bazan ere, ibillera astikorraz uts egin gabe, ain ongi ezagutzen zituan bazter aietatik, baserrira eramán zuan.

Noizbait, pagadia zearkatu zuten, eta orduan aurre-rago ausartzeke, Uri ertzean gelditu zan. Ibarretik urbil samar, baserriko argi motelak pakez beteriko agurra bialtzen zieten.

- Entzun ezakidak Uri, an beean nere etxea ta izeba Donga ire begira zegozek. Ez al aiz oroitzen izeba Donga onatzaz? Gogoan au beti Uri. Ator gurera betiko... beti-ko...

Alabaiñan so jorantsuz baserria ikustatzen ba'zuan ere, Uri ez zan igitzen. Bere endako biziera basatia baré ne-barneraiño sartu ízan zitzaion, eta orain ez zezaken abere etxetiar baten izaera paketsua jasan. Goiko bakartasunak indar uxagaitzaz erakartzen zuan, eta aizean zear, Miñe'ren dei urrundaria zetorkion...

Etsi-etsian Kotu'k otsoa berarekin behi eta berriz eramán nai izan zuan, baiñan alperrik. Orduan mutillak nai zuana eziñezkoa zala ulerturik, otsoa azkenengoz besarkatu zuan.

- Agur, Uri. Itzul adi ire bakartasunetara. Neuk baiñan gogoan betiko izango aut, nere kutun ori... Agur Uri... agur...

Eta otsoaren azken maitasun-miazketa arturik, mal-koak begietan, bidean beera baserrira abiatu zan.

Urik zotin sakona bezelakoa zan murruskada luzea jaulki zuan, eta gero arin eta ixillik, basoan zear mendigora bideratu zan. Goiko arkaitzen arteko zelaietara iritxi zaneko, aizeño mee batek goiko laiñoa barreaitu izan zuan, eta izar zenbakaitzen artetik, illargi beteak guztiari itxura sorgingarria zemaion. Gau artan, Miñe'k lagundurik, taldea utziko zukean, eta kumeak jaiorik, gau ta egun babestuko zituzketan. Egunez toki garai batetik zelatan, eta gauaz, bere lagunak kumeak azteko bear izango zukean janariaren eizatzeari emango ziokean, eta udazkenean, Miñe'k eta otsokoek lagunduta, urrutiko zelai artara bideratuko zirakean, eta oiko taldearekin bilduta, betiko negu-biziera garratzari ekingo zioten. Negutean zear otso asko suntsituko ziran, baiñan udan kimu berriak jaioko zirakean...

Gaua, izarrak, illargia, arru sakonak, bidetxigor ibilkaitzak, gose gorria... bakartasuna... eriotza... betiereko lagun urrikalgaitzak izango litzaizkieke...

Urrundik, Miñe'ren aiuri jorantsua etorri zitzaion, eta zorionezko beste aiuri batez erantzun zion...

AMAIA

LUGO'KO
IPUIN ERRIKOIAK

Euskeratzaillea:
Augustin Zubikarai

1986

Liburu onen jatorria:

Centro de Estudos Fingoy

CONTOS POPULARES DA PROVINCIA DE LUGO

Editorial GALAXIA é Vigo

LUGO'KO IPUIN ERRIKOIAK

Euskeratzailea: AUGUSTIÑ ZUBIKARAI

Legerako Gordetza Blé 1.337 -86

I.S.B.Ñ. 84-398-7735 -8

Argitaldaria: GAUBEKA Irarkola - Gernika

Azala eta marrazkiak: JESUS M. ZUBIKARAI

Agerpena

Liburu au **CONTOS POPULARES DA PROVINCIA DE LUGO** *izenagaz* agertu zan 1963 urtean. Eta galiziarren artean arrera andia euki ebalako, bigarren ataraldia egin zan 1972 urtean.

Liburu au **Centro de Estudos Fingoy'ren** zuzendaritza-pean argitaratu zan, eta **Galaxia** argitaldariak konponduta kaleratu.

Bere sarrerakoan esaten zan, eskoletako irakasleak arduratu zira-la ipuin oneik et.v-e eta errietan batzen euren ikasleen bitartez.

Lelengotan 300 Ipuin agertu ziran, baiña egia esateko, ipuin batzuk bitan edo geiagotan agertzen ziran, aldakuntza txildekaz.

Bigarren argitapenerako, ipuin batzuk bateratu egin ziran, eukez-zan aldakuntza txikiak orraztu edo ta erabiliena ikusten zan era bakarrik aukeratuta Ala ta guzti 228 ipuin geratu ziran.


Eloso/i eta esan andiko ipuiñak dira asko. Biziari adi-adi begira ibili eta ortik oartu eta ikasitako erriarenak. Akulari eta zirikalariak be badira batzuk. Bai eta gordin samarrak be.

Edozetara he gu k acertu ala euskeratu doguz, eta orrelako libu-
Men preniila dagoela ikusita. argitaratzen ausartu gara, erriak eure ale-
giila eskartzeu jakingo daben itv-aropenez.

Beste aldetik gure erría orrelako ipuiñen ezaupidez aberastuagaz
'atera, euren erriaren ezaupide eta goratasun billa diarduen galiziar
idazle eta erriarl, curen ekiñean jarraitzeko pozgarri bat euren nai izan
dautsegu, zapalduak izan diran izkuntzak hear daben lotsa zaindua-
gaz, aize harrien arnasaldi bat geiago eskeiriagaz.

Orrez gairiera Galaxia igita-1.:t.veari eta bertako zuzendari dan
Carlos Casares .Alourine /aunari eskerrak emon bearrean nago, ipuin
orrein euskeratzearen hairnen eta eskubideak nire eskuetan itXi dauzaé
lako.

1.- AOKUDUN IPUÑAK



IRU AOLKU

Bein, baserri baten, ume txikia euken senar-emazteak bizi ziran. Beartsu ziralako, erabagi eben senarra mundu zear joan egia-la bizia irabaztera.

Gure gizona joan zan, eta ibili ta ibili, etxe on batera eldu zan. Lenengo oi diran itaunen ondoren, etxerako artu eben, eta bertan ogei urte jarraiko egin zitun. Denporaldi ori igaro ondoren, kontua eskatu eban, bere familia ikusteko gogua sartu jakolako.

Etxeko jaunak itaundu eutsan zer naiago eban: bere alogera ordaintzea edo ta iru aolku emotea.

Esan egidazuz, ba, aolkuak, eskatu eutsan morroiak.

Ez egizu gauza bat egin iru bidar pentsatu barik; ez egizu os-terarik itxi bide-laburrago bategaitik, eta ez egizu sekula itaundu ardurarik ez jatsunik.

Gaiñera jataldi bat emon eutsan, eta ogi biribil bat, etxera el-dutean zure familikoekaz batera jan dagizun.

Agurtu ziran, eta gure gizona bere etxerako bidean asi zan. Eta bidean mandazain bat billatu eban. Mandazaiñak labur-bidea artuaz, gure gizonari be beragaz joateko eskatu eutsan, bide asko laburtzen zalako. Baiña bera, ugazabaren aolkua (kontsejua) gogorátuaz, bere bidetik joan zan, mandazaiñaren esanei jaramon egin barik. Andik laster, deadar andiak entzun zitun, eta batera, otsoen uluak. Oneik mandoak izutu eutsezan mandazaiñari, eta mandoen perrak bakarrik itxi. Gure gizontxoak bere barrurako pentsatu eban, ondo egin ebala ugazabaren aolkuak jarraituaz.

Gero etxe batera eldu eta ostatua eskatu eban. Apaldu ondoren, itaun batzuk egiten asi jakoezan, ikusteko ia berak be itaun ez-egokiak egiten zitun. Arasa bat zabaldu eben eta bertatik ule anidun abere bakan batek urten eban, eta maiko platerak miñazkatu zitun. Gero koba illun bat erakutsi eutsen, eta an gizon eta andrazkoen buru asko egozan. Baiña gizontxoak itzik ez. Ittotako bat lez mutu. Jaramonik egiten ez ebala konturatuta, bakean itxi eutsen eta oera joan ziran.

Urrengo goizean jaiki eta kontua eskatu ebanean, erantzun

eutsen ez eutsela ezer kobratu nai eta gaiñera baketan joaten lagaten eutsela, ikusi zitun beste buru guzti areik itaunka jarduten ekienen buruak ziralako. Eta gure gizona, etxerako bidean asi zan. Pasku berberak baiño alaiago.

Bere baserrira gaua eginda gero eldu zan, eta bere etxeko ate-zulotik begira asi zan. An bere emaztea ikusi eban eta abade bat, biak su ondoan jezarrita. Bat batean sartu ta eurak ilteko zirikaldia igarri eban, baiña ugazabak emondako aolkuagaz gogoratu zan, au da, ezer ez egiteko iru bidar pentsatu barik. Buruari ats egin eta pentsatu ta pentsatu jardun ondoren, auzoko beste etxe baten ostatua eskatzea erabagi eban.

Ezagutzen ez eben lez, gauza asko itandu egin al izan zitun bere familiari buruz, eta esan eutsen urte asko zirala senarra mundu zear joan bearrean aurkitu zala, emazteak bere semetxoa ondo be ondo asi ebala, eta abade ikasten ebillala, eta etxean egunak igaroterata etorrita egoala.

Gizonak ez eban geiagorik jakin nai izan. Biaramona erdi eskutatuta igaro eban inguru aretan, eta illuntzean bere etxera joan zan eta ostatua eskatu. Etxeko andrea ez zan emotearen aldeko agertu, baiña semeak ortara limurtu eban, esanez, Jainkoak ekiala bere aitari be mundutik zear zeñek emongo eutson. Afaltzeko ordua eldu zanean, andreak plater bat geiago ipini eban maian, eta berak itandu zeñentzako ete zan a. Eta emazteak onela erantzun:

Jauna, plater ori nire senarrarentzat da, urte asko diralako mundutik zear dabillala.

-Orretara plater ori niretzako da, ni naizelako zure senarra.

Ezagutzera emon ziran eta apari on bat egin eben gertaera ori ospatuz. Azkenetan ugazabak emon eutsan opilla atara ta zatitu eban, eta barrua urrez beteta egoala ikusi.

Bananduta egon ziran denporako estutasunak agertu zituen euren artean, eta andik aurrera pozik bizi izan ziran eperrak jaten, baiña niri ez eusteazan eskiñi, ez ebelako nai izan.

2

ALAITASUNA, GARBITASUNA, LOTSA

Aberats andi zan gizon bat bizi zan bein, eta beartsue ostatu emoten ekiana. Bein orretariko bat joan zan ostatua eskatzera. Orduan gizonak berari:

-Ostatua emoten dautsut, ezagun zarealako, bestela ez neuke emóngo.

Beartsua, goizean jaiki zanean, esan eutsan jaunari:

-Zure etxean iru gauza falta dira.

Orduan etxeko jauna naigabetuta geratu zan, eta itandu eutsan zertzuk ziran oartutako iru utsak, eta beartsuak erantzuna:

-Alaitasuna, garbitasuna eta lotsa.

Etxeko jauna oldozkor eta buru-makur geratu zan, eta itandu eutsan zeren ordezko ziran iru orreik, eta beartsuak erantzun: etxeko alaitasuna dan oillarra, garbitasuna dan katua edo lotsa-sartzaille dan txakurra.

3

BURDIA ETA ZALDIAK

Errege bat bizi zan bein eta jende askori deitu eutsen jatera: markes, konde eta aberatsei.

Bazkaria amaitu zanean, erregeak burdi bat erakutsi eutsen, zaldi bigaz. Zaldiak urrezkoak ziran, eta bere maikideei itandu eutsen zenbat balioko eben.

-Jainkoak jakin zenbat, iñoen batzuk.

-Zenbat balio leiken, auskalo, besteak.

Erregea ez zan pozik geratu erantzunagaz, eta lurgin (baserri-tar) batzuei deitu eutsen bazkaltzera, eta gero, burdi eta zaldiak erakutsiz, itaun bardiña egin: Zenbat balioko ete?

Eta baserri-tar batek erantzun:

Urtarril asarreak,

Otsail maite-minduak,

Martxo aizetsua eta zerbait euritsuak,

Apiril urtsuak,

Maiatz odeitsuak,

San Juan eta Santiago argiak,

burdi eta zaldiak baiño geiago balio dabe.

4

ERIOTZAREN OARPENAK, MEZUAK

Gazte bat eriotzeagaz billatu zan bein, eta adiskide egin ziran. Orduan gazteak eriotzeari jakin eragin eutsan, adiskide ziranez, mesede bat eskatuko eutsala: bere billa joan aurretik, jakin eragiteko, orrela obeto jolastuteko aukera eukiko ebalako.

Eriotzeak baietz agindu eutsan.

Alkar agurtu eta urte asko igaro ziran gazteak ezelako mezurik artu barik. Baiña bein, eriotza gaztearen aurrera agertu zan. Au zartzen asia zan, eta jakin eragin eutsan bere billa etorralla.

Gizona ikaratu zan, esanez, ez zala ori egin eben tratua, astiz jakin eragitekotan geratu zirala, eta oraingoak ez zirala berbak. Eriotzak erantzun:

Ulea zuritu jatsu?

Zuritua da, erantzun gizonak.

Ortzak (agiñak) jausi.

éJausi ziran.

Belaunak nekatu.

-Ñekatu ziran.

Indarrak makaldu...

Galdu be bai.

Orretara zelako beste oar edo mezuak nai zenduzan?

5

AITA BESUTAKOA

Seme txiki baten aita zan gizon bat kaleratu zen bein, umea bataiatzeko aita besoetako billa. Bidean zear ebillala, gizon bategaz topo egin eta itandu eutsan nora ete eioan. Berak erantzun, semearentzako aita besutako baten billa ebillala.

Eta nor zara?

-Ñi deabrua naz, erantzun eutsan bideko gizonak.

-Zu ez zara ortarako gai, mundua naastuten baiño ez dakizulako. Eta aurrera joan zan.

Bideari jarraituz, eta aurreratxuago, beste gizon bat aurkitu eban: Era berean alkar agurtu eta arek erantzun bera Jainkoa zala.

Zu be ez zara niretzat egokia, batzuei dana eta besteei ezer

emoten ez dautsezuelako. Eta aurrera barriro be.

Geroago beste gizon bat aurkitu eta lengo antzera agurtu ziran. Eta onek esan, bera Eriotze zala.

Zu zara niretzat egoki zarean bakarra, zuk iñor ez dozulako bereiztuten.

6

BURUBAKOAK

Bein, iru neska dotriñara joiazala, batek esan eban:

-Zer itanduko ete dausku gaur gure abade motelak?

Abadea orma baten atzean egoan, eta entzun egin eban besteek esana, eta beregan eldu ziranean, esan eutsen:

1a. Mundutik tonto lapikorik andienak nortzuk diran esaten dauana aztertutzat geldituko da eta joan leiteke.

Danak igarri eben zerbait, baiña bidean besteei esan eutsenak itandu eutsan:

Ikusi ondo, abade jauna.

Ikusia dago. Edo ta zelan begiratu bear dira gauzak?

Ba, ara. Burubakoak auntzak dira, oe ederra eukiarren, arkaitz bat billatu eta bertan geratzen diralako. Egia da edo ez, abade jauna?

Jarrai, andre.

Ondo da. Burubakoak dira, baita, ardaua lepoan eroaten dabiltzan astoak eta gero eurak ura edan. Ez al da ala, abade jauna?


Ondo da. Baiña oraindik bat falta da, barriro abadeak.

Ba... burubakoak dira baita abadeak, besteei aolkuak (kontsejuak) emon eta eurak beteten ez dituelako.

Ondo da, andrea, ondo. Ain zuzen ere zu izan bear! Joan ziñei etxera, aztertuta geratu zarealako.



2.- ABEREEN IPUIÑAK



7

MILLA MAIÑADUN AZERIA

Bein, toki jakin baten, Katu bat eta Azeri bat batu ziren. Euren gauzak aztertu ondoren Katuak Azeriari:

Zenbat maiña dakizuz?

Azeriak erantzun:

-Milla eta saku bat betea.

Eta Katuak:

Ñik bat bakarra.

Une orretan txakur bat agertu zan eta euren atzean geratu. Katua aritz batera igo eta txakurra azeriaren atzetik asi zan. Katuak, bere zurikeriekin, Azeriari esaten eutsan:

-Ia, txo! Zabaldu sakuak, millak joanak diralako.

Baiña txakurrak ez eutsan baketan itxi Azeriari, il arte. Eta Katuak esan eutsan:

Ai milla maiñadun! Barre egingo dozu edo ta asarre zagoz orain?

Jakin bearreko da azeria ortzak erakusten geratu zala.

8

AZERIA ETA OILLARRA

Azeri bat bizi zan bein. Gosez, erri baten inguruan ebillan, urdaillerako zerbait batu ezinda. Goiz baten, oillarak kanpora urten ordurako, agiña sartu eutsan bereala gure azeriak. Noiz ilgo ebilla, oillarrak esaten eutsan:

-Begiratu, azeri jauna, argal nago eta ez dau merezi orain jaterik. Etorri geroago, gari jote denporetan, eta orduan, ale asko egoten dalako, loditzeko aukera eukiko dot. Eta bardin ba da, itxaron egizu, lodiago aurkituko nazulako.

Azeriak ikusi eban oillarak esaten eutsana egia zala, eta lagaeran, aurrez, itaun au egin eutsan:

Ia. Ze izen daukazu? Esan, barriro etorrL nadinean gogoratu daidan, zugaitik itandu al izateko.

Ba... «Kontuz» deitzen naz.

Ondo dago. Gari jote egunetan emen egongo naz.

Eta nun jan billa beste toki batera joan zan, eta oillarra pozarren kantari geratu zan, azeriaren ortzetatik aske geratu zalako.

Denpora igaro, eta erabagi eben epea amaitu zanean, Azeria oillarraren billa biurtu zan. Onek, ba-ezpadan, gaztain-ondo baten gaiñean itxaro eutsan.

«Kontuz»! «Kontuz»! deika asi zan azeria, nun batu geratuta-ko tokira eldutean.

Kontuz nabil, erantzun eutsan goitik oillarrak.

Etorri bera, orain alkar ez izorratzeko lege bat oraintsu egiña dalako, esan eutsan azeriak azpikeriz, konturatu zanean oillarra nekez arrapatzeko tokian egoala.

-Ba nator, baiña itxaron apurtxo bat, or datorrelako erbi-txakur bizkor bat, eta bera ezer egin barik igaroten ba da, neu be jatxiko naz.

Eta nun dator? Urrun?

Ñoiz elduko dago.

Orretara ba noa, «erregeen legeak arin etorri baiña ariñ joan be» egiten diralako.

Orretan, erbi txakurrak, azeria ikusi orduko, bere atzetik ekin eutsan. Su txinpartak ataraten zitun azeriak bere erpakin beia jo-tean. Oillarrak, bere lekutik, deadar egiten eutsan:

-Erakutsi egiozu zuzen ibiltan.

Ezin nei denporarik galdu, -bere aldetik arnas estuka, azeriak, -bide luzea zapaldu bearra daukat-eta.

9

EGUNA NOIZ EGINGO?

Neguko gau luzetako baten, oillarra kantari egoan bere kaio-lan:

Ñoiz egingo ete eguna? Noiz zabalduko ete?

Lukainka batzuk ostuten ebillan katua ganbaran, eta onek erantzun eutsan:

-Datorrela nai dabenean, datorrela gura dauanean.

Baiña Santiago'ren illa eldu zanean, Katua etxeko atadian egoan, gosez beteta, eta esaten:

Noiz etorriko ete da etxeko jauna? Noiz etorriko ete bera?

Eta oillarrak erantzun:

Gari ebaten etorriko da, gari ebatean etorriko da.

10

ZAPOA ETA AZERIA

Abere gitxi bizi ziran denporetan, ba etorran bein, baimenduta, zapu bat. Bere jaioterrira eldu baiño len, azeri lagun zar bat bilatu eban. Onek lana eskiñi eutsan. Zapoari bardin eutson batean edo bestean lan egin, eta bidean denpora asko galtzen ebalako, bere lagunagaz geratu zan. Au mendi-zati baten jaube zan, eta biak asi eben euren lana mendi ori erretura eta garia ereiten.

Lan andi eta neketsua izan zan, baiña lortu eben, eta san Juan illa eldu zanean, bateko eun lortu eben, urtea ere onenetarikoena gertatu zalako.

Gabikotu eben eta emaitza banatzeko, lastoa toki baten ipini eben eta atea beste baten.

Banaketa egin ondoren, azeriak esan eutsan zapoari: Alonso (alaxe zan zapoaren deitura) emen daukagu urte guztiko lana. Eta bion artean banatu bear dogu. Bardin jat zuk lastoa eroatea edo nik atea, edo ta nik atea eta zuk lastoa.

Zapoak jokotxarra ikusi eban, eta asarre geratu zan. Orduan, banatasuna ikustean, beste eskintza bat egin eban. Eta esan:

Ñire lenengo eskintzagaz ados ez zagozala ikusita, zuretzat egokiago izan leiken beste bat egingo dautsut. Ikusten an urruanean dagon mendi bizkarra?

Ikusten dot, erantzun eban zapoak.

Ba eskatzen dot, bizkar ganera lenen elduten dana, a izan daitela atea eroango dauana.

Ondo da, erantzun eban Alonso'k.

Ba bardiñean jarri, iru esan orduko, eta bakoitza asi daitela al daben eran ariñeketan, esan eban azeriak.

Oso ondo.

Alkarren ondoan jarri eta azeria asi zan zenbatuten:

Bat...bi...Eta «iru» esan baiño len, zapoak salto egin eta arte-tsu azeriaren buztanean ertsi zan.

Oraindik iru esan baiño len azeria abiada bizian asi zan, bere saltoak egitean, ainka puntak be arrastaka mintzen. Zapoa pozik. eioan buztanean.

Esandako lekura eldu ziranean, azeriak atzera begiratu eban, zaporik ikusten ete eban. Une onetan, zapoak beste salto bizi bat egin, eta an egoan aitz txiki baten gaiñean gelditzea lortu eban.

Azeria, iñor ikusten ez ebalako, zarataka asi zan, deika:

-Alonso! Alonso!

Ainbat aldiz orrela deitu ondoren, zapoa atzeko aitz puntatik erantzutera ausartu zan:

Ez daukazu zetan ainbeste deadar egiten ibili, ni ondo urrean nago-ta. Denpora da zure zai nagola. Orrela ba, nire maiteño, nik, tratua tratu egiñaz, atea aukeratzen dot.

Eta Azeria, zapoaren erantzunaz lotsatuta geratu eta autor-tzen asi zan:

Ondo atzipetu nazu. Aringaingalari izango zara, baiña itxura-rik ez dautsut emongo.

11

OTSOA ETA AZERIA

Otso bat bizi zan bein, eta baita azeria be. Otsoa Jon deitzen zan eta azeria Kepa. Gazte biok batu ziran eta neskatara joan zi-ran. Eta bide batez ezti ontzi bat erosi eben.

Biaramonean amu-arraiñetara joateko. asmotan ebiltzan, ez-tiagaz jateko, eta errekan sartzea pentsatu eben. Kepa, zurragoa zan, eta Jon'eri agindu utsan uretan sartzeko, eta Urtarril erdi in-gurua zan lez, esan eban ez egoala ain bero. Eta Kepa'k erantzun:

Kendu egizuz galtzak, lepoa beroagaz izerdituta ez loitzeko.

Orduan Jon'ek Kepa'ren agindua egin eban, eta an geratu zan bestiak artzen zitun amu-arraiñak gordeteko. Ezti ontziaren ega-lean alkartu zitun, eta arrain bat eroaten eban bakoitzean, ezti zu-rrutada bat egiten eban. Errekatik Jon urten zanean, otzak ilten, esan eban lasterketa bat egin bearko ebala berotan sartzeko. Gero maia gertu eban, jaia asteko, eta eztia falta zan. Kepa'k Jon-eri emon utsan errua. Jon'ek bera ez zala izan.

Eguzkitan etzan gaitezen, eta sabela izerditan asten jakona, a izango da jan dauana.

Lotako asmotan etzan, eta Jon lo geratu zan eta Kepa'k, ziri-kalari zan lez, pitxar bete ur jaurti utsan sabelera, eta didarka asi:

Jon, zu izan zara eztia artu dozuna, sabela izerditan asi jatzué lako!.

12

KATUA ETA AZERIA

Bein katu bat eta azeri bat alkarregaz ebiltzan. Bazkari bat egin nai eben, baiña ez euken sartaiñik gertuteko. Eta azeriak esan eban:

Ba daukat nik bat.

Katuak urdai apur bat eta lukainka txorta bat ostu zitun. Azeriak oillo bi.

Dana batuta, sartainkia su ondoan ipini eben. Azeriari, andik laster, txisagurea eldu jakon. Eta katuari esan eutsan:

Ni etorri bitartean, zaindu egizu ondo egiten ete dauan.

Katuak bere musturra sartainkian sartu eban, eta bero egoalako «fu-fu» egin.

Azeria eldu zanean, katuak areri:

Begiratu zeuk, nik onelakorik ez dakidalako.

Azeriak be bere musturra sartu eban, eta irakiten egoalako, zarataka ots egin eban: «Fuistå-fuistå».

13

BELEA ETA AZERIA

Bein, adiskide ziran Bele eta Azeria alkarregaz batu ziran. Azeriak belea gonbidatu eban askari baten oillanda bat jatera, baiña gogorra egoalako, ten eta ten ibiliarren, ezin eban ezer jan. Azeriak, ostera, bere erpa eta ortzekaz, ollandea zatitu eban eta bereala iruntsi. Ori orrela, len baiño gose geiagoz aldendu bear izan zan.

Andik laster, belea joan zan azeriarengana, eta lapiko baten sartuta eukazan esteak jatera deitu eutsan.

Azeriak ezin al izan eban ezer jan, lapikoan bururik sartu ezin ebalako, eta orde z beleak burua sartu eta bere pikoa este artean zartadaka erabili eta «glo-glo-glo»ka jardun zan, dana amaitu arte. Orduan azeriak esan:

Ai lagun, onelako askari asko ez dozu izango!

14

MIKA ETA AZERIA

Bein mika bat bizi zan, intxus arbola baten, umez beteta. Zazpi aiña eukazan. Azeria andik igaro zan eta bat eskatu. Ez eutsan

emon nai izan eta orduan azeriak:

Bat emoten ez ba daustazu, nire bustan biribillagaz zuaitz eta guzti jaurti eragingo zaitut.

Orduan mikak emon eutsan bere semetxutako bat. Gero beste bat eskatu, eta berak ezin eikiola emon, baiña azeriak barriro zemaitu bere buztan lodiagaz beratuko eutsala, eta bestea be emon eutsan, eta orrelaxe, jarraian, bata bestearen ondoren, danak jan eutsazan. Andik laster beste mika bat igaro zan bertatik, eta jakin eragin eutsan oneri len gertatua. orduan onek esan eutsan:

Ai, astotxoa! Zegaitik emon, zuaitzik ezin jaurti al izango eban-eta?

15

ARRANOA ETA AZERIA

Zegaitik ipinten ete da lastotza askoren gaiñetan, aga puntaetan, agaren goi-ertzean, lapiko bat? Ba, orrela egiten dala esan bear, bein arrano batek azeri bateri esan eutsolako:

Zeruraiño egaz egin nai dozu?

Ñai ezi? Baiña ez daukat egorik egazka ibilteko.

Ñai ba dozu, nik eroango zaitut nire buztanari lotuta.

Orrela lotu zan azeria arranoaren buztanean, eta goi-goietan eioazala, buztaneko lumak urten eta azeria, noiz jausiko ebillala ikusita, esaten asi zan:

Zuzendu buztana, gidaria,

lastotza baten goi-aldera.

Eta ain ondo eroan ebalako

lastotzako aga puntan josita geratu zan.

Orduan azeriak esan.

Emendik urten eta ilten ez ba naz, ez dot nai gelago zerurantz egaz egin.

Arrezkero baserritarrak lapiko bat ipinten dabe lastotzako aga-puntan, azeririk an jausita geratu ez daiten.

16

AZERIA ETA OILLOA

Bein azeria etorran menditik bera eta Filomena'ren etxera elé dutean, aske ebillan oillo bat aurkitu eban bidean. Aoan artu eta inguruko auzo batera eldu zan, an bildur barik jateko asmotan.

Jango eبالا igarrita, oilloak deitu eutsan:

la, ia!

Bai, ia, gero ikusiko, gero esango dautsut, erantzun azeriak.

Baiña ori esateko, aoa zabaldu bear izan eبالako, oilloa egazka bizi baten gaztaiñ-ondo batera igo tá bere adarretan geratu zan.

Azeria an geratu zan oillo barik, buztana ankapean, eta asarretuta, gaztain zuaitza buztanagaz ebagi nairik asi zan, esanez:

-Zerratu, zerratu, nire buztan orrek, eta oilloa jango dozu.

Eta oilloak ori entzunaz, erantzun:

Jainkoak salba nadilla igitai eta aizkoratik, baiña azeriaren buztanak ez dau ebagiko gaztain ondorik.

17

OILLANDA BILDURTIA

Bein oillanda bat bizi zan. Gaztain ondo baten azpian egoala, moskol bat jausi jakon bere buru-gaiñera. Ikaratuta igeska asi zan. Orrela eioala, oillarra billatu ta esan eutsan:

Zoaz emendik arin, Oillar jauna, mundua zatika dator goitik bera-ta.

-Ñok esan dautsu oillanda emea?

Niri jausi jata buru gaiñera.

Eta joan zan.

Erbi bat egoan tokira eldu zan, eta esan:

Zoaz emendik, erbi-iñúde, mundua zatika dator goitik bera-ta.

Zeiñek esan dautsu, oillanda emea?

Ñiri jausi jata buru gaiñera.

Aurrera joan zan, ori esan ondoren. Eta bidean azeri bat billatu eban.

-Zoaz emendik, azeri ama. Mundua zatika dator-eta.

Ñok esan dautsu, oillanda emea?

-Ñiri neuri jausi jata buru gaiñera.

Eta azeriak erantzun: Mundua zatika ba dator, nik ondo ase eta beteta nai dot joan.

Eta oillanda berbalduna iruntsi eban.

18

ZOZO ETA TXINDURRIA

Bein zozo bat txindurriarengana joan zan jateko eske, eta esan eutsan:

Zozo zaratatsu,
kantari zabiltzan artean, zozo zaratatsu,
billatu egizu udan negurako janaria.

19

OTSOA, AZERIA eta GIZONA

Antxiña, denpora zarretan, gauza guztiak berba egiten ebe-
nean, azeria eta otsoa batu ziran, biak adiskide ziralako. Azeria
akulari zitala zan, eta otsoa bidetatik zear erabilten ekian. Otsoak
esan eutsan gizon bat ikusi nai ebala. Euren ingurutik gaztetxo bat
igaro zan. Orduan esan eban otsoak:

-Adiskide, ikusten dan a gizona da?

Eta azeriak erantzun:

Esan bearra be!

Aurrera jarraitu, eta geroago agure bat igaro zan, eta azeriak
itandu:

Eta a, gizona da?

-Azeriak, erantzunez:

-Ixil, zoro ori.

Eta aurrera joan ziran. Eiztari bat billatu eben. Orduan azeriak:

Ene, adiskide. Or dator gizon bat.

Orduan otsoak:

-Ala dala beragaz burrukatu nai neuke.

Aurrera joan ziran, eiztaria etorran bidetik. Orduan eiztariak,
eurekana urreratu zanean, tiro bat jaurti eban eta otsoa belarriko
zuloan jo. Eta esan eban:

Kontxo! Geratu egizu gizona. Deadar bat jaurti eta ia kokolo-
tuta itxi nau.

Baiña ala eta be, burrukatu nai eban eta azeriak errementari
baten ingurura eroan eban. Sutegian ebillan a, eta azeriak esan
eutsan errementariari:

Nire adiskideak burrukan egiteko norbait billatu nai dau.

Eta errementariak erantzun:

Guazen! Asi gaitezan!

Eta txirikiñak (tenazak) jaurti eutsezan musturrera. Ori ikusita, otsoak ez eban geiago burrukatu nai izan, eta azeriari esan eutsan:

-Errekontxo, geratu egizu gizona. Ba dirudi deabruaren artea daukala. Atzapar biekin eutsi dausta eta mutur erdia eroan. Esku guztia ezarri ezker, burua be eroango eustan.

20

ERROIAREN AOLKUAK

Erroi zar batek, bere kumeak abitik atara aurretik, aolku batzuk emoten eutsezan, mundutik zear arrisku barik ibiltzen ikasi egien.

Ikusi, esaten eutsen. Gizon bat ikusten dozuenean, iges, arrapatu ezker ilko zaituelako. Ikusten ba dozue makilla zulatu bat dakarrena, iges, gizona urrun egonarren, oraindik ez daualako ondo amaitu zuek zapaltzekoa.

Ikusten ba dozue arri bat artzeko makurtzen dala, bardin, beragaz urrundik il ziñeikezalako.

-Eta patrikaran (sakelean) ba dakar?, itandu eban erroirik txikienak.

-Zu joan ziñei, erantzun eutsan zarrak, zuk ba dakizu zelan ibilita.

21

OTSOA TEILLATUAN

Bein otso bat tellatu bateko gora igo zan. Leio batera urreratu zan, an egoan leioetako batera, ze egoan jakiteko, eta gizon bat ikusi eban ezta jaten. Bizar luzea eukalako, bizarretik bera jausten jakola ikusita, gizona bizarra biurtzen asi zan, eta otsoak, pentsatu eban, berari begiraka zemaizten inarduala, eta teillatutik bera ariñketan asi zan, gudaroste bat bere gain etorkion lakoan.

22

OTZARA EGILLEA ETA BERE ADISKIDE ABEREAK

Otzara-egille batek bere aitakide ziran abereekin konbidautza euki nai izan eban, au da, azeria eta otsoagaz, eta amakide zan erbiagaz.

Erbia perexil billa bialdu eban, azeria oillanda baten billa, eta

artza erleontzi batena. Eta lenen elduten zanák eukala eskubiderik geien konbidautzarako.

Lenen eldu zana amakide erbia zan, eta otzara-egilleari esan eutsan, ol-askan ipini egiala. Eta ala, an ipinteko estalkia bera-tzean, amakidea ilda geratu zan.

Gero azeria eldu zan oillandeagaz, eta esan eutsan ol-askaren gaiñean ipinteko, eta joateko beste adiskideak ba etozan ikustera. Eta atetik zear joiala, eztarria estutu eutsan eta azeriak ariñeketan iges egin eban.

Artza eldu zan erleontziagaz, eta otzaragilleari agindu, lore ontzi baten lagateko. Eta bur-taketdun makilla bat emon eutsan, eta berak be iges egin eban azeria joan zan ingurura.

Otsoa eldu zan ardiagaz, eta erleontziaren alboan laga ta ate ondoan geratu zan. Otzara-egillea, bere aldetik, burdin gorriagaz eldu zan, eta sabeletik zear sartu eutsan. Eta iges egin eban, bes-teak joan ziran tokira, an alkartu, eta euren naigabeak agertzen asi ziran, amakide erbiaren eriotza negartuten.

Azeriak esan eban eztarritik oratu eutsala, burdin goria irudia-naz. Eta artzak makilla andi bat jaso eta makillaka erabili.

Otzaragilleak zetan iñarduan ikustera joatea erabagi eben. Le-nengo azeria joan zan, ausartena zalako, eta ikusi eban eztiz bete-ta eukazala atzamarrak miatzkatuten iñarduala, eta arin biurtu zan erleekana, esanez Jainkoari zin (juramentu) egiten iñarduala, an-dik ez zirala igaroko. Eta ariñeketan asi ziran eta gaur arte be ez ziran geratuko.

23

AZERIA, EIZTARIA ETA MENDI URRATZAILLEA

Egun baten eiztari bateri bere eskopeta artu eta eizara joatea oitu jakon. Urten eta bereala, azeri bat billatu eban. Goseti egoan au, eta bere sabela zelan ase pentsaten. Eiztariari bardin eutsan eperra eroan, untzia edo azeria, eta tiro bat jaurti eutsan. Baiña azeriak, zorionez, ariñeketan iges egin eban, berun apur batek be bere narruari ikutu barik.

Bere igesean, azeriak lurgin bat billatu eban, mendia urratzen, biara monean antolatzeke.

Gizonak gertuta eukan zuloko azpelen azpian biziki sartu zan baserritarrari esateko asti barik eiztariari nun sartu zan ez ager-tzeko.

Andik laster eiztaria eldu zan, igeslariagaitik itanduten.

Baserritarrak esaten eutsan ez ebala andik iñor ikusi, baiña ori esanagaz batera atzaparragaz iragarten eutsan nun sartuta egoan azeria.

Siñale ori bi-irutan egiñarren, eiztaria ez zan ain argia eta ez zan konturatu zer esaten eutsan, eta azeria arrapatu barik aldendu zan.

Joan zanean, mendu urratzailleak, mesede lez saldu nai izan eutsan azeriari, beragaitik salbatu ba eban lez, Azeriak, azpelen artetik dana ikusita eukalako, baserritarrari esan eutsan: Berbak ezin obeagoak izan zirala, baiña atzamarra sartu eikeala nai eban tokian.

24

ARTZAIÑA, SUGEA ETA AZERIA

Bein, gizon bat bidetik zear joiala, suge bat billatu eban, aitz azpi batetik ezin urtenda. Sugeak, gizona ikustean, eskatu eutsan andik atarateko, eta ala egin ezker, eskatzen ebana emongo eutsala. Gizona urreratu, eta arri azpitik atara eban sugea, eta onek, eskerrak emon bearrean, jan egingo ebala zemaitu eban. Gizona zurbilduta geratu zan bete-bete, ainbesteko esker-txarra jakitean, eta esan eutsan:

-Ia, jan, jan naikezu, baiña lenago lege gizon batengana joan bear gara, errazoa zeñek daukan jakitera.

Bidean asi eta idi bat billatu eben. Sugeak itandu eban a ete zan lege gizona. Gizonak erantzun eutsan ezetz, eta aurrera joan ziran.

Geroago ardi bat billatu eben, eta bardin itandu eutsan, ia a ete zan billa ebiltzan lege-gizona. Eta a be ez zala erantzun. Ager-tu eutsen zer gertatu zan, baiña azeriak ez eban entzun nai, gertatu zan tokira joan barik, ango zertzeladak artzeko.

Lekura eldu ziranean, azeria joan zan eta sugeari agindu lengo tokian sartzeko. Au sartu orduko, gizonari agindu eutsan aitzza ondo zapaltzeko, eta an geratzen lagateko, esker txarreko izan zalako.

Sugetik aske ikusi zanean, gizona aurreratu zan azeriarengana, eta itandu eutsan zenbat emon bear eutsan aolkuagaitik.

Azeriak eskatu eutsan, oillarragaz ebiltzan oillandarik one-nak nai zituela. Gizona etxera joan eta emazteari agertu eutsan ze gertatu zan, baiña arek ez eutsan oillandak eroaten laga. Eta agin-

du eutsan, oillanda ordez txakur emea eroateko, zaku baten sartuta. Eta gizonak txakur emea eroan, eta eldu zanean, azeriak zakuari usaiña artu eta esan eban:

Oillandak izan leikez, baiña txakur usaiña artzen dot.

Eta ariñeketan iges egiten asi zan, gizona sakua zabaltzen ikusi ebalako, txakurrari urten eragin nairik, eta azeriaren atzetik bialtzeko. Azeria oiuka joan zan era onetan:

Gora, gora nire ainkak, mundu onetan azpikeriak baiño ez dagozalako.

Mendi gaiñera eldu zanean, bere oiñak miazkatzen asi zan esanez:

-Ai, nire ainkatxoak! Zelan ziñoiazan!

Eta gero:

-Ai nire belarriak! Zelako zuzen ziñoiazan!

Orduan buztanak itandu:

Eta ni, nire nausi?

Zu? Atzean ziñoiazan atzeraka eragiten, uletsu ori!

25

ENTZUTE ANDIA UKAN AZERIA

Bein, lau egun eroiazan azeriak ezer jan barik, arrapakiñik billatzen ez ebalako. Bostgarren egunez, goizetik urten, eguna argitu baiño len, janari billa, eta aurkitzeko garretan. Baiña eguerdia eldu zanean, azeriak oillanda eta untzi asko ikusiarren, ezin izan eban bat bakarrik jan; eta janaria billatzen gaitz ebala ikusita, orma baten ostean eskutatu zan, eguzkitan, eta Jainkoagana zuzenduta esan eban:

Edo jaten emon egidazu, edo ta il ainbat lasterren.

Baiña inguru aretan umeen artean ebillan txiki batek, etzanda ikusi eban, eta arri bat eskuetan ebala joan, eta orma atzetik, eukan indar guztiagaz arria jaurti ta jo eban. Azeriak salto bat egiñaz eta zeñek egin eutsan begiratu barik, esan eban:

Tximista! Bai txarrekoa laster entzun be!

26

AZERIA OKARANETAN

Bein azeria okaranetan ebillan, tximistak iñarduen artean. Azeriak okaranei eutsi ta esaten eban:

Argi egin, ipurtargi!

Argi egin, okaran bat emongo dautsut-eta!

Geroago tximista bat jausi zan eta buztan erdia ebagi eutsan, eta azeria uluka asi zan:

Ai, tximista, okarana,
buztan erdia kanpora eroana!

27

AZERIA ETA TXALOPA-ZAIÑA

Azeria kaieko txalopa-zaiñaren ondora eldu, eta esan eutsan, erreka beste aldera joan nai ebala, eta eroaten ba eban, iru egi esango eutsazala: Lenengoa ontzira sartzean, bigarrena ibai erdian eta irugarren ostera amaitzean. Txalopa zaiñak ontzat artu eta egiak oneik ziran:

Lenengoa: Atzo ogikiñak esan ebala ogi biribil bat egiteko gariaren antzekoa. Baiña garia gari izan bear zala.

-Ori egia da.

Bigarrena? Gaur eguna bezin argiko gaua dago, baiña eguna egun da.

Ori be egia da.

Irugarrena...

Txalopa beste erriberara eldu zanean, azeriak salto egin eta esan eban:

Agur txalopa-zaiña! Danak egiten ba dautsue nik egin dautsudana, ez dozu poltsarik bearko dirua gordeteko!

28

AZERIA ETA TXAL JAUBEA

Bein gizon bat azokatik etorran, eta azeriak bidera urten eta esan eutsan:

Emon egidazu txal ori, edo ta ez dautsut igaroten lagako.

Etorri zaite nigaz, etxera eldutean auntz bat emongo daué tsut-eta.

Eta etxerako bidean asi ziran.

Eizean ibili ziran bidean, lapurretan.

Billatu eben bat, txalari lotu eta gero txalari akulua atzeko mokorrean sartu eta jo aurrera, azeria atzetik, ezin jarraituta eiola, esaten:

«Soka eteten ez ba da, edo ta txala askatu,
deabruak naroa txalaren jaubearen etxera».

29

OTSOA ETA KIRKILLA

Bein otso bat bidetik zear ebillala, kirkil bat igarri eban, bideko espaloi aren zuloan, kantari. Eta otsoak oin bat ipini eban zuloan. Kirkilla deika asi zan larri:

-Joan zaite ortik; ez al nazu ikusten?

Otsoak begiratu ta begiratu, eta ez eban ezer ikusten. Eta kirkillak barrero:

-Joan zaite ortik, bestela ostikada bat emongo dautsut.

Otsoa apur bat inguruan ibili eta barrero urreratu zan. Eta ostikada bat emongo eutsala esan eutsan lez, jardetsi:

la, ain adoretzu ba zara, egun baten biok egingo dogu ots andiko zerbait.

Eta kirkillak baietz esan eutsan.

Eta otsoa mota guztietako basatiak billatzera joan zan, eta kirkillak listor, erle eta antzerakuak. Azeria agertu zan lenengo aurretik, argiako zalako, eta kirkillarengana urreratu eta esan eutsan:

Gora, igo gora kirkilla.

Eta kirkilla pozez agertu zan, eta azeria urreratu eta buztanagaz jo eban, eta ankaz gora jaurti. Orduan kirkillak esan eban:

Urten zaiteze ipurdi oridunak!

Eta listorak, kurumiñoak eta erleak urten eta azeriaren gain jarki ziran. Orduan azeria zarataka asi zan:

Uretara, uretara,
jendea bizi dator-eta eztena sartzera!

30

OTSOA ETA ARDIA

Ardi bat eta antxu bat baskatzen ebiltzan. Eta antxuak esan eutsan:

Ama, or dator otsoa.

Ez dator, umea, ez dator. Jan egizu, jan, biar euria edo edurra jausiko dalako.

Andik laster otsoa eldu zan eta esan eutsan:

-Arratsaldeon, amakide!

On-onak, aitakide.

Eta orain zer dakartzu emendik?

Gose andia dakart, eta alaba emotea nai dot jateko.

Ondo da, baiña nik esandakoa egin ondoren. Iru bira emon bear dozuz aitz andiaren inguruan.

Eta bitartean, ardiak, arin be arin, arrapaladan, iges egin eta etxera eldu ziran, eta ate ondora elduagaz batera, «me-me-meka» asi ziran, eta amak atea zabaldu eutsen eta bertan arin sartu. Andik laster otsoa eldu eta bere muturra ate azpitik sartu eta esan eutsan zemaika:

Or baztertuta ikusten ba zaitut be, jakin sekula ez dodala os-tera bat alperrik egin.

Nik, ikusita be, sekula ez dot ainketan gaur aiña ule ikusi.

31 OTSOAREN AUTO RTZA

Otso bat autortzera joan zan, eta autortu eban baserritarren ondasunetan kalte asko egiten ebazala. Abadeak, penitentzi lez, egun bakoitzean libra ta erdi aragi baiño ez jateko agindu eutsan, edo ta bestela pekatu egingo ebala.

Otso mendira joan zan, eta an beor bat billatu eban bere umeagaz. Ikusi eta esan eban bete betean:

Jainkoagaz dabillenari, Jainkoak argi,
au librakoa da eta a erdika.

Euren gain jarki eta jan zitun.

Beste bein bei bat eta txal bat billatu zitun, eta ikusiagaz batera, barrero esan:

Jainkoagaz dabillenari, Jainkoak argi,
au librakoa da eta a erdika.

Euren gain jarki eta eurak be jan zitun.

Eta orrela jarraitu eban otso andiak, gizon askok lez, bereak egiten, Jainkoaren legerik zapaldu barik.

32 TXARRI-EMEA, TXARRIAK ETA OTSOA

Egun baten otso bat goizean goiz jaiki zan, nagiak kentzeko luzatu, eta buztanak zart egin eutsan.

Au zori onaren adierazgarri da, esan eta aurrera joan *zan*.

Andik laster artz bat aurkitu eban, baiña ez eban a jaterik nai izan, ostikada bat emon eta bere artean esan baiña:

Gaur aragi ugari egongo da. Eta aurrera jarraitu eban.

Geroago asto bat billatu eta esan eutsan:

Jainkoak bedeinkatu zaitzala, adiskide; gertu zaite, jango zaitut-eta.

-Jango nauzu bai, jango, baiña lenengo perrak kendu bear dodaz, nire nausiak aginduta daukadalako, ezetara be eurak ez gal-tzeko.

Otsoa perrak astoari kentzen asi zanean, ostikada bat emon eutsan onek aoan, eta ankaz gora jaurti, Otso koitadua bere matorillak igortziten inarduan artean, astoak bere aitakideei deitu, eta etxera joan zan.

Bere zorabioa igaro ondoren, otsoa bidean asi zan, eta txarri emea ikusi bere txarri-kumekin, eta esan eutsan:

Jainkoak bedeinkatu zaitzala txarri-eme. Gertu zaitez, jan bear zaitut-eta.

Jan bearrekoa jango dozu, bai, baiña lenago lagundu egidazu nire koitaduak bataiatzera, eurak ez dauke ezeren errurik-eta.

Eta zer egin bataiatzeko?, itandu eban otsoak.

Ara, zu joan zaite errota azpitik zear, eta gero errota arripetik, eta ni joango naz zulotik zear eurok jaurtiten. Ondora elduten diranean, bataiatuta doaz eta jaten joaten ziñeikez.

Otsoak errota arripean tokia billatu ebanean, txarri emea joan zan eta ura jaurti eutsan errotatik zear, eta errubera biraka asi zan otsoaren gainean, eta uste dot gaur be biraka ari dala errubera zoriontsu ori eta txarri-emea patxadaz joan zan bere txarri-kumekin bere etxera.

33

MENDIKO ARRATOIA ETA ETXEKOIA

Ñeguko egun baten etxeko arratoia kalera joan zan, eta mendiko arratoi bategaz topo egin eban, otzak ilten eta argal-argal egoala.

Zelan zagoz ain argal, itandu eutsan etxekoak. Etorri nigaz. Ñi nagon etxean beti dago zer jan, otzik igaroteko bildur barik eta jateko busti bear barik.

Eta katua?, itandu eutsan mendekoak.

Ba!, erantzun etxeokak. Ba dago an bat, baiña ez ba lego lez. Beti dago lo. Etorri eta ikusiko dozu, zelan bere aurretik igaro ta be, ikusiko ez naberen.

Biak joan ziran, etxera, eta katua be ikusi eben atadi aurrean. Txarrik uste barik igaro zan etxeok arratoia, baiña katuek begiak apur bat zabaldu, salto andi bat egin eta arratoia katuearen erpa eta ortzen artean geratu zan.

Mendiko arratoiak ori ikusi, aldentuten asi eta esan eban:

**Geiago balio dau mendian argal,
katua dagon tokian gizen baiño.**

34

ASTOA ETA TXARRIA

Bein asto bat serbitsuko egoan, eta egunero urun garraioan ibiltzen zan etxean euker txarriarentzat. Eta astoak berekiko esaten ekian:

Zeiñentzat nabil ni ainbeste urun erabilten? Ñik beintzat ez dot ezer be jaten.

Egun baten astoak txarria ikusi, eta an lodi eta gizen egoala ikusi eta bera argal eta azur-uts, eta astoak esan eutsan txarriari:

Begiratu, azurrak besterik ez daukadaz.

Egun baten astoak gizon batzuk ikusi zitun aitzo bategaz etorten, txarria artu eta mai gaiñean ipini eben eta aitzoa sartu txarriari eztarritik zear, eta astoa orruka asi zan atean, eta kalera atara eben, eta luzaro ibili zan kanpoan eta ez eban ezer billatu. Eta urrengo egunean txakur bat, katu bat eta oillar bat billatu zitun, Belen'era joiazala, eta !aburren etxe bat billatu eben. Orduan astoak esan:

Txakurra jarri bedi atean, oillarra leioan, katua su ondoan eta astoa kortan. Eta txakurra bau-bauka asi zan, eta oillarra kukurru-kuka, eta katua miau-miauka, eta astoa o-uka. Ori entzunda lapurrak iges egin eben andik eta eurak geratu ziran etxearen jaube ondo-be ondo.

35

AARIA ETA KATUA

Bein morroi egozan etxe baten katua eta aaria, eta lan asko egin bearrean, baiña eurak alperrak ziran. Origaitik etxe aretatik iges eta mundu zear joan ziran, obeto biziko ziran ustetan. Baiña

joan aurretik, lapurreta bat egin nai izan eben. Aariak esan eutsan katuari:

-Joan zaite zu esne-lapikora eta ni ortura joango naz.

-Bete ziranean, aariak esan:

-Orain goazen igesi.

Urten eta luzaro ibiliarren, ez eben etxerik ikusi. Aariak esan eutsan katuari:

-Igo zaite gaztain-ondo orretara, eta begiratu etxerik ikusten ete dan.

Katua pozik igo eta laster zan marrauka:

-Bat ikusten dot.

Katuak miau-miau egin eban eta etxe aretara eldu ziran. Baiña otsoen etxea zan, eta atean jo ebenean, barrutik:

-Nor da?

Eta eurak erantzun:


-Eiztariak.

Eta otsoak atea zabaldu eben. Beste aari bat euken jateko, eta danak egozan mai inguruan batuta, eta aaria eta katua ainka berotzera urreratu ziran su ondora eta anka-zabal an geratu. Ori ikusi eta otso batek esan eban:

-Guazen, guazen arin, polbora kutxa berotzen diardue-ta.

Eta otsoak igeska joan ziran andik.

3.- IRRI I PUIŃAK



(a) ANDRE ETA EZKONDUEN IPUIÑAK

36

EMAZTEAREN ERRUZ

Senar-emazte beartsu batzuk, menditik etozan bein, bakoitzak egur txorta andi bana lepoetan ekarrela, euri eta otz egun baten. Egin bear zituen lanekaz asarre etozan, eta guztiaren errudun lez Adan izentatzen. Gizon batek entzun, deitu eragin, eta itandu eutsen zegaitik uste eben Adan zala guztiaren errudun. Erantzun eutsen, beartsu ziranez, lan asko egin bearren aurkitzen zirala, eta Adan'ek Jaunak agindua bete izan ba leu, ezeukela bidetatik zear tatarrez ibili bearrik. Orduan jaun arek beragaz eroan bere etxe batera eta janari askotako bazkari bat ipinteko agindu eban. Eta esan eutsen:

Nai dozuen arte emen geratu ziñeizke, eta maian ipinten dan danetik jan, baiña baldintza bategaz: mai orren erdian dagon kutxa orreri ez dautsazue ezetarako ikutuko. (Eta maian ipinteko agindu eban kutxa bategaitik esaten eutsen ori.)

Lenengo egunetan ok egin arte jan eben, kutxeagaz gogoratu be egin barik, baiña andik egun batzuetara, bazkaltzen iñarduela, andreak esan eban:

Entzun, zer ete dauka etxeko jaunak kutxa txiki orretan, ikuturik be ez egiteko agintzeko?

Eta zuri ze ardura edozer egonda be? Ba dakizu esan ebala, ikutu egiten ba geuntsan kanpora bialduko giñuzala. Zuk jan nasai eta itxi baketan kutxari.

Baiña andrea ez zan ixiltzen, eta egunero ebillan gizonari itanduten zer egon ete eikean edo zer ete eukan etxeko jaunak an. Orrela, egun baten esatera ausartu zan:

Ikusi geinke, kontu andiz, zer ete dagon barruan, eta dagon lez itxi, eta etxeko jauna ez da konturatuko, berak, ainbestean galeraزو euskunean, zerbait egongo da-ta.

Ekiñaren ekiñez, gizona makurtu zan: Kutxatxoa artu, ondo begiratu zelan egoan, gero bardin lagateko asmotan, eta zabalitzen asi zan, baiña zabaltzean, arratoi batek urten eban bizi-bizi, salto egin eta maitik aurrera joan zan. Ainbestean ikaratu ziran eta ez eben jakin zer gertaten zan ulertzen be, eta orduan jauna sartu zan, eta igarri eban ze gertatu zan, eta esan eutsen:

Ara, ipinitako baldintza ez dozue bete, eta orrela joan zaiteze nire maitik, eta emendik aurrera, estutasunak igaro ta be, ez egiozue errurik Adan'eri emon.

37

ANDRE BATEN MAITASUNA

Semerik ez euken senar-emazte batzuk beti ebiltzan alkarri esaten, batak ez ebala il nai bestea baino atzerago, baiña batez be andrea zan esaten ebana Jainkoari eskatzen eutsala lenengo bera eroateko.

Senarrak andrearen esan ori egi ete zan ziurtatu nai izan eban, eta auzoko bateri eskatu eutsan gau illunean sega bategaz, eta izara bategaz estalduta, bere etxean sartzeko, ziur jakin nai ebalako andreak esaten ekiana biotzez esaten ete eban.

Auzoko ori sartu zan, esandako eran, eta sukaldeko atetik igarotean, gizonak ikusten ebanagaz bildurtu eta ikaratuta lez, ots egin eban:

-Eriotza!

Eta igeska asi zan, eta sukalde berbetan egoan labean sartu zan eskutateko. Andrea, izututa, berba barik geratu zan eta egoan tokitik ezin jaikita. Eta ikusieran Eriotze beragana urreratzen zala, eta barbarik ezin ebala egin, besoagaz laba aldea jakin erazten eban, senarraren billa joan eraso nairik.

38

MINGOS-BEKO GAZTAÑADIAK

Oraintsu, Paramo'ko baserri-auzo baten, senar emazteak bizi ziran. Eta gizonak andrea jo egiten eban. Egun baten gaixotu egin zan, eta osagillleari deitu eutsen, eta onek osasungarri batzuk emon eutsazan. Baiña gero ta txarrago joian. Orrela, urrengo arratsaldean, estualdi batek emon eutsan, eta danak pentsatu eben ilgo zala, eta orrela, bere illeta gertu eben. Baiña orduko denporetan, illen kutzak ez ziran oraingoan antzeko. Gaiñeko estalki barik erabilten ziran. Eta kanposantura joateko gaztañadi batetik zear igaro bear ziran, Mingos-Beko gaztañadiak deitzen ziran-netatik.

Andik igaroeran, illa biztu egin zan, baiña ezin eban barbarik egin, eta zer egitera joiazan konturatuta, gaztain adar bateri oratu, eta andik etxera joan zan. Eta etxean sartu orduko, bere andreari sekula bere bizitzan emon ez eutsazan aiñako lepokadak emon eutsazan.

Baiña egun baten benetan il zan, eta kanposantura eroiela, andrea mara-mara negarrez joan zan bere atzetik, eta uluka dea-darrez:

-Ai nere, nire gizontxo maitea! Ene ba da ta, bera lakorik bes-

terik ez egoan munduan-eta! Ai, ai, ai, ai, nik maite neban aiña maitatu-ta! Mesedez, Jainkoarren, ez zaiteze joan, ez zaiteze joan W ingos-Beko Gaztañaditik zear! Mesedez!

39

NIRE ETA BESTE BATEN ERRUKI!

Senar emazte batzuk iru urdai zatitxo frixidu zituen aparitako. Jatera joan ziranean, senarrak esan eban berak bi jan bear zitula. Andreak ezetz, bera izango zala bi jango zituna. Zeiñentzat izan, sortera jaurti eben. Eta gizonak emon eutsan zartadeagaz, andrea konort barik jausi zan. Gizonak pentsatu eban illotz zala, eta illantzi eban.

Gabean auzoko asko joan ziran gau-pasara. Eta illaren inguruan danak egozala, au geldi geldi berera etorten asi zan.

Ezaupidera etortean, bere esanagaz setatsu jarraitzen eban: «Nik bi jan bear dodaz» «Nik bi jan bear dodaz». Gau-pasara joan ziranak, beste munduko zerbait gertaten zalakoan, igeska asi ziran, baiña errena zalako jarraitu ezin eutsen gizon bat geratu zan, eta besterik ez eban esaten au baiño: Nire eta beste baten erruki!

40

GONBIDAUTZAKO EDERRAK

Errementari bat eizara joan zan goiz baten, eta eper bi i! zitun. Etxera etorrala, erriko parrokoa billatu eban, eta onek, bereala, salduko ete eutsazan itandu. Errementariak ezetz. Baiña ainbeste gogo ba eukan, eurak jatera gonbidatuko ebala. Abadeak pozik onartu eban ori. Errementaria etxera joan, eta emazteari agindu eutsan, eper areik ondo apaintzeko, bera meztara joan artean: gero abadea be etxera joateko zala jaten laguntzera, berak be etxeko illen arimatxoen aldezko meza eukalako. Emazteak eperrak gertuta eukazala, amakide bat eldu zan sukaldera, eta esaten asi:

-Amakide, zer daukazu kazularan ain usain ona artzeko?

Zer euki neike ba? Aza zalda, lagungarri onagaz eta origaitik izango da usain ona.

Besteak esan ori sinistu ez eta kazulara ikusi eban. Eperrak egozala ikusi ebanean, dastatu (probatu) bear zituela esan eban, onak ete egozan ikusteko.

Ezin lei, esan eban, parroko jauna datorralako eurak jaten laguntzera.

-Dastatu daiguzan, amakide, ugari elduko jakoe-ta.

Bat amaitu ebanean, ain ona egoelako, geratzen zan bestea

be jan eben.

Eta amakidea joan, eta mezatatik gizona eldu zanean, andrea negarrez asi zan. Senarrak itandu eutsan zegaitik ebillan negarrez:

Ai nire senar! Zelan negar egin ez? Errementari baten etxean gagoz eta aiztorik bé ez dogu maian ipinteko.

Ez negarrik, emakume. Abadea datorren artean olara nua eta laster gertuko dodaz bi edo iru.

Andik laster abadea eldu zan eta andreak barriro negarrari ekin. Eta arek itandu zegaitik zan.

-Ai ene, nire zoritxarra. Zelan negar egin ez, nire senarra zortu egin dala uste ba dot, berak esan dauanez, olara joan da aizto batzuk gertutera zuri belarriak moztuteko-ta. Bai, jauna, obe da lenngotik emendik joatea, bera etorri baiño len.

Abadea kanpora urten eta oiñetakoak kendu zitun, ariñago ibili al izateko. Senarra eldu zanean, emaztea oraindik be negarrez billatu eban, eta senarrari esan eutsan abadea etorri eta eperrak artuta bere etxera joan zala.

Errementaria lasterka asi zan abadea arrapatu nairik, eta ikusi ebanean, deadarka asi jakon:

Jauna, bat ba da ere laga egidazul

Ez bat eta ez bi: nire belarriak ez dira zuretzat!

41

JON ETA MIREN JONE

Ezkontide bi bizi ziran, alkar asko maite ebenak. Bera Jon deitzen zan, eta tentel samarra zan. Andreak Miren-Jone eukan izentzat. Eta asto bat euken.

Egun baten Jon bere astoagaz mendira joan zan, txillar baé tzuk batzera, eta zidarrezko diruz betetako saku bat aurkitu eban. Asto gaiñean ipini eta etxera biurtu zan.

Eldu zanean, emazteari esan eutsan zidarrezko diruz betetako saku bat aurkitu ebala. Andreak esan eutsan ez zirala zidarrek, txatarrak baiño. Eta senarrak:

-Ziur egon, diruak dira.

Eta orduan, andreak:

-Ixil egon, ez ezer esan, premiña asko daukagu-ta.

-Jon'ek, barriro astoa artu eta mendira joan zan, eta gizon battegaz topo egin eban. Onek itandu eutsan diru sakurik billatu ete eban. Eta Jon'ek:

-Bai, baiña Miren Jone'k esan dau premiñazko dogula.

Gizona andrearenga joan zan, eta diru sakua eskatu eutsan. Berak erantzun, ez ekiala orretazko ezer. Orduan gizonak gora jo eban.

Andik aldi batera, epaiketa egin zan. Egun aretan Miren Jone goiz jaiki zan oetik, eta ogi zatiak brixiduten asi zan eta aidean jaurti. Jaurti ondoren, Jon'eri deituaz, ekin eutsan:

Jon, jaiki eta joan zaite astoarentzat bedarretara.

Eta Jon'ek, esana beteaz, jaiki eta joan zan. Eta zati txiki bero asko ikusi zitun, zapi baten. Eta andreari esan:

Miren Jone, gaur gabeen zati berodun edurra jausi da.

-Zoratuta zagoz? Nun zati berodun edurra jausi?

Bai, bai, emen dakardaz agin artean, ikusi dagizun.

Ixil zaite eta joan astoarentzako bedar billa.

Joan zan bitartean, Miren Jone'k egunkari bat ipini eutsan astoari bere aurrean eta astoa arrantzaka asi zan. Eta Jon'ek ikusi ebanean, esan eutsan:

Miren Jone, astoa egunkaria irakurten dabil eta a, e, i, o, u esaten dau.

Epaiketara joan zan Jon, eta Epaikariak itandu eutsan egia ete zan zidarrezko dirudun saku bat aurkitu ebana. Eta Jon'ek erantzun:

Bai, baiña Miren Jonek esan eban bear bearrezko genduza-la.

Gero Epaikariak Miren Jone'ri agindu eutsan biurtzeko. Baña bera onela jardun zan:

-Ez egin jaramonik orreri. Gabeen edur zati beroak jausi dirala be esan dau orrek.

Bai, bai jardetsi Jon'ek. Oraindik agin artean daukadaz batzuk.

Eta Miren Jone'k geitu:

Bai eta esan dozu gaur goizean astoa egunkaria irakurten egon dala.

Eta berak:

Ori beintzat egia da, eta a, e, i, o, u esaten eban.

Ori ikusita Miren Jone'k irabazi eban epaia, Jon'eri jaramonik ez eutselako egin.

JON ETA MIRENTXU

Eta Jon eta Mirentxu kontu kontari ebiltzan, su inguruan. Zarata andi bat entzun zan, eta sua be amatau egin zan, eta enborrak batzen asi ziran. Batu ondoren, beste bat jausi zan, eta barriro sua banatu, eta barriro batu. Eta ori ainbat bidar, Origaitik azken baten Mirentxu'k Jon'eri esan eutsan:

-Ez dozu bete agindurik. Aitakidearengana joan bear zara, autortu zagiazan.

Urrengo egunean, goizean goiz, bere aitakide zanarengana joan zan. Au eleizako parroko zan. Onek esan eutsan ezin egiala autortu, Erromara joan bear zala, erromes jantzita. Eta Jon etxera biurtu zan, eta bere ostera gertu eta Erromarako bidean asi. Eta aitakidea Mirentxu zaindutera joan zan.

Baiña andreak beste aitakide bat eukan, mandazaiña zana, eta bidean billatu eban Jon. Itandu eutsan norako bidean ebillan. Jon'ek agertu, berari gertatua, eta mandazainak ez eutsan itxi aurrrera jarraitzen. Etxera biurtzeko agindu eutsan, ori parroko abadearen gauza zala, bera Mirentxugana joatearren. Jon'ek esaten eutsan ezetz, baiña mandazaiñak bere mando andia jokatu eutsala bei txikiaren aurka, eta orrela etxera biurtu ziran. Baiña mandazaiñak zaragi andi baten barruan sartu eban Jon, bere etxean sartzeko. An egoan Mirentxu eta beragaz abadea, pozaren pozez, eta geiago beste aitakidea ikusi ebenean. Apari alaitsu bat egitea pentsatu eben. Apaldu ondoren, mandazaiña berbetan asi zan eta esan eban bere abesti bat abestu bear ebal. Eta Mirentxu bereala gertu zan berea abestutera. Onela zan:

«Nire senarra Erromara dua,
Jainkoari ondo egin dagiola eskari nator,
eta betiko an geratu daitela».

Ondoren, abadea asi zan bere aldetik orrelakoak kantatzen:

«Bera ara doa nire jardunagaitik,
ni geratzen naz emen
bere emaztegaz nire galtzak aizetzen».

Eta gero, mandazaiñak ekin eutsan:

«Kartzelan zagozan gizona,
nun dago zure zentzuna ?»

Orduan zaragitik Jon'ek urten, eta abeslari bera be asi zan:

«Bei txikia irabazi daustazu orrek,
eutsi abadeari, ez laga igesten».

Eta onetan abadeak itsu-mustuan iges egin eban. Eta Jon'ek sinistu eban mandazaiñak esana egia zala.

43

ANDRE BAT, OTZARA BAT ETA ESNE LAPIKOA

Bein andre bat bizi zan, eta otzara bat, eta ez dakit geiago ezer.

Bein andre bat bizi zan, eta esne ontzi bat. Eta geiago ez dakit ezer.

44

KEPA ETA JONE

Senar emazteak ziran. Eta ume bat euki eban.

-Nik igaro nitun miñak!, esaten eban andreak. Umeari agiñak urten arte, ez egidazu geiago ikuturik.

Beste egunean, bataiatzera joan ziran. Kepa ota burdi baten billa joan zan mendira. Andik biurtu zanean, emaztea etxean egoan, eskillara baten gaiñean, kantari:

Tanparrapantan, begira Kepa, begira,
umearen aoan agiñak agertzen asi dira.

Eta berak:

-Tanparrantan, Jone maite.
gogorik ez daukat orain eta egon zaite.

45

JON ETA MIRENTXU BIDEAN

Lengo denporetan, kotxerik be ez egoanetan, senar emazteak bizi ziran. Jon eta Mirentxu deitzen ziran. Beren etxetik Lugo'ra joan ziran. Etxera biurtu ziranean, Mirentxu nekatuta etorran eta Jon'eri eskatu eutsan lepoan ekarteko. Eta Jon'ek ekarri eban.

Bide zati bat egin ondoren, Mirentxu'k esan eban:

-Ai Jon, an arri egoki bat dago gure lapikoa estalduteko. Eta bere billa jetxi zan.

Gero, barriro leporatu, eta Jon beste zati baten aurrera joan zan. Barriro Mirentxu'k Jon'eri:

-Ene, Jon. An dago beste arri zapal bat. Gure lapikoarentzat oso egokia. Eta barrero jetxi, arria artu eta lepora igo.

Beste zati bat ibili ondoren, Mirentxu"k Jon"eri:

-Ai Jon, gauzak Jainkoaren aldetik dagoz:

zuk eroan nagizu ni, eta nik arriak eroango dudaz.

46

EMAZTEA, FRAILEA ETA ALORRA

Bein gizon koitadu bat bizi zan, bere ogia lan asko eginda irabazten ebana. Eta orma bat beratzen ebillala, kutxa bat billatu eban, barrua urrez eta pitxiz beteta. Ixil-ixilik jaso eban, eta bere emazteari ezik beste iñori ezer esan barik, etxera eroan eban. Txikitxu batzuk eukezan, baiña ez eutsen ezer esan.

Andik aurrera ez euken zetan ainbeste lan egin, eta obeto bié ziko ziran.

Baiña «beata» lako zan emazteak, bere gogo autorle lez beso zabaldun fraile bat eukan, ainbat umezurtz bere kontura eukazana eta dana ondo artzen ebana. Andra onari besterik ez jakon bururatu bere autorleari bere senarrak billatu eban altxorra jakin eragitea baiño. Onek, orduan, eskatu eutsan, bere kontzientzia baretzeko, geldi geldi eroaten joateko, senarrak jakin barik, billatutako pitxiak lenengo, esanez batzuk santu batentzako izango zirala, eta besteak beste batentzako; eta diruekin be bardin egiteko, zeruko koré te guztia eurekin ondo geratu eta billatzea parkatu al izateko. Bestela, biurtu egin bearko zituela, eta inpernura joan. Eta andrea eroaten asi zan, eta frailea geiago eskatzen eta parkamenak emoten, eta danak zeruei eskintzen, billatutako kutxa uztu arte; eta fraileak bereak beteta, bere umezurtzak elikatzekeo estutasun barik.

Jon, emazteak egiñagaz konturatu zanean, barruraño mindu zan, eta gau baten iges egin eban, nora jakin barik. Eta bere emazteak fraile lodi eta baikorraren parkamenak artzen jarraitu eban, bere gogo-zuzendari zan guztiekaz egiten eban lez.

47

UNTZI BIZARRAK

Bein s₂nar emazte batzuk bizi ziran. Astotxoa zan bera, eta abadea bere emazteagaz ibilten zan. Egun baten mezarara joan zan, eta bertatik urten ondoren, eleizako atean gelditu zan. Abadeak, urteteen, esan eutsan:

-Zu ere mezarara etorri zara, untzi (koneju) bizar?

Eta gizona ikaratuta etxeratu zan, eta emazteari esaten:

Ez nua geiago mezatara, abadeak untzi-bizar deitu daustalako.

Egon nasai, datorren domekan ni joango naz mezatara eta neuk lagako dot a lotsatuta.

Eta esan eta egin, urrengo domekan abadeari esan eutsan:

Ai, abade jauna, zelan deitu dautsazu nire senarrari untzi-bizar? zu nire liñuagaz egindako alkondara barriagaz ibilita, nire urdaiagaz igortzitako okotsa, eta nire gonon igotzaille eta nire lotsa-ill earen igortzaille izan da, zeñiek agindu dautsu nire gizonari untzi-bizar deitzea?

48

SENAR ASTOTXOA

Bein emakume bat bizi zan. Erdi tente! zan gizon bategaz ez-konduta egoan. Bera, orde, argi-argia zan, eta «laguntzar» bat eukan, bere senarraren begien aurrean etxera joaten zana. Senar gixajoak ez ekian zenbatuten be. Egun baten gaua eginda gero eldu zan etxera, eta oera joan zan, ain zuzen bere emaztea «laguntzarragaz» egoan oera.

Itxuraz senar koitaduak gauza bakanen bat oartu eban bes-teen ainkaetan, eta bere artean asi zan:

Ñire anak, zure anak, umearnak...eta geiago.

Ez zaitez txotxolo izan, esaten eutsan emazteak.

Baiña berak ainkak erabiliaz zenbatuten:

Nireak, zureak, umearnak eta geiago gaiñera.

49

MINGOS'EN KASKARRA

Sarria uriaren inguru baten, senar emazteak bizi ziran. Emazteak sarri joten eban bere gizona. Bein feriatik etorralla ikusi eban eskuan edoskaillu bat ekarrela eta zain egon zan, beti lez joteko. Eta bera aulki baten azpian sartu zan, lepoan joteko aukerarik euki ez egian.

Bera etxera sartu eta aulki azpian senarra ikusi ebanean, an ezin jo ebalako, zarataka asi zan:

Urten, urten gizona aulki azpitik. Urten, obeto izango da-ta!

Ez dot nai urten, ez dot nai urten, ez egizu urtengo naizen bil-durrik euki, bein-edo bein nik be nire izakera eta kaskarra agertu bear dot-eta!

50

IZTUPA GERTUTEN EKIAN ANDREA

Iztupak gertuten ekian andre bat, bere senarrari sinistu eragiten alegintzen zan, langille jatorra zala, eta gaua eldu eta bere senarraren belarrietan esaten ekian:

**Kartola arilduak,
egunean ogei ta bost.**

Baiña ez zitun ataraten danak ondo. Batzuk amaituak ziran eta besteak amaitzeko.

Liñua egostera joaten ziran, eta jakiña, iztupa asko joaten ziran. Eta senarrari esaten eutsan lapikoagaz kontu edukiteko, irakin arte.

Baiña ez egizu «Hopa» esan, oitura dozun lez, irakitean, ori esaten dozun bakoitzean arildutako liñua iztupa biurtzen dalako.

Lapikoa zaintzen asi zan, eta irakiten astean, gizonak, oitura lez, Hopa deitu eban. Eta emazteak erantzuten eutsan:

Ikusten? Gertutako liñua iztupa biurtuko da.

Eta ori ainbat bidar. Eta atara ebenean, iztupa asko egozan, baiña arildutako gitxi. Eta errua senarrari emoten eutsan, Hopa esaten ekialako. Baiña, alaz eta be, emaztea langille ontzat etsiten zan, senarrari egunero edo gabero entzuten eutsalako:

**Kartola arilduak
gau bakoitzean ogei ta bost.**

51

EMAKUME BURU GOGORRA

Erri txiki bateko emakumeak, bere senarragaz asarretzen zanean, zorritsu deitzen eutsan. Onek zemaitu eban, orretara geiago deitzen jarraitzen ba eban, erre kara eroan eta an ittoko ebal. Baiña berak, betiko leloagaz jarraitzen eban.

Bein senarra benetan asarretu zan, eta andreaki kolpe eta ibaian bera jaurti eban. Alaz eta bera lengoan ebillan, noiz ittoko egonarren be, eta ur azpian sartzen asi zanean, barbarik ezin egiñera eldu zanean be, besuak ur gaiñera atara eta esku biakin, zorriak ilten ebillan ezaugarriak egiten zitun.

52

ABEREAZ EZAGUTZEN ZITUN BASERRITARRA

Lurrak lantzetik eldu zan baserritar bat bere beiekin, eta jan tokietan jaten emon eutsen. Beien alboan astoa egoan. Onek itan-

du eutsan bei bateri:

Zelan artzen zaitu ugazabak?

Eta beiak erantzun, lan asko emoten eutsala.

Orduan astoak:

Zeuk nai dozulako. Gaixo itxura artu eta ez jan.

Baiña baserritarak abereen berbeta ezagutzen eban lez, barrezka asi zan, eta arratsaldean astoa buztartu eban, eta astoak ez eban goldetik ten egin nai, baiña ugazabak makillakadak emoten eutsazan.

Gabean astoa kortara eldu zanean, beiak itandu eutsan:

Zelan artu zaitue?

-Ondo.

Eta zer esan eban nigaitik?

-Biarko osatuten ez ba ziñan, arategira eroango zinduzala.

Ugazaba apaltzen ari zan, eta barrezka jarri zan, eta emazteak jakin nai izan eban zegaitik ebillan barrezka bere bostean, eta gizonak ezin eutsan bere eskutukotik agertu nai izan, bestea ilgo zalako. Emaztea, asarretu zan eta muturtuta oera joan zan.

Kapoiak orma gaiñetik «kakaraka, kakaraka» ka asi zan.

Gero txakurra agertu zan:

Bau, bau... esan eutsan kapoiari. Ez egizu abestu, ugazaba asarretu ta gugaz aiertuko da-ta.

Kapoiak barrero:

Kakaraka. Nai dodalako, emazteari eskutukoa agertuko dautsalako. Orrela, artu dagiala idizil bat eta atara dagiala emaztea oetik.

Baserritarrak aolkua bete eban eta orrela konpondu eban euren artekoa.

53

IXILLEKOA

Bein ezkongai bi bizi ziran. Ainbat denpora ebiltzan alkarregaz. Eta neskaren amak deitu eutsan egun baten maitaleari. (Serafin deitzen zan, osaba Zolerpas'en semea) eta esan eutsan ezkontzan be alako baten pentsatu bearko ebela, denpora asko zala neskeagaz ebillala eta zerbait erabagiteko ordua eldu zala.

Serafin'ek, buruari ats egin, muturra zimurtu eta lepoak jaso ondoren, esan eutsan... ba ikusiko ebala, pentsatuko ebala eta neskari esango eutsala. Alaxe izan zan. Baiña sapu arek, tentel bizarrik be ez eukan arek, jakin nai izan eban lenago noraiño gordeten daben emakumeak eskutuko bat. Eta Joxepe'ri (olantxe deitzen

zan neskatoa) esan eutsan:

Ara Joxepa, zuk badakizu zintzotasunez zaukadala, atsegin nazula eta zurea naizana. Zure amak esan dausta ezkontzan pentatu bearrean gareala, eta nigaitik, Zeruko Ama, ez legoke eragozpenik. Zer nai dot ba besterik! Baiña ezin lei, ezin lei...

-Zer da ezin leikela diñozun ori? Zegaitik?, itandu eutsan neskak urduri.

Ixilleko bat da. Ezin nei esan.

Ñeskak jakin nai eta mutillak ukatu, egun batzuk igaro zituen setatsu. Baiña azken baten, agertu eutsan Joxepa'ri eskutukoa.

-Ara, esango dautsut, baiña iñori agertu bear ez dautsazun eskutukoa da.

Esan, esan,..., iñoan berak.

-Ara, ikusiko dozu. Ñik... nik... egunero arrautsa bat ipinten dot, oillandak lez.

-Benetan ori?

Benetan. Baiña ixillik euki. Eta ikusten dozu ezin neikela ezkondu.

Jaunak lagun daidala!, esan eban Josepa'k. Eta ikaratu egiten zara origaitik? Ori, akats ordez, baliagarri da, oillanda gitxi dagozalako egunero arrautza ipinten dabenak.

Gau aretan agurtu ziran, eta neskak gau berean agertu eutsan amari ixilleko ori, berak be ixilik eukitekotan. Baiña, bere Serapin'eri balio geiago emotearren, baten ordez egunero arrautza bi ipinten zitula egunero esan eutsan.

Amak, bere senarra tabernatik etxeratu zanean, bardintsu agertu eutsan alabaren kutunagaz zer gertaten zan, baiña bi ordez iru ipinten zitula egunero.

Aitak ezin gorde izan eban eskutuko ori, urrengo goizean, tabernara joan ordurako, bere lagunei agertu eutsen, eta orrela a, luzatzen joan zan, luzatzen eta zabaltzen eta ugaritzen, errialde aretako erregearen belarrietara eldu arte, eta areri esan eutsen ba egoala gizon bat egunero eun arrautza ipinten zituna.

Erregeak mutillari deitzeko agindu eban, bere serbitsuan eukiteko eta orrela ollotegi bat eukitea aurreratu. Mutilla Kortera eldu zanean, zerbait igarrita edo, ez zan santu-santu joan. Baiña gero egia agertu eban. Eta danak goratu eben bere zurtasuna. Eta Joxepa santuak jazteko geratu zan.

Eta ala ba zan edo ez, sartu kalabazan.

54

SAN ANTON'ERI SENARRA ESKATZEN EUTSAN NESKA

Ortoa'ko parrokian, ezkontzeko gogo andia eukan neska bat bizi zan, eta arratsalde guztietan irulaila artu eta eleiz aldera joaten zan, San Antonio'ri senar bat emoteko eskatzera. Baiña sakristaua konturatu zan zer gertaten zan, eta bera be santuaren atzera joan zan. An ebillan neska erreguka: «Aita san Antonio maite, auré ten ezkontzen ba nazu, kandela bi ekarriko dautsudaz. Ai nire biotzeko san Antoniotxu, errukitu nigaz» eta abar.

Ori entzun eta sakristauak atzetik:

-Joan zaite, ez da aurten izango ez eta datorren urtean be.

Neskak pentsatu eban ori esaten eutsana ez zala san Antonio, besuetan eukan beste santutxu txikia baiño, eta irulaila gerritik atara eta alderdiko eder bat emon eutsan, esanez:

Ori zuk ez dakizu, mokotsu orrek, ez zara nor be ori esateko, ori esan bear dauana zure aitatxoa dalako.

55

TOMASATXU'REN AMA

Ama bat bizi zan bein, Tomasatxu izendun alaba eukana. Ezkondu nai eban, baiña ez eukan zeinégaz, eta eleizara joaten zan santutxuei eskatzera, esanez:

Santutxu txiki atsegin eta arpegi gozokuok, zeinégaz ezkondu bear dot nire Tomasatxu?

Eleiza garbitzen ebillan sakristaua, aldare atzean gertatu zan ori entzun ebanean, eta santu baten abotsa atarauaz, esan eban:

-Parroki onetako sakristauagaz.

Pozik urten zan ama eleizatik, paskuak baiño alaiago. Sakristauari eskatu eutsan bere alabeagaz ezkontzea. Sakristauak be-reala pozik onartu. Ezkondu ziran. Baiña sakristaua gaiztoa zan eta emaztea jo egiten eban. Bai amagiñarreba berbera be. Orduan atsoa arriz beteta joan zan eleizara, eta santuei zemaika asi zan:

Santu txiki, adar arpegidunak, Urtarrilean emon zeusten lako ordaiña emon nai dautsuet. Eta santuekaz arrika asi zan.

56 ZATITXOA

Mutil bat neska ezkontzarako eskatzera joan zan, eta neska-
ren etxean apaidu eragin eutsen. Baiña azurtxo bat geratu jakon
eztarrian eta ittobearrean ebillan. Amagiñarrebak lepoan soka ba-
tegaz joten eban artean, neska errezatzen ebillan:

-Chorente'ko san Frantzizko,
Vilarello'ko san Ramon,
zaindu egidazu nire Arroxxo,
itto ez dagián azurtxok.

57 LAU BIDAR EZKONDU ZAN ANDREA

Emendik laster egiten dan auzo baten, emakume bat bizi zan
iru bidar ezkondua, eta asarretzen zan bakoitzean bere senarrak il-
ten zituna. Irugarren senarra zana il ondoren, inguruko gizon bat
joan zan bere naia eskintzera eta ezkontzarako eskatzera. Danak
esaten eutsen zoro egoala, besteei egiña bardin egingo eutsala
berari be. Berak jaramonik ez, eta ezkontzea erabagi eben, baiña
baldintza bat ipinita, etxean astean batek aginduko ebala, eta le-
nengoan, ain zuzen be, gizonak. Orrela ezkondu ziran, eta lenengo
egunetik, jakiña, gizona zan agindu bear ebana, eta esan eutsan:

-Ia, gaur txillarretan joan bear zara mendira. Eta joan zan.

Urrengo egunean bardin, eta orrelaxe lau egunetan. Bostga-
rrenean esan eutsan, etxe ondotik igaroten zan ibaiaren egalean
zulo andi bat egiteko, eta egin eban, eta seigarrenean, lau egune-
tan batu al izan eban egur guztia zulo ondora eroateko, eta asto
emea ilteko eta narrua kentzeko. Eta alaxe egin eban. Eta dome-
kan egindu eutsan egurrei su emoteko, eta astoaren narrupean
sartzeko eta su gaiñean jesarteko. Berak egin bear izan eban, eta
pixkabat egon zanean, atara eban eta ibaian sartu; barriri sutan
sartu eta barriri ibairako atara, orrela iru bidar ori egiñarte, ba-
koitzean esaten ebala:

**-Andre gaiztoa goritu egin bear da: iru bidar sutan eta iru ure-
tan.**

Urrengo egunean andreari egokion agintzea, eta esan eutsan:

-Gaur perira joango zara beiekin eta saldu. Baiña ez zan ager-
tu ñor be esango ebanik nor ete egoan saltzeko, Buruari aska ibili
zan, gizon bat pillarmonika jotzen bere albotik igaro arte, eta deitu
eutsan eta beiak pilarmonika ordezkatu nai zitula esan. Lenen-
gotan gizonak ez eban sinistuten, baiña azken baten tratue egin
eben.

Ettxera etorrara, auzokide guztiak esaten eutsen:

Ai Manuel, gaur bai ilko zaitula Mariguana'k. Eta berak erantzun:

Ez nau ilgo, ez. Eta diruzko apostua egin eben.

Baiña etxera eldutean, soñua joten asi zan, eta beste emakume batek entzun eta kantari asteko eran:

Nere pindarga, pindarga,
nire bandurra, bandurra,
leioan zagozan andrea,
gogoratzen astoaren narrua?

Andreak entzun eta ulertu eban, eta senarra etxeratzean esan eutsan:

Zer egin dautsezu beiei, Manuel?

Eta berak:

Pilarmonika ordeztatu (trukatu) nituzan.

-Ba, emendik aurrera, zuk egiña ondo egiña izango da gurean.

Eta auzokoak posturan urteten eutsena ordaindu bear izan eben.

58

BAKE ANDIKO EMAKUMEA

Gizon eta andre bat bizi ziran. Andrea ain on eta baketsua zalako, sekula gizon batek ez eban asarre ezagutu. Edozer eginda be, berak beti arrazoia emoten ekian. Egun baten senarra menditik etorri zan asto emeagaz, eta etxean sartzeko, atzekoz aurrera sartu nai izan eban, au da, buztana etxera begira eta burua kanpora, sukaldean egoan andrea asarretzen ete zan ikustearren. Emaztea an egoan entzuten gizona astoari agintzen sartzeko, eta ba ekian astoak ez ebala sartu nai. Eta bera ixilik, ezer esan barik. Baiña denpora igaroten zala ikusita, eta gizonak astorik ezin sartu ebala, urten eta maitasunez, astoari, buztanetik oratuta esaten eutsan:

-Sartu zaite, sartu, asto-eme, oraingotan buztanez, muzturrez beste askotan sartua zara-ta.

59

SOPA KATILLUA

Baserri bateko mutilla ezkondu zan, eta etxea ipini. Lenengo egunean jaiki ziranean gizonak emazteari itandu eutsan zer nai eban gosaldu. Gizonak erantzun, sopa katillu bat ipinteko, kuskur

brixituekin. Emaztea joan, eta sopak egin eta koipeagaz igortzi zitun. Baiña gizonak, jaten egoala, eta zarataka, andreak entzuteko eran, esan eban:

-Auxe be zoritxarra da ba! sopa katillu bat gertuten ez dakian andreagaz ezkontzea.

Andreak ondo entzun eutsan, baiña ez zan ausartu zegaitik ebillan, edo zer gertaten jakoen sopei uste izan eban koipe gieagogaz naiko ebala, eta biaramonean, barriro sopak gertu eutsazan, eta len koipe koillarakada bat zana, oraingotan koipez betetako bi geitu eutsazan. Baiña gizonak, jaten egoala, barriro be esan:

A zelako zoritxarra dan, katillu bete sopa gertuten ez dakian emaztea gertatea!

Andreak entzun eta igarri eban, baiña berean egoan pentsatzen sopei falta jaken bakarra koipea zala. Origaitik, biaramonean, lau kollara bete koipe jaurti eutsezan, koipeagaitik beint at ez asarretzeko. Baiña ez zan orrela izan, gizona barriro asi zako bardin esan eta asarrea agertzen.

Koipe asko eukelako ez zala asarretzen ikusita, andreak pentsatu eban gieagogaz naiko zitula. Ori orrela, biaramonean katillu bete koipe artu eta beragaz gertu zitun sopak. Azken baten, gizona jaten egoala, esaten asi zan: Jaunari eskerrak sopak egiten dakian andre bat daukalako! Gaur bai dagozala onak!

-Egongo ez dira ba?, erantzun andreak. **Katillu bete koipe bota dautset. Baiña orrela edozeiñek zuzendu lei bizitza.**

Ori orrela, zenbat egun iraungo eban katilluak lenengo egunetan aiña koipe jaurtita?

Ba... gitxienez amabost.

Orrela ba da, egin eidazuz amabost egunetan bape barik, baiña jakin dot ba daukadala sopa katillu ona egiten dakian andrea.

60

KAN PAUTO R REA

Andre zar bat bizi zan Santa Comban, eta ezkondu nai eban; baiña benetan zarra zalako abadea ez zan ausartuten ezkontzako bedeinkapenik emoten, eta bere zalantzatik urteteko, esan eutsan, kanpantorrean jostorrats bat ipiniko eutsala. Eta torretik ikusten ba eben, ezkonduko ebala, baiña ikusten ez ba eban, ezingo ebala egin. Orduan atsoa bégira ta begira asi zan, eta une baten ondoren abadeari esan eutsan:

Ai, abade jauna. Jostorratza ondo ikusten dot, baiña ikus-

ten ez dodana, kanpaitorrea da.

Ainbesteko gogoia eukan ezkontzeko, euki be.

61

GAZTAIÑATAN JOAN NAI EBAN ATSOA

Bein atso bat bizi zan eta bere gogo guztia gaztaiñatan joatea zan. Oéan egoan, eta aize zarata igarten eban, eta esaten ekian:

Erdu, erdu aizea,
eta ez daukanak, euki zaitea.

Goizaldean, egun sentia baiño lenago jaiki zan, eta mendira joan zan. len baiño aize biurrago egoan eta atsoak esan:

Ez ain gitxi, eta ez ainbeste,
atsoa dator eta gaztain eske.

62

ZEIÑEK EROSI AMAGIÑARREBAK?

Bere amagiñarrebaz ondo eroaten ez zan gizon bat, bein berotu eta berea lepoan artu eta merkatura eroan eban, ia an iñor billatzen ete eban bere erosle.

Zeinek erosten ditu amagiñarrebak?- deadar egiten eban gure gizon onak.

Baiña iñok ez eutsan itanduten zenbat balio eban be. Azkenean, ia gaua egitean, eta merkaturia amaitzeko orduan, agure batek itandu eutsan zenbatean emongo eutsan, eta gizonak, geiago pentsatu barik, amagiñarreba lepotik jatxi eta zarrareé nean ipiniaz esan eutsan:

Artu egizu, geiago barik. Zori on bat euki daizula beragaz.

Eta arin be arin igeska asi zan, damutu baiño len eta zarrak bere berba jan baiño len.

63

AITAGIÑARREBA ZARRA ETA ERRAIÑA

Agure zaartxu bat bizi zan bein, etxean semea ezkondu eukana. Erraiña benetan erria zan eta senarrari beti bere ait zalata txarto esaten ebillan, bein zarren egoitzara eroanbear zala ta semaituaz.

Bidean joiazala, arri baten gaiñean jezarrri atsedean pixkat artzen, eta agureak esan eban:

-Jainkoak daki zelan gertaten diran gauzak! Arri onetan bertan jezarri zan nire aita be, zarren egoitzara eroan gendunean.

Orduan semeak buruari ats egin eta oldozkor egon ondoren:

-Biar edo etzi nire semeak be beste ainbeste egin ez dagian!, esan eban eta etxera biurtu zan bere aitagaz.

Eta andik aurrera erregea baiño obeto zaindu eben.

64 **AITAGIÑARREBA ZARRA, ERRAIÑA** **ETA PLATERAK**

Aguretxo bat bizi zan bein. Etxera ezkondata eukan seme bat. Agurea zaartxu zan lez, eskua dardaraka gelditu barik eukiten eban eta plater asko apurtzen zitun.

Agureak plater bar apurtzen eban bakoitzean, erraiña zoro antzera asten zan, eta bere senarrari aitarentzako egurrezko kaiku bat eragin eutsan. Ezkonduak seme txiki bat euken, eta egun baten ol zati bat landuten billatu eben. Zer egiten iñarduan itandu eutsen, eta umetxoak zentzuz beterik erantzun:

-Mairako bat egiten nabil, zuei jaten emon al izateko, aittita lez zaartzen zareanean.

Senar-emazteak ao zabalik geratu ziran, u mearen urteerak ze pentsatu asko emon eutselako. Eta andik aurrera ondo artu eben aita zarra eta besteen antzeko plateretan jaten emon eutsen.

65 **SENAR EMAZTE MOZKORTIAK** **ETA ASTO-EMEA**

Emendik laster egiten dan errian, senar emazteak bizi ziran. Arda u zale amorratu ziran, baiña ezin edan al izaten eben, laster egoan auzoko erri batera joan ezik, taberna antxe egoalako. Biak joan ziran bein eta euken abere bat eurekin eroan eben. Tabernara eldu eta atean lotu eben, baiña andik urtetea ez eben katean billatu. Bere billa urten eta aurreratxuago bidea bitan zabaltzen zan, azkenean etxe aurrean barriro batzeko.

Bakoitza bere bidetik joan eta azkenean, bidea batzean, an ikusi ziran, baiña ez eben alkar ezagutu, eta andreak itandu eu-

tsan ia iñun abere bat ikusi ete eban, eta gizonak erantzun:

Gizon, jo egizu turuta, neu be neurea ezin billatuta nabil-eta.

66

ANDRE MOZKORRA

Senar emazte batzuk bizi ziran, eta andrea beintzat zurrutari on eta mozkor ezaguna. Senarra alegintzen zan makaltasun ori galdu eragiten, eta auzokide bateri itandu eutsan zer egin eikean orretarako. Auzo-lagunak erantzun eutsan ardo zaragi bat erosteé ko, eta mozkortuta ikusten ebanean, onil bat aoan ipini eta al eban ardau guztia bertatik jaurtiteko.

Gizonak orixe egin eban. Ardaua onilletik jaurtiten asi zan, ezaupidea galtzen ebalá konturatu zan arte. Ainbestean gertatu zan ezaupide galtze ori, pentsatu eban illeta gertutea be. Baiña alako baten andrea etorri zan, eta garratz aozkatzen asi zan:

Ai Kasimiro, Kasimiro,
sartu onilla barriro!

67

ANDRE ALPERRA

Alper andi zan andre bat, eta ez eban nai ezelako lanik egin. Eta bizirik lur emotea pentsatu eben. Eta etxe baten aurretik ilkutxan eroiela, biotz oneko andre bat leioan agertu eta dearrez asi zan:

Ez egizue lurpetu, neuk emongo dautsadalako anega bat gari.

Onetan, atso alperrak burua jaso eta itandu eban:

Eta ogia, gordiña ala errea da?

Eta gordiña zala erantsun eutsenean, erantzun eban:

Jarraitu obiratzerá.

68

SENAR EMAZTE NAGIAK

Senar emazte alperrak ziran. Gosez bizi ziran, lanik ez egitearren. Andreak esaten eutsan gizonari:

Ñire Jon, guazen lanera.

Eta Jon asten zan:

Mirentxu nirea, gaur san Biren eguna da.

Eta Mirentxuk erantzun, esanez:

Errazoia da, Jontxu. Gero kalera joango gara.

Beste egun baten, jaiki eta esan eutsan:

Gaur Santa A'ren eguna da.

Orrela, egun guztiak zituen jai, lanik ez egitearren. Gero Jon il
3 n, eta lanik egiten ez eban lez, ez eukan dirurik be il jantzirako,
ta eskillara baten gaiñean eroan eben beian atal batzuk eroiazaa.
a. Eta Mirentxuri esaten eutsan:

Zure santu egun eta jaiekin,
azpitik ipurdia ikusten zuaz.

69

ANDRE BAT ETA TXOKOLATE ONTZA BAT

Abade bat, bere parrokitik urrun egoan ermita batera joan bearrean aurkitu zan meza emotera. Eta ango jendeak txokolaterik eukiko ez ebelakuan, ontza bat eroan eban, eta etxe baten aurretik igarotean, ango andreari eskatu eutsan txokolate a gertuta eukiteko bera meza emon ondoren etorreanean artzeko. Andreak ontza txokolatea artu, eta soka bategaz lotu eutsan sopak egiteko lapikoko tapeari, eta gozaria egiteko gertuten ebillan uretara jaurti eban. Abadea biurtu eta itandu eutsanean txokolatea gertu ete egoan, andreak baietz uste ebalaa erantzun au emon eutsan:

-Baietz uste dot, emendik joan zareanean ipini dodalako eta denpora dalako irakiten dagola.

Onetan lapiko estalkia jaso, sokatik ten eta txokolate ontzak urteten ez ebalaa ikusita, esan eban:

Itxuraz ez dot ontzea sokeagaz ondo lotu. Beragaz ataratearren lotu dot, baiña egon, kutzareagaz beia aztertu eta urtengo dauala uste dodalako.

Ori ikusi eban abadea, atetik urten zan eta andrea kutzareagaz lapikoari eragiten asi zan, eta agertzen ez zala ikustean, bere artean esan eban:

Madarikatua izan bedi deabrua, au bere egitada dala esan leikeéta!

70

AZOKATIK ETORRAN NESKATILLA

Neskatilla bat zan, etxeko andretza egiten ebana. Azokara joan zan, eta an igitagi bat, aunts bat, lapiko bat, oillanda bat eta kipula txorta bat erosi ebazan. Eta bere buruari esan eutsan:

Ai lagun bat billatzeko zoriona ba neu, etxera biurtzeko!

Une onetan, mutil bat etorran atzetik:

Alakoa, itxaron, alkarregaz joango gara-ta.

-Ain zuzen be orixe nai neban.

Eta ain beteta zoazala, ni zurekin sartuko ba nitzake, aldeztuteko eran ete ziñake?

Ai astoko! Igitaiia lurrean sartu,
auntza berari lotu,
oillanda lapiko barruan eskutatu
eta kipuleagaz estaldu,
ori egin giñeikela ez zara konturatu?

71

IZEKO MIRENTXU ETA ERBIA

Gari ebate denpora aldian, Mirentxu segalariei jatekoa eroatera joan zan. Eta bide estu batetik zear, erbi bat ikusi eban lo. Oztzarea basterrean itxi eta estalkien bat berari jaurti orde, zeñeri eskiñiko eutsan pentsaten asi zan.

Bitartean erbia esnatu zan eta oiñak zetako esan eta iges egin eban. Oraindik asarrerik ez dau galdu andra onak eta gogoratzen daki tabernariaren etxean baiño beste iñun konturik ezin leikela egin.

72

ZOROEN KONTUAK

Gizon zoro bategaz ezkondu zan emakume batek, esan eutsan bera merkatura joian artean, txitak zaindu bear eutsazala, bai eta ogia oretu eta umea jagon bear eutsazala.

Berak urtenaz batera, senarra bere zeregiña betetera gertu zan borondate osoz. Txitak bata besteari lotu zitun, igesik egin ez egien. Orduan kabillara bat etorri zan eta danak eroan. Ogia oretuteko, astoari deitu eutsan, eta onek oretuten lagundu bearrean, dana jan eban. Eta umetxoa negarrez ebillan lez, galtz-orratza lepoan sartu eutsan eta ilda itxi.

Emaztea eldu zanean, ze gertatu zan jakin eraso eutsan, eta arek agertu eutsan biaramonetik aurrera bera joan bearko zala merkatura. Biaramona eldu eta metro bat eun emon eutsan, agin-duz, saltzera atarateko, baiña ez saltzeko berba asko egiten eban bateri. Joan zan eta ikusten ebenak itanduten eutsen:

-Zenbat eskatzen dozu eun orregaitik?

Berak erantzun:

Zu ez zara niretzat egoki, geiegi berba egiten dozulako.

Eta orrelaxe ibili zan, eta azken baten eleiza baten sartu zan, eta aldare nagusian egoan santu bateri otoika asi zan. Une baten egon eta ikusi eban ez eutsala berbarik egiten.

-Zu zara, esan eutsan, nik bear dodana.

Eta euna emon eutsan.

Gero etxera joan zan, eta eldu eta laster andreak diruekaitik itandu eutsan. Berak atetik kanpora urtenda, barriro eleizarako bi-dea artu eban.

Eleizan sartu orduko, santuari diru eske asi zan. Konturatu zanean ez eutsala erantzuten, makilla bat artu eta irudi osoa apurtu eban makillaka. Gero amoin-ol bat aurkitu eban eta bertan egoan dirua izan zan emazteari eroan eutsana. Eta onek esan:

-Benetan, gizon, ez dozu ezetarako balio.

73

TXOTXOLOA

Bere amak Pedrafita'ra bialdu eban gazte bat, orratzak e'osterera. Erosi eta bedar burdian sartu zitun. Origaitik bere amak asto deitu eutsan, adieraziz bere txamarrako papar egalean sartu bear zitula.

Urrengo egunean, goldearen agin bat eroatera bialdu eban, eta txamarrako papar egalean eskegi eban. Asarretu zan ama eta esan eutsan soka bategaz lotu bear ebala eta [P'endian eroan. Eta gauza bat bakarrik zuzen egiten ez eutsan lez, erosketak berak egitea erabagi eban eta semea etxean laga. Merkatu egunean bera joan zan eta agindu eutsan berak zaintzeko arrautzadun oi'landa. Mutillak soka bat artu, oillanda samatik lotu eta bere burdian ipini eban, alboan arrautza bi jarrita. Ama eldu zanean, atea zabaltzeko deitu eutsan. Mutilla agertu zan arrautz oskolak praketako ipurdiari itxasita.

JON BURUBAKOA

Denpora asko dala, inguruko erri baten andre alargun bat bizi zan. Jon deitzen zan semea eukan eta bere makaltasunagaitik tonto lapiko deitzen eutsen. Asto andi bat zan lez, bere amak ez ekian zetan erabili, dana okerretara egiten eutsalako.

Egun baten esan eutsan:

-Jon, etorri piñadira, ebagi piñu batzuk eta zabaldu erreka-txoaren gain, zubi antzera, jendea bertatik igaro daiten, eta igaroé ten dan bakoitzari, dirutan edo ta eroan leikien gauzetan kobratu.

Eta orrelaxe egin eban. Zubian jarri eta lenengo igaro zana bedar legorra eroian bat izan zan, eta dirurik ez eukan lez, bedarretan ordaindu eutsan. Jon'ek dastatu eban, ez jakon atsegin izan, eta ibaian bera jaurti eban.

Etjera joan zan eta amari kontatu. Au asarretu eta esan eué tsan:

Ekarri bear zendun.

-Egingo dot ba!

Gero zubira joan zan. Uruna eroian bat igaro zan eta emon eutsan apur bat, eta Jon'ek kortan sartu eban. Pozik joan zan amagana eta zer egin eban autortu. Onek erantzun:

Sakutxu baten sartu bear zendun.

-Urrenguan egingo dot.

Gero koñakagaz igaro zan bat, eta kuartillo bat emon eutsan, eta Jon'ek sakuan sartu eban. Gero artzain bat igaro zan ardiekaz, eta bildots bat emon eutsan, eta au be sakuan sartu eban, eta amaren ondoren joan zan pozarren, egin ebana adierazten. Eta amak esan eutsan:

-Bildotsa soka bategaz lotu bear zendun.

-Ala egingo dot.

Gero andre bat igaro zan koipeagaz, eta bola bat emon eutsan, eta Jon'ek soka bategaz erditik lotu eta tatarrez eroiala, etjera joan zan. Baiña eldu zanean soka besterik ez eroian. Amak, ikustean, zarataka ekiten eutsan egiten zitun tentelkeriakaitik.

Orduan ezkontzea pentsatu eban, ia orrela zerbait argitzen ete zan, eta ezkongai bat aukeratzeko agindu eutsan. Bera pozarren joan zan neskati batengana. Itandu eutsan ze izen eukan. Klotilde zala erantzun eutsan. Eta bide guztian joan zan Klotilde, Klotilde gogoratzen. Baiña arri bategaz mux egin eban, jausi zan, eta izena astu jakon, eta gero arri artean billatzen asi zan, eta bere atzetik joian mutil batek itandu eutsan ze gertaten ete jakon, eta

berak esan eutsan:

-Ba nik Klotilde esaten entzun neban. Bear ba da bera izango da.

Jon'ek, entzun orduko, pozaren pozez salto andi bat egin eta etxera joan zan bizkor, amari esatera. Laster erabagi eben ezkontzea, eta esan eutsan gizon jator **lez** zer egin bear eban ezkontza egunean. Baiña berak okerretara egin eban. Eta bere emazteak, ainbeste lelokeriz artekatuta, gaua baiño len iges nai izan eban beragandik, baiña berak, etorriko ez zalakoan, olakorik ez egiteko eskatu eutsan. Andrea eskatu eutsan lotuta lagateko, eta nai ebanean sokatik ten egiteko, biurtuko zala ta, eta orrelaxe egin eben.

Andrea kanpoan ikusi zanean, lokarrietatik askatu zan, eta auntz bat lotu eban.

Berak, gau eginda gero, eritxi ebanean, sokatik tengadaka asi zan, eta auntza ikusi ebanean, amari garraxika asi zan esanez bere emazteak adarrak eukazala eta bizarrak, auntz baten antzera. Amak esaten eutsan:

Itxi egidazu lo egiten.

Baiña bera, zarataka, ixildu barik:

Nire andrea auntza da.

75

MORROIAREN BILLA EBILLAN NAGUSI ZOROA

Bein, nagusi bat, morroi baten billa ebillan. Eta azken baten eldu jakon bat.

Agindu eutsan lenengo.gauza au izan zan: burdiñazko zati bat artu etxeke egaletik tengadaka asteko.

Morroia izututa geratu zan agindu orregaz eta erantzun eutsan:

-Jauna, ezin nei ori egin, bestela etxea beratuko dodalako.

Zuk ez dozu balio nire morroitzako, -esan eutsan, kanpora bialduz.

Morroia joan zan, eta bere anai bateri agertu eutsan ze gertatu jakon. Arek esan:

Ai, koitadu, zegaitik ez zendun egin bear agindutakorik?

Eta bera gertu zan orrelako nagusi baten morroitzarako.

Lenengo agindu eutsana, anaiari agindu berbera izan zan, au

da, burdin zati bat artu eta etxe egaletik tengadaka astea.

Zetan diarduzu gizon?

Zu-zeuk agindua beteten, jauna.

Orain, esan eutsan, burdi bat billatu egizu eta burkada bat egur zuzen ekarri.

Morroia joan zan burdiagaz, egozan gaztain barrietatik one-nak ebagi eta eurekin biurtu zan.

Baiña, gizona, zer egin dozu?

Zuk agindua, nire jauna.

Ba orain, geitu eutsan, joan zaite eta beste burkada bat egur oker ekarri.

Burdia artu eta joan zan, ibai ertzero, eta an egozan mats ondo eta parrelak batu eta burdia ondo beteta biurtu zan,

Ai gizon, zer egin dozu? -barriro be nausiak.

Eta nausiak pentsatu eban: Morroi onek nigaz amaituko dau. Lenago neuk amaitu daidan beragaz.

Basamortuan eukan bere etxe batera joateko agindu eutsan. An aur-jale (ogro) bat bizi zan, eta lenago be ainbat morroi il ziran an. Bertara eldu zanean, morroiak ikusi eban aur-jalea bizi zala bertan, eta gela baten, aurrerago bialdutako morroi bi ilda egozala.

Morroi barria bertan sartu eta lotarako geratu zan, baiña berealako baten jaiki eta illetako bat artu ta bere tokian laga eban, eta bera illa egoan tokira aldatu.

Gabean aur-jalea sartu zan gelara, burdin lerro bategaz, eta illari sekulako zamtadea emon eutsan, bizia zalakoan.

Goizean morroia jaiki zan.

Egun on.

Ene ba, ez zendun atzo zamtada andi bat entzun?

Ba! Zorri baten oinkada zan!

Eta nausiarengana biurtu zan, osasunez eta aske.

Nausia morroi a !Itera gertuta egoan, eta txarriekin basa leku zabal batera bialdu eban, an basatzen sartuta bera eta txarriak illa geratu eitezan.

Baiña morroia ez zan basatzen sartu, eta txarriak merkatuko tratulariei saldu eutsezan, baldintza bat ipinita: Aurrez buztanak kendu bear eutsazala txarri guztiei.

Orrela egin eta gero txarri-buztanak basatzen sartu zitun, eta

nausiarengana joan zan, txarriak basatzen sartuta egozala, eta atara egin bear zirala ta andik aldatu.

Nausia joan zan, eta buztanak aidean ikustean, sinistu eban. Atxur billa bialdu eban etxera, txarriak basatzatik atarateko. Orduan morroiak ugazabari esan eutsan bera aiñako argia zala. Txarriekatik artu eban dirua zala ain zuzen be berari zor eutsana, eta ordaindu edo ta aske lagateko bidea bete egiala.

Agurtu eta joan zan.

76

TXOTXOLOA ETA ERRALDOIA

Bein anai bi ziran. Bat argia zan eta bestea txotxoloa. Bein argia ardiekin mendira joan zan, eta an erraldoi bat ikusi eban arri bat artzen, esaten eutsan artean:

-Ikusi zer egingo dodan. Eta arria esku bien artean artu eta apurtuta laga eban. Mutil argiak bildurra artu eutsan eta etxera iges egin, ardiak mendian lagata. Eta amak esan eutsan:

-Zer gertatu da? Nun dagoz ardiak?

Eta amari agertu eutsan mendian laga zitula, an erraldoi bat ikusi ebalako, bildur asko sartu eutsana.

Orduan txotxoloak esan:

Neu noa orain.

Eta mendira joan zan, eta erraldoia ikusi, arria artu eta atzamar artean desegiten, eta bera be etxera joan zan igesi. Eta etxera eldutean, amari koipe bigun apur bat eskatu eutsan. Mendira joan zan, an erraldoia barrero ikusi eta onek esan:

Onera ba zatoz, auxe egingo dautsut, eta arria austu eban sku artean. Gero txotxoloak bere aldetik esan eutsan:

Ba, ikusten ba dozu, nik be auxe egiten dot. Eta koipea esku artean estutu eta desegin eban. Erraldoiak, ori ikustean, itandu eutsan nai ete eban bere morroi joan, eguneko milla peseta ordainduko eutsazala, baiña danean irabazi bear ebala, edo bestela ilko ebala.

Txotxoloak danari baietz esaten eutsan. Gero erraldoiak bere aldetik:

-Biar aitz orreri zaxtada bat emotera joan bear gara eta ikusi zeñek egiten daben azpirago zulo bat.

-Txotxoloa negarrez asi zan, baiña gabaz etxera joan zan ardiak eroatera, eta amari paper bat eskatu eutsan, zizel bat, matraié

llu bat eta erraldoiak esan eban aitz ingurura joan zan, eta gau guztian zulo bat egiten ibili zan, eta egin be bai, ukondorarte bertan besoa sartzeko aiñakoa. Eta gero, papera ipini eutsan gaiñean, ez ezagutzeko eran, eta bere tresnak etxera eroan zitun. Geroago erraldoiaren albora joan zan lotara, eta ixil ixilik sartu zan ez igarteko eran.

Goiza eldu zanean, biak joan ziran aitzera zagtada baten zeñek zulo andiago egin jokatzerara. Eta erraldoiak esan:

Ni ala zu lenengo?

-Ni, esan eban txotxoloak.

Eta esan eta bereala papera eukan tokian ukabilkada bat emon eban, eta ukondorarte sartu eban besoa. Gero erraldoiak bardin egin eban, baiña eskuturrerarte eldu eta atzamarrak apurtu zitun. Eta morroiari esan:

-Zelan egin dozu zuk?

Nik? Jota!

Egun aretan irabazi zitun milla pesetak, eta bere amari eroan eutsazan. Urrengo egunean erraldoiak esan eutsan:

Biar ia zeñek piñu geiago beratu zartada baten, jokatuko dogu.

Gau aretan, txotxoloa amarengana joan zan, eta zerra bat eskatu, mendira joan eta sei piñu zerratu zitun, eta azala zerratutakoak estalduta laga zitun. Etxera biurtu zan zerra lagatera, eta andik erraldoiagaz lo egitera, eta au ez zan konturatu.

Goizetik urten eta piñu ebatera joan ziran, eta erraldoiak esan:

Zein lenengo, ni ala zu?

Eta txotxoloak:

Ñeu.

Piñu bat jo eta zazpi beratu zitun. Eta erraldoiak iru bakarrik, eta esan eutsan:

Deabru berbera zara zu, origaitik irabazten daustazu. Ikusiko dogu biar, sopa jaten nor geiago izaten dan.

Eta urrengo egunean sopa jaten asi ziran. Txotxoloak zazpi katillu iruntsi zitun eta erraldoiak amalau. Orduan txotxoloak:

Geiago jango doguz?

Eta erraldoiak erantzun:

Eta gero? Niretzat asteko be ez dira izan.

Eta geiago jan ezik il egingo nazu?

-Eriotza baiño ez da geratzen, nik baiño geiago jan ezik.

-Gero txotxoloa, erraldoia konturatu barik, mendira joan zan, basora, eta an zezen bat il eta urdailla kendu eutsan, eta alkondarra azpian eskutatu eban, eta barriro sopak jatera joan zan. Erraldoiak amasei katillu jan zitun, eta txotxoloak ogei ta amabi, eta esaten eban oraindik geiago jan eikezala; baiña ez zan bere sabe sartzen zituna, zezenaren baiño. Erraldoiak esan:

-Beste milla pesetak irabazi daustazuz. Baiña orain galdu egingo dozu. Eta ilgo zaitut. Ikusi daigun, arin- aringan, zein dan geiago.

Eta urrengo egunean zelaiari bost osteria egiten asi ziran. Lenen amaitzen ebanak, irabaztekotan. Erraldoia ariñago ebillan. Txotxoloa zelai ertzera eldu orduko, erraldoiak osteria bi eginda eukazan. Andrazko bat ebillan an sega txiki bategaz garagarra ebagiten, eta txotxoloak eskatu eutsan, eta gero, erraldoiaren aurrera joan eta esan:

Orain nire sabela ebagitera nua, ariñago ibilteko.

Eta sabela ebagi orde, eskutauta erabillan zezenaren ebagi eban, eta ariñago ebillan.

Eta erraldoiak be, ori ikusita, igitagia eskatu eutsan andreari, eta bere sabela ebagi eta il zan.

Eta azkenean, txotxoloak irabazi eban.

77

KOKOLOA ETA ARGIA

Urruneko errialde baten, aita bat bizi zan. Seme bi eukazan, bata argia eta bestea kokoloa. Beartsuak ziran lez, argia munduz zear bialtzea erabagi eben, baiña kokoloak ez eban geratzerik nai, eta bera be anaiagaz joan zan. Ibili ta ibili, ondo egindako ataka bat eukan zelai batera eldu ziran, eta kokoloari buruan sartu jakon atea lepoan artu eta eroan bear ebala. Bere anaiak, alegiñak egi

asmo ori kentzerik lortu ez ebalako, berak lepoan artu eban.

Gaba illuntzean, arizti batera eldu ziran, eta antxe igaro eben gaua. Bildur asko euken eta aritz batera igo ziran baketsuago lo e^litera, baiña kokoloa ez zan gelditu ateka aritz tontorrera igo barik, eta antxe zabaldua bere gaiñean lotan geratu zan.

Gitxien uste ebenean, lapurrak eldu ziran eta aritz oiñean osutako dirua banatzen asi ziran, ortarako zabaldu eben manta baten gaiñean. Taldean besteak baiño barriago zan lapur bat egoan,

eta gitxiago emon nai izan eutsen, baiña berak asarrea agertu eta zemaitu zitun, esanez:

Jainkoak nai dagiala oraintxe bertan tximist eta zentellak aritzaren zear jaustea!

Anai biak bekoen zarateagaz esnatu ziran, eta txotxoloak bere atea artu eta adar artetik zear bera jaurti eban. Lapurrak, zarata ori entzun ebenean, txikiak eskatutako tximista eta zentellak zirala pentsatu eben eta itsu- mustuan iges egin eben, gesean, konturatu barik, ariztiari birarik egin barik.

Anai biak aritzetik beratu eta manta gaiñean ikusten eben ainbeste urregaz ao zabalik geratu ziran. Jainkoak agintzen daben lez bien artean banatu eben, eta aberastuta biurtu ziran etxera, kokolari esker.

78

BOTIKARIOA, ATZERATUA ETA EULIAK

Erdi atzeratutzat euken gizon bat sartu zan bein botika baten eta botikarioari esan:

Ene bada! Zenbat euli dagoz emen?

Benetan, erantzun botikarioak- eta ilten dozuzan bakoitzeko dukat bat emongo dautsut.

Gizonak botikan egozanak lekukotzat ipinita, euliak ilteari emon eutsan, eta seireundak il zitun.

Botikar oak bana-banaka begiratu, eta aldebanatzen joan zan, esanez:

Au eltxoa da.

Geiago ikusi, banatu eta bardin esan: Au eltxoa da. Eta orrelaxe danak. Danak ziran eltxoak, bat be ez eulia. Jakiña, ez eban dirurik atara eta danak barrezka geratu ziran.

Baiña gizontxo arek erle-ontziak eukazan, eta urtero bialtzen eutsan eztia botikarioari dastatzeko. Orrela, urte aretan be bialtze-ko denpora eldu zanean, kortara joan zan, eta beien kaka zirin apur bat batu eta eztiagaz naastu eban, orrela botikarioari urteko oitura beteteko.

Aldi bat igaro eta-gizontxoa joan zan botikara, eta botikarioari itandu eztia atsegin izan ete jakon.

Botikarioak erantzun:

-Gizon, aurtengoa ez zan ain ona. Parkatu, baiña kaka zala be

irudia n.

Euki be ba eukan-eta!, esan eutsan gizontxoak. Baiña gizon euli ar eta emeak banatzen dakianak, obeto jakin bear Zeuke kaka ezitik banatzen.

79

ZOROAREN AUTORTZA

Bein zoro bat autortzara joan zan eta abadeari esan eutsan:

Abade jauna, ortik diñoie garizuman aragia jan dodala eta pekatu egin dodala.

Eta abadeak:

Bai, pekatu astuna.

Orduan, -barriri itaunka- eguenetik bariku bitartean agin artean geratzen dana jatea pekatu da?

Eta abadeak:

Ori ez, txo. Ori nasai jan zinei.

Orrela, nik be jan neike atzo nire gogoz agin artean itxi neban urdai zatia.

80

ZORO BAT ERROGATIBETAN

Zoro bat udako denporan igandero eleiz inguruan ango abadeak egiten zitun errogatibetan ebillan. Eleiztarrak erantzuten eben:

Te rogamos exaudi nos.

Eta zoroak oker ulertu eta erantzuten asi zan:

-Zurratako prest gagoz, zurrateko prest gagoz.

Angoak barrerik ez egien, alboan eioan gizon batek esan eutsan:

Gizon, erantzun egizu besteen antzera.

Eta zoroak entzungor egin eta erantzuten asi zan:

Nik besteak lez. Nik besteak lez.

Zuzendu ezin ebala ikusita, gizonak asarretuta esan eutsan:

Ba, besterik ezean esan egizu deabru andi lez!

Eta abadearen esan bakoitzari, zoroak errogatiba amaitu arte erantzutenjarraitu eban:

Nik deabru andi lez. Ñik deabru andi lez.

Meza asi zan. Danen aurrean andre bat egoan, eta atzean gi-

zon bat esku-makilla bategaz. Dana ondo, sakristauak abadeari kasulla pixkat igo arte. Orduan, zoroak, bardin egin nairik, aurrean eukan andra bateri bere gonea jaso eutsan, eta atzean egoan gizonak makillakada bat emon eutsan buruan. Zoroak, atzera begiratu barik, berak be eukan makilla artu eta aurrean eukan gizona jo eban. Onek atzera begiratu, nor ete zan ikusteko, baiña zoroak bereala esan eutsan:

Aurrera, atzetik dator-eta!

81 JOSUTXO

Baserri baten Josutxo deitzen eutsen ume bat bizi zan. Ez zan argia, esateko.

Bein libra bat oriotara bialdu eben. Baiña nun saltzen eben ez ekian lez, amak esan eutsan jendeari geien sartzen ikusten eban tokian sartzeko. Bidean joiala, mezatarako asmotan joian jendea ikusi eban eleiz aurrean, eta bera be ara joan zan. Abadea sermoia egiten asi zanean, esaten ebillan:

-Zetan etorri zan Jesus mundura?

Ori entzun eta Josutxuk erantzun eutsan:

Libra bat orio billa.

Orduan, abadea, asarre, deadarka asi zan:

Ekarri egidazue animala ori.

Eta Josutxu txikia abadearen txakurra artzera joan zan eleiz atadira, an egoan aritz bateri lotuta-eta, eta aldare oiñera eroan eutsan abadeari.

82 JOSTUNAREN ANAIA

Jostun batek anai tentel bat eukan eta egun baten okurridu jakan eroan egiala neskakin ibiltera. Jostunak esan eutsan ezin eikeala ori, berari neskaren etxean jaten emoten eutselako, eta eroaten ba eban, lotsatuta lagako ebalako. Tentelak erantzun eutsan ez ebala txarto lagako, bere alboan jarriko zala, eta geiago jan ezin ebanean, ainkaz joteko eta bereala geratuko zala, eta edozer egonda be geiago ez ebala jango.

Orrela anai biak joan ziran jostunaren neska lagunaren etxera, eta jaten emon eutsen, eta laster esan eban ez egoala ondo, eta jaten asi orduko, bat batean geratu zan, eta alegiñak egiñarren be, ez eben aoan sartzerik lortu, anaiak jateko esan be. Etxekoak ika-

ratuta geratu ziran, mutillak jateko artean zerbait billatu ebalakoan. Jostunak, argia zalako, laster igarri eban etxekeon estutasuna. Orrela, andik urten ebenean eta etxetik aldendu ziranean, anaiari paparretik oratu eta asarretuta esan eutsan:

éBete betekoa zara. Ba nekien txarto lagako ninduzala, lotsatuta. Zegaitik ez zendun jan nai agindu dautsudanean? Gugaitik zer esaten geratuko ete ziran?

Tentelak erantzun eutsan, jateari laga ba eutsan, ainka zapaldu eutsalako zala, aurrez erabagi eben lez. Baiña jostunak, gero ta asarreago, erantzuten eutsan:

-Ze ainka eta ze ipurdi! Zuri zapaldu eutsuna katua izango zan, mai azpian ebillalako.

83

JON ETA OIÑETAKUAK

Erromerira joan al izateko oiñetako batzuk eroatera joan zan Jon, eta dendariari itandu eutsan zenbat balio eben ogei ta amazapi zenbakikoak. Dendariak erantzun eun peseta balio ebela. Orduan Jonek zenbat balio eben berrogei ta bost zenbakikoak. Eta dendariak erantzun, bardin balio ebela.

-Ekatzuz ba berrogei ta bostekoak, gaiki geiago daukelako.

Erromerira joan zan Jon, oiñetako barriak jantzita. Baiña bi-deak arriak eukazan. Origaitik oiñetakoak kendu zitun, ez ondatzeko. Ezelako ardura barik ebillala, arri bategaz topo egin eta anketako beatzak zulatu zitun. Eta orduan, bete-betea esan eban: Zer izango ete zan nigaz, oiñetakuak aldian erabilli ba neuzl

84

MORROI KOKOLOA ETA TRENA

Ardi talde bat eukan artzaiña bizi zan. Sekula trenik ikusi baé gako morroi bat artu eban, eta tren bide egalean eukan korta baten ardiak gordetera bialdu eban.

Ordu batzuk igaro eta morroia etxera eldu zan, estu eta larri, eta ugazabari esaten:

-Ai jauna, nagusi jauna, trena etorri da ni ardiekin nebillala, eta bederatzi il ditu, eta eskerrak gaiñera aurrez etorri dala. Egale-tara etorri ba litz, danak zapaldu eta ilgo zitun eta ni neu be eurekin.

85

SEME BALDRASA

Atso zaartxo bat zan, alaba monja eukana eta erdi-baldras zan semea.

Bera ilteko ordua eldu zan, eta semeak, etxean egoana bera zan lez, arrebari idatzi eutsan amaren illetara etorteko, eta gaiñera berak ordaintzeko eleiz-gizonei berak ez eukalako txori txiki batik be.

Laster agertu zan monjatxoa etxera, eta primerako illeta egiteko agindu eban, dana berak ordainduko ebala-ta.

Alaxe egin be. Baiña ordaintzerakoan, berak iges egin eban, eta mutillak, (len esan dogun lez baldrasa zalako) ordaintzeko eskatu eutsenean jardetsi eban:

Ordaindu dagiala azeri lako nire arreba orrek.

Zoratuta zagoz zu. Zelan deitu leike orrela Kristogaz ezkondu-ta dagon emakume bateri?- esan eban abadetako batek.

Edo ta, orrela ba da, nire koñatuak ordaindu dagiala.

86

TRASKODUN JON

«Traskodun Jon» ezkontzeko zan eta aari bat eroan bear eban ezkontzarako. Kortan eukan onena artu eban. Burditxoan ipini eta ezkongaiaren etxera zuzendu zan. Aurretik gizon bat joian. Eskuan oiñetako barriak eroiazan eta bat galdu egin eban. Jon, aé tzetik eioalako, oiñetako artu eban, baiña bakarra zan lez, artu eta laga egin eban, ezetarako balio ez eutsala gogoratuz. Aurrerago beste oiñetako bat ikusi eban, eta bidean geratu zan lengoaren billa joatea pentsatu eban. Eroian aria otzara bateri lotu, eta oiñetakoaren billa asi zan.

Onetatik biurtu zanean, aaria alde eginda egoan, oiñetakuak galdu zitunak eroan ebalako. Au eskutatu zan, eta bere eskutalekutik «mee-mee» egin eban. «Traskodun Jon»ek pentsatu eban aaria zala, berak txarto lotuta laga ebana, eta bere billa joan zan, baiña andik biurtzean oiñetakoak aldendu jakozan.

Etxera joan bearra euki eban, beste aari bat artzeko, eta lengo tokira eldu zanean, lengoaren billa asi zan barriro, eta biurtzean, bigarrena be alhenduta eukan, eta irugarrenaren billa etxera joan zan, ain zuzen be geratzen jakon azkena.

Eta lengo tokira eldutean, an egoan eskutatuta oiñetakoak

galdu zituna, eta arek trasko bat beestearen aurka joten erabiliaz, ari-topeka antzeko zarata ataraten eban, eta Jon'ek pentsatu eban lenengo aari biak izango zirala eta euren billa joan zan, gero irurak batera eroango zitun ametsez. Baiña biurtu zanean, irugarrena be aldenduta eukan eta Traskodun Jon gixarajua aaririk eroan barik ezkondu zan.

87

SAN ANTONIO'REN ZALEA

San Antonio'ren zale bat noiz ilgo geratu zan, eta ezin ibilita oean egoala, egun baten beartsu batek atea jo eban, ukar eske. Ñeskameak urten eta zer nai ete eban itandu eutsan. Beartsuak esan eban, anega bat gari emoten ete eutsen eskean ebillala. Ñeskameak itandu eutsan ez ete zan geiegi eske baterako ainbeste gari, baiña eskaleak eskatu eutsan etxeko jaunari jakin erasoteko.

Ñeskamea sartu zan barrura eta agertu eutsan nausiari beartsuak zer nai eban, eta nausiak esan eutsan:

Ia ba, emakume, emon egiozu, ainbeste eskatzen dabenean, premiña be alakoxe eukiko daualako.

Ñeskamea atera biurtu eta eskaleari esan eutsan:

Zori ona euki dozu, nausia onean dago eta emoteko agindu aaust. Ia, ekatzu saku ori.

Mesedea egiten asi ezkerro, sakua be emon bear daustazu, eroateko ezer ez dodalako ekarri.

Neskamea asarretu zan eta esan:

Ori da gibela eukitea. Anega bat gari eskatu eta gaiñera sakua be norberak emon bear.

Esan ba, nausiari, erantzun eutsan beartsuak.

Neskatilla barriro nausiagana joan zan, eta agertu eutsan beartsuak ze eskabide eukan, garia eta gaiñera sakua nai zitula, ez ebalako olakorik ekarri.

Ondo da, -erantzun n'ausiak. Barri bat emon egiozu, garia galtzen joan ez daiten ortik zear.

Garia sakuan sartu ebanean, beartsuak esan eutsan neskameari lagunduko ete eutsan aurreratxoago eroaten, berak indar gitxi eukalako.

Zer pentsatuta zabiltz, gizon! Esan bearra be! Anega bat gari eskatu, sakua be iñok emon bear, eta orain eroatea be nai. Eta

besterik ez, gizon?

Mesedez, emakume. Esan nausiari, joaten lagaten ete dau-tsun.

Neskamea barrero nausiarengana joan eta jakin eraso beartsuak orain zer eskatzen eban, pentsaturik bera be gogaituko zala ainbesteko eskabidez, eta aizea artzera bialduko ebala, baiña nau-siak esan eutsan:

Berak eskatu ba daustu, lagundu egiozu eroaten. Bear ba da gaixo egongo da eta sakurik ezin eroan.

Neskak sakua artu, eta une baten eroan ondoren, beartsuak agindu eutsan geratzeko, eta esan, etxera biurtzeko eta arin ibilte-ko, etxeko jauna bizirik ikusi nai ba eban.

Beartsua saku gaiñean jezarrita geratu zan, eta andik laster, etxetik erbi bat urten zan eta bere atzetik erbi-txakur bat. Orduan jaiki eta erbi-txakurrari deadar egin eutsan:

Laga egiozu, laga egiozu, au neurea da ta.

Erbi txakurra geratu eta jardetzi eutsan:

Ori ikusteko dago.

(Erbia etxeko jaunaren arimea zan, eta erbiétxakurra deabrua, eta beartsua san Antonio).

Ekintza on eta txarrak pixatzen asi ziran, eta oneik pixu geiago eukelako, deabruak esan eban:

Ez neutzun esaten? Au neurea da.

Orduan san Antonio'k erantzun:

Eta gari saku au?

Gari aleak zenbatuten asi ziran, baiña ez ziran elduten. Eta or-duan san Antonio'k:

Eta sakuko ariak?

Sakuko ariak zenbatu zituen eta ez ziran elduten. Origaitik san Antonio'k:

Ta neskamearen ibillerak?

Oneik zenbatu zituen, eta orduan sobre geratu ziran, eta zan Antonio'k beragaz geratu eban bere zalearen arima.

SAN PEDRO ETA GUDARIA

San Pedro'ren benetako zale zan gudari bateri gure Jaunak irten eutsan bein, eta berak geien nai zitun iru gauza eskatzeko lta emongo eutsazala. Gizona oldozkor geratu zan, eta alako baten, lenengo osasuna nai ebala, agertu eban.

-Eukiko dozu, esan eutsan gure Jaunak.- la bigarrena.

Ba... bigarrena... bigarrena... bizitzako premiñazko dana beti eukitea.

Ori be eukiko dozu, barriro gure Jaunak. Eta irugarrena?

Gizona ,pentsaten geratu zan, eta onetan egoala, bere atzean san Pedro agertu zan, zerura begiratzeko esaten; baiña gizonak naastu egiten ebala ikusita eta pensaten ez eutsala lagaten kon-turatuta, san Pedrorengana asarre biurtu eta esan eutsan:

¡ Ixildu zaitte, antxume bizartsu, odeietaz ez dot ezer ulertzen-eta.

Eta pensaten jarraitu eban, eta azken baten esan:

-Ba irugarren gauza au da, nire kurloia sartzen dan toki guz-tietan sartzeko almena.

Gizona ilteko eguna eldu zan, eta zeruko atean agertu zan. San Pedro atera urten eta ikustean esan eutsan:

Zu zetan zatoz orain ona? Ez zara gogoratzen zure etxean zelan egiten neutzuzan zerura begiratzeko agergarriak, eta zuk ja-ramonik ez? Orain joan zaitte nai dozun tokira, emen sartzen ezin daiketsudalako itxi.

Gizona oldozkor geratu zan, eta azkenean, joatera gertuta ikusi zanean, san Pedro'ri esan eutsan:

-la ba. Ezin zeinke, besterik ezean, atea pixkabat zabaldu, ba-rruan zer ete dagon ikusteko?

San Pedro'k atea zabaldu eban bere zaleak ikusi egian zer galtzen eban, eta orduan, gizonak, denporarik galdu barik, atea za-baldu orduko, bere txapela artu eta barrura jaurti eban. Eta Jaun-goikuak baimenduta eukan lez bere morriona sartzen zan tokira sartu eikeala, San Pedro'k ez eban beste erremediorik euki barru-ra sartzen lagatea baiño.

89

GUARDI ZIBILLA ETA SAKRISTAU ETA SAN PEDRO

Ba zan bein guardi zibifla izana, eta il zana, lurrean benetan zitala izan ondoren. Zerurako bidean joiala, a be bertara eioan bere lagun sakristauagaz topo egin eban. Guardia okerra be okerra izan zalako, ez eukan itxaropen andirik zeruan sartzeko eta sakristaua eta bera bidean zear san Pedro zelan atzipetu pentsaten joan ziran, sartzen lagateko.

Sakristaua zerutar gauzei lotuago bizi izan zan eta pentsaten eban erraz lortuko ebalak bertak sartzea, eta bere laguna sartzeko pentsatu eban onena izango zala bere lepoan artzea, orrela biak batera sartzeko.

Orrela eldu ziran zeruko atera, eta dei egin eben. San Pedro'k itandu ebanean zein ebillan deiez, guardiak erantzun eban:

Zaldi gaiñeko guardi zibilla.

San Pedro'k erantzun: Guardi zibilla igaro daitela, baiña zaldia lagata.

Bereala sartu zan guardi zibilla *zeruan*, baiña sakristaua kanpoan geratu zan, ao bete atsekabez, zaldiak ezin diralako zeruetan sartu.

90

I RU TXAKUR TXIKI

Zeruko atera eldu zan bat bein, atea jo, baiña san Pedro'k ez eutsan sartzen laga nai, ez ebalako ekintza onik egin munduan.

Ñok diño ezetz, neuk bein beartsu bateri iru txakur txiki emonda?

Orrela ba da, gero itanduko dausat gure Jaunari.

San Pedro tronura urreratu zan eta itandu eban igaroten lagako ete eutsan.

-Eta zer egin eban onik?

Beartsu bateri iru txakur txiki emon.

Eta zer geiago?

-Besterik ez.

Orrela ba da, biurtu berari iru txakur txikiak eta doala inpernura.

91

AUZILARI BAT

San Pedro'ren zaletasun andia eukan auzilari bat il zan bein, eta santuak, laguntzearren, esan eutsan bere adiskide zalako zerura eroango ebala. An egun bitan egon zan, eta irugarrenean san Pedro ikustera joan zan. Ikusiagaz batera esan be bai:

Au da au daukadan laguna. Nora ekarriko eta txiki eta aingeruak besterik ez dagon tokira, azken baten ipurdiko bana be zeineé ri emon ez dagon tokira.

Geldi, gizon, geldi, erantzun eutsan san Pedro'k. Emen pozik ez ba zagoz, beste toki batera eroango zaitut.

Eta Garbitokira eroan eban. An beste egun bitan euki eta ikustera joan jakon. An pozago ete egoan itandu eutsanean, auzilariak érantzun:

Atara nagizu arin emendik, jende au lengoa baiño okerrago dalako. Egun guztia eskuak batuta igaroten dabe, eureri zigorren bat emon aurretik, parke eskatzen.

Andik inpernura eroan eban, eta beste egun bitan an laga, eta irugarrenean ikustera joan zanean, barriro zerura eroateko eskatzen egongo zalakoan, zelan egoan itandu eutsanean, adiskideak erantzun:

-Au beste gauza bat da. Emen artzen da, baiña emon be bai.

92

SAN PEDRO BETI IZAN ZAN BARRABANA

Jesukristo mundutik zear ibili zanean, egun baten San Pedro'gaz ebillan, eta ostatua eskatu eben etxe baten, eta oe bat emon eutsen lotarako. Goizean etxeko jaunak deitu eutsen, baiña egun aretan Jesukristo nekatuta egoan eta lo jarraitu eban. Etxeko andreak, ez zirala jaiki ikusita, barriro deitu eutsen, baiña eurak lotan jarraitu eben, eta andreak eskale alperren batzuk ziralakoa, makilla bat artu eta oraindik lo egozala ikusita, errietan egin eta makillada batzuk emon eutsezan, jaiki eitezan, egalean egoan Jesukristogandik asita. Baiña benetan nekatuta egozalako, orretara be ez eban lortu jaiki eragiterik. Andik laster, gizon bat ikusi eban gozaltzeko, eta itandu eban ia beartsuak joan ete ziran eta andreak erantzun:

Nora areik joan! Oraindik oean dagoz, Joan zaitetz bertara eta emon ederrak, ia itxartuten ete diran. Eta gaiñera beste albotik asi, emengoari len emon dautsadalako batzuk, eta ainbestean

geratu.

San Pedro itxartuta egoan eta entzun egin eban jardunaldi ori, eta Jesukristori esan eutsan:

-Maixu jauna, esnatu eta aldatu nire beste aldera, senarra las-ter datorralako beste makilla bategaz guri jaiki eragitera.

Jesukristo beste aldera aldatu zan, eta san Pedro al bestean bastertu zan, eta gizona agertu eta asarre asi zanean, eta makilla artuta joten asi, berari ikuturik ez egiteko eran. Orrela san Pedro zurrialditik aske geratu zan eta Jesukristo gixarajuak astiñaldi bi artu.

93

AMA BIRGIÑA ETA AZPILLA

Esaten da, aize egun baten, Ama Birgiñari bere lepokoa aizeak jaso eta azpil baten adarretara eroan eutsala, eta Ama Birgiña bertaratu orduko, aizeak barriro jaso eta goratu ebala.

Gero lar batzutara eroan ebala eta an adarkatuta geratu, Ama Birgiña artzera eldu arte. Ama birgiñak, esker onez, sasi edo larretari esan eutsala:

-Zuk sagarrak emon al izango dozuz, baiña zuk -azpillari- kaka-pikorrak baiño ez dozuz emongo.

d) ASMAKIZUN ETA IGARKIZUN IPUIÑAK

94

JON ETA ERREGEAREN ALABA

Errege baten alaba ezkongai bizi zan. Eta agindu eban ezkonduko zala berak igarri ezin aiñako igarkizun bat ipinten eutsana-gaz, baiña era berean, urkamendira zemaitzen zitula berari zerbait ipini eta igarten zituenak.

Ezkongai ugari agertu jakozan, baiña geienak urkatzen zitun, errez igarten eutselako berari agertzen eutsezanei.

Baserri baten, inguruko astorik kirtenena lako zan mutil bat bizi zan, eta areri be buruan sartu jakon erregearen alabeari eskabidea egitea. Bere anaiak, lotsatu ez egiezan be, ildakotzat emoten ebelako, alegindu ziran ez joateko esaten, Baiña ikusi eben burutik ori ataratekorik iñor ez egoala, eta inguruko astorik andie-

na zan euren anaia errege alabaren maite-eskale zala ta lotsaririk ez eroatearren, jateko eroian opil bat pozoitu egin eutsen.

Jon oso-osokuak, Marta izendun eukan asto-emea artu eban, eta beragaz asi zan errege jauregiko bidean. Bide mordo bat egin-da gero, lo gurea igarri eban. Astoari zorroak kendu, eta lotan geratu zan. Bizi zan artean astoak bere opilla jan egin eutsan eta pozoituta egoan lez, laster il zan.

Jon itxartu zanean, gaua zan, eta iru otso ikusi zitun astoa jaten. Bildurto zan eta itsu-mustuan an egoan zuaitz batera igo zan, eta zuaitz adarretatik tiro bat jaurti eutsan otsoari, eta otsoa jo bearrean, inguru aretan ebilan erbi bat il eban.

Egun sentian, zuaitzetik beratu zanean, otsoak be ilda ikusi zitun. Il eban erbia artu eta Pasku batzuk baiño pozago bidea asi eban. Andik laster ermita bat egoan. Sartu zan, eta meza-liburuko orriekin sua egin eta erbikuma bi barruan eukazan erbia erre eban. Erbi eta erbi kumeen aragiak egarri asko emon eutsan lez, urbedeinkatu ontzira joan zan eta ainbeste edan eban. Bitartean trumoi ikaragarri bat eta ondorengo ur-erioak, astoaren ondakiñak errekan bera eroan zitun. Euria geldi edo atertu zanean, barriro asi zan Jon bere bidean, eta zubitik igarotean, bere astoa zubi azpitik igaroten ikusi eban, gaiñean zazpi erroi baltz eroazala, berari piko-ka.

Erregearen alabarengana eldu zanean, asmakizun bat ipini eutsan, berari gertatutako gauza guztiekaz. Asmakizuna onela zan:

Ogiak Marta il, eta onek ilda gero beste iru il zitun. Ikusi nebarnari tiroa jaurti, eta ez nebana il neban. Sortua eta jaio bakua jan neban, Espiritu Santuaren berbakin erretea. Ez zeruan eta ez lurrean egoan ura edan neban. Gauza bigun baten gaiñean egoan gogor baten igaro nitzan, eta il baten gaiñean zazpi bizi ikusi nitun kantari.

Eta erregearen alaba ez zan gai izan igarkizun orreri bere esan naia igarteko, eta Jon'egaz ezkondu zan, eta zoriontsu bizi" izan zieran eperrak jaten.

95

GIZON GUZTIZ ARGIA

Bere burua argi be argitzat eukan gizon bat bizi zan bein, eta erregeak jakin ebanean, deitu eutsan esanaz sei egun barru iru itaun onei erantzun bear eutsela:

-Munduko mendirik andienak zenbat otzarakada lur eukazan.

Itargiak zenbat pixatzen daben.

Erregeak zenbat balio daben.

Eta guzti ori baldintza onegaz: Igarten ba eban, benetako abe-rats egingo eban, eta igarten ez ba eban,

Gizona iru itaun orreitan burua askatzen asi zan. Asieran beé netan zaillak iruditzen jakozan. Orrela, igarri ezin zitula konturatu zanean, eta euken jakin-miña kontuan eukita, gaixotu egin zan. Orduan, astokillo lako morroi bat lanera joan jakon, eta ikusirik ugazaba *an ez* egoala, etxeakoandreaki itandu eutsan agaitik. Onak dana esan eutsan, au da, erregeak zelan ipini eutsazan iru itaun, eta igarteko gai ez zala. Eta morroiak erantzun:

Ara, itxi egidazu beragana joaten, bear ba da, estutasunetik atara neikelako.

Andreak, zirikalari, esan eutsan igarten ba eban, beretzako onore andi izango zala. Eta bera gelara joan zan eta ugazabari itandu eutsan zer ete eukan. Ugazabak dana agertu ondoren, berak esan eutsan, etxean eukan jantzirik onena emoten ba eutsen, esango eutsala. Ugazabak, pozaren pozez, baietz.

Morroiak azaldu eutsan iru itaunak euken esan naia, eta tratu egin eta erregearengana joan ziran, ba ekiala esatera.

Eldu zanean, lenengotik itandu eutsan ba ete ekian iru itaunen esan naia. Eta gizonak baietz aginduz, esaten asi zan:

Ara: Mendirik andiena neurtuteko otzarearen parean dago. Otzarea mendia baiño andiago ba da, bat bakarra be naiku da.

Ondo dago- erantzun eutsan erregeak. Eta besteak?

Itargia lau laukotan banatuta dagola esaten da. Beraz kilo bat.

Alaxe da. Baiña orain gaitzena falta da: zenbat balio dodan nik.

Ba ori da errezena. Zeru ta lurretako erregea ogei ta amar dirutan saldu zan, eta orrela izanik, zuk ezin geiago balio.

Orduan erregeak ez eban beste urteerarik euki, agindu eban lez, bizi guztirako gizona aberastutea baiño.

e) S 'RGIN ETA LAMIÑEN I PUIÑAK

96

DEABRUA BASERRITARRARI LAGUNTZEN

Gizon aberats batek maister beartsu bat eukan. Urte baten joan zan au beragana, eta eskatu eutsan lagateko jaunak eukan mendi bat atxurtuten. Baietz agindu eutsan, nai ebana atxurtuteé ko, eta orduan maisterrak itandu eutsan zelako baldintzetan izango zan, eta jaunak erantzun:

Ba... zenbat eta geiago atxurtu, geiago erre.

Maisterra etxera biurtu zan, eta egunero atxurtuten eban berak egiñala, baiña ikusten eban nausirik ez zala agertzen mendira; bildur zan gitxien uste ebanean errekarren bat agertuko zala, ta atxurtuten jarraitzen eban. Jaunik ez zan agertu eta maisterrak mendi guztia atxurtu eban.

Uda eldu zanean, maisterra jaunarengana joan zan, eta esan eutsan, mendi guztia atxurtuta egoala eta erreteko gertu, eta zer egin bear zan.

Ondo da, erantzun eban jaunak. Ba geien erreten dauanak, geien ereingo dau.

Barriri biurtu zan maisterra bere etxera, eta atxurtutako guztia erre eban, baiña jaunik ez zan agertzen ezetarako.

Udazkena eldu zan, baiña maisterra ez zan ausartu ereiten; jaunagaz egon baiño len. Barriri joan beregana eta esan eutsan ereiteko denpora zala eta ea zer egin bear eban. Jaunak betiko erara erantzun eutsan, esanez, geien ereiten ebanak, geien ebagiko ebal. Barriri maisterra bere lurretara biurtu eta al eban guztian erein eban, au da, mendi guztian. Ebagiteko denpora eldu zan, eta ez zan ausartu jaunaren naia jakin barik ebagitera, eta oraingotan be beragana joan eta esan eutsan mendiko ogia bigunduta egoala, ebagi eikeala, eta ea zer egingo eban.

Zelan izango dan?, erantzun eban berak. Ba beti lez. geien ebagiten dabenak, geien jasoko dau.

Maisterra etxera biurtu eta ikusirik jauna ez zala estutuko, bere auzokide guztiei dei egin eta mendi guztia ebagi eta batzeko laguntza eskatu eutsen, biaramonean asita. Danak baietz agindu eutsen, eta bera pozik, ugazaba agertu ordurako dana batuta egongo zalakoan. Baiña ez zan orrela izan, arratsalde berbetan

ugazaba auzokideetara joan zalako danei dei egiten.

Ebagiteko eguna eldu zan, eta maisterrak goizean goiz jaikita, auzokideei itxaron barik, mendira igo eta alderdi baten asi zan ebagiten. Baiña iru-lau zati ebagita eukazanean, jauna agertzen ikusi eban eta auzokide guztiekin beste alderdia ebagiten asi.

Gizona itzal geratu zan, eta gitxi egin al ebala, ikusita, bere etxera joan zan negarti. Bidean deabrua billatu eban eta onek itandu eutsan zegaitik eloan ain itzal. Maisterrak autortu eutsan zer gertatzen zan, eta entzun ondoren deabruak agindu eutsan berak konponduko ebala a, gari guztia ebagi eta etxean jaioten zan lenengoarentzat eroanaz.

Maisterra oldozkor geratu zan, andrea eukalako, bai eta txa be eta katu-eme bat, danak denpora bardiñerako. Bere kontuak egin eta uste izan eban lenengo jaioko zana katuarena izango zala, eta deabruari bere agindua onartu eta tratua eginda laga eban.

Deabrua mendira joan zan, eta ebagiten asi zan, batzutan gora eta bestetan beraka, eta berak beste guztiak baiño geiago ebagiten eban.

Mindu ziran auzokideak, eta pentsatu eben onena izango zala beregana joan, purdian ostikada bat emon eta lurraldetik kanpora jaurtitea. Gazte bat gertu zan, bera joango zala-ta. Deabruaren atzean jarri zan, eta beregana eldu al izan ebanean, ostikada andi bat emon eutsan eukan indar guztiagaz. Ain indartsu jo eban, bere oiñetakoa deabruaren eperdian sartuta geratu zan. Baiña deabrua konturatu ez ba litz lez, lanean jarraitzen alegindu zan, eta mutilla egaletik bere atzetik erabili.

Auzokideak ori ikusi ebanean, bildurrak jota danak etxeetara iges egin eben eta ez ziran ausartu mendira biurtzen. Berari iruditu jakonean, deabruak indar apur bat egin eta mutillaren oiña askatu eban, baiña ordurako ustelduta lez urten eutsan. Al eban bestean joan zan mutilla bere etxera, eta ikusi ebanean, benetan ikaratuta geratu ziran, eta geiago iñor ez zan mendira joaten ausartu, maisterra besterik, eta au, geldiro-geldiro, gari guztia etxera eroaten alegindu zan.

Egunak igaro ziran, eta katakumerik ez zan jaio eta gizona kezkatuta egoan. Alako baten be eldu zan eguna. Lenengo mutil txiki bat jaio zan. Gizona kezkatu ebillan, deabrua gitxien uste ebanean agertu eta mutilla eroango eutsalakoan.

Andreak, ain illun ikusteap, itandu eutsan mutiltxo atsegin ez jakon, eta orduan agertu eutsan deabruagaz zer gertatu jakon.

Andreak esan eutsan, ez estututeko orregaitik, semetxua berea beba zala, eta deabrua agertzen zanean, beragana bialtzeko, bera konponduko zala-ta. Eta alaxe izan zan. Andik laster deabrua agertu zan, gizona ate aurrean billatu eban eta ikustean, esan:

Agindua betetera nator.

Gizonak barrura sartzeko esan eutsan, oean eukala. Eta deabrua gelan sartu zanean, andreak esan eutsan:

Ba dakit nire gizonak zer agindu eutsun, baiña txikia nirea beba da. Eroan aurretik ule au zuzen ipini bear dozu.

Eta beso azpitik ule bat atara, deabruari emon eutsan. Onek esku baten gaiñean ipini eta besteagaz birak emoten eutsazan; baiña zenbat eta geiago emon, geiago kiskurtzen zan ulea. Orduan, ainbeste alegin egiteagaz aspertuta, eta bere burua isekatuta ikustean, salto andi bat egin eta leiotik kanpora urten eban, ille-bete baiño geiago iraun eban azufre usaiña lagauaz.

97

MUTILTXOAREN TXISTUA

Ardi zaiñean ebillan mutiltxo bat zan. Ardiak lapurrak ziralako, ez zan eurak zaintzeko gai. Egunero errietan egiten eutsen etxean, kalte egiten lagaten eutselako. Egun baten negarrez egoan mendian, eta andre bat igaro zan andik eta zer ete eukan itandu eutsan. Berak erantzun, ardiak ezin zainduta ebillala, lapurrak ziralako, eta gero etxean asarre egiten eutsela.

-Ba egon nasai. Txistu au emongo dautsut, eta eurak igestean jo eta ikusiko dozu zelako arin biurtuko diran zure ingurura, eta orrela ez dozu eukiko euren atzetik ibili bearrik. Baiña ez esan iñori eskutuko au.

Mutillak txistua artu eta orrela egin eban. Iges egiten eutseñean txistua jo eta danak urreratzen jakozan bere ingurura, eta dantzan asten ziran; eta berari dantzan ikustea atsegin jakon lez, or jolasten zan eta ezer ez eben egiten.

Ugazaba konturatu zan ardiei zerbait egiten eutsela, asko argaltzen ziralako, eta orrela egun baten ikustera joan zan eta an ikusi zitun jolasean.

Gizona etxera joan zan, eta gabean, mutilla eldu zanean, txistua eskatu eutsan, baiña mutillak ez eutsan emon nai izan, eta zer zan esan be. Ikaratu eben etxeakoak, baiña bera ez zan makurtu, ur berozko lapiku andi bat bera an sartzeko gertu ebela ikusi arte. Urak irakin ebanean, lapikoa kanpora atara eben, mutilla an sar-

tzeko asmoz, baiña berak txistua atara eta joten asi zan, eta uragaz eioazanak dantzan asten ziran, eta ur guztia jausi jakoen. Biarandonean epaikaria eta beste gizon bi ekarri zituen, zuzenketa egiteko. Eldu ziranean, laban sartzeko eskatu eutsen, mutillak ikusi ez egiezan. Eurak sartu ziran eta etxeakoak, beste egunetan lez, ura irakiten ipini eben. Gertu eta ekarri ebenean, txistua jotzen asi zan, eta laban egozanak be dantzan asi ziran. Eta bera be dantzan ebillan etxeke jaunak epaikariari deituten eutsan:

Epaikari jauna, zuzenketa egizu.

Egin zeuk, ni arin nabillalako, erantzuten eban epaikariak.

Eta orrelaxe jarraitu eben, txikiak joteari laga arte. Ta gero barruan eskutauta egozanak agertu ziran, buruak ia galduta, ainbeste dantzatutzeagaz.

98

ABADEA ETA DEABRUA

Gizaldiaren asieran, inguruko auzokideak batzarrean batu ziran, eta Cipritxu liburua eukan ikas-laburreko abade zan, azpaldi ildako bategaz erabagi eben deabruari deitzea, itxas-ondoko diruak eskatzeko, iñoren kontzientzietan ezelako damurik egon ez egian. Batu eta Abeneira'ko mendira joan ziran. Mendi au Incio'ko burdiñolaren gainean dago, eta bere urak entzute andikoak dira.

Ara eldu eta inguru bat osotu eben danen artean, danak bertan sartu eta deabruak zirikatatu ez egiezan. Bein orrela, abadea Cipritxu libururaren bitartez, deabruari deika asi zan, eta laster agertu zan au soldadu jantzita, eta itandu eutsen zer gura ete eben, eta erantzun eutsen dirua nai ebela.

Deabruak jardetsi eutsen ez egoala orretarako eragozpenik, baiña baketxetara joan bearko zala diru billa. Ori kontzientziko arduragarri zan lez, ezetz erantzun eutsen, eurak itxas-ondoko dirua nai ebela, ondura joandako itxasontzietakoa. Deabrua zearo kezkatuta, akatsak agertzen asi zan. Trumoiak jo eban, eta tren bat igaro zan, urrez beteta, eta bertan deabrua, soldadu jantzita, dana urrezko zan aizezko gaita bat jotzen asi zan.

Abadeak Zipritxu liburuko eskuratzeko orririk ez eukan lez, danak ao bete muturregaz geratu ziran.

Orretan batu ziranen semeen bat bizi da, eta oneik esaten dabe euren gurasoei entzun eutsela au kontatzen. Egia izan lei, baiña nik ez dot sinistuten.

ABADEA ETA AMAKIDEAK

Bein bizi zan abade batek amakide bi eukazan, eta gabero euren rekana joaten zan, eta gabeko ordu baten esan eutsen:

Abade jauna, joan zaite.

Eta abadea joaten zan.

Baiña egun baten abadeak bere artean esan eban:

Ez ete neike jakin zer egiten ete daben andre oneik ordu oneitan?

Eta kanpora joateko agindu eutsenean, atetik kanpora urtenaren, giltzaren zulotik begira geratu zan eta ikusi eben sukaldera joan zirala, lapiko andi bat artu ebela, billoiztu zirala, gorputza igortzi eta eskillaran gora igo zirala. Baiña urrengo egunean, geiago jakin nairik, esan eban:

Orain nora joaten diran jakin bear dot.

Eta beti lez esan eutsen:

Abade jauna, joan ziñei.

Eta berak ez eban joaterik nai izan, eta ikusi eban soiñekoak erantsi, billoiztu eta zerbait igortziten ebela. Eta sartu zan, eta eurak egiten ebena egin eban, eta eskillaretan gora igo eta tximinitik zear urten eben, eta edaritegi baten sartu ziran giltzaren zulotik zear, eta an gura ebena edan eben eta gero esan:

Goazen, gaba eldu baiño len.

Amakide batek urten eta bestea bardin egitera joiala, abadeak esan eban:

-Ai amakide, ori da ipurdia daukazuna. Jesus!

Eta arpegia kanpoan eta ipurdia barruan eukazala geratu zan, eta abadea barruan deadarka.

MEIGARALLAS'KO SORGIÑAK

Emendik laster dagon eta meigarallas deitzen dan errian, alaba bi eukazan andre bat bizi zan. Kozkondu ziranean, zarrena ezkondu eban Labracengos deitzen dan erriko errementereri bategaz. Andik laster zabaldu zan ama eta alaba ezkongai sorginkierietara lotuta ebiltzala. Ezkonduta egoan alaba joan zan egun baten eurenkana, berbalekurik ez ipinteko eskatzera eta sorginkieriak alboratzeko. Eurak dana ukatu eben, eta geituten eben sekula burutik ez eutsela olakorik igaro; baiña alaba ez zan pozik geratu, eta ziur ja-

kiteko loak jo eban itxura atara eban, eta argi baten atzean egoan aulki baten jazarri zan. Ama eta alabak pentsatu ebenean lo egoala, gaia eztabaidatzen asi ziran. Eta amak esan:

-Ara ba, geiago jazan bearko dau. Erleandi baten itxuran joango naz, eta gizona lurra goldatzen dabillen batean beiei ezte sartzen ekingo dautset, ia bat zoritxartzen ete jakon.

-Baiña gauza da il leikezala, erantzun eban alaba ezkongaiak.

-Bai zera! Eriñotz bedeinkatu zatiATEGAZ emoten ez dausten artean, ezin leike niri ezer egin, eta ori ez dabe eroango goldetara.

Lotan egoalakoan egoan alabak ondo entzun eban ori. Urren-go egunean etxera joan zan, eta eldu zanean, orduantxe ebillan gizona beiak buztartzen, etxe aurrean.

Eta gero? Nora zoaz gero beiekin?- itandu eutsen.

Zelai ingurua goldatera nua.

-Ni be zugaz etorriko naz.

Zetan etorriko zara, beiak ondo dabiltz-eta?

-Ondo da. Joan daitezala, eta ni banator eta naiku da.

Berak eriñotz bedeinkatu zatia artu eban, eta bere amantaltxoaren azpian sartu eban eta biak joan ziran zelai ingurura.

Amarrak ingurua izango zan, erle andi bat agertu zanean, beiei eztea sartzen. Bera makillaka asi zan, baiña erleak berean jarraitzen eban, eta alako baten, berak amantalpetik eriñotz bedeinkatu adarra atara eban. Eta beragaz joaz, erleak ainka bat apurtuta iges egin eban.

Ordutik aurrera beiak euren lanean jarraitu eben baketan, amaitu arte. Eta amaitu ondoren, etxera joan ziran, eta eldu ta batera, Meigarallas'ko kanpaia illeta jotzen entzun eben,

Ziurretik nire ama izango da.

Zelan ori? gaixo egoan ala? -esan eutsan gizonak.

Ez, baiña au ta au igaro zan.

Gertatua esan eta bertara joan ziran, eta uste izan eben lez, ama zan ildakua.

101 GIZON BI ETA TXARRI EMEA

Errian gizon bi bizi ziran, bien artean txarri eme bat eukela.

Bat gau baten bidetik ebillala, sorgiñ bi igarri zitun esaten eutsela:

Astelena, martizena, eguaztena iru.

Gero berak erantzun:

Eguena, barikua, zapatua, sei.

Orduan sorgiñetako batek besteari esan eutsan:

Zer egin bear dautsagu sei esan daben orreri?

Daukan txarri-emea kendu, -erantzun eban besteak.

Biamamonean, toki berbertan topo egin eben gizon biak, eta bat txarri barik eioala ikusita, besteak esan eutsan ze erremedio egin ete eutsan.

Berak ze gertatu zan agertu eutsan, eta bestea be bardin egi-tera gertu zan.

Txarri-emeak ataraten zituen tokira eldu zanean, sorgiñak entzun zitun esaten:

-Astelena, martizena, eguaztena, iru.

Eta berak, areik amaitu ebenean:

Eguena, barikua, zapatua, sei.

Eta gelago ez eutsela jarraitzen oartutean, jarraitu eban:

Domeka eta astelena zortzi.

Alkarri itandu eutsen sorgiñak zer egin bear ete eutsen, eta batek erantzun:

Besteari atara dautsagun txarri-emea ipini.

f) ABADE ETA GAZTETXOEN IPUIÑAK

102

GOTZAIÑAGAZ LO EGIN EBAN ABADEA

Urte asko dirala, gotzaiña parroki batzuetara joan zan bere ikertaldia egitera. Batera eldu, gaba egin eta bertan geratu bear izan eban gaua igaroten. Orrelakoetan lez, abadearen etxean geratu zan. Baiña abadeak ez eukan oe bakar bat baiño, eta origaitik gotzaiñak eta abadeak alkarregaz 'lo egin eben. Baiña abadeak neskame bat eukan, eta gau aretan lasto-mordo baten gaiñean lo egin bear izan eban. Gaua eginda, lo apur bat egin ondoren, abadea esnatu zan eta txitakin gogoratu zan, eta gotzaiña lepoan joaz esaten asi zan:

Mirentxu, Mirentxu. Zuloa zarratu dautsezu txitaei?

Abadearen ametsondoa a zelakoa izan zan, konturatu zanean gotzaiña zala bere alboan P^^^°^^'

103

ABADE, JOSTUNA ETA ANDREA

Erri txiki baten andre bat bizi zan. Parrokiko abadearen adiskide zan, bai eta erriko jostunarena be.

Bein abadea joan zan beragana, eta alkarregaz denporaldi bat eroela, atean jo eben. Andrea nor ete zan ikustera atera joan zan artean, abadea, etorrena bera nun egoan konturatu ez eitean, kutxa andi baten barruan sartu zan. Atea zabaldueran, ikusi eban jostuna zala eta barrura sartu nai izan eban; sartuagaz batera konturatu zan abadea an egoala eta deadarka asi zan:

Sua! Sua! Galdu gara, sutan dago etxea!

Orduan, abadea kutxatik kanporatu eta dearrez:

Kutxa au kanpora! Kutxa au kanpora!

104

BOST DUKAT

Bein erritar bat bidean ebillala, diru txorta bat billatu eban. Gizon zuzena zan eta ez eban nai iñoren diruagaz geratzerik, eta origaitik abadearengana joan zan autortzera, eta an garbi agertu eutsan abadeari zer gertatu zan. Au be orretan zurra zan lez, esan eutsan:

Diruak zureak ez diran lez, eta zeñenak diran be ez dakizun lez, arimentzako eskiñi bear dozuz, eta orretarako biderik onena, bidean lenengo aurkitzen dozunari bost dukat emotea da, eta orrela kittu geratzen zara.

Gizon onak bete eban esan au, eta lenengo billatu ebanari emotera gertu zan, eta ain zuzen be inguruko neskatilla bat zan. Gizonak, ikustean, esan eutsan:

Artu egizuz bost dukat.

Eta berak erantzun.

Ez dira bost, amar dira.

Berak, artegatuta:

Ba abadeak esana dakit bost dirala bakarrik.

Eta orduan, neskak erantzun:

Baiña atara kontua abadea bezero ona dala.

105

ABADEA ETA ILDAKOA

Abade on eta dontsu bat bizi zan bein. Bere auzokoei ondo azaltzen ekiazan inpernu, eriotza, autortza eta orrelako goraberak, bai eta deabruak zelan eroaten zitun autortzen ez ziranak be. Zorritzarrez ba egozan bere parrokiak autortzen ez ziranak eta eleizatik sekula igaroten ez ziran batzuk.

Orreitako gizon bat il zan, eta abadea, eredu bat ipini eta beteteko, erriko kaletatik zear ibili zan deadarka, gau aretan deabruak gizon a eroango ebala, eta iñor ez urreratzeko etxera. Ain zuzen be etxean andre bi geratzen ziran, eta ori entzutean andik urten eta auzoko etxe batera joan ziran, illa bakarrik lagata. Sakristauar+ agindu eutsan zulo bat egiteko sakristian bertan, mamu lez jazteko eta gau erdi inguruan, ildakoaren etxera joan, gorputza artu eta zulo aretan sartzeko, gero estalduko ebela eta iñor ez zala konturatzeko eran. Baiña deabruak esan eban ez egoala ori ondo, eta illuntzean, Ameriketari bizi zan seme bat eldu zan, auzoko bat gaz topo egin eta esan eutsan zer gertatzen zan. Eta deabruari jaramonik egin barik, bere etxera zuzen joan zan, bere aita ikustera. Eldu eta laster, zarata andi bat entzun eban, eta ate baten atzean eskutatu zan: deabru andia sartu zan ildakoa lepoan artu eta urtetera joiala, semeak plast! deabruari tiro bat jaurti eta an jausi zan zerraldo illaren ondoan.

Abadeari gertatua adierazo eutsenean, zerurantz iges egin eban, zelako ibil-gaillua artu eban oraindik iñok ez dakiala.

106

AITA MIXIOLARIA

Piñeira'n aita mixiolari bat bizi zan, eta bere auzo-lagunak esan eutsen, Roke esaten eban bakoitzean, errria! bat emongo eutsela. Eta bera, ondo gertuta, sermoia egitera joan zan:

Anai maiteak, guztiz miraritsu san san Roke, san Roke barik ezer ez gara, san Roke ezin obeagoa izan ian...

Eta geiago zer esan ez ekian lez, eta diru gitxi batuko ebala konturatu zan lez, esan eban:

Basoko igelak be gaberako goratzen dabe, ain ona dalako, beé rari kantaten: Roke, roke, roke, roke, roke...

Geratu zanerako, ia sei milla bidar esanda eukan roke izena, eta beste ainbeste errrial emon bear izan eutsezan.

107

NESKAME BI EUKAZAN ABADEA

Emendik urrun ez dagon parroki baten, neskame bi eukazan abade bat bizi zan. Bata Antoni deitzen zen eta bestea Manuela.

Bein abadea gaixotu eta txarto jarri zan, eta neskameak asi jakozan esaten eskribadua eroan bear eutsela, eurekin batean azken naia egiteko. Alako baten, agindu eban deitzeko, eta bereala joan ziran eskribaduaren billa.

Eldu zanean abadeari itandu eutsan zelan egoan, eta bereala artu eban luma eta papera eta esaten asi:

la gero, zer: zer edo zeñientzat agindu bear bere naia.

Orduan abadeak erantzun:

Ba idatzi egizu jarraian:

«Gorputza lurrarentzat, eta arima zerurako, eta zaldia Antoni-
rentzat eta txakur emea Manuelarentzat.

108

SOPA BAKANAK

Abade batek ba eukan etxeakoandre bat gaitu bat eukana eta bera meza esaten egoan bitartean sopak gertuten eutsazana gozalduteko. Bein bakanak urten eutsela ikusiaz, eleizara joan zan eta abadeari esan eutsan:

Soparum rarorum.

Eta abadeak erantzun:

-Egizuz ondo, berbetan ibili zarealako eta erabili ez. Jaurti egiozu beste pixkat urunorum farinorum, eztagien urten rarorum. Asko zuretzat, asko baita niretzat eta gitxi morroiarentzat. Ipini egizuz baxera baten, eroaten ditula uste izanarren eroaten ez ditunean.

109

BATA BESTEAGAZ AUTORTU ZIRAN ABADEA ETA SAKRISTAU

Abade bat bizi zan bein, bere antzera aitakide zan sakristau bat eukana. Abadeak begitan artuta eukan sakristaua, argontzikom orioa ostuten eutsalakoan. Bein esan eutsan autortu egin bear zala. Sakristauak esan, baietz, baiña baldintza bategaz, andrak autortuten diran lez sare-leiotik egin bearko zala. Bata jarri zan eta

bestea belaunikotu, egiak eta guzurak esaten diran tokian, eta abadeak itandu eutsan:

Zeïnek eroaten dau argontziko orioa?

Ez da entzuten, abade jauna.

Zein da eleizako orioa ostuten dauana?

Esaten dabenetik ezer ez dot entzuten. Bestela, begira: jarri zaite zu ni nagon tokian eta ni jarriko naz zure tokian.

Tokiz aldatu ziran. Orduan sakristauak itandu eutsan ebadeari:

Zeïnek edo zek jaten deutzaz askariak sakristauaren emaztea ri?

Zer diñozu, ezer be ez da entzuten eta?

Zeïnek jaten dautzaz arrautzak eta txintxortak sakristauaren emazteari?

Ba, ba! Egia diñozu, emendik ez dalako ezer entzuten,

Orrela, batac besteari parkamena emon eutsen.

110

BUSTI BARIK JATEN NABIL

Abade batek gaztetxu bat erabillan sakristautzat. Igarrita egoan argontziko orioak gitxi irauten ebala, eta pentsatu eban (eta ez txarto), mutiltxoia izango zala jaten ebana, eta esan eutsan:

Ia txiki, ia orioa urrupatzea lagaten dozun, bestela txarto ibiliko garealako.

Ukatu egin eban mutillak bera zala ori egiten ebana, eta esan eutsan gau-txoriak izango zirala, koruko argi-zulotik sartzen ziranak. Baiña abadeak berean jarraituz esaten eban ez zirala gau txoriak, ziur ekiala sakristaua zala, bera mizkatzen ikusi eban batek esan eutsalako.

Orrelako ziurtasunen aurka, ez zan ausartu sakristaua ukatze-
ra, eta abadeari itandu eutsan:

Orretara esan, ba, zeïnek kontatu dautsun.

Zeïnek? -itandu eban abadeak. Ama Birgiñak besoetan daukan umeak. Orrela ba kontu asko euki eleizan egiten dozunagaz.

Mutilla ziurtzat geratu zan abadeak esaten eũtsonagaz, eta biaramonean, argiontzira orioa eroatera joan zanean, goseti egoan lez, bere sakelean eskua sartu, ogi zati bat atara eta oriotan sar-

tzeko asmotan asi zan. Baiña abadeak esan eutsanagaz konturatu, aldarara begiratu, Ama Birgiña egoan tokira, eta benetan pentsatu eban umetxoa begira egoala, eta orduan aginkada bat ogiari emon eta esan eban:

Zeri begiratzen dautsazu, arratoi begidun orrek? Busti barik jaten nabil.

111

ABADE ETA SAKRISTAU MOTELAK

Abade bat meza emotera joan zanean, sakristaua konturatu zan totela zala, eta berak, gero, bardin erantzun eutsan.

Abadeak berari begiratu eta esan:

Zu... zu... zu... ere mo... motela zara?

Ba... ba... ba...i jauna.

Ba... ba... ba... pi... pixkaterako me... me... meza dogu.

112

ESKATZERA JOAN ZAN ABADEA

Bein, abade bat eskatzera joan zan etxe batera, eta makilla luze bat emoteko eskatu eutsen. Emon eutsen bat, eta beste motzago bat bear ebala. Txikiago emon eta eskatu untza bat bear ebala josteko. Emon eutsenean, maillu bat eskatu eban joteko, eta ondoren, emona artu ondoren, eskatu, kurutze baten antzera josteko. Gero etxeko jaunak jardetsi eutsan:

Ai jauna, orretarako obe zan lenengotik esan ba leu egindako kurutze bat emoteko, eta berba asko aurreratuko gendun.

113

EZ EGIZU AINBESTE «SAL TSA» JAURTI

Frailien konbentu baten beartsuei jaten emoten eutsen aste-ko egun baten. Baserriz-baserrri eskean ibiltan zan eskale batekin eban ori, eta bera be konbentura joan zan. Fraileak egun aretan saltsako okela emoten eben, eta beartsuak, ez eukalako nun artu, bere kapela zabaldu eban. Baiña itxuraz, fraileak okelamamiñak bere lagunentzako gordeten zitun, eta orduan beartsuak esan:

Ez egizu ainbeste saltsa jaurti, fraile jauna, jaurti baita beste zirpil orreik.

Ez egiozu deitu zirtzil Jainkoaren graziari, esan eutsan frai-

leak.

Eta fraileak bere burdintzalirik gertuten ez eban lez berari aragi zatien bat jaurtiteko, len saltsa jaurti eutsan lez, kapela artu eta frailearen buruan ipini eutsan, esanez:

Jainkoaren grazia ba da, bete zaitez beragaz.

114

ABADEA ETA SORGIÑAK

Bein gazte bat neskakin ibiltera joiala, eleiz aurretik igaroeran, zarata bakan andi batzuk entzun zitun eleiz barruan, eta sorgiñak beragaz zerbait nai ebelakoan benetan bildurtu zan, edo ta garbié tokiko arimak izango ziralakuan. Ez zan ausartu aurrera joaten, eta ez atzera egiten, eta abadeari dei egiten asi zan, sorgin arein auré kako araoak (konjuroak) egin egiazan.

Abadeak, lapurrak ziralakoan, beragaz batera arin-arisinga urten eta eleiz atera eldu zan, baiña zarata areik entzutean ez eban eroan mutillak baiño ikara gitxiagorik, eta berak be pentsatu eban sorgiñak ebiltzala an. Etxera joan, konjurotakoak esateko eran gertu, eta mutillar esan eutsan:

-Etorri nigaz, eta nik esango dodazan otoitzei erantzun.

Baiña, jauna, nik ez dakit latiñik, ez eta zeri erantzun bear dautsadan be.

Ez estutu gizon, zu etorri nigaz, eta nik otoitz bat esatean, zuk «amen» erantzun, emen dabillena deabrua izango dalako.

Abadeak atea zabaldu ebanean, andik zurrunga ebillan txarri eme bat agertu zan eta abadearen sotana artean sartu, eta sotanatik ten egiñaz, bera be jaurti eban eta txarriaren lepo gaiñera jausi. Txarriak andik urten eta zurrunga iges egin eban, eta abadea bere gaiñean, deadarka:

Ene ba da tal Deabruak naroa. Deabruak naroa!

Eta mutillak, gero ta bildur geiagoz erantzuten eutsan:

Amen, amen.

115

UMEDUN ABIA NUN EGOAN EKIAN TXIKITXOA

Bein ume bat autortzera joan zan, eta abadeak itandu ba ete ekien nun egoan umedun abi bat, eta txikiak baietz, ba ekiala ka-

txorra batena nun egoan. Abadeak itandu eta umeak erantzun bere ortuko untzorrien artean egoala.

Eleizatik urtetean, mutillak zaindu egin eban abadea, eta ikusi eban abia artzera joan zala. Mutillari betirako gogoan sartu jakon ori, eta egun baten, andi zala, barriro autortzera joan zan, eta abadeak itandu eutsan maitalerik ba ete eukan. Mutillak baietz. Eta abadeak ia nor ete zan geitu. Baiña mutillak, txori abiagaz gertatu zana gogoratuta, erantzun eutsan:

Nik esango neuke, baiña kontuz ibili bear naz, txori abiena gertatu ez daidan.

116

MADARIAK OSTUTEA AUTORTU EBAN MUTILTXOA

Bein nire lagun bat autortzera joan zan, eta abadeak itandu ezer ostuten ete eban.

Bai, jauna. Egun baten iru ostu nitun.

Biurtu egin bear dira.

Eta zenbat emon bear dot eurekaitik?

-Niri ezer ez, baiña jaubeari bederatzi errial emon bear dau-tsazuz.

Mutilla eleizatik bera jetxi zan, esanez:

Ibili, Pedro, ondo zabiltz eta,
iru madari, bederatzi errial.

Eta danak kontatu ba neutsaz?

117

NEKAMEAREN AINKETARA BEGIRATZEN EBAN MUTILTXOA

Maside'ko parrokian, mutiltxo bat bizi zan. Autortzera joan zan bein, eta abadeak itandu andrekin pekaturik egin ete eban. Mutillak erantzun, ezetz. Bein bakarrik begiratu ebala abadearen neskamearen ainketara.

Iru egun jarraikoetan barua egin bear ko dozu, -esan eutsan abadeak.

Mutiltxoa etxera joan eta iru egunetan baru egin eban. Baiña bein ogiagaz eukan saku bat ikustera joan zan eta abadearen zal-dia ikusi eban berari begira. Mutiltxoak, neskamearen ainketara

begiratu ebalako eta berari baru eragin; bardin egin nai izan eban abadearen zaldiaz ogiari begiratzearren, eta artu eta Cervos'en egoan errota zar batera eroan eban.

Gabaz, abadea zaldiaren billa joan zanean, ingurua aztertu eta danei itaunka ibili zan ikusi ete eben, danak ezetz esaten eben, baiña andik iru egunera mutiltxoagaz topo egin eban, eta itandu eutsan beragaitik. Mutillak esan eutsan nun egoan eta berak sartu ebala an.

Eta zuk zegaitik sartu zendun ba an? -abadeak itandu.

-Ñire ogi sakura begira ikusi nebalako, -erantzun mutillak.

Eta begiratzearren jan egiten eutsun, ala?, -abadeak asarre.

Eta mutillak: Eta gero, abade jauna? Ala nik be neskamea jaten ete neban berari begira egotean?

118

MUTILTXOA ETA ABADEAREN ORDUARIA

Bein mutiltxo bat joan zan autortzera, eta autortzen zan bitartean, al eban bestean bere eskua abadearen txaleko sakelean sartzen alegindu zan eta orduaria ostu. Eta eukazan pekatuak autortzean, abadeak itandu eutsan ezer ostu ete eban, eta mutikoak baietz, orduari bat ostu ebala.

Jaubeari biurtu bear dautsazu, -esan eutsan abadeak.

Artu, bereala.

Ez, ez. Bere jaubeari emon bear dautsazu, -barriro abadeak.

-Orrela dala, artu, artu zuk, -esan eutsan txikiak.

Baiña abadeak artu nai ez, eta laster esan eutsan txikiari:

-Ondo da, orrela dala. Baiña ez esan iñori.

Ez euki orren bildurrik, bestela inpernurako geratzen naz-eta, abadeak erantzun.

Mutilla joan zan, eta an egozan guztiak euren autortzak egi-tea amaitu ebenean, danak kanpora joan ziran. Abadeak begiratu nai izan eban ze ordu zan, baiña sakelean ez eukan orduaririk. Eta mutiltxoagaz gogoratuta, deadarka asi jakon:

E, txiki, mutil, etorri zaitetz.

Txikiak erantzuten eutsan:

-Ixil, ixil abade jauna, ixil, inpernura joan ez zaitezan.

119

ORAINTXE BAI ARRAPATU ZAITUDALA

Benito baiño argiago zan txiki batek oker eta zuzenetara, edo zelan ekian dotriñea. Ain ondo ekian ze, abade berberari esaten ekian ez eukala nundik okerrean arrapatu. Bein abadea gaitzeneztik itaunka asi jakon. Baiña mutiltxoak ez eban utsik egiten. !tané duten jarraitzen eutsen, eta alako baten, mutillak ez eban jakin gauza bateri erantzuten.

Eta abadeak esaten ekin eutsan:

-Ara ba, jausi zara. Ara ba, jausi zara.

Mutilla lotsaz beteta geratu zan abadeak egiten eutsan iseka gaitik eta bera an ebillan abadeari iseka ori biurtu nairik. Azken baten itaun au egitea bururatu jakon:

Abade jauna, eta Jaungoikoa nire aitaren laban egongo da?

Gizon! Eta gero? Ez dakizu Jaungoikoa toki guztietan dagona?

Oraintxe bai arrapatu zaitudala nik be, abade jauna, nire aitak ez daukalako labarik.

120

GOTZAIÑA ETA ARDI-ZAIÑA

Bein ardi-zain bat bere ardiekaz ebillan, eta gotzaiña (obispoa) urreratu jakon.

Mutil argiaren itxura daukazu, esan eutsan gotzaiñak. Jaungoikoa nun dagon esaten ba daustazu, laranja bat emongo dautsut.

Eta mutiltxoak:

Bi emongo dautsudaz nik, nun ez dagon esaten ba daustazu.

g) JOSTUNEN IPUIÑAK

121

SUIN BARRIA ETA JOSTUNA

Apur bat lotsakor zan gaztetxo bat kanpora ezkondu zan. Aitagiñarrebak zekenak ziran eta gosez-ilten euken, lenengo eguneé tik jaten ez eutselako emoten. Arasa baten gaiñean jaten eben,

eta aitagiñarrebak, asiagaz batera, esaten eban:

-Ia jatun txikiok, Jainkoak jaten emon dausku eta maia jaso daigun, Jaunari eskerrak emonaz.

Arasa barruan sartzen eben jateko guztia, eta suiña joaten zanean, eurak ondo jaten eben.

Bein mutilla bere etxera joan zan eta agertu eban zer gertaten jakon. Jostuna zan anai batek esan eutsan, besteen aurrean esan egiala jantzi barria egin bear ebala, eta jostuna zanez, berari deitzeko (familikoa zalako ez eutsela ezer kobratuko) eta arazoa konponduko zata. Eta esanda lez, mutilla aitagiñarrebaren etxera eldu zanean, esan eban jantzi baten premiñan egoala, eta obeto zala bere anaiari deitzea, ez eutselako origaitik ezer eroango. Aitagiñarrebari ondo begitandu jakon, eta esan be bai, bide batez berari ere beste bat egingo eutsela.

Jostunari deitu eta mairik ez euken lez, itandu eutsen arasak balioko ete eutsan. Baietz, ondo konponduko zala, erantzun jostunak, eta antxe asi zan euna ebagiten. Bazkaltzeko ordua eldu zanean, egiten ebillana kendu, eta jatekoa ipini eben arasa gaiñean, eta berak, oitura ba ekialako, asiagaz batera esan eban: Guazen jauntxoak... eta abar. Janariak batu, arasako estalkia jaso eta barruan sartu eban dana. Aparitako orduan bardin egin eban, eta danak jan-erdian itxi.

Zarrak euren zeregiñak egin zituen, oea be gertu eutsen jostunari gela baten, eta lotara joatea agindu eben, jostunak arasa lagatean, eurak geitxuago jateko asmotan. Orrela jostunari esan eutsen oea erakutsiko eutsela, eta lotara joateko, nekatuta egongo zalako. Baiña jostunak erantzun:

-Ez andre, nigaitik ez arduratu; nik ebagiten dodan tokian josten dot, josten dodan tokian jan, eta jaten dodan tokian lo.

Eta alegiñak egiñarren, jostuna makurtzerik lortu ez ebelako, danak lotara joan ziran. Baiña euken goseagaz, zarrak ezin izan eben lorik egin. Eta agurea gogoratu zan gelan saku bat urun eukela, eta emazteari esan eutsan zerbait artzeko eta sopa batzuk egiteko. Andrea jaiki zan eta sopak gertuten asi, baiña jostuna esnatu zan, eta su ondora urreratuz, andreari itandu eutsan zegaitik jaiki zan. Berak erantzun liñu barri batzuk egosten iñarduala, aria amaitu egin jakola gogoratu zala eta urrengo goizean dana ondo gertuta eukitearren jaiki zala.

Jostunak ez jakin itxura agertu, eta esan eutsan, ondo zuritzeo ez egoala zetan sutako autsik jaurti, eta besterik barik, eskukada bat artu eta lapiko barrura jaurti eban. Atsoa oera joan zan, eta

senarrari kontatu eutsan gertatua, eta lo egiteko alegiñetan gera-tu ziran. Baiña goseak arrakalauta egozan *lez*, ordu bete edo zer-bait gitxiago igaro orduko, barriro itxartuta egozan.

Orduan gizonak esan eban onena izango zala mijozko opil bat egitea, eta ain zuzen be erremolatxa pixkat egongo zanez, ixil ixil jatxiteko, jostuna ez esnatzeko eran. Eta andreak esan lez egin eban.

Baiña opila ondo estalduta eukanean, jostuna jaiki, beragana joan eta itandu eutsan zegaitik egoan oetik urtenda, eta berak erantzun otz pixkat igarri ebala, eta pixka bat berotzera jatxi zala, lorik ezin eginda ebillalako.

Jostunak berak be otz eukala, eta sua indartu eban, erdi ama-tautako enbor batzuk urreratuz. Orduan makillatxo bat artu eta a-tsoari etxeko erentziagaz gertatutako gauzak agertzen asi jakon, esanez, anai asko izan zirala, ondasuna banatzean naste asko euki zituela, (sola makillaATEGAZ marratu eban sutako auts gaiñean) soloen bat orrela banatu ebala lenengo luzetara (eta arrai luze bi egin zitun sutautsean); eta bidartuta egoanean anaietako batek esan ebala ez egoala ados eta barriro asi bear, eta orduan barriro (beste marra batzuk sutautsean beste aldera begira) banatu bear izan ebela.

Atsoak bere opilla sutako autsez ain naastua ikusi ebanean, eta beragaz baliatzerik ez egoala igarri ebanean, esan eban oera eioala, eta barriro senarrari kontatu eutsan gertatua.

Goiza egin zanean, danak jaiki ziren, gozaria egin eta jaten asi ziranean, jostunak bereala esan: «Guazen jatun txikiok, Jainkoak jaten emon dauskulako, gure maitxoa jaso eta Jainkoari eskerrak emotera. Eta danak igarri eben lez jostunak janari guztiak batuko zitula arasa barruan sartzeko, agurea asarretuta jaiki zan eta esan:

-Ez guaz ez zerbait janda, eta ez gaitu Jainkoak janaritu be, ez da mairik jasoko eta Jainkoari eskerrak emon be guzurretan.

Eta jostunaren zurtasunari esker, goserik ez zan igarri etxe aretan.

122

MORROI JATUNA ETA JOSTUNA

Errege batek morroi andi bat eukan, eta jatuna, Jainkoak emon aiña. Benetako langille zala esaten eban ain langille andi za-lako, egunean zazpi anega gari lantzen zitula eragozpen barik, bai-ña zazpi burdi bear izaten zirala berak jaten ebana eroateko. Eta

nai eta, erregea zan lez, gizon andi eta aberats baten menpean bizi, erregeak bildurra artu eban bere jendetzarentzat aiña janari eukiko ez ebalakuan. Morroi a bere muturren aurrean ipinten eutsen guztia iruntsiteko gai zan.

Erregeak beragandik askatzearren, gerrara bialtzea erabagi eban, eta orrela egin eban berealako baten, an azurrak lagako zitun ustetan.

Lenengo gudaketan, diñogun morroiak zaldi bateri buztanetik oratu, eta beragaz arerio guztiei sekulakoak emoten asi zan. Ain artetsu zan orretan, andik laster bakar bat ez eban bizirik laga.

Erregearen etxera biurtu zan eta onek, gertaera a jakin ebanean, pozik agertu zan gerra irabazi ebalako, baiña era berean penatan ikusten zan (bere janari guztien azkena zalako) morroi a bizirik ikustean.

Gero, inguru aretan entzute andia eukan suge baten ondora bialtzea erabagi eban. Suge orrek, esaten ebanez, bere ondotik igaroten ziran guztiak ondatzen zitun. Baiña gure morroiak ogi pixkat eroian, eta sugeari jaurti eutsan orretan jolastu egian. Sugreak, jan ondoren, mutillaren gain jarki nai izan eban, baiña onek patrikaren erabillan linu obillu bat jaurti eutsan, zur izanaz, baiña txitena bere eskuetan eukala, bera be irunsi ez egian. Eta bitartean sugeari lepotik oratu eutsan, eta lurraren aurka jaurti eban ain arin, sugea zentzu barik betiko geratu eragiteko eran.

Erregeak barriri ori jakin ebanean, urduri geratu zan, morroi arengandik askatzeko biderik ikusten ez ebalako. Asmo guztiak galduta gero, bein jostunari deitu eutsan jantzi batzuk egitera. Morroi bat joan zan jostuna egon tokira, erregearen agindua eroatera. Zer nai eban esan eutsanean, jostuna mutu geratu zan. Mutillak egitada ori ezeppen lez artu eban eta arpegiko bat emon eutsan, baiña jostunak ez dakit zelan dana peatzeko zerbait eukan masalletan, eta morroiaren eskua be an geratu zan eratsikita. Au asarretuta, beste bat emon eutsan eta bardin geratu. Gero ostikada bat emon, eta jostunaren gorputzean itsasita geratu zan, eta indar egiten asi zan askatzeko, eta orrela ebiltzala, euren eskuman urreéurrean egoan erreka batera jausi ziran, eta igarri barik antxe amaitu euren egunak. Orrela, ezelako asmakizun barik, erregeak bere betiko kezka alden du al izan eban.

123

MASIDE'KO JOSTUNA

Oraindik bere seme bat bizi dan jostun bat bizi zan Maside'ko auzoan, eta sekula jostunei ordaintzen ez ekien etxe batera joan zan lanera, eta danak esaten eutsen ez eutsela euren lanik kobratuko.

Jostea amaitu bear eban egunean, askari bat emon eutsen. Askaldu ondoren, joateko agindu eutsen, ugazabarik ez egoala etxean, eta ezin ordaindu eutsela; baiña beragana joango zirala biaramonean ordaintzera. Baiña jostunak, ba ekialako etxe aretan zer egiten eben, etxeko jauna eldu arte zain egongo zala esan eutsen.

Etxekoak, jatea nai eben lez, esaten eutsen bear ba zan, egun aretan ez zala etxeratuko. Eta jostunak, igarri ebalako etxetik kanpora baldu nai ebela, esan eban:

Nai dozuena egin, baiña ni ordaindu arte ez naz emendik joango, eta gaiñera, emen igaro bearko dodan eguna laneko egun lez ordaindu bearko daustazue.

Angoak, joan nai ez da ebillala ziurtatu ziranean, nausiarengana joateaz berbatu ziran (a bertako gela baten egoan), eta esan eutsen bildurrik ez eukiteko, ordainduko eutsala, baiña egun aretan ez eukala dirurik. Baiña jostunak erantzun eutsen, etxeko bestei esateko, ez zala andik joango, eta nausiak auzoko etxera diru eske joan ba litz lez, ordaindu eutsan. Gero jostuna pozarren joan zan.

124

JOSTÚN JATUNA

Bein jostun bat etxe batera joan zan jostera. Eldu zanean gosaria emon eutsen, eta jan ondoren, esan eban:

Ondo da, orain bazkaria emon ziñei, eta jarraian ekingo dautsat josteari. Etxekoak, lan geiago egingo eutselakoan, bazkaria be emon eutsen. Jostunak, bazkaldu eta esan:

Ia ia afaldu be egingo neuke, orrela gero gabaz lan egingo neuke.

Etxekoak, lan asko emoteko asmoa euken lez, aparía be emon eutsen. Jostunak jana amaitu ondoren esan eban:

Ondo dago, apaldu ondoren ez da lanik egiten. Etxera nua eta biar deitu.

125

JOSTUNA ETA ARIA

Bein jostun bat etxe batera joan zan jostera, eta etxeokoandrea bildur zan arek aria ostuko eutsalakoan, eta kutxa baten sartu eben, josten ibilten zan tokian, eta ultzeagaz josi, baiña ari ertza laga eban kanpora begira, bear ala erabili egian.

Ala, sukaldera joan zanean janaria gertutera, jostunak paper zati bat artu eta bertan batzen joan zan aria, eta andrea beragana biurtu zanean, eskuak lotuta ikusi eban, lanik egin barik, eta esan:

Zelan ez dozu geiago josten, jauna?

Aria amaitu dalako, -erantzun jostunak.

-Ondo da, jauna, ondo da. Danak esaten eben zuk aria ostu egiten dozula, baiña ikusten dot guzurra dala.

126

BOST TXAPELDUN JOSTUNA

Jostun bat etxe batera joan zan jostera, eta eldu zanean, e-txeko andreak esan eutsan:

Ai jauna, emen daukadan eun zatia txapel (buruko) baten orde z birezako ba litz!

Bai andrea, bai, elduko da.

-Eta irurentzat, ez litzake?

-Baita.

-Ai zelako jostun ona zarean. Zu edo gure Jauna! Eta bosten-tzat be elduko litzake?

-Elduko da, bai, andrea, elduko da.

Ba egin bost bardin, nire bost txikientzat.

Orrela andrea lanera joan zan, eta lanetik biurtu zanean, jostuna jezarrita billatu eban, eta txapelakaitik itandu eutsan. Jostuna alboko gelara joan zan eta atzamar bakoitzean buruko bat eka-rela sartu zan.

Ene ba, jauna, orreik txikiegi dira!

Eta berak erantzun:

Zer pentsaten zendun ba, eun (tela) barik bost buruko egingo nitula? Ba ori ezin leikena da.

127

JOSTUN ADORETSUA

Bein, baserri baten, josten ikasi eban mutiltxo bat bizi zan, eta sekula ez eban nai izaten josten eban etxeetan lotan geratzerik, pentsatu ez egien gabaz josten ebala. Bein, etxerako bidean, igarobide estu batetik igarotean, gaba illun-illun egin zan, lurreko ezer ez ikusteko eran.

Bide estu orren erdi inguruan joiala, igarri eban samatik oratu eutsela, eta artu eban bildurragaz, geldi geratu zan, ibiltzeko adore barik. Ez eutsela lagaten ikustean, Jainko eta santuekaitik askatzeko eskatzen asi zan, berak ez eutsalako iñori kalterik egin, ez eta iñoren aurka sartu be. Orrela igaro eban gau guztia, aske lagateko eskatzen, baiña eukan bildurraz, ez zan ausartuten ezetarako zirkiñik egiten.

Azkenean, eguna egin zanean, ikusi eban estututa eukana -sasi-masi bat zala, eta esan eban:

Gizona izan ba'litz, sama ebagiko neutsan olakoari!

128

JOSTUNA ETA MUTIL KOSKORRAK

Bein jostun bat etxera joian, bere txakur emeagaz, eta mutil koskor batzuk berak jantzia egitea nai eben, baiña ez ekien zelan deitzen zan. Eta deitu eutsen:

Txakurdun gizona! Txakurdun gizona!

Berak, ezer erantzun barik, txakur-emeari esan eutsan:

Aurrera, jarrai, txakur eme,
laster elduko gara ta aurrera,
jostunak ez dira ta gizon,
ez eta emea txakurra.

h) ARGIÑEN KONTUAK

129

OSTATU BILLA EBILTZAN ARGIÑAK

Iru argin ostatu billa ibilli ziran, baiña ez eben aurkitu. Alkarre-gaz erabagi eben, gau erdian zabalik ikusten eben leioen batetik sartuko zirala, lastorik ete egoan ikustera. Lenengoz igotera gertu zana, burdi baten agetatik goratu zan eta deadarka asi zan:

Ai, ai, ai!

Besteak pentsatu eben lastoari buruz asi zata, ba egoala-ka, eta danak goratu ziran eta eskegita geratu.

130

ARGIÑAK ETA ITARGIA

Iru argin lan-eske ebiltzala, aspertuta etozan eta goseti.

Zubi batera eldu ziran, eta gaua zan lez, itargia ibaian antziruditzen zan, eta mijo bola baten antzera ikusten zan, eta jatea erabagi eben.

Bat eskuakin zubiari utsita aidean geratu zan, besteak bere eskukin bestearen ainketan utsita geratu zan, eta irugarrena bigarrenaren ainkei utsita lotu. Danak alkarri utsita geratu ziran, makal utsita egoana esaten asi zan:

Goiko Alfontso, beko Alfontso esan egiozu bere ainkak uretan oiñarritzeko, nik neure eskuak indartzen dodazan artean.

Orrela egin nai izan eben, baiña irurak uretara joan ziran.

131

ARGIÑA ETA PIPERRA

Denpora asko dala, nire errian gizon bat bere etxea egiten ebillan, eta orretarako argin talde bat ekarten eban. Oneri pipermiña atsegin jakoen gosariko saldatan. Argiñetako bat biargintzat egoan, eta besteei jatara deitzen eutsanean, bera lanean geratzen zan une baten. Bein, lagunetako batek etxeakoandreaki eskatu eutsan, lanean geratu zanaren katilluan saldarik ez jaurtiteko, berak eratu bear ebalako. Piper lata artu eta zati andi bi jaurti eutsazan katilluaren ondora, eta etxeakoandreaki esan:

Orain zuk geldi-geldi jaurti salda, katillua asko erabilli barik, naastu ez daiten.

Etxekoandreak orrela egin eban, eta besteagana eldu zanean, agertu eutsan maltzurkeriz:

Orra katillu, jaurti orain piperra.

Besteak orrela egin, eta naastuten asi zanean, esaten eban:

Iño! Piper au oso ona izan bear da, kalduari kolore asko emoten dautsalako.

Naastuten jarraitu eban, eta azkenean kaldo orde, odola irudian. Gizona jateko asmotan asi zan, eta al bestean iruntsiten joan

zan. Eta amaitu ebanean, maltzurkeria egin eutsan lagunak esaten eutsan:

-Judas'ek jan zaitzala, ao ona daukazu ta!

132

POZIK BIZIKO ZARIE

Esaten dabe. Ama Birgiña mundutik zear ibili zanean, egiten iñarduen etxe baten alboan laga ebala bere astotxoa, beste batera eskean joan zan artean. Argiñak, ixeka egitearren, astotxoa aldamiñora jaso eben, eta benetako jolasean ebiltzan, Ama Birgiña bere astoaren billa biurtu zanean. Berak, ain urrun ikusten, esan eutsen:

-Alai biziko zarie, baiña aberats ez zarie ilgo.

Eta diñoē aiñen bat izan zala, eta arrezkero argin batik ez dala aberats egiten.

i) GIZON BILDURTIEN IPUIÑAK

133

OSABA JON'EN AMEZTIA

Orain dala denpora asko, bere burua argitzat eukiarren naiko tentel zan gizon bat bizi zan, eta atsegiñez ikusten zan ondo landutako amezti baten jaube zan. Tartetan bere zuaitzak ikustera joaten zan, zenbat egiten ziran konturatzeko, baiña oartu zan batzuk ostu egiten eutsezala, eta bere barrurako, lapurreta orrein egillea Jorke izena eukan auzoko gizon bildurti itxurako bat zan.

Jonek, Jorke bildurtu eta geiago beti illuntzetan egiten zitun bere egitetara ez joateko asmoz, zabaldu eban bera illuntze baten Tondal'eko ameztira joan zala eta bildur andia sartu eutsan mamu zar bat ikusi ebala, eta ez eukala geiago andik zear joateko adorerik, beretzat mamu a deabru nausi berbera izango zalako.

Egun batzuk igaro zitun Jonek andik biurtzen. Orduan, itargidun gau baten, bere basora joañ zan zuaitzak ikustera, eta urreratzean, arnasa barik laga eban zarata ikaragarri bat entzun eban. Zuaitzak jausi eta lurra jota geratzen ziran, eta Jonek uste izan eban inpernu guztia ebillala andik. Ain ulermen gitxi eukalako, sartu jakon bildurragaz gaixotu eta aste batzuk oean igaro zitun. osatu zanean, bere ametzak ikusten garretan ebillalako, goiz baten joan zan ikustera, eguzki argitan, eta konturatu zan geienak falta

jakozala, eta azkenean ikusi eban, Jorke bildurtzeko asmatu eban ipuiñak, berbera ikaratu ebala, eta Jorke bildurti lez agertzen zala, eta ez zala orrelako, eta Jon berberak baiño gogo eta adore biziagoak eukazala.

134

GIZON BILDURTIAREN PIKUAK

Gizon koitadu batek pikutza eder bat eukan, baiña beti ostuten eutsezan pikuak. Origaitik urte baten eurak zaintzera gertu zan. Bildurtia zan, ikara eutsen biztutako illei, atsekabetan egozan arimei eta sorgin eta mamuei.

Gau baten, forkito bategaz armatuta, pikutza ondoan egoan orman eskutatera joan zan. Bertan egon zan gau erdirarte. Ordu onetan mamu jantzitako maltzur batzuk agertu ziran, zarataka eta kantuz:

Len, biziak giñanean,
maite genduzan bideak,
orain illak gareanean
maite doguz pikupeak.

Eta gizona, sartu jakon bildurragaz, itsumustuan ariñetan asi zan, galdu eban forkittoa, galdu baita oiñetakoak eta baita praka erdiak be. Oean sartu zan eta an egon bearra emon eutsen sukarrak jo eben. Eta bitartean, auzoko mamuak jaten eutsezan pikuak.

135

PIKUAK OSTU ZITUEN MUTILLAK

Bein gazte bi denda batera joan ziran eta pikomelatu otzara bat ostu eben. Pikuak banatzeko, kanposantura joatea pentsatu eben, eta eskutuan egitearren, erdi-egiñean egoan obi baten sartu ziran. Baiña ain zuzen parroki aretan egun aretan ildako bat egoan eta oiturazko eben gabaz kanpaia jotea. Orduan mutillak obi orretan sartuta egozan, eta an ebiltzan banatzen:

Bi zureztat, beste bi nireztat, eta abar. Eta obiratzaillea eldu zan kanpaia joteko asmotan.

Onek, an sartu eta berba orreik entzutean, abadearengana joatea pentsatu eban. Eta biak Guardi Zibillari jakin eraztea. Guardiak eldu ziranean, mutillak an ebiltzan euren banaketa egiten, eta obitik kanpora jausi jakoezan piku batzuk. Orduan esan eben:

Orra ba, orain zuk estalkia artu eta nik kutxa, eta goazen kan-

poan dagozanen billa.

Kanpoan egozan guardiak, ori entzuten ebenean, euren billa joiazala pentsatu eben, eta alkar jotzen ariñeketa bizian kanpora igesten asi ziran, eta euretakoren batek bere pusilla be an itxi eban ikarearen ikaraz.

136 AZA SAKUA

Dirala urte asko, Goian auzoan Perikiño deitzen eutsen gizon txiki bat bizi zan. Benetan bildurtia zan eta sorgiñetan asko sinisé tuten ebana. Beretzako, gauetako argi guztiak, sorgin, mamu edo lamiñak ziran, jarraitu edo laguntzen eutsenak. Orrelakoxe adorez ikusi eta ibiltzen zan.

Gau baten, Otero deitzen zan inguruko auzo bateko neskatil bat ikustera joan zan, eta orretarako, lretxa deitzen zan erritik igaro, eta erriaren amaieran, kanposantua egoan tokian, orma gaiñetik mamu andi bat igaroten igarri eban, gitxienez berreun metro-tan, eta Perikiño gixajuak, sartu jakon ikareagaz, ez eban besterik egiten jakin etxe baten atadian bere lepoa ertzeratu eta eguna egin arte bertan egotea baiño.

Orduan etxeoandrea jaiki eta atea zabaltzera joan zanean, Perikiño lepoz jausi zan atzeraka. Atsoa ikaratuta berba barik geratu zan. Berera etorri zanean, eta ezagutu, itandu eutsan zek eroan eban ara, eta Perikiño'k gertatua adieraso eutsan. Eta atsoak, ainbat barre egin ondoren, esan eutsan:

Zuk ikusten zendun mamu andi ori, azaz betetako saku andi bat da, bart nik an astuta laga nebana, eta ain zuzen oraintxe nua bertara, Sarria'ko merkatura eroan bear dogun idi bateri emoteko.

137 LABRADA'KO ANDRES

Bein gizon bat bizi zan. Labrada'ko Andres deitzen zan, eta Gorpuztiko jaira joan zan, eta an asko gustatu jakon neska bat ikusi. Jaietan alkar lagun ibili ziran, eta gaba eldutean itandu eutsan etxerarte lagunduko ete eutsan, eta berak baietz erantzun, baiña bidean joiazala, esan eutsan:

Zuri atsegin jausi ezkerro, gogo onez ezkonduko nitzake zuzgaz.

Eta berak erantzun:

Asmo onagaz ba da, ondo etorria izan zaite, baiña oker ba

zabiltz, artu egizu ekarri zaitun bidea.

Eta mutillak erantzun:

-Gogo onez nator.

Beste egun baten ikusteko geratu ziran. Eta egun orretan txakur kume bat eta aizto bat eroan patrikaran, eta gau beranduan neska agurtu ondoren, eta etxera etorrala, Toiran inguruko lautadetan, mamu andi bat ikusi eban, luze-luzea, eta bera barruraino ikaratu zan, eta beste bide bat artu nai izan eban, eta txakurtxoia esku baten eta aiztoa bestean artuta azi zan:

Jainkoak nai dauana izan dedilla, eta emendik joango naz, eta il bear ba da, ilgo dot.

Baiña zenbat eta urrerago eta andiago iruditzen jakon. Eta ika raz esan eban:

-Ai Jainkoa, galduta nago.

Eta orrela ebillala, Jainkoari eskatu eutsan a zer ete zan agertzeko, esanez:

Ez daitela izan beintzat, nik zelako adorea daukadan ikustearren dabillan nire neska laguna.

Gero Aitaren egin, Jainkoak agertu eioan a zan edo ez otoi egiteko belaunikatu, eta aurrera joatean, gero ta andiago ikusten ebalako irudi a, barrero Aitarenka asi zan. Ortoa"ko Andra Mariari Salbea esan, bere ondotik igaroteko adorea emon egion, eta txakur txikia aurrean ipini, «pun» egin, eta txakur kumeak atara eban suak jakin erautsan kakanarru bat zala, aoan auntsaren kaka-pekotza eroiana.

j) **GIZON ARDURABAKOEN IPUIÑAK**

138

OTERO'KO JON

Otero'ko Jon mutil azkarra zan; ezkondu eta errira joan zan. An, neskak dote lez eroan eutsazan diru apurrekin, dirubide bat ipini eban, eta dirutxuak iraun eben artean dana ondo joan zan. Baiña amaitu ziran, egunero joan bear zalako azokara, eta sarreak txiki ziralako, eta batez be kontuekaz ez zalako gogoratzen (ikastolara ez zan sekula joan), eta idazten ez zitulako, berari eta bere zordunei kontuak egitea astuten jakelako. Orrela, bere gurasoen baserritxora biurtu bear izan zan, eta barrero atxurra artu

bear, nai ta orrek poztasunik emon ez berari.

Baiña bein, atseden egiten iñarduan denporan, zigarrotxoa egin eta izerdiari laguntzeko ur apur bat edanaz batean, gogoratu zan urietan jende asko egoala loteria jokatzeko, eta orrela dirutza be egiten ebela, eta berak, geiagorik pentsatu barik, lagun bateri deitu eutsan dukat biko txartel bat bialtzeko, orretan zelako zoria eukan ikusteko.

Domeka baten mezatara joan zan eta san Antonio'ri eskatu eutsan, andre on eta eroapentsua billatzen lagundu eutsan eran, loterian be zori ona lortzen laguntzeko, dirutxuen bat egin al izateko. Eta ezek urteten ba eutsan, emongo eutsala diru apurren bat san Juan jaietarako.

Baiña, itxuraz, edo entzun ez edo berari komeni ez, jokatu zitun dukat biak galdu egin zitun.

Barriro joan zan santutxuari otoi egiten, baiña egun orretan sakristaua egoan aldare atzean. A barrabas utsa zan. Eta igarri eutsan Jon'eri eskaria egiten:

Santutxu bedeinkatua, egizu loteria jausi dagidala; len ba dakizu dukat bi jokatu nituala, ardautarako bearrezko nituanak, eta galdu. Beti lagundu daustazun santu orrek, ondo ezkontzen be lagundu, eta eskatzen dautsudanean, eta nire arditxoak otsoak eta abere arrapakariak eroan barik etxera zuzen ekarten daustazun orrek, lagun egidazu loterian, eta dukat bi emongo dautsudaz.

Eta sakristaua, barreari eutsi ezinda atzean egoala, esaten asi zan:

Jon, geiago jokatu, bidartu ori,

Eta Jon'ek alaxe egin eban, baiña betiko ondorenagaz.

Barriro joan zan otoi egitera, lengo antzera, eta santuak, sakristauaren aotik, bidartzeko (doblatzeko).

Geiago jokatu eta beste ainbeste etsimendu, eta barriro ez galtzeko eskariak baiña dana galtzeko. Loteriaren kontura lurraldetxu bat be baitu eban, eta barriro joan zan aldare aurrera eskaria barrizatzen:

-Santu bedeinkatu orrek, ez dozu ikusten ondatu egin bear nazala? Lurralde bat baitu dot, ez daukat bakerik be nire andrea-gaz. Ikusten dozu premiñan nagola, jakiten ba dabe lurraldea baitu dodala, etxetik kanpora atarako nabela, eta aterik ate eskale ibili bearko nazala. Lagun eidazu, aurten nik nai neuke parrokiko urteko jaia eratu be ta.

Santuaren abotsa barriro esaten: Bidartu Jon.

-Zelan bidartuko dot bei oria besterik ez ba jat geratzen?

-Ba makurtu, makurtu belaunak eta lan egizu, barrabas orrek!

139

TXITXAR OPILLA

Labarik ez eukan gizon bat bizi zan bein. Ogia egostera auzoko baten etxera joan bear izaten zan beti. Bein, egosi bearreko orduan, bazkal ordua be ba zan eta goseak jo eban, eta ogia laban sartuta eukan lez, bazkaltzera joan zan, ogia egiten laban lagata, eta gaiñera txitxar opil bat, berau be ogia bakarrik lagateko opil ederra.

Auzoko etxe baten gazte bi bizi ziran, eta jakin eben ogia bakarrik itxi ebala, eta txitxar opilla ostutea erabagi eben,

Alaxe egin be. labara joan eta txitxar opilla artu eta taberna batera joan ziran, eta tabernariari litro bat ardauskatu eta jaten asi ziran, sabelkada ederra egiñaz.

Jaten pozarren ebiltzala, txitxar opillaren jaubea eldu zan, eta jatera deitu eutsen. Joan eta jaten asi zan, eta naiko beteta egoala esan eutsen:

-Prisaka nabil eta ba nua. Eskerrak.

Eta eurek erantzun:

éJan, jauna, jan, zeuretik jan.

Eta gizonak, ori entzun eta arin joan zan andik eta txitxar opié lli k billatu ez laban. Eta orduan esan:

-Egia iñoen. Eskerrak ez zalá dana galdu, neuk be zerbait jan nebalako.

140

GIZON AZKORRA

Urte asko dirala, gizon bat bizi zan. Azkorra zan, au da, atzenkorra. Bein errira joan zan bere prakentzako euna erostera, eta jostunak, etxetik urtetean, esan eutsan:

-Gogoratu zaitetz pana deitzen dala, edo ta bestela begiratu praktetan daukazun txatalari gogoratzeko (panazko txatalaz konpondua eukalako).

Eta bidean esaten joan zan:

-Pana, pana, pana...

Baiña dendara eldu baiño len aztu egin zan pana esateaz, eta

- gogoa, gogoa esaten ekin. Eta dendan sartzean, an saltzen iñar-
duan neskatillari, itandu eutsan:

Neskatil, gogorik ba daukazu?

Arek itandu zeren gogoa. Eta mutilla izenagaz gogoratzen ez
zalako, praktetara begiratu, eta panazko zatia eukan ingurua era-
kusten eutsan atzaparragaz, eta esan:

Emen daukadan onena.

Neskatillak, dana beretik urtenda, esan eutsan:

Lotsabakoa, joan zaitez kanpora, zure lepoa eskuan daukadan
kana makillagaz neurtzea nai ez ba dozu.

Eta gure mutillak, azkorra zalako, bere praktetarako bear eban
pana barik urten bear izan eban.

141

GIZON ALPERRA ETA ASTOA

Bein bere ustez gizon azkarra zan bat, asto baten gaiñean
ebillala, galdu ebala esaten eban bere astoaren billa ebillan. Eza-
gun baten ondotik igarotean itanduten eban bere astorik ikusi ete
eben. Alako baten oneitariko batek erantzun eutsan:

Baiña zu zeu gaiñean zoazan astoa, zeñena da?

Eta beran erantzun:

-Egia, izan be oiñez nabillalakoan nebillan.

142

AUGUSTIN'EN GERTAERA

Marzan'en famili bat bizi izan zan. Lau lagunek osotzen eben:
Andrea, Mingas izenekoa, beste andre bat Marijuana, Augustin
deitzen zan gizona eta Mingas deitzen zan txiki bat.

Bein sopa artzen egozala, lapikoan zapoa zala iruditu jakoen
zerbait ikusi eben. Orduan, danak ilgo ziralakoan, Augustin ariñe-
ketan joan zan auzoko errira osagillearen billa.

Bitartean, andrak obeto begiratuaz, ikusi eben amaluzko arilla
zala, eta deitu eutsen Augustin'eri:

Augustin, etorri zaite, ari zatiak dira-ta!

Mingas il dala? Ai ene, ni be ittoten nago.

Ez, ez, zati txikiak, aril zatiak.

Txikia be bai? Ai ene, ittoten nago!

-Ez, ez, arilla lakua!

Eta Marijuana? Ai ene, ittoten nago!

Eta gero ta biziago joan zan osagillearengana, eta eldu zanean, uste eban bera be illa zala, eta osasunez beterik eldu zan. Ain itsu ibilteaz estututa ebillan, ez besterik.

143

OE OIAL BALTZETAN LO EGITEN EKIAN MUTILLA

Bere oean, beti oial baltzetan lo egiten eban mutillaren kontua esango dogu, sekula oe-oial zuririk ikusi ez ebanarena. Neska itxusi bat aukeratu, dotea erabagi eta eleizara joan ziran. Ezkondu ziran eta neskaren etxera joan, ondo azkaldu eta lotarako geratu ziran.

Eta ezkontzako aita-besutakoa joan zan oe ondoraiño ezkonbarriei laguntzera. Oea zuri zuri egoan, eta mutillari iruditu jakon edurra egoala. Aita besutakoari, ordeztu, asko atsegin, eta sekula ain zuririk ez ebala ikusi eta bertan etzateko esan eutsan mutillari. Baiña mutillari ez eutsan pozik sartu ainbeste zuritasunak, berari otzikadak'emoten eutsazalako, eta aita besutakoari esan eutsan:

Sartu zaite zeu neskagaz bertan, eta ni oe azpian geratuko naz.

Orretarako erregu egin bearrik ez eban euki aita besutakoak, eta gau erdirako an ebillan bera, geldi egon ezinda, eta igitada guztiak mutillari ikututen eutsen, eta alako baten onek oe azpitik deitu eban:

Aita besutako, dardaraka zabiltzala dirudi... Ez sartu bear edurtzan. Zeurea errua!

k) LEGE GIZON ETA ESKRIBADUEN I PUIÑAK

144

LURPEKO DIRUAK

Dirutxu batzuk eukazan baserritar batek, lapurrak ostuko ete eutsazan bildurrez, ortuan, lur azpian ontzi baten sartuta obeto eongo ziralako pentsatu eban. Eta bururatu jakon lez, egin be.

Ortutik kanpora joiala, alboan egoan etxe bateko leioan egon lege gizon bat ikusi eban, baiña ez eban jaramon andirik egin. Baiña biaramonean, ortutik zear joan eta konturatu zan dirudun ontzitxoan eroan egin eutsela. Bereala bururatu jakon ori egin eikeana lege-gizona izango zala, eta beragana joan zan itaunketa bat egi-tera.

Esan eta egin, joan zan eta bereala:

-Itauntxo bat egin nai neuke.

-Zuk esan.

-Ara, jakin nai neuke, lurpean sartzen dan urrea anditzen ete dan.

-Bai jauna, bai, eta asko.

Etxera joan zan baserritarra eta ortua zaintzen geratu zan eskutuan. Lege gizonak, diru geiago eroango ebalakuan, diru ontzia ortura biurtu eban. Eta lege gizona ortutik kanporatu orduko, baserritarra joan zan ontziaren billa, eta barriro lege-gizonaren etxera joan, eta diru-ontzia erakutsiaz esan eutsan:

Dana dakizun lege-gizon jaun,
dana nai dauanak, dana galtzen dau.

145

BASERRITARRA, LEGE-GIZONA ETA EULIAK

Baserri baten gizon bat bizi zan. Ez eukan andrerik, ez seme-rik, eta origaitik bakarrik bizi zan bere etxetxoan. Baiña gizakirik euki ezarren, beragaz bizi ziran oillo batzuk, txarrikume bi, txarri gizendu bat, bei bat bere txalagaz, eukiten ebanean, eta egun guztia sutondoan igaroten eban katua.

Bakarrik bizi zanez, berak egin bear zitun gizonaren biarrak eta andrearenak be bai; beia eratziten eban, gaztaia egin, esnea irabiatu eta guriña atara, gantz opilla egiteko. Gantz opil au zan aidean erabilten ebana, batez be udan, euliak ez eutselako bakte-tan isten.

Sasi jakintsu zan auzoko batengana joan zan, euliekin geiago ezinda, eulien aurkako zerbait erakusten ete eutsan. Sasi-jakintsuak, ulea artu nairik, esan eutsan, orretarako onena makilla bat artu eta ikusten eban bakoitza makillaz jotea zala, eta orrela guztiekin amaituko eba.

Gizona laster konturatu zan bestea berari adarra jo nairik ebi-llala, eta gizonaren buru soillean euli bat geratzen ikusi ebanean,

bere makilla jaso eta goitik berako bat emon eutsan buruan, esanez:

Makillakadakaitik ba da, or bat asierako.

146

ONTZAKO TXIKI BIAK

Baserritar batek auzoko bateri zor eutsazan dirutxu batzuk, eta lege-gizon batengana joatea pentsatu eban, ez ordaintzeko biderik ba ete egoan jakitera. Lege-gizonak itandu eutsan auzokoak ordaindutako txartelik ba ete eukan, lekukoen aurrean egiñik, eta baserritarrak baietz erantzun:

Orduan lege-gizonak:

Orrela ba da, ez dago urten biderik. Ordaindu bear da.

Zer egingo da ba! Baiña ez neban artuko miñik ontzako txiki bi oneik gastatzen, nire auzokoari ez ordaintzeko biderik egon ba litz, denpora dalako alkarregaz ez gabiltzala adiskide.

Lege-gizonak besteak eukazan ontzako biak ikusi, eta galtzeak zirikatu egin eban, eta legedian zerbaiten billa ebillalakoan ibili ondoren, esan eban:

Ara. Emen daukagu zerbait. Pentsaten nago zuk tentelki jokatatu ezkerro, besteak kobratzea gaitz izango leukela. Zuk ez ordaindu, eta dirua eskatzen dautsunean, tentel itxura artu, eta al bestean aoa zabaldu eta «A...a...a...aaaa» esan.

Ulertu eban baserritarrak nundik ebillan lege-gizona, eskerrak emon, ontzakoak bere sakelean gorde, eta kanpora joiala, lege-gizonak deitu eta esan eutsan:

-Jauna, eta ontzakotxuak?

Eta bestea, aoa zabalik, «A...a...aaaa...ka asi eta joan zan.

147

KUKUA ZEĨNENTZAKO KUKUKA?

Xanti eta Bailon errira joan ziran bein, zartzarokoa artzera. Bidean joiazala, kukua asi zan kantuan eta Xanti'k Bañon'eri:

Kukua niretzat.

Eta Bailon'ek:

Ez, kantu ori niretzat da.

Eta beste barik, sekulakoa asmatu eben bien artean, eta aske-

nean lege-gizon batengana joatea erabagi eben. Aren idazgelara eldu eta agertu eutsen zer gertatu jakoen eta zer zan euren auzia. Lege gizonak buruari ats egin unetxo baten, eta esan eutsen:

Ipini egizuez bakoitzak berrogei ta amar dukat, eta gero esango dautsuet kukuak zeññentzako kantatu daben.

Euren poltsatxoak atara eta mai gaiñean ipini zituen berrogei ta amarna dukat eta lege-gizonak, diruei otsa atara eragiñaz, esan eban:

-Orain esango dautsuet zeññentzat egin eban kuku kukuak: kuku... niretzat.

148

ANAI BIREN BEIA ETA DON KRISPIN ABOKATUA

Erri baten gizon batek seme bi eukazan. Il zanean, beia itxi eban bientzat. Zarragoak esan eban bei ori berea zala geienbat, geiagotan zaindu ebalako. Orduan gazteagoa don Krispin deitzen zan abokatu batengana joan zan. Onek esan eutsan berea geiago zala, gazteago zalako.

Biamamonean zarragoa joan zan don Krispin'engana, eta onek erantzun, ia dana berari tokaten jakola, zarragoa zalako.

Orretan, don Krispin'en andreak beste aldetik entzunda, bere senarrari deitu eutsan:

-Ez dozu ikusten beia dala ta alkar ilgo dabela?

Eta orreri abokatuak:

-Ixil zaite, tentel! Ez dozu ikusten beia zeurea dala?

I) IKASLE ETA SOLDADUEN IPUIÑAK

149

«DAGO» ETA «EZ DAGO»REN IPUIÑA

Gizon bat eta emakume batek apostu egin eben zein zan argiago, ikasle bat ala soldadu bat, eta bie agindu eutsen «dago» eta «ez dago» ko pezeta bat billatzeko. Ori entzun eta ikastea an ibili zan taberna eta antzerakoetan, orrelako ezer billatu ezinda, baiña soldadua, besteak baiño zurrago diran lez, pozik joan zan eta peseta biak edarrietan gastatu zitun. Eta eldu zanean, esan

eutsen:

Sartu egizue eskua nire patrikara onetan.

Eta an ez egoan lez ezer, erantzun eben: «ez dago».

Sartu beste aldekoan.

Eta an peseta bakarra eukan lez, eta eskua oztutean igarri, esan eben: Dago.

Eta berak orduan:

Or daukazue eskatu zenduena.

Origaitik soldadua ikaslea baiño argiagotzat geratu zan.

150

ARRAUTZA BRIXITUAK

Bein mandazain bat erriberatik etorran arda zara giz beteta. Eta bere etxera eldu baiño len gaba egin jakon lez, bidean ostatua eskatu eban. Apaltzeko amabi arrautza brixidu eskatu zitun.

Eguna egirr eta urteterakoan, konturatu zan dirurik ez eukala, arda erosten eralgi zitulako eukazanak. Etxekoandeari esan eutsan biurtzerakoan egingo ebal kontua.

Mandazaiñak, kilin-kolon egoan zubi bakoitzetik igarotean, esaera au gogoratzen ekian:

Jainkoa ona da eta deabrua ez da gaiztoa.

Eta zubia igarotean, eskeko potu bi egozan, bat arimentzako eta bestea deabruarentzako. Eta gizonak, andik igarotean, anmentzako txanpon bi lagaten zitun, eta deabruarentzakoan bat.

Lau urte igaro ziran mandazaiña andik barriro igaro barik, eta zor eukan dirua ordaintzera joan barik. Onetan etxekoandrea kontua egiten asi zan, esanez:

Amabi arrautzak, kokatu ezker, amabi txita biurtu eikezan. Txita oneik beste amabi urrengo urterako, eta orrela, lau urtetan, ipini eikezan arrautzetatik gain.

Era orretan ez dago munduak ordaintzeko dirurik. Orretara ez dot ordainduko.

-Ba esaten dodan eran ordaindu ezik, auzitara eroango zaitut.

Eta alaxe egin be.

Epaitegira joateko deitu eutsen egunean, bidean joiala, mandazaiñak gizon bat billatu eban bidean. Au deabrua zan eta itandu

eutsan zer gertaten jakon:

-Ez zaitez artegatu, auzi au nik aldeztuko dot, eta ondo amaituko da. Auzia egiterakoan, erdi-aldean ni sartuko naz, eta ez bildurrik euki, nik ez dautsut ezer kobratuko-ta, ordainduta daukazu-lako zubitik igarotetan nire potuen lagaten zendun diruekin.

Auzia erabagiten egozala, deabrua sartu zan eskuan sarda andi bat eroiala, beian zerbait zabaltzen ebillala iruditu eragiten, eta epaikariak esan eutsan:

Gizon edo deabru, zoratuta zagoz. Zelan ausartu zara era orretan emen sartzen?

Ez nago zoratuta ez. Gaztañak erreten ibili naz, gaztain landarak sortzeko.

Eta gaztain erriak gaztain landarak emoten al dabez?

Gaztain erriak gaztain landarerik emoten ez ba dabe, arrautza brixituak be ez dabe sortzen txiterik.

Orrela mandazaiñakauzia irabazi egin eban, eta arrautzak jan zitunean balio eben dirua bakarrik ordaindu bear izan eban.

151

SOLDADUA ETA OIÑETAKUAK

Bein soldadu bat zerbitzutik etorran, eta denda baten sartu zan oiñetako batzuk erostera. Begira egon, eta saltzen ebillan emakumeari esan eutsan, ondo ete eukazan ikusten lagateko. Baietz esan eutsan emakumeak, eta berak alaxe egin. Eta jantzi zitunean, esan eutsan:

-Ai andrea, nai ba dozu' erakutsiko dautsut bero dagonean beiak zelan eulietatik askatu nai izaten daben:

Zelan?, andreak.

Ara, begiratu... eta arin-aringa asi zan, oiñetako barriekin, eta ordaindu barik iges egin.

152

I KASLEAREN DIRUAK

Bein, batek bere semea urira bialdu eban ikastera. Etxetik urtetean aitak semeari esan eutsan:

Tori, beste milla geiago. Ez gorde ostatuan. Jaunen bateri emon egiozuz an, zeuk bear-ala emoten joan daiten.

Mutilla urira eldu zanean, gizon arduratsu bat ikusi eban, bere

ustez kontzientzi onekoa izango zana, eta esan eutsan:

-Ara, ni baserritarrá naz, eta emen daukadaz milla errial ikas-taro bitartean egin neikezan gastuetarako. Ostatuan ikasle geiago dagozalako, bildur naz ostuko ete daustezen. Zuk gordeko ba zenuz, bear dodanetan emoteko...

-Bai mutil, nai dozuzan guztiak.

Bein mutilla peso bi eskatzera joan zan, eta emon eutsazan. Andik egunetara beste bi, baiña jaunak esan eutsan an ez eukala ezer.

Orduan mutillak aitari idatzi eutsan, zer gertaten zan esaten, eta a berealako baten gertu zan semea ikustera, eta bien artean alkartu ziran dirutxoak jasoteko.

Aita joan zan jaunarengana eta esan:

-Arratsaldeon jauna. Mesede bat eskatzen nator. Seme bat daukat emen, ikasle, eta urrunekoak diran lez, ille batzuetarako diru apur bat itxi nai neuke. Berari itxi ezkeru, egun bitan eralgiko dauz, eta orrela pentsatu izan dot zure antzeko gizon itxurazko bateri lagatea.

Onetan, mutilla sartu zan bere diruak eskatutera, eta jaunak, beste gizonak amar edo amabi milla errial lagako eutsazala pentsatu ebanez, mutillari bereak emonda esan eban:

Ikusten? Ikasle onek denporatxua da itxi eustazala, eta orra zuretzat nire zintzotasunaren baikuntza bat.

Bai jauna, bai, esan eban orduan mutillaren aitak, ikusten dot kontzientzidun gizona zareala. Mutil au nire semea da.

153

ETXEKO JAUNA ETA IKASLEAK

Bein ikasle bik irri egin nai izan eutsen etxeko jaun bateri, eta itandu eutsen txistua joten ba ekian. Eta gizona txistu joten asi zan, bigun, eta esan eutsen:

-Orretara, ez dakizu indartsuago joten?

Eta gizonak erantsun:

Bai, baiña abereak aurrean dodazanean, orrelaxe egiteko oi-tura daukat.

m) LAPURREN I PUIÑAK

154

JAI KI ZAITEZE, ILLAK

Lengo denporetan oiturazko zan illak eleizara eroan eta gabaz an lagatea. Bein gizon zartxu bat bizi zan eta zapataria bateri bere oiñetakuak eroan eutsazan konpontzeko.

Gizona l zan, oiñetakoan konponketa ordaindu barik, eta orduan, zapataria, denpora irabazi eta zarraren azpi-erdiak balio ebena aurreratzeke, eleizara joan zan, kandela argitan lan egitera. An egoan bera eta sakristaua, kaletik zarata bat entzun ebenean. Sakristaua autorleku baten eskutatu zan, eta zapataria sermoi-alkira joan zan.

Orrela lapur talde bat sartu zan, eleiz erdian izara bat zabaldu, eta gau aretan ostutako dirua banatzen asi.

Orduan sakristauak, abots illunez, deitu eban:

Lagundu egidazue, illak!

Eta zapatariak bere tokitik erantzun:

Ba gatoz danok batera.

Ori entzutean lapurrak, diruekaz gogoratu barik, saltoka iges egin eben.

Asko ibili ondoren, lapurrak arizti baten sartu eta geratu ziran, erriaren beste alderdian, eta sokseta egin eben eleizara zer gertatu zan ikustera nor joan aukeratzeko.

Aukeratua eleiz atera eldu zanean, zelatari entzuten geratu zan, eta ikusi eban dirua banatzen ebiltzanak errial bategaitik asarretuta ebiltzala. Ori entzutean, lagunekana arin joan eta esan eutsan:

Iges arin, lagunak, itxuraz an asko batu dira, errial bana baiña bakoitzarentzat ez dalako batu.

155

LAPURRETAKO IKASLEA

Gizon batek lapurretan egitea ikasi nai eban, eta lapur baten ondora joan zan, erakustekotan. Lapurrak milla aitzaki ipini eutsazan, esanez, ezin erakutsi al izango eutsala, besteak esaten eutsan guztia egiteko almenik ez eukalako. Baiña gizonak, ikasteko gogo bizia eukan, eta esan eban berak agintzen jakon guztia egingo

ebala.

Orrela ba da, esan eutsan lapurrak, datorren domekan orain-
txe asmatzen diardudan lapurreta bat egiten lagundu bear-
ko daustazu. Mezatatik urtetea nik arpegira esango dautsut noiz or-
daindu bear daustazuzan zorretako milla dukatak, eta zuk erant-
zun bear ko dozu, ordainduko daustazuzala jaietako egunean,
gaur ez daukazuzalaéta. Ortik aurrekoa niregain geratzen da eta
ikusiko dozu zelan lan egiten dodan.

Orretan geratu ziran. Eta domeka eldu zanean, eta jende guz-
tia eleiz inguruan mezatatik urtenda egoala, lapurra joan zan, eta
danak entzuteko eran gizonari bere izenez deituaz, zarataka asi
zan:

**-Entzun, ia noiz ordaintzen daustazuzan zorretako milla duka-
ta k.**

Gizonak erantzun eutsan ordainduko eutsazala, jaiko egu-
nean, eta orduan, andik egunetara, lapurrak gizonari auzia sartu
eutsan, lekukotzat auzokoak ipinita. Eta gizonak ordaindu egin
bear izan eutsozan milla dukatak, eta artu ondoren, lapurrak esan
eutsan:

-Uste dot ez dozula bear ko ikasketa geiagorik. Eta egunen ba-
ten bear ezkerro, ba dakizu nun nagon.

156

BOTAFUMEIROA

Denporak dirala, galiziar erri txiki baten, eleiza bat egoan, eta
bertan urre eta bitxiz dotoretutako botafumeiro bat. Bein inguru
aretako bateri botafumeiro ori ostutea bururatu jakon, eta joan
eta ostu eban, eta ain zuzen be errian bertan bizi zan zidargin baé
teri saldu.

Esan eta egin. Mezatara joan zan, eta jendeagaz batera urten
bearrean, autorleku baten sartu zan eta antxe geratu.

Bakarrik ikusi zanean, botafumeiroa artu, zaku baten sartu,
eta illundu ondoren eleizatik urten eta etxera joan zan; eta biaraé
monean beragaz zidargiñarengana joan zan saltzeko asmotan, eta
tratua egin eben.

Zidargiñak ezagutu eban eleizako botafumeiroa, eta esan eu-
tsan ez eukazala etxean bearrezko diru guztiak, baiña lagun bate-
gana eioala, eta zain egoteko, bera biurtu artean; baiña gizona
susmo txarra artzen asi zan, begiratu eban nora joan zan, eta
guardi zibillaren antzeko anaitasunean sartzen ikusi eban, eta or-

duan, botafumeiroa artu eta igesi joan zan.

Gero zidargiña anaitasunakoekin biurtu zan, eta iñor ez eben billatu, eta zidargiñari leporatu eutsen lapurreta, Eleiz auzitegira eroan eben, eta auzitegiak erriko plaza baten, jendearen eskarmentagarri urkatuta iltera epaitu eben.

Eta jende asko batu zan urkatzen ikustera, eta an egoan baita lapurra be, eta urkatzen egozala, bere artean esaten ebillan:

-Ez dozu gorde botafumeiroaren ixilpekorik, orrela ordaindu, piku zabal, ordaindu.

Alboan egozanak bere bostean berbetan ikustean itaundu eutsen zer ete eukan ala jarduteko. Eta berak jardetsi:

Ezer ez. Gizon gaixo orren arimaren alde eskatzen nabil. Ez dozue ikusten zelan biurtzen dautsen samea?

n) EIZTARIEN IPUIÑAK

157

BASAUNTZEI BURUZ JARDUNEAN EBILTZAN EIZTARIAK

Egun baten, eiztari bi eizan ebiltzala, alkarregaz batu ziran eguneko goraberak alkarri adierazteko, eta batek esaten eban:

Ñik, tiro bategaz, lau eper il dodaz eta beste bategaz, sei.

Eta besteak:

Ondo dago gizon! Ñik zori txarrago euki dot, basauntz bateri tiro bategaz begia eta izterra zulatu dautsadazalako.

-Baiña zelan ori? Begian jo ba zendun, ezin izterrean jo.

Orduan besteak, konpondu nai izan eban era onetan:

Egia esateko, basauntza esi bat igaroten egoala, begi ondora bere ainka jaso ebanean, ain zuzen be orduntxe izan zan tiroa, eta iztarretik begira joan jakon.

Orrela, sinisterrazago egiten da.

Gero, ugazaba eta morroia bakarrik geratu ziranean, morroiak ugazabari esan eutsan:

Urrengoan, nire nausi, eratsuago guzurra esan, len asko kosé tatu jatalako, iztarra begiagaz alkartzea.

AZERI ANDIA

Don Tadeo, baserri bateko gizon aberatsa zan. Eta bere etxe-ko sukaldean bera eta bere zerbitzarien artean, azerien kontuak esaten ebiltzan, berbaldunena zan Jon'ek, esan eban:

Azerietako, nik Roxelos'eko mendi sarreretan ikusi nebana; nire bizitzan sekula alakorik ez dot ikusi ez eta ikusi be.

-Gizon, danik andiena izan da be, -esan eban don Tadeo'k,- gixi gorabera besteen antzeko izango zan.

Ñire begiak sekula ikusi ez eben lakoa zan, andia, benetan andia zalako.

Jon, kontua euki esanetan, zuk beti asko biribiltzen dakizuzalako.

Ba sinistu edo ez sinistu, azeri a gure zaldi zuriareri besteko ba zan.

Beste morroiak barrezka asi ziran, eta Jon'eri irrika jardun eutsen. Baiña au tinko eta zital berean, berak Roxelos'eko mendian ikusi eban azeria, nausiaren zaldi zuria bestekoa ba zala. Bear izan ezkeru, zin egiteko gertu egoan.

Orrela dala, esan eban don Tadeo'k, biar bertan joango gara Roxelos mendira, eizara, eta azeri ori aurrean billatu arte ez gara geratuko. Bizi edo illik agertu bearko da, sartzen dan zuloa billatu eta atxurtu daigunean. Jon'ek diñon lako andia ba da, au egitsu lez geratu da; baiña ala ez ba da, guzurtizat artuko dogu eta oré duan eskarmentu bat egingo dogu beragaz, Errebordelo'ko zubitik igarotean, ibaian sartu eragiñaz, orain, negua dala, an igari egitea atsegin izan dalako.

-Ori, ori!

-Gertu lenengotik Jon, Errebordelo'ko zubi azpian i'gari egitea.

Gero beste gauza batzuk erabilli ziran autuan, eta andik gerago Jon'ek:

Ai jauna, Roxelos'eko mendian ikusi neban azeriagaz gogoratzen nago. Bear ba da zaldi zuriaren aiñako andia ez zan izango, ez naz ausartuten zin egiten, eta bear ba da zerbait txikiago izango zan.

Niri zer orain? Ori zeuk ikusiko dozu.

Ba, ara, geitxuago esan nei? Gizonik ez atzipetuteko, esan nei azeri a gitxi gorabera gure asto baltzaren antzekoa izango zala.

Don Tadeo'k ez entzun egin eta beste gauzak ataraten zitun berbetara. Baiña Jon'ek andik laster:

Ba, jauna, azeria barriro aitatuta, pentsaten nago bear ba da gero gure asto baltza baiño txikiago izan eikeala, batzutan bat kolorez illun edo baltzago izan, errez atzipetuten dalako. Edozetara be, lauren bat gora edo bera, zital a aari baten antzeko izango zan.

Ñik esan eta birresaten dodana da, biar azeriagaz tope egi-ten ba dogu, bizi nai illik, len esan dozun aiñako ez ba da, Errebor-
delako zubi azpian ibaian sartuko zaitugula, eta sopa baten antze-
ra geratuko zareala, geiago guzurrik esan ez dagizun.

Jauna, errakuntza bat edozeiñek eukiten dau, baiña niri be-
netan andi iruditu jaten.

Zuri andi begitanduko jatsun edo nai zendun lako, baiña zin
egiten dautsut zangadatik iñok ez zaitula askatuko.

Ba, jauna, egia esateko, azeri a beste guztien antzeko zan.

ñ) MORROI ETA,UGAZABEN KONTUAK

159 OTATZA

Otak batzera bialdu eben morroi bat, eta goiz oso bat igaro eban otatzaren inguruan, nundik asi jakin ezta. Orrela ugazaba eldu zanean bazkaltzera joateko, oraindik ota bat bakarra ebagiteko eukan. Ugazabak asarraldi itzal bat agertu eutsan, baiña bera asi zan esaten goiz guztia igaro ebalu nundik asi ezin igarrita.

Ettxera joan eta bazkaltzen asi ziran, baiña ugazabak, ogi andi bat eskuetan artuta, batera ta bestera biraka erabili eban. Morroia artegatu zan, nagusia zegaitik ete ebillan orrenbeste bira ogiari emoten, eta itandu eutsan, eta berak erantzun:

Ez dakit nundik asi.

Ala, jauna, ala, edonundik asi, -ekin eutsen morroiak.

-Edonundik asi eikean otatza ebagiten be, -jardetsi bere alde-
tik ugazabak. Eta ogia mai gaiñean itxi eta asi barik laga eban.

160

SALDA ZEGAZ OTZITUTEN DAN

Gazte bat mundutik zear joan zan, eta morroi geratu nai ete eban itandu eutsen etxe batera eldu zan, Salda zegaz otzituten eben, itandu eban, eta uragaz, erantzun eutsen.

Orrela ba da, -bere aldetik mutillak-, etxe au ez da niretzako.

Jarraitu eban bere ibilleran eta morroia nai eben beste etxe batera eldu zan, eta an be barriro itandu eban zegaz otzituten eben salda. Puts eginda, erantzun eutsen.

Andik be aurrera joan zan, esanez a ez zala beretzako etxe egokia. Azkenean beste batera eldu zan, eta an itandu eutsen morroitat geratu nai eban. Erantzun aurretik, berak salda zegaz otzituten eban itandu, eta ogiagaz, erantzun eutsen. Ori entzutean, esan eban:

-Bai, geratuko naz. Auxe da ni billa nebillen lako etxea.

161

SOPA BIGUNAK

Atxurlari bateri sopa bigunak baiño ez eutsezan emon. Atxur-tu bear eban tokira eldu zanean, bere atxurra alboan itxi eta esan eban:

-Sopa bigunak eta ogirik barik, gorputz au zaindu al izango ete dabe? Ez don Juan, bestela gorputza laster lurrean.

Eta atxurketan asi barik, goiz guztia igaro eban lotan.

162

JAUNAK EDATEN ONDO EMOTEN DAU

Soka egille batzuk eldu ziran erri batera, eta jaun batek deitu eutsen sokak egitera. An egon ziran egun batzutan, eta gero beste auzoko etxe batzutara be joan ziran, eta jateko orduan danak esaten eutsen:

Ea, jan dagonetik, emen ez dago jaunaren etxeko konturik. An ondo emongo eutsuen jaten, baiña gurean ezin ainbestean.

-Ba, egia esateko, -erantzuten eban soka egilleak-, jaten ondo emoten euskuen. Emon ez euskuna edana zan. Ardaua beretzat gordeten eban.

Jaunaren belarrietara eldu zan soka-egilleak zer esaten eben, beti egoten dalako orrelakoak aizetzen jakiten dauana, eta soka

batzuk geiago egiteko eukazala, eta joateko deitu eutsen. Eguerdian gela baten ipini eban bazkaria, eta maiaren erdian, pitxar andi bi ipini zitun urez beteta. Soka-egilleak sartu ondoren, bera be sartu zan eskopeta bategaz, eta jan-gela giltzagaz sarratu eban. Soka-egilleak, zerbait arrituta, bazkaltzen asi ziran, baiña gitxi edaten eban, eta orduan jaunak esan eban:

Jan eta edan, iñor ez da urtengo emendik bizirik, jana amaitu eta batez be edaria amaitu barik.

Danak esaten asi ziran, baiña baten zarrena zanak esan:

Jauna, onek edan dagiala, barriago dalako; nik ezin nei gei-ago.

Ez barri eta ez zar, -erantzun jaunak-, emen bakoitzak berea.

Edaten jarraitu eban, baiña geiago eziñera eldu ziranean, euren batek esan eban:

Jauna, egin gugaz nai dozuna, baiña ezin giñei geiago edan.

Orrela ba da, joan zintekete, -erantzun eban jaunak-. Orain beintzat ez zare esaten joango jaunak ez daukala edanik emoten.

163

JAUNEN JOLASBIDEAK

Gizon batek azoka toki inguruan eukan bere etxea, eta egun baten kankarro saltzaille bi etozala ikusi eban, lurrezko gaikiz beteta, azokan saltzeko.

Gizonak uste izan eban euren kontura jolastuko zala, eta onoko au bururatu jakon:

Bidera urten eutsen, eta esan, lurrezko gai ugari erostkeen tresnak?

Jauna, -erantzun eban saltzailletako batek- batzutan geiago, bestetan gitxiago, ori merkatua zela joan izaten da.

Ia, ez goitik ez betik ibili barik, erdiz-erdizkako bat, -barriro jaunak-.

Euren kontuak egin ondoren, euren ustea agertu eutsen jaunari, edo azokatik atara eike)a. Eta jaunak ordaindu ere bai eskatutakoa. Orrela eurak pozik 3 n ziran, ez ebelako uste jaunak ordainduko eutsenik, eta au oe pozik geratu zan, tresnak zelan apurtzen zituen ikusiaz, eta malluketan iñarduen antzera izerditan.

o) MOZKORTIEN IPUIÑAK

164

MOZKORRA ASTO GAIÑEAN

Mozkor bat alegiñak egiten ebillan bere asto gaiñean jarteko, baiña burua aidean erabillan lez, alderdi batetik igo eta bestetik jausten zan, eta bestetik jausi ala beste ainbestetan igoten alegindu. Gizon batzuk igaro ziran andik eta ori ikusi ebenean, esan eben:

-Asto eme errukarría!

Mozkorrak ori entzun, eta esana txarto artuta, erantzun:

-Ze asto eme eta ze abere errukarri! Igo eta beratu, nai dodan tokitik egiten dot.

165

MOZKORRA ZALDI GAIÑEAN

Lau urte inguru dira errialde onetan ezagun eta ospatsu zan gizon bat il zala. Etxe on baten jaube zan, inguruan esaten dan lez, ondo konpontzen danetako bat. Zaldi eder bat eukan, eta domeketan tabernara joatea atsegin izaten eban, eta batzutan alai-samar geratzen zan.

Domeka baten, bere zaldiaren gain jarrita joan zan tabernara, eta ukondoa ainbat bidar jaso ondoren, etxerako ustetan zaldi gaiñera igo zan, baiña atzekoz aurrera, au da, buztanari begira, eta buztana eskuan artu eta esan eban:

-Mekatxis! Zein izan da nire zaldiari burua ebagi dautsana?

Eta buztana eskuetan artuta, esaten eban oraintsu ebagi eutsela burua, zaldia oraindik bero egoala-ta.

An egoan jendea inguratu zan, ugalak eskuetan artu eta etxerako bidea asi eban.

Bidean joiala, txamarra jausi jakon, eta a artzera beratu bearra eukin eban, eta pentsatu eban txamarra bat billatu ebala bidean. Bi-irutan jausi jakon, eta bakoitzean pentsaten eban beste txamarra bat geiago billatu eta jaso ebala, eta zaldiaren txalma gaiñean lagaten eban, eta azkenez, ia etxera eltzeko bidean, barriro jausi jakon, baiña oraingotan ez eban beratu nai izan bera artzera.

Etxera eldu eta bere lobei esan eutsan ainbat txamarra billatu

zitula bidean eta an ekarzala, eta azkena artu be ez ebala egin, etxetik laster geratzen zalako.

Lobak txamarra billa joan ziran eta etxetik metro batzutara egoan bere txamarra ekarri eban.

p) BASERRITARREN IXILTASUNeko IPUIÑAK

166

BASERRITARRA BOTIKAN

Baserritar bat urira joan zan, eta botika baten sartuta, inguru guztira begira ibili zan, ezer eskatu barik. Botikarioak itandu eutsan zer nai ete eban, eta arek erantzun:

Emen ikusten dodanik ezer ez.

Gizona emen danetik dago, ez dozu ikusten au botika bat dala?, erantzun botikarioak, baserritarraren kontura barre egin nairik.

Baserritara laster konturatu zan a irrika ebillala, eta orduan berak be zirika:

Egia da. Errazoia daukazu. Ba orretara erakutsi arbald bat.

Gizona, -erantzun lotsatuta botikarioak-, egia da bai ori ez daukadala.

Ondo da -esan baserritarrak- beste egun baten eukiko dozu.

167

BASERRITARRA ETA PLATERAK

Uriburura joan zan senarrari, bere emazteak agindu eutsan amabi plater erosteko. Gizona denda baten sartu zan eta saltzailleari itandu:

-Loradun platerik ba daukazu?

Bai gizona, -erantzun saltzailleak.

Eta ainbat atara eta erakusten asi jakon, ondo margotutako mota askodun lorekin, baiña baserritarrak konturatu zan kaiku bat lez artzen ebala, saltzailleak bestera esanarren, an egozan platerik zatarrenak erakusten eutsazalako, eta atzipetu naian ebillalako. Eta saltzailleak esan be egin eutsan:

-Ara, emen daukezan lorekin, igarriko dozu janaria atsegiñago geratzen dala, katillu baten artuta baiño.

Eta baserritarrak, adarra joten ebillala igarrita, ez eban kalera-tu nai izan berak be saltzailleari ulea artu barik, eta ezer esan ez da lez itandu eutsan:

Ondo da, eta plater oneik garbitu egin bearko dira?

Gizon, garbitu bai, -erantzun saltzailleak.

Orrela dala ez dodaz nai, -erantzun baserritarrak- eta kanpo-ra joan zan.

168

BEI BAT OSTU EBAN GIZONA

Bein gizon bat autortzera joan zan, eta abadeari agertu eue tsan bei bat ostu ebala. Abadeak esan bei ori berealako baten biurtu bear eutsala bere jaubeari, edo bestela pekatu astuna egingo ebala.

Bai, baiña saldu neban -erantzun gizonak.

Saldu ba dozu, bere diruak emon -abadeak.

- Diruak eralgi nitun eta ez daukat geiago, -barriro gizonak.

Ara ba, Azken Juizioara baiño len diruak edo beia emoten ez ba dozuz, Josafat"eko zelaian biok agertuko zarie, eta beia an ibili ko da saltoka zuregan jarki nairik, -esaten eutsan abadeak.

Baiña abade jauna, beia be an agertuko da?

-Bai, -erantzun abadeak.

-Orrela dala dana konponduta dago: beiari adarretik oratuko dausat, jaubeari emon eta ez dot zorrik eukiko.

169

ASMOA NAIKO DA

Bein baserritar bat abadearengana joan zan autortzera, eta esan eutsan:

Begiratu abade jauna, lengo egunean, Xan osabaren etxe aurretik igarotean, antxume auntz polit bat ikusi neban eta artu nai izan neban baiña aga itxita egoan eta ezin artu al izan neban.

Orduan abadeak esan:

-Asmoa naiko da pekatu egiteko. Zenbat balioko eban antxumeak?

Ba gitxi gorabera ontzako bat.

Orrela dala, lenengotik ogerleko bat ekarri bear daustazu, garbitokiko arimen alde meza bat eskintzeko; ala egin ezik neike-tsu parkamenik emon.

Ia ba, abade jauna, ia ba, ekarriko dautsut ontzako txikia.

Baserritarra etxera joan zan ontzakoaren billa, eta biurtu ondoren, atetik emon bearrean, autorlekuko sare artetik emoten alegindu zan, andren tokitik. Abadeak esaten eutsan atetik emoteko, baiña bera sare artetik emoten alegintzen zan. Eta sartu ezin eikeala konturatuta, abadeari esan eutsan:

Ai, abade jauna, asmoa naikoa da; antxumea be ez zan sartu al izan langaen artean.

170

AITAKIDE BI ETA OILLARRAK

Aitakide bi alkarregaz joiazan azokara, eta bide baten, oillar bi ikusi zituen, alkarrerik pikoka, eta ez geldi eta ez nagi, bakoitzak oillar bat artu, gangailla ebagi, eta azokatik laster egoan taberna baten jatera joan ziren. Paskukoa beteteko denpora eldu zan, eta aitakide biak autortzera joan ziran, eta ortan lenengo gertatu zanak esan eutsan besteari:

Jakin egizu oraindik ordaindu bearreko doguzala azoka egunean jan genduzan oillarrak, abadeak esan daustalako ordaindu arte parkamenik ez daustala emongo.

Eta beste aitakideak erantzun:

Zuk ez dakizu autortzen. Ikusiko dozu zelako arin konponduko dodan auzi au.

Sartu zan eta autorleari esan:

Aitakideagaz bidean giñoiazan baten, oillar bi ikusi genduzan alkarregaz asarre, biak artu genduzan, alkarregaz eroan genduzan eta eurekin jan gendun tabernan. Ori pekatu da?

Autor-entzuleak erantzun:

Pekatatik urrun dago ori, ori birtutea da. Arerio bi alkartu eta eurekin jataldi bat egitea, ori merezimendu askoko ekintza da.

BASERRITARRA ETA OSAGILLEA

Gizon bat gaixotu zan bein, osagilleari deitu eta bereala esan, osatzen ba eban, gizontzen eukan txarririk onena emongo eutsala. Osagilleak al besteko alegiñak egin da osatu eban. Baiña gizontze denpora eldu zan, eta mutilla osagillearen etxetik agertu ez. Bein, osagillea aize artzen ebillala, gizona ikusi eban, eta agurtu ondoren zelan egoan itandu eutsan.

Ondo, jauna. Barriébarri geratu nitzan.

Eta ez zara gogoratzen makal zengozala, osatuten ba zindudazan, txarri bat agindu zendula eta ez dodala ikusi?

Ene ba!, jauna! Txarto be nengoan eta! Ez zendun ikusten burutik nebillala?

URDAIA ETA ZERGARIAK

Lozano zarra gari ebate denporetan Castilla'ra igaroten zan ibillaldietako baten, Valladolid'eko zergetxe baten onelako gertae-ra euki eban. Zakuan eroian urdai zati bat igaro nai izan bean Zergariak ez eutsen itxiten bere zerga ordaindu barik, eta euren artean eztabaidatzen asi ziran:

Aragi au nirea da eta zerga barik igaro neike.

Ez burugogor jarri, ez dozu lortuko-ta!, -esaten eutsen zergaé riak.

-Ba nai dodalako igaroko dot.

Eta bakoitzak berea esan eta ostikadaka asteko eran egozala, Manuel zarrak boltsan erabillan ogi zati bat atara eban, eta urdaia jaten asi zan. Eta dana jatea amaitu ebanean, zergariei esan eutsen:

Ordaindu barik igaro neike?

Bai gizon, orain igaro zaitetz.

q) GALIZIAR ETA ERBESTEKOEN IPUIÑAK

173

ANDALUZIARRA ETA GALIZIARRA

Bein alkarregaz joiazan tren baten andaluziarrak eta galiziarra, alkarri ziriak sartzen, eta andaluziarrak esan eutsan gali ziarri:

Gure errialdean bein ia lau kilometro lautuko lurralde oso bat artzen eban aza andi bat ikusi neban.

Orduan galiziarrak:

Ba gure errian galdara andi-andi bat egiten dabiltz. Eun langille dabiltz bertan lanean eta alkarren mallukadarik ez dabe entzuten.

Eta zetarako egin bear dabe ba ainbesteko galdara?

Zure aza egosi al izateko, -erantzun eutsan galiziarrak irri-mirrika.

174

PORTUGALDARRA, FRANTZETARRA, GALIZIARRA ETA DEABRUA

Bein alkarregaz joiazan bidean portugaldar, frantzetar eta galiziar bat, eta deabrua agertu jakoen eta onek esan eutsen agintzen eutsen guztia eginda biurtzen ba eutsen, danak itxasora jaurtiko zitula, eta ezin eginda aurkitzen ba zan, baketan lagako eutsela.

Lenengo frantzetarra agertu zan, eta deabruak esan:

Oraintxe bertan margotu egidazu kristalezko etxe bat.

Deabruak bereala margotu eta jakiña, itxasora jaurti eban.

Gero portugaldarra aurreratu zan, eta oneri agindu eutsan bide bat eta burdi bat margotzeko.

Deabruak berealakoan margotu al izan eban eta bestearen bidetik bialdu.

Azkenean galiziarra aurreratu, eta puzkar bat jaurti eta esan:

-Margotu egidazu ori urdiñez.

Eta deabruak gero erantzun:

-Zelan margotuko dot iges egin ba dau?

175

ANDALUZIARRA, ASTURIARRA ETA GALIZIARRA

Bein andaluziar bat, asturiar bat eta galiziar bat zeñek as-takeri geiago esan ebiltzan.

Andaluziarrak esan eban:

Giralda'tik jausi nitzan eta bakarrik igarri neban ez jatala ezer gertatu.

Eta asturiarrak bere aldetik:

Ñi bostgarren etxe-oin batetik jausi nitzen eta oartu neban bakarra, bizarra zerbait azi jatala izan zan.

Eta galiziarrak, bere aldetik:

-Karaxo zuekin? Buru gogorra zarie! Ni bein ota burdi ba-tetik jausi nitzan, eta ia sudur barik geratu nitzan.

176

ITXI MUNDUARI DAGON ERAN

Galiziar eta andaluziar bat alkarregaz joan ziran ostera bat egiten, eta bazkaltzeko orduan fonda batera sartu ziran. An patatak aragiagaz ipini eutsezan, patatak platereko alde baten eta aragia bestean.

Andaluziarrak, aragia jatearren, galiziarri munduaren bira-ka ibiltea azaldu naian asi zan, eta obeto agertzeko, platerari bira emoten asi zan, aragia bere aldetik ipiniaz.

Galiziarra laster konturatu zan zer egiten eutsan, platera artu, bira emon eta aragia bere aldean itxiaz, andaluziarrari esan eutsan:

Itxi egiozu munduari dagon eran, Jainkoa lagun, bestela burua apurtuko dautsut.

177

GALIZIARRA ETA ERREGAAREN ZALDIA

Bein, erregearen zerbitzuan egoala, galiziar bateri au ger-tatu jakon. Erregeak zaldi on bat eukan eta esanda eukan ur-

katu egingo ebala zaldia il zala ta barri ori eroaten eutsana. Bein, andaluziar soldadu bat bera zaintzen egoala, bat bateko batek jo eta zaldia etzanda geratu zan.

Soldadua ez zan ausartu erregeari jakin eragiten, bera ilteko erregeak aginduko eban bildurrez. Orduan galiziarra urreratu eta esan eutsan:

Ez zaitez bildurtu, ez zaitez bildurtu, estutasun onetatik atarako zaitudalako. Ni neu joango naz barri au emotera, erregearengana.

Andaluziarrak zerua zabaldua ikusi eban, eta gogo onez itxi eutsan galiziarri erregeagaz konpontzea. Orrela, erregearengana galiziarra eldu zanean, esan eutsan:

Jakin Errege Goigorena, zaldi zuria bedartzan etzanda dago-la, euliak sartzen jakozala aotik eta buztan azpitik urten.

Erregeak esan eutsan:

Gizon! Orrela ba da zaldia ilda dago!

Eta galiziarrek erantzun:

Ai, jauna, nik ez dakit, nik ez dakit albaiterotzarik.

Eta zaldia il zala bete-betea esan ez eutsan lez, andaluziarra urkatzetik aske geratu zan.

178

EZ DOT EZER ULERTZEN

Baserritar baten seme batek, trenean bertako langille lez sartu nai izan eban. Aitak bere lagunei deitu eta semea trenean sartu eban.

Aldi aretan trenak ez euken komunik euren bagoietan, eta ibiltariak geltokietan kanpora urten eta komunetara joaten ziran euren premiñak betetera. Bein, baserritarren semea lanean iñardu-
duan geltokian, ainbat jende beratu zan komunerako asmotan, eta irol-toki aurrean zain egon bearra euki eben erreskada luzean. Baiña trenean etorran frantzetar bat, erreskadan geratu barik, ango gordetegian egozan urun sakuen ondora joan eta an asi zan bere zeregiña egiten. Tren-langillea joan eta egiten iñarduana gaiztetsi eutsan, baiña frantzetarrak erantzuten eutsan: «Je ne comprends pas»

Orduan treneko langilleak «pas» ori «pan» ulertuta, au da, euskeraz ogia esaten dana ulertuta, erantzun eutsan: Nai ba dozu ogirik ez erosi, baiña urunean txisik be ez egin.

ASTODUN GI ZONA ETA PORTUGALDARRAK

Corneas'eko gizona zan bera, asto bakarra eukana, eta mundu zear asi zan, aberastuteko asmotan. Portugalera joan zan, eta an ez eben ezagutzen astorik. Itandu eutsen zetarako zan abere a, eta berak erantzun otsoak arrapatzeko zala, an asko egozalako. Erosteke tratua egin eben, eta beragaitik urrez betetako saku bat emon eutsen.

Otsoak arrapatzeko, lotuta euki bear eben gau guztian, aga bateri, mendian eta antxe itxi. Orrela egin eben lenengo gabean, eta otso aldra bat eldu zanean, asto gaixuak, tengadaka asi, aga atara, ariñeketan asi eta an inguruan egoan eleizatxo baten sartu zan. Otsoak be bere atzetik jarraitu eutsen, eta eleizan sartu, eta astoak ikusi zituenean, itsu-itsu kalera urten, baiña oraindik lotuta egon zan aga aldian erabillan lez, atean kakotu eta tengadan atea itxitea lortu eban, otsoak barruan gelditzen zirala. Urrengo goizean portugaldarrak astoak eta otsoak egin eben kaltea ikustera joan ziranean, eleizako atean eta barruan otso aldra ikusi eben, danak bildurtuta laga zituena, eta esan eben:

Abere gaixua. Il ezin eta eleizara bialdu zitun!

Urrengo gabean, aga ondo sartuta eta ziurtatuta ipini eben, astoak bera atara ez egian, eta orrela otsoak ilten jardun bearra euki egian.

Asto koitadua! Iges ezin ebalako, otsoak eldu ziran eta bete-betejan eben. Eta adarka jo ta ilgo zitulakoa guzurra zala agertzen asiko zalako, ni ariñeketa baten etorri nitzan alde onetara.

r) | RRI KONTU BATZUK

| NPERNU TXIKI ETARA

Baserriko emakume bateri, bere seme bakarra il jakon, eta auzoko batek andreak eukazan diru apurtxoak zela-ala kentzea pentsatu eban. Orretarako, auzoko ori tellatura igoten zan gaueé tan, eta andrea aparia gertuten asten zanean, tximinitik zear illeta joten asten zan, esaten: 'Ai, ai». Andreak, negar areik entzutean, bere semea zalakoan, itanduten eutsan:

Astian txiki (orrela deitzen zan semea).

Andrea.

Eta zu?

Neu naz.

Eta zer nai zendun?

Ogei dukat emon X'eri (auzuzoko bateri), miñetan nagon garbitokitik askatuteko.

Bai mutil, emongo dautsut.

Andrea, urrengo egunean, auzora joaten zan eta zer gertaten jakon esan.

Andik egunetara tximiniko gertaera barriro:

-Ai, ai..!

Astian txiki!

Andrea.

Zeu zara?

Ni naz.

Eta zer nai zendun?

Beste ogei dukat emoteko beste Xeri, garbitokiko min onei-tatik askatzeko.

Orrela auzokoak eukazan dirutxoak ataraten eutsazan, baiña egun baten auzokoa tximinitik asi zanean:

Ai, ai..!

Astian txiki.

Emakume.

Zeu zara?

Ni naz.

Eta zer nai zendun?

Beste ogei dukat emoteko X'eri, bestela inpernura jaurtiko nabelako.

Ba inpernuetara, inpernuetara, erantzun eutsan andreak, asarre eta ainbeste ogeiko emoten nekatuta. Inpernu txikietara, nire diru txikiak amaitu direlako!

181

ESAERADUN AITZA

Samos inguruan dagon Vilar do Real'en (edo ta batzuk deitzen dautsen lez adardun Vilar'en), aitz andi bat egoala esaten dabe, eta azpian idatzitako esaera bat eukala:

Azpikoz gora ipini nagizu,
eta beian billatuko dozu.

Auzokoak batu ziran bei azpikoz gora ipinteko asmotan, pensaturik an azpian altxorren bat egongo zala, eta neke askoren ondoren, al zituen tresnakin lagunduta, lortu eben aldatu eta azpikoz gora ipintea, eta azpian esaera au billatu eben idatzita:

**Jainkoak ordaindu dagizueta egindozuen lana,
alderdi baten gain beti egoten aspertuta negoalako.**

182

ARPEGIA JAN

Bein etxe oneko mutil bat neskati eder bategaz maite-mindu zan. Baiña au txiroa zan, beartsua. Mutillaren aita aspertu eta nekatu egin zan mutillari neska a lagateko eskatzen eta beste bere antzeko bat billatzeko; baiña aleginduarren aidak ez eban lortu mutillak neska bastartzea, eta azken baten beragaz ezkondu zan eta gaiñera etxéra eroan. Aidak, auziak erremediorik ez eukala ikusita, gauzak bertanbera lagatea pentsatu eban. Baiña semeari irakatsi eder bat emoteko gertu egoan, eta alaxe emon be ezkontzatik egunetara.

Andik egunetara ogi labakadea amaitu egin zan, eta aidak ez eban geiago urunik jagi eta orduan semeak, ogirik ez egoala ikusita, aitari esan eutsan:

Aita, ogia amaitu da.

-Amaitu dala?, erantzun aidak.

Amaitu da bai, -semeak.

-Orrela ba da ez zendun esaten ba neska eder bat nai zendula? Ba orain jan egitsazu arpegia.

183

OTSOEMEAREN KOBEA

Bein Perutxo mendian ebillan, egurretan, eta andik bere adiskide zan Jon igaro zan eta esan eutsan:

-Ai perutxu adiskide, an Tego'ko koban otso-eme bat dago bere otso txikiekin, eta zuk laguntzen ba daustazu, saku onetan sartuko doguz, eta eurekin berrogei amabikote arrautza baiño geiago batuko doguz.

Perutxo'k asmo ori onartu eta biak alkarregaz joan ziran kobarra. Eldu ziranean Xan'ek Perutxo'ri esan eutsan:

Zu ni baiño argalago zara, eta jantziak kendu eta koban sartu bear zara, eta ni joango naz otsokumeak sakuan sartzen danak

sartutakoan, zaragi bat litzaken lez lotuko dot nire pardeltxoá, eta ortik asiko dogu gure irabazpidea.

Esan eta egin. Perutxo koban sartu zan eta bana-banaka otsokumeak artu eta lagunari emoten alegindu zan, eta danak sakuan egozanean, urten nai izan eban, baiña sakua estutu ta anditu egiten zan, eta ezin atara izan eben.

Illuntzen asia zan, otso-emea etorteko bildurra eukan, eta zarataka asi zan, laguntza eske, baiña Jon asmotxa zan eta zirikalalaria, eta erantzun eutsan:

Ez bildurtu, Perutxo, otso emea etorten ba da be, zuri ainka egin eurretik, usaiña artuko dautsalako.

Perutxo'k bere oiñak kobatik kanpora eukazan, eta lagunak, kanpora urteteko indarra egin al izateko laguntzen asi jakon, eta igarri barik bere oin-azpiak basaz bete eutsazan, eta esan:

-Ai Perutxo, aupada bat emon eta kanpora urten, otsoemea zain daukazulako.

Perutxo'k, aitz zati bat eteteko aiñako indarraldi bat egin eban, eta kobatik urtetea lortu, baiña ain andia izan zalako, iztarondoko biak apurtuta laga zitun.

184

MANTENU OSOA

Bein aitakide bik alkar ikusi eta agurtu baiño len batek bestea bere etxera gonbidatu eban. Alaxe agindu eutsan bigarrenak, eta agindua beteaz an agertu zan neguko egun baten.

Sukaldera igaroteko agindu eutsan, jarleku baten jzarri, su eder bat egin bere aurrean, eta alkarren gauzak kontaktzen asi zieran, eta etxeakoak sua ondo berotzen zala ikusi ebanean, esan eue tsan besteari:

Aitakide, au mantenu erdian dago.

Ondo da, erantzun eutsan bestea, ainkak su ondotik pixka-bat atzeratuta.

Beste aldi baten berbetan jardun eben, eta bigarren aitakideak, zer janik ez eutsela ataraten ikusi ondoren eta gaba egiten zala konturatuta, agurtu eta joan zan bere etxera, baiña ordaindu eragingo eutsalakoan.

Denporaldi bat igaro zan, eta egun baten barrero alkar ikusi. Bigarren aitakideak, zerbait itxuratuta, pozarren lez geratu eta esan eban:

-Gizon, ba neukan barriro ikusteko gogoia, ba azken azokan bigantxa polit bat erosi neban eta zuk ikustea nai. Ara, datorren igande arratsaldean etxean egongo naz zure zain.

Lenengo aitakide bigantx ori ikustekotan geratu zan, eta esanda lez, urrengo domekan beste aitakidearen etxera joan zan. Eta erakutsi eutsan esandakoa, bai eta beste abereak be, eta gero sukaldera deitu eta su eder bat egin eutsan aurrerako eta beste bat atze alderako. Su biak ondo indartuta egozala, etxeakoak esan eutsan:

Aitakide, au mantenu osokoa da.

Besteak ulertuarren, aitzakitu nairik, esan eutsan pixkat geixuago berotzen asia zala, eta jaiki, orduari begiratu eta berandu zan itxura atarata esan:

Ene ba da. Ez neban uste ain berandu zanik. Joan egin bear naz, eta beste baten etorriko naz asti geiagogaz.

Eta bere gauzak artu eta bustanetik sua emon ba eutsen baiño beroago urten zan.

185

ZALDIA ETA ARBIA

Bein baserritar batek arbi andi bat batu eban, eta erriko jauntxoari eroatera joan zan, eta arek iru urrezko diru emon eutsazan. Ori ikusita, zaldi bat eukan gizon batek bere artean esan eban:

Areri, iru urrezko diru emon ba dauksaz, niri, zaldi bat eroanda, askoz geiago ziurretik.

Eta gazteluko atadira eldu zanean, jaunak zaldia ikusita, esan eutsan:

Au da au zaldi ederra, ene Jainkoa! Zenbat eskatzen dozu be ragaitik?

Ez daukat saltzeko jauna, baiña borondatez emongo dauksut.

Orrela ez, nik zerbait ordaindu bearko dauksut, eta dirurik ez daukadanez, arbi au emongo dauksut.

Eta besteak lagatako arbia emon eutsan. Gizona errira eldu zanean, ia ia bestea ilteko egon zan.

186

AGURE MALTZURRA

Bein ardi guztiak ilten jakozan atso bat bizi zan.

Agure maltzur bat igaro zan andik, eta esan eutsan ez kezkaé tuteko, berak ikusiko ebala ardiak zer euken. Gure atsotxoa pozik geratu zan, eta arrautza brixidu bi ipini eutsazan. Gero ardiak ikustera joan zan, eta nagusia zelan deitzen zan itandu ondoren, one-lako erabagi au emon eban:

Pedro Ramirez'en ardien
osatu eziñiko gaitzak,
kortan daukaz aziak.
Berandu atara,
arin biurtu etxera.
Il diranak
ez dira ilko;
emen dagozanak
ez dira geldituko.
Atso onen bildotzen barri
Xan'en sabelak daki.

187

SARDA

Baserritar batek alaba bat eukan. Uri nagusira joan zan, eta andik egun bitara gaztelaniaz berba egiten biurtu zan.

Etxera sartzean, aita sarda bat konpnten ikusi eban eta itandu:

Zer da ori, aita?

Eta aitak erantzun:

Ipini emen zure oiña, eta esango dautsut zelan deitzen dan.

Eta berak, esandako tokian bere oiña ipini ebanean, ondoagaz muturretan jo eban, eta jaiki zan esaten, geiagoko barik:

Tximistak jo dagiala gure sarda au!

188

PAPAGAIO BARRITXUA

Lengo denporetan Sarria'ko etxe baten ondo berba egiten ekian papagaio bat euken, eta ikusten eban guztia esaten ekiana.

Bein etxeko jaunak ibillaldi bat egitera joan ziran, etxean neskame bakar bat lagata. Neskak arrautza pare bat brixidu eta jan zituen, eta jaunak etxera biurtu ordukoxe, papagaioak zer gertatu zan jakin erazi eutsen, eta neskari asarraldi gogor bat egin eutsen.

Biaramonean, etxeko jaunak barriro urten, eta neskak bezperako egitada bardiña egin eban, baiña papagaioari arrautzetako bat emonaz, ezer esan ez egian. Baiña jaunak eldu ziranean, bardiñ agertu eutsen papagaioak.

Eta irugarrenean, jaunak barriro be kanporatu ziranean, neskameak zerbait egin nai eban, baiña bildur zan papagaioagaz, eta origaitik itandu eutsan ezer esango ete eban, eta berak baietz. Orduan neskak, papagaioari samatik oratu, eta irakiten eukan lapiko baten sartu eban, eta buru guztia lumatu eutsan.

Andik egunetara, ezkontza bat egon zan etxe aretan, eta papagaioa igarobideko goi-alde baten ipini eben, ezkontzara gonbidatuak bertatik igaro bear zirala kontuan eukita. Andik zear, ezkontzara deituen artean, buru-soil bat igaro zan, eta papagaioak esan:

Ene ba!, zu be etxetako neskak ugazabak kalera joatetan zer egiten daben esaten diarduzuna zareala dirudi!

189

NESKA ARRUA ETA IRU MUTIL

Melle'ko etxe baten neskaxa arro bat bizi zan. Iru mutillei egun berbertareko berba emona eukan, eta ordu berbererako. Mutillak batu eta esan eben:

Gu ez gara asarretuko beragaitik. Bertara joango gara eta birek zaindu eta besteak ule txortak ebagi eutsazan. Kontuan euki den^Pora aretan ez zala ule motzik erabilten eta trentzetan batzen ebela.

Eta orrelaxe egin eben. Eta gabean leioan eskegi zituen uletre.,tzak eta abestu eutsen:

Peru Grillo'ren alaba,
Grillo'neko Peruren neska,
neska ederra izango zan
uleak ebagi ez ba eutsezan.

PARRANDA'KO MUTILLAK

Orrelako egun baten mutil bat neska batengana joan zan. Oitura lez, parrandan ibili ziran begitandu jakoen orduetan. Gau ordu beranduarte ibili ziran, eta agurtu ziran alako baten.

Mutillak neskari esan eutsan:


Zapatuan barriro etorriko naz. Ze ordutan?

Eta neskak mutillari:

Etorri zaitez, zuaitzik gorenak loratzen diranean, eta ondorik zarrenak jausita, eta illak bizien gain dabiltzanean.



4.- DANETARIKO I PUIÑAK



191

JAINKOAK NAI BA DAU

Ezkonduak ziran, eta'egun baten gizonak esan eutsan emazé teari:

Biar egurrak iñustera joan bear naz.

-Jainkoak nai ba dau, -erantzun emazteak.

Nai edo ez, joan bear naz.

Biaramonean, egurretara joan zan, baiña orma baten gaiñetik igarotean, jausi eta ainka bat apurtu eban. Andik laster, auzoko bat igaro zan bertatik, eta esan eutsan:

Esan *nire* emazteari beiak buztartzeko, Jainkoak nai ba dau; burdiari lotzeko, Jainkoak nai ba dau, eta nire billa etorteko, Jainkoak nai ba dau.

192

TXITXARREN JATUNA

Bein lagun bat aitakide bateri txarri ilten laguntzera joan zan. Gabean, lau txarritxuen txitxarrak kendu zituenean, etxeakoak esan eban:

Ara, jataldi on bat egiteko, zer deritxazu?

Ba nik ezagutzen dot bakarrik jaten dituna, -erantzun aitakié deak.

Baietz, ezetz, apostu bat egin eben: amar dukat.

Aitakidea jatun andi zan lagun baten billa joan zan, eta onek joan zanari esan eutsan:

Gizon, ez zatoz une onean; kontuan euki oraintxe apaldutea amaitu dodala. Baiña guazen, zer egin leiken ikustera.

Txitxarrak aurrean ipini eutsezan, eta jatea amaitu ebanean, ogi zati bat eskatu eta artu eban azpilla garbitzeko, eta esanez:

la nun dagozan besteak.

Amaitu dira, esan eutsen. Orretzek bakarrik ziran.

Lenago esan bear zenduen, -jardetsi eban berak-. Orrela ogi geiagogaz jango nitun.

193

SEKULA BE EZ ETXETIK KANPORA

Gizon bat bere aitakideen etxera joan zan. Eta andik urten aurretik, askari bat emon eutsen. Ango andre onak jateko guztia kanpotarrari ataraten eutsan, eta bere senarrari ezer ez. Baiña aitakideak esaten eutsan besteari be emoteko. Baiña berak:

-Zuk jan egizu, bera etxekoa da eta denpora eukiko dau jateko.

Baiña etxekoak, asarre, ixilleko berbetan:

-Sekula be ez etxetik kanpora!

194

EZKONTZARA GONBIDATUA

Gizon batek txekor bat saldu eban ezkontzan baterako jairako. Eta auzoko batek, eroaten ikusi ebanean, esan eutsan:

Ai gizon! Zeñiek deitu ba neuke jaten laguntzeko, ori dagon gizenagaz!

Ba jai egunean gonbidatu bat geiago maiean.

Eguna eldu zan, maian jazarri, eta ainbeste lagun egozanez, iñor ez zan konturatu beragaz, baiña jatea amaitu ebanean batzuk besteei itanduten eutsen zein ete zan gizon a, eta azken baten etxeko jaunak itandu eutsan:

-Zein zara zu?

Ba txokorra saldu dabenaren senidea.

195

JOAN ZAITE ZURE AITARI DEITZERA

Bizimodua atarateko mundu zear ibili zan agure bat, lanik egin ezinda geratu zanean, jaio zan etxera biurtu zan, baiña sekula ez eban nai izan mezarara joan ez eta auto-rtzera. Parrokiko abadeak milla alegin egin zitun mezarara eroateko edo ta autortzara eroateko, baiña ez egoan orretarako modurik. Alako baten abadeak jakin eban aguretxoa san Antonio'ren maitale zala, eta geldiro geldiro eleizara eroatearren, esan eutsan:

Gizon, entzuna daukat zu beti izan zareala san Antonio'ren maitale. Eleizan or daukagu irudi polit eta miraritsua, eta uste dot ez dagola ondo zu bere zale izan, eta bein ba da be berari otoitz egiten ez joatea.

-Egia da, esan eban agureak. Baiña denpora asko da ezer be errezatzen ez dauzadala, eta aztuta nago zelan egiten dan be. Ori bai, otoitzik egin ezarren, beti euki dot konfiantza beragan.

--Ondo dago, -esan eban abadeak.- Ortik ez gara bildurtu bear. Otoi egiten gogoratu ez da be, naiko da bere aurrean belauniko jarrri eta lagun bat lez berari begira egotea.

Alako baten be zuritu zan gizona, eta egun baten eleizara urreratu zan, abadeak agindu eutsana egitera. Santuaren oiñetan belaunikotu zan, eta burua jasota, berari begira geratu. Agureak bizar luzea erabilten eban, eta santuaren azpian ultze bat egoan bertan isentsu-ontzia eskegiteko, eta zarrak bere burua makurtu ebanean, joateko asmotan, ultza aretan kokatu jakon bizarra, eta orrela ikustean, pentsatu eban santuak eusten eutsala iges egiten ez lagatearren.

Lenengotan, santuari onez eskatu eutsan egun aretan kanpora joatek isteko, eta sarri joango zala agintzen eutsala. Baiña bizarrik ez eutsala askatzen ikustean, onetik txarrera aldatu zan, eta genio txarra eukan agureak, azken baten, tengada bat egin eta askatu al izan zan, ule mordo bat ultzean itxita. Miñez, txakur amorratu bat lez geratu zan agurea, eta esan eban makilla baten billa joiala santua apurtzeko.

Abadeak sakristauari eskatu eutsan autorleku baten sartzeko, agureak zer egiten eban ikusteko, eta onek irudia apurtzera eioala esaten ebala ikusita, agurea eleizatik kanpora makilla billa joan zan artean, sakristauri deitu eta santuari ipinten eutsen irudi txikitxo bat ipini eben santuaren tokian, andia sakristian gordeta. Sakristauak aldaketa egin orduko, agurea agertu zan makilla lodi bategaz, esan ebana egiteko gertu. Aldara eldu zanean, eta santu andi orde z santutxu txiki a egoala ikusi, atzipetuta lez bere buruari begira geratu zan, eta azkenez esan:

-Ia txiki, joan zaite zure aitari deitzera!

196

OTOIZLARIA ETA ZITALA

Ibiltari bi batu ziran ostatu baten, eta biak lotarako oia eskatu eben. Ostatu jaubeak esan eutsen ez eukala bat bakarra baiño, eta nai ba eben, biak baten lo egin eikeela. Ibiltariak alkarri begira geratu ziran, baiña an ez egoan lez beste ostaturik, alkarregaz lo egitea erabagi eben.

Ibiltarietako bat zitala zan, lotarakoan ezer errezatzen ez ebana. Bera izan zan oean lenengo sartu zana, eta lotarako gertu zan.

Bestea elizkoia zan eta otoitz batzuk egin zitun oeratzean, eta azkenean onako onegaz amaitu: Jainkoagaz lotaratzten naz, Jainkoa -gaz jaiki. Esatea baiño ez eben egin, oea apurtu eta biak bera jausi ziran. Orduan zitalak onelako au esan eban:

-Ba nengoan ba! Oe onetarako jende geiegi begitandu jatan beintzat!

197

EUTSI, ANTON, TXILLARREI

Artzain bat san Antonio'ren maitale bizia zan, eta urte baten santuari eskiñi eutsan bere ardiekin zori ona emoten ba eutsan, eukan aaririk onena eroango eutsala.

Urte aretan artzain arek zori ona euki eban. Bildots asko jaio eta neguan ez jakon ardirik il, beste urtetan gertatuta lez. Ain pozik egoan bera, santuaren eguna eldu zanean, eukan aaririk onena aukeratu eban, soka bategaz lotu, eta santuari eroatera joan zan. Onek artzaiña ardiekin ibiltzen zan mendian eukan bere ermita bat. Aariagaz santuaren aurrera eldu zanean, esaten asi zan:

Ia, Anton, emen dakartsut eskiñi neutsun aaria; daukadanik onena dakartsut, merezi dozulako, aurten nire ondasunekin urte ona euki dodalako.

Baiña ikusirik santuak ez eutsala ezer erantzuten, esan eutsan:

Ara, begiratu. Nai dozu edo ez? Nai ez ba dozu, besteekana biurtuko naizelako.

Santuak ez eutsan ezer erantzuten, baiña artzaiñak ez eban nai beragaz txarto geratu, eta beste urtean lagunduko ez eutsan bildurrez, esan eutsan:

Ara, begira, or geratzen da etá egin nai dozuna beragaz, oberrik ez daukat eta besterik ez dautsut ekarriko.

Eta aaria lotuta ekarren sokaz baliatuta, santuari bere sama gaiñean lotu eutsan aaria, eta mendian bera bere ardiekana joan zan.

Aariak bakarrik geratzen zala oartu ebanean, ardiak be igeska, tengadaka asi zan, eta orrelako baten, santua bere lekutik ata lortu eban, eta santu eta guzti mendiz bera asi zan ardien atzetik.

Artzaiñak bere aaria mendian bera eta santua tatarrez eroiala ikusi ebanean, eskuak burura eroan eta deika asi jakon:

-Eutsi Anton txillarrei, deabruak eroan ez zaitez.

198

SASI OSALARIARENGANA JOAN ZANA

Bein, morroitzan ebillan mutil bat, premiñan aurkitu, eta osagillearengana joateko dirurik ez eukalako, sasi osalari baten gana *joan zan, eta* beragaz batean auzolagun bat. Biai osakai bardaña emon eutsen: sabe! gaiñean txarri gibel zati bat ipinteko.

Egun areitan txarri bat il zan inguru aretan, eta joan eta gibela atara eutsen, eta bien artean banatu.

Morroitzan ebillana lotia zan, eta idiekin joan zan egun baten, lo geratu zan. Gero txakurrak, gibelaren usaiña artuta, beragana joan, alkondara urratu eta osakai lez erabillan gibela kendu eutsen.

199

IL ZORIAN EGOAN AITA

Aita bat il zorian egoan eta bere inguruan eukazan semeak. Aita, egin zitun azpikeri guztiekin damututa, esaten asi zan:

-Ostu neutsen guztiei biurtu bear dautset, eta gitxi lagako dautsuet semeoi, bildur dautsadalako inpernuko suari.

Eta semeak erantzun eutsen:

Ez euki suaren bildurrik aita,
Lenengo beroaldia da txarren,
gero ez da ezer gertatzen.

200

TXIKITXUA ETA TXAKUR MIAZKATZALLEA

Senar-emazte batzuk txakur miazkatzalle bat euken eta baita neska txikitxo bat be. Eta ama mezatara joan zan, txikia etxean lagata, eta txakurrak oraindik bero egoan opilla ikusi eban, bere ondoran urreratu eta agiñak zorroztuten ebillala, txikitxoak esan eutsan:

Teka,
opilla jan eta barreka?
laster amaituko da meza,
igarriko dozu amaren kezka!

201

GIZONA ETA OTSOAK

Bein gizon bat gau-jai batetik etorran eta lo gura andia eban. Lasto meta baten gainean geratu zan eta loak artu. Otso bat etorri zan, eta ondo estalduta laga eban. Orduan, berak lo itxura agertu eta otsoa bere lagunei deitzera joan zan. Gizonak, otsoak etorten igarri ebanean, zuaitz-gaiñera igo zan. Gizona an egoala, otsoak lasto artean arakatzen asi ziran, eta aurkitu ez ebenean, deitu eutsenagaz asarre asi ziran. Gizonak esan eutsen:

Ai, deabrua dago nire lepo gainean.

Gora begiratu eben, eta gizona ikustean, sustraiak aztertzen asi ziran, eta zuaitz noiz jausiko egoala, adarrak adar beste zuaitzera aldatu zan. Besteagaz bardin egiten asi ziran, eta noiz jausiko egoala eta beste adarrak aldatzeko ez egoala konturatu zanean, esan eban:

Ñire gaitari agur egitera nua.

Eta gaita joten asi zanean, otsoak iges egin eben danak, eta orduan gaita joten jarraitu eban etxeraíño.

Eta ba zan edo ez ba zan, sartu dedilla kalabazan.

202

KARTADUN SAKUTXOA

Bein senar-emazteak bizi ziran. Ez ekién irakurri ez idazten. Semetxu bat euken eta arek Ameriketara joatea pentsatu eban. Semea joan zanean, gizona eskolara joatea erabagi eben, kartak idazten ikastera.

Eta bein eskolatik etorrara, asko pixatzen eban sakutxu bat billatu eban, artu eta etxeko baster baten jaurti eban.

Biaramonean, zaldun bat billatu eban, esaten ia diruz betetako sakutxu bat aurkitu ete eban. Gizonak erantzun, eskolatik etxera joiala, aurkitu ebala bat, baiña ez ekiala barruan zer eukan. Orduan zaldunak esan eutsan:

Zoaz ondo. Ai nik billatu ba zindudaz eskolatik zentozanean!

Eta joan zan.

Gizontxoa, etxera eldu zanean, sakutxua ikustera joan zan. Eta diruz beteta billatu eban. Ondo etorri jakozan bere bizitzako egunak igarotzeko.

203

XAO FERREIRAS MUSIKALARIA

Xao Ferreiras Portugal'eko musikalaririk onenetarikoena izan zan. Bai eta España eta Ingalaterrako be, eta mundu guztiko, berba baten esateko. Musikalari on aiña genio txar eukan. Gitxi joten eban, eta joten ebana milla erreguka ibili ondoren. Il zanean eta zerura eldu, ango santu eta aingeru guztiak Jainko Gure Jaunari eskatu eutsen Xao Ferreiras'ek zerbait joteko.

Gure Jaunak deitu eta esan eutsan:

Xao Ferreiras, jo dagizula agintzen dautsut.

Eta Xao Ferreiras'ek, jaramonik ez.

Xao, jo dagizula eskatzen dautsut.

Ezta oraingoan be.

Xao, mesedez, jo dagizula eskatuten dautsut.

Eta orduan Xao Ferreiras joten asi zan. Eta an egozan santu, aingeru, kerubi eta serafin guztiak ao zabalik geratu ziran.

Gure Jaunak esan eban:

Batzuk eta besteentzat eurak baiño obeto joten dozun lez, emendik aurrera nire eres-maixu aukeratzen zaitut.

Origaitik izan bear da, Lisboa'ko Andra Mari'ko eleizan egon zan orma-arriko idazkera: «Emen datza mundutik musikalaririk onena, Jaungoikoak erregu askoka bere eres-maixutzarako deitu eutsana eta gero ara joan zana bere arau barik».

204

ERROTARIA ETA TABERNARIA INPERNUAN

Bein inpernuan batu ziran errotari bat eta tabernari bat, lendik ezagunak ziranak, eta alkar an ikustean arrituta geratu ziran. Orduan tabernariak itandu eutsan errotariari:

-Eta zu zegaitik zagoz emen?

Asko neurtzeagaitik, -erantzun errotariak.

Eta ni gitxi neurtzeagaitik. Orrela dala, zelan ulertu leike au?

205

PERU ARRA ETA PERU EMEA

Peru arra eta Peru emea bizi ziran, eta amak Peru emea uretara bialdu eban eta Peru arra ogitara. Peru arra ogitatik biurtu zanean, amak il eban, eta lapikoan ipini. Gero Peru emea etorri zan eta Peru arragaitik itandu eban eta amak esan:

Billa joan zaite.

Eta biurtu zan esaten:

-Ama, ikusi dozu Peru arra?

Ez. Eroan jatekoa zure aitari, eta ez begiratu otzaran zer daroazun.

Baiña begiratu eban eta bere anaiaren aragia zala ikusi eban, eta negarrez asi zan eta Ama Birgiña billatu.

Zegaitik zagoz negarrez?

Nire amak nire anaia il daualako.

Ara ba, zure aitak azurrak jaurtitean, zu eurak batzen joan.

Aita bazkaltzen asi zan, eta Peru emea azurrak batzen. Aitak itandu eutsan zegaitik ebillan batzen, eta berak erantzun txakur batentzat. Gero asi biurtu eta Peru arra jaio zan laranja-ondo irudian. Eta amagana joan eta esan eutsan:

Peru arra, laranjak emongo daustazuz?

Zuri ez, il ninduzulako.

Eta aita joan zan, eta esan:

Peru arra, laranjak emongo daustazuz?

Zuri dan danak emongo dautsudaz.

206

EZKONTZARA JOIAN OILLARRA

Ezkontza batera joian oillarrak, iru arto garau billatu zitun, baiña esan eban:

-Jaten ba dodaz, pikua zikinduko dot, eta jan ezik, iru garauak galduko dodaz.

Garauak jan zitun, eta pikua loitu. Malba bategaz topo egin, eta esan eutsan:

Malba, garbitu egidaku pikoa, nire anai Peru'ren ezkontzara nualako.

Nik ez dot garbitzen.

-Erdu ardi, jan malba ori, piku garbitzerik egin ez daustalako, eta nire anai Peru'ren ezkontzara joan bear dodalako.

Ez dot nai.

Otsoa, jan egizu malba jan nai izan ez dauan ardia, eta malba orrek ez eban nai izan niri pikurik garbitzerik, anai Peru'ren ezkontzara nuala.

-Ez dot nai.

Makilla, il egizu otsoa, ardirik jan nai izan ez daualako, malba jan nai izan ez eban ardia, malbak nire pikua nai ezta laga nindunean, nire anai Peru'ren ezkontzara nuala.

Ez dot nai.

Sua, erre makilla, otsorik il nai izan ez ebalako, eta otsoak ez ebalako nai jan ardirik, eta ardiak ez ebalako nai jan malbarik, eta malbak ez ebelako garbitu nai izan nire pikurik, anai baten ezkontzara nualako.

Ez dot erreko.

Ura, amata sua, nire makillarik ez dabelako erre nai izan, eta makillak ez ebalako otsoa il nai, eta otsoak ardirik jan nai izan ez ebalako, eta ardiak ez ebalako jan nai izan malbarik, eta malbak nire pikurik garbitu nai izan ez ebalako, ni nire anai Peru'ren ez kontzara nuala.

Ez dot amatako.

Etorri astoa, etorri, edan sua amatau nai izan ez eban ura, eta suak ez eban erre nai izan makillarik, eta makillak il nai ez otsorik, eta otsoak jan nai ez ardirik, eta ardiak jan nai ez malbarik, nire pikua garbitzera ukatu zan malbarik, eta ni nire Peru anaiarengana nua.

207

TXARRI EME, EMON EGIDAZUE

Ai txarri eme, emon egidazuz iru serda, nire loturarako, ainka bat eta besoa apurtu dodazalako.

Eta txarri emeak:

Ortarako emon egizu olo saku bat.

Ai kutxa, emon egidazu saku bete olo txarri-emeari emoteko, iru serda emon dagidazan, nire loturarako, ainka bat eta bestea apurtu dodazalako.

Eta kutzak:

-Serraila bat emon egidazu.

-Ai errementari, serraila bat emon egidazu, kutxari emoteko, kutzak emon dagidan olo saku bat txarri emeari emoteko, arek iru serda emon dagidazan, nire loturarako, ainka bat eta besoa apurtu dodazalako.

Errementariak esan:

Emon egidazu ba aari bat.

Ai artzai, emon egidazu aari bat, errementariari emoteko,

arek serrailla bat emon dagidan, kutxari emoteko, kutxak saku bat olo emon dagidan txarri emeari emoteko, txarri emeak iru serda emon al izateko nire loturarako, ainka bat eta besoa apurtu dodaza la ko.

Eta artzaiñak esan:

Emon egidazu txakurtxu bat.

Ai txakur-eme, emoidazu txakurtxu bat, artzaiñari emoteko, arek aari bat emon dagidan, errementariari emoteko, arek serrailla bat emon dagidan, kutxari emoteko, kutxak saku bat olo emon dagidan txarri emeari emoteko, txarri emeak iru serda emon al izateko nire loturarako, ainka bat eta besoa apurtu dodazakako.

Eta txakur emeak:

Ba ekatzu kodela bat.

Ai atxurlari, emon egidazu kodela bat, txakur emeari emoteko, arek txakurtxu bat emon dagidan, artzaiñari emoteko, arek aari bat, errementariari emoteko, arek serrailla bat kutxari emoteko, kutxak saku bat olo, txarri emeari emoteko, txarri emeak iru serda nire loturarako, ainka bat eta besoa apurtu dodazalako.

Eta atxurlariak:

Emon egidazu katillu bete esne.

Ai bei, emon egidazu katillu bete esne, atxurlariari emoteko, atxurlariak kodela bat emon dagidan txakur emeari emoteko, arek txakurtxu bat emon dagidan artzaiñari emoteko, arek aari bat, errementariari emoteko, arek serrailla bat kutxari emoteko, kutxak saku bat olo, txarri emeari emoteko, txarri emeak iru serda nire loturarako, ainka bat eta besoa apurtu dodazalako.

Eta beiak:

Ekatzu otzara bete bedar.


Ai zelai emon egidazu otzará bat bedar, beiari emoteko, beiak katillu bete esne emon dagidan atxurlariari emoteko, atxurlariak kodela bat emon dagidan txakur emeari emoteko, arek txakurtxu bat artzaiñari emoteko, arek aari bat errementariari emoteko, arek serrailla bat kutxari emoteko, kutxak saku bat olo, txarri emeari emoteko, txarri emeak iru serda nire loturarako, ainka bat eta besoa apurtu dodazaláko.

Eta zelaiak esan:

Ekatzu ba ura.

-Ai iturri, ekatzu ura!

5.- BERTSOTAKO I PUIÑAK



BERTSO LIBRETAKO IPUIÑAK

208.- ZORRI ETA ARDIAREN EZKONTZA

Zorri eta ardia
ezkon miñetan,
abadea billatzen
larri, kezketan.

Nundik onetan asi
eta nora jo?
Bere zulo urratzena
or dator zapo.

Ez zaiteze naigabez,
ni naz abade,
olakoetarako
ni artzen nabe.

Ba dogu nok onetsi,
maiteño kutun,
aita besutakorik
billatuko iñun?

Arratoia or dator
dardara dario:
-Ortarako ere nik
ez al dot balio?

Ba dogu nok lagundu
maiteño kutun,
bazkaltzerako mairik
billatuko iñun?

Kirkir baltza bedartzan
kir, kir, kir, kir:
-Arotz ona naizala
zeiñek ez jakin?

-Ba dogu jezarri,
maiteño kutun,
mairako zapi onik
billatuko iñun?

Durundi ixillean
marasmaria:
-Bizi guztian naz ni
eunlaria.

Ba dogu eunlaria
maitale kutun,
**ta jateko ogia
billatuko iñun?**

Leiarretan musuka
or dabil eulia:
-Ekar zuek uruna,
nik egingo ogia.

Ba dogu ogia,
maiteño kutun,
bear dan aragirik
billatuko iñun?

Amorruz dator otsoa
usai-usainka,
berak egingo dausku
aari eskintza.

Ba dogu, bai, aragi,
maiteño kutun
eta arda saragi
billatuko iñun?

Eltxo dabil aidean
ziri naiean:
-Laster zare ardauez
zorabioan.

**Eta pozaren bitsetan...
katuak zapart
eta marru itsuan
aita bitxi jan.**

MARI ETA NARANXO ZARRAREN ESKONTZA

Danok Jainkoa goratu daigun
ta kontu kontari jardun,
kontu bat esango dogu labur,
egi izan edo guzur.

Mari ogikiña ezkontzeko
jaiak egin ziran atzó;
munduko azkena ete dator
atso agurak lotzeko?

Naranxo zarra esaten dabil
bestenak eta bereak.

Marik uleak zuri el daukaz
eta matraillak minberak.

Agin bat bakarrik ez ei dauka,
aoa ustel ta utsa,
sabela noiz-nai gosez urruka,
arnas berbera zar atsa.

Neska alaia izana zan len,
gizon askon ezaguna,
batzutan jai, bestetan parranda
igaroz gau ta eguna.

Naranxo bera mutil zaarra,
erreumaz oker eta makur,
akats askodun baldarra da ta
oiñez ibilteko bildur.

Sakristian dotriña astertzen
ezer ezin gogoratu,
abadea asi kezkatuten
ta ezkontza nai ukatu.

Asi zan Mari ekiñalean
ezkon miña eukala,
ba ekiala umen eziketa
umeak etorri-ala

Egiña euken eurean plana,
or aurkitu eban lana,
gizonagaz gauetan buztartu,
bitartekokin arreta.

Goizaldeari oiean eutsi,
ta gero jator ibili,
txokolate loditsua egin
ta senarra pozik euki.

Zitaldu barik abadea zan
bedeinkatzera makurtu,
isopoa ta estola artu
ta bereala ezkondu.

Alkarri oratu ta musuka
lendea laster zan sutsu,
baiña urdaila ebillan gangar,
goseak ezin parkatu.

Txakur bat sartu zan sukaldean
eleizako bitartean
eta lapikoak artu ta ustu,
tatarrez gero eroan.

Batu ziran auzo ta deituak,
gertu egozan platerak,
baiña saldakín geratu bear,
or ziran gero toberak.

Orra gero Naranxoaren miña,
barautan asi eguna,
geroagokoak ikusteko
txakurrak eten ipuiña.

210. AZERI ETA OILLAR ARTEKO ALKARRIZKETA

Oillarrak esan eutsan azeriari:

Zer dabiltzu azeri ain goiztar?

Jostorrazak erosten nabil azkar.

Jostuna ta soiñekoa urratuta?

Ba daukat barriagoa kutxan sartuta.

-Agin bat daukat zulatuta,
oillar adiskide, ikusi nai pikuka?

Erreta naukazu, azeri, maiñekaz
eta zapuztuta atzapar zartadekaz.
ondo dakit zure ortzen barri,
zoaz nire aurretik kakalarri.

211

ANDRE MOZKORRAZ BARRIKETAN

Nire andre, ez egizu edan ardaurik, nik trasko batzuk erosiko dautsudaz.

Ori ez, nire senar, ainka lodiak daukadazalako ez dot nai traskorik, ekatzu ardaua gure gorputzentzat.

Nire andre, ez egizu edan ardaurik; kaltzerdi batzuk erosiko dautsudaz.

Ori ez, nire senar, ainka baltzak ez dabe kaltzerdirik bear, eta ainka lodiak be ez traskorik. Betor ardaua gure gorputzentzat.

-Nire andre, ez egizu edan ardaurik; atorra bat erosiko dautsut.

Ori ez, nire senar, sabel leunak ez dau bear atorrik, ainka baltzak ez dabe bear kaltzerdirik, ez eta ainka lodiak traskorik. Betor ardaua gure gorputzentzat.

Nire andre, ez egizu edan ardaurik. Nik erosiko dautsut gorontz bat.

Ori ez nire senar. Gorpu soillak ez dau bear gorontzik; sabel leunak ez dau bear atorrik, ainka baltzak ez dabe bear kaltzerdirik ez eta traskorik. Betor ardaua gure gorputzentzat.

Nire andre, ez egizu edan ardaurik. Nik erosiko dautsut gona bat.

Ori ez nire senar, soin argalak ez dau bear gonarik, gorpu soillak ez dau bear gorontzik; sabe) leunak ez dau bear atorrik, ainka baltzak ez dabe bear galtzerdirik, ez eta traskorik. betor ardaua gure gorputzentzat.

Ñire andre, ez egizu edan ardaurik, galtza batzuk erosiko dautsudaz nik.

-Ori ez, nire senar. Galtza kontuak danak dira tranpak, soin argalak ez dau bear gonarik, gorpu soillak ez dau bear gorontzik; sabel leunak ez dau bear atorrik, ainka baltzak ez dabe bear galtzerdirik, ez eta traskorik. Betor ardaua gure gorputzentat.

212

EZTIAREN GAIN, FRUITUAK

Gazte nitzala, amabi urte beteta, Despidos'eko Jon'en alaba bat ikustera joan nitzan.

Makilla andi bat eroan neban, burdi baten taketa lakoa, nire trasko txikiekin, zigarro andi bat erreten.

Eldu nitzan, arratsaldeonak emon, eta txakurra agertu zan bizkor, eta lenengoz jantzi neban praka urratu eta bera jaurti.

Etxekoandreak esan eustan: Ori mirari bat lez da, txakur au zaratatsua da, aragi txarrik ez dau jaten».

Ez egoan neskatilla. Ibillaldi txiki baten zala. Bide egal batera joan nitzan zain egotera.

Txakur zatar batek urten eustan, ia zapu bat aiñako itxusi, eta beian erabili nindun trapu zar baten antzera.

Txakurrak zaunka asko egiten ebalako, auzoko asko agertu ziran makilla eta igitagiekin eta andrak segakin.

Ainbeste ots entzun nebanean, nire oiñetako txikiekin arin asi nitzan, eta arrapatu ez nengien, seboa atara neutsen ultzei.

Eta etxera eldu nitzanean nire amak sopa eder batzuk egin eustazan, berrogeiak erakutsi bastotara eta ogei kopatara. Eta an egoan aitak, nire agiñak obeto berotzeko, zazpi matrailleko emon eustazan.

Eztiaren gaiñean, fruituak.

213

JON KINTAN

Jon Kintan'ek ezkondu nai dau; ez dauka aukeratutako ema eta izeko Jone'ren alabearengana joana da maitasuna egitera.

-Gabon, izeko Jon.

Nun dago alaba?

-Sutarako gasaren billa joana da. Ba dirudi berandu datorrela.

Neska sartu zan gero, barruko atetik.

-Gabon Jon Kintan. Nire burutapenean zaukodaz.

-Zuk burlaz esango dozu, baiña nik benetan. Denpora da emen nagola nire azurrak berotzen.

-Eta gero otz daukazula? Jaunak ez nagila gaiztotu. Gero ezkondu naiko dozu orain, udabarrian.

-Eta zuri nok esan dautsu ori? Gure Jaunak bear ba da? Oraintxe nai dot ezkondu, maitasuna egiten natortzu. Bakar bakarrik bizi naz, ez daukat zeiniegaz arduratu. Aberastasunik ez daukat, baiña biziko gara.

Auntz on ona daukat, eta iru ardi beteta, eta torradak egiteko arrautzak ipinten ditun oillanda.

Auntza on ona da, lau antxume ekarri zitun, bi edaten dabil-tzan artean beste bi saltoka.

-Ñi ezkontzeko, ezkondu neike, baiña esan bear dautsut: gona bat egin nai dot, eta lanea erosteko daukat; oiñetakuak urratuta eta zulatutako pañoa.

Dirurik ba daukazu, erosi egidazu beste bat, eta ezkonduko gara bereala.

Deiak zabaldu zituen, oitura danez. Abadeari esan eutsen jarrarian irakurteko. Eta abadeak bereala irakurri, mezako sagaran, eta entzun zitun jendea bereala barrezka. Neskari lotsa sartu jakon, benetan oraindik balio eban. Ezkontzera joiazala, ez ebela nai esan eban. Jon Kintan oso-osoko geratu zan, esi baten agak lez, eta etxerako bidea artu, agurrik be esan barik.

Zuentzat dua, neskatillak, onek bakarrik ez zaitue beratzen, ez dot nai ezkondu zaitezen okertutako aguretxoekin.

IGELA ETA ZAPOA

Igelak esan eban: Guazen mezatara:

Zapoak erantun: Ez daukat alkondararik.

Igelak esan: Ñeuk daukadaz iru.

Zapoak erantzun: Itxi egidazu bat.

Igelak esan: Danak dagoz apurtuta.

Zapoak erantzun: Txatal bat josi.

Igelak esan: Ez daukat txatalik.


Zapoak erantzun: Ipurditik kendu.

Igelak esan: Ori ez, mindu ez nadin.

Zapoak erantzun: Jaurti zaite arri batera.

Igelak esan: Ori ez, mindu ez nadin.

6.- MENDI ETA GAZTELU
ZARRETAKO IPUINAK



215

SAN LORENZO ERMITA

1900 urte inguruan, Lagua'ko gizon batzuk, euren artean orain illa dan Lombardia'ko Manu, Aitzandi mendia saratzen ebiltzan. Euri unetan, andik laster dagon San Lorenzo'ren ermitan biltzen eben aterpea.

Bein Manuel'ek bere atxurragaz ermitako ate aurreko beia jo eban, eta durundi andia geratzen zala garrita, pentsatu eban eta bere lagunei esan eutsen, an azpian altxorren bat egongo zala eta beia jasotera joiala. Besteak ez eutsen isten orretan, san Lorenzo'zitan bildurrez.

Biamamonean, Zuaitz-Zelaiti'k zear frantzetar gizon bat igarozan bere zaldi zurian, eta ardi zain txikiei itandu eutsen nun egoan zan Lorenzo'ren ermita, esanez eskintza bat betetara joan bear zala. Diru apurrak emon eutsezan txikiei andik Kerexeta'ra joateko opillak erostera.

Txikiak opilletan joan ziran artean, bera ermitara joan eta ate-aurreko beia jaso eta urrez betetako upel bat atara eban.

Lagua'ko gizonak biaramonean ara joan ziranean, bertan laga zituen atxurrak artzera, beia jasota billatu eben eta bertan zabal-duta upelaren dubelak. Egun aretan ez eben ezer atxurtu, eskue-tan euki eben altxorragaz pentsatzen, eta san Lorenzo'ren bildurrez inok eroaten laga ebala.

216

CASTRO - BARAN'GO KONTAKIZUNA

Izen onetako gazteluzarrean, gauero argitxo bat egoten da erdi aldean dagon aitzaren azpian.

Bein artzai txiki bat bere ardiak zaintzera joan zanean, aitzaren gainean jazarri zan, eta andik laster emakume eder bat agertu jakon, eta beregana urreratuta esan eutsan famili aberatsekoa zala (konde baten senitartekua) baiña an egoala urte askotatik sorgindúa, eta biaramonean toki berbertara biurtzeko bere ardiek n eta aitz aretara joateko bertan jezartera. Bera suge antzera agertuko zail, eta aitzera goko zala, baiña bildurrik ez artzeko, ez jakola ezer igaroko eta guztiz zoriontsu izango zala.

Gaua egin eta txikia etxera eldu zanean, gertatua azaldu eban, eta familian erabagi eben, biaramonean joatea, baiña sugeari beregana igoten ez lagatea, eta gurasoak be joango zirala, egia ete zan ziurtatzeko asmotan.

Biamamonean, ardiak atarateko ordua eldu zanean, Gazteluza-
'era joan ziran, bezperan egon ziran txikia eta bere gurasoak.
Esandako lekura eldu ziranean, mutilla aitz puntan jezarri zan, eta
gurasoak esi batzuen ostean geratu ziran, zer gertaten zan ikuste-
ko, besteak oartu barik.

Mutilla jezarri eta bereala agertu zan sugea, tatarrez berega-
na, baiña mutillak, esana beteaz, sugea urreratzen ikusieran, iges
egin eban, eta gurasoekaz batera etxera etorri zan, eta auzokoei
agertu eutsen zer gertatu zan, eta auzokoak ontzat emon eben
eta esanez gaiñera, igoten laga ba eutsen, bera be sorginduta itxi-
ko ebala.

Auzorik urrenean egoan errian, gizon ospetsu bat bizi zan, Ka-
raba'ko Mingos deitzen dana, eta gertatua jakin ebanaz batera,
errian adoretuen ziran gizon biren billa asi zan, eta esan eutsen,
berari lagundu ezkerero, sorginkeri bat desegitea lortuko ébela, eta
zoriontsu egingo zitula, baiña ikusten ebena ikusita be, ez zirala
ikaratu bearko. Eurak ontzat artu eben aukera ori, eta berbertan
emon eben biaramonean gaba eginda gero urteteko itza.

**Gaua egin zanean irurak batu ziran esandako lekura joateko,
eta ixilik eta eskutuan urten ziren erritik, Mingos zarraren gidari-
tzapean. Tokira eldu ziranean, zirkulu bat egin eben lurtean zida-
rrezko diru bategaz, eta eurek bertan sartu ziran. Mingos zarra es-
kupularioz beteta joan zan eta beragaz erabillazan bai eta domi-
naz betetako katea, estola bat, san Ziprian'en liburu bat sorginke-
ria uxatzeko. Esandakoa gogoratzeko, lagunei barriro gogoratu
eutsen, edozer ikusita be ez ikaratzeko eta ez igesteko, ori egin
ezkerero galduta geratuko ziralako. Eurak, euken adoreaz baliatuta,
berba beteko eben ziurtasuna erakutsi eben.**

Lanean asi ziran, eta orretarako ez egoan beste lanik Mingos-
'eri egokiona baiño: eroan eban liburuan une aretan lortu nai ebe-
na lortzeko gauzak irakurtea.

Irakurgaia asi eta andik laster zulo andi bat egin zan gaztelu-
zarraren erdian, eta «izaki» andi bat agertu zan bertatik, eta jantzi-
tzat sakil gaiñekoa bakarrik, eta burua soit eta gorrixka, eskuan
ollar gorriekin urkula bat, une aretan bertan sutatik ataratako an-
tzean, eta era batean neska bat agertu zan, eta beian koltxa bat
zabaldu ondoren, urrez betetako sakoak bertaratu eta koltxan us-
tuten joan zan.

Mingos'egaz joan ziran lagunak, bere alboan jarraitzen eben,
baiña bildurrez beteta, eta Mingos, ezer ikusiko ez leuken lez, libu-
rua irakurten. Andik laster zezen andi bat agertu zan, salto andiak

egiten, eta eurekana urreratzen, iltera ba joian antzera. Gizonak larri, iges egitekotan, baiña azken baten, tokian geratzearren, anak dardaraka, zirrizta tresna lez. Bitartean Mingos jauna, beretik urten barik; irakurten, bere etxeko sutondoan irakurten ba egoan lez, eta ateak ondo sarratuta, eta neska urrezko sakoak eroaten eta koltxan zabaltzen, ordurako moltso andi bat egiña eukala berberak eroanda.

Andik geroago, euren gaiñean aitz puntak agertu ziran, noznai jausiko edo etengo ziran itxuran. Gizonak, ikaraz beteta, gora begira asi ziran, eta noiz jausiko egozala ikusi eta euren gaiñean zatitzen igarri zituenean, egia zala pentsatu eben eta igeska asi ziran, euren atzetik sua eroan ba eben la7 Mingos zarra bakarrik bere lekuan lagata.

.....

Urte bete igaro zan Mingos zarra bere etxera biurtu zan ordué rako, eta itaun asko egiñarren, sekula ez zan jakin nora joan eta nun ibili zan kanpoan egon zan artean. Gauza au da, kanpoan urte bete zeatz egin eta etxera biurtu ordukoxe, bertan il zala.

217 AARIA

Larogei urte inguruko gizon batek esaten daki, gazte zala, Ameriketara joan eta il zan lagun bategaz, nesketara joaten zala; eta bidean ebiltzala, beti aari andi bat billatzen ebela mendian, eta pentsaten ebela norbaitek itxiko ebala an, baiña ez ebela beti toki bardiñean billatzen, eta bien artean erabagi ebela, geiago billatzen ba eben, eurak eta lagunén ártean jataldi andi bat egingó ebela aariagaz.

Urrengo egunean barrero billatu eben, aaria artu eta Ameriketan il zan lagunaren etxera eroan eben, eta aari andi-andia zala, kortan sartu eta adarretatik ondo lotuta itxi. Urrengo egunean, iltera joiazala, laga eben tokian, soka bakarrik billatu eben, eta geiago ez eben ikusi.

Pentsatu eben deabrua izango zala, aari antzera agertzen jakoená.

218

FOSAS DE ESPITAL

Urte asko direla, Filomeno Espitaleko deitzen zana bizi zan, eta Ciprianillo'n irakurrita eukan altxor asko egozala eskutatuta, eta neska lagun bateri deitu eutsan, eta biak joan ziran Paramo'ko mendira, eta an irakurri eta berrirakurri eban altxorra nun egoan ziurtatzeko eta sorgiñak esan eutsen an urre eta mirra egozala, baiña bear zana adorea zala eta lanerako gizonak. Orrela Pilomeno'k alogerekuak billatu zitun, eta zulo asko egin inguru aretan, baiña ondoren barik.

Lanak beti gabaz egiten ziran, sorgiñak gidaritzeko eran, eta alperriko egun batzuen ondoren, gabeko ordu bi edo irurak inguruan, lanean gogotsuen iñarduela, eztanda gogor bat entzun eben eta azufre erre usain eutsi eziña, eta ipurdiz bera jausi ziran langille guztiak lurrean. Sorgiñak iges egin eta eskutatu zan, ziurretik eskoba kirtenean, eta langilleak be ariñeketan aldendu, eta Piloé meno ona zoratuta geratu, eta zoro geratu betirako, bai eta lane-tan eralgi eban dirutzeagaz, etxea betirako ondatuta laga.

219

ROSENDE'KO GAZTELUZARRA

Esaten dabe gazteluzar onetan antxiña moroak egon zirala.

Bein ardiekin ebiltzan mutil txikiak zulo andi bat ikusi eben, eta bertara joaten ziran arriak jaurtiten eta oneik ikaragarritzko otsa ataraten eben eskillaretan bera jausten eioazan antzera. Gizonak esaten dabe txiki ziranean erdiraiño erasten zirala eta gauza ikusgarri polit asko ikusten zituela, baiña bildurrak jota, gora igesten ebela. Gero erreka-arriak jaurtiten zituen, eta beteta laga, eta orain alaxe dago.

Esaten dabenez, gazteluzarretik Rosende'ra lur azpiko bide bat egoala, Rosende'ko ura edatera joan al izateko, eta zaldiak Vilerma"ko iturriraiño eroaten zituela, eta iturri a ez da agertu.

Esaten dabe, gazteluzar barruan, zulo andi bat egoala, eta bertan kutxa andi bi; bat urrez beteta eta bestea alkatranez. Eta urrea artzen ebana aberastu egiten zala, eta alkatrana artzen ebana erreta ilten zala.

Esaten da, gazteluzarretik Ludeiro'ko iturrira, Ortoa mendian dagonera, urrezko adarra egoala, eta auntsak andik igaroten ziranean, adar ori zapaltzen igaroten zirala.

220

REGA'KO MENDIA

Txikitxo bi euren ardiekin ebiltzan, eta kakamarlo talde bat ikusi eben egaz etorten, eta euren atzetik beste taldeak. Artegatu ziran eta ikusten geratu ziran nun sartzen ziran. Ain zuzen be zulo txikitxo baten. Mutillan inguru aretan lanean ebillan Jose jaunari deitu eutsen, eta ze ikusi eben ikustera etorteko dei egin.

Zer ete da au? -itandu eutsen.

Nik ez dakit zer izango dan, baiña ez zirikatu, zerbait gertatu eiketsue-ta.

Txikiak bildurtu ziran eta andik iges.

Gaba egin zanean, Jose eta bere anaia, biak Ortoa'ko bizilagunak, atxur bi artu eta atxurketan asi ziran bertan, eta zuaitz andi bat atarateko aiñako zuloa egin eben, eta zulo a, gero ta txikitzen joan bearrean, andiagotzen ikusi eben eta bertan altxor bat billatu.

Gaur zulo a itsututa dago, mendian aratzen ibili ziranean bazuk ondo baliatu ziralako bertatik, nai eta ezer esan ez, komeni ez jakoelako.

221

COPOS DE OURO'KO MORA

Mao inguruko Aranean ba dago beste gazteluzar bat naiko ondo zaindua, eta Castro deitzen dana.

Esaten dabenez, urte batzuk dirala, auzoko bi ardiak zaintzen egozala, olanda bat ikusi eben txitaekin, danak urre kolorekoak. Oillanda eta txitaen atzetik joan ziran, eta mora bat ikusi eben urrezko arillak aritzen, baiña andik laster sartu zan mora a, oillanda eta txitak aitz baten zulotik zear eta eskutatu ziran.

Gazteluzar onetako aitz baten, asto baten perra irarria dago, eta esaten dabe asto a izan zala Anduxar'etik Mao Aranera san Eufrazioren azurkiñak ekarri zituana. Santu onen illobia Valdeé mao'ko lurraldearen erdian dago.

Ez dira urte asko, esaten dabenez, Castro'ko bizilagun batek golde baten sarea billatu eban, dana urrezkoa, eta Monforte'ra eroan ebala eta an diru asko batu beragaz.

222

FURMIGEIROS'KO GAZTELUZARRA

Formigueiros"ko Gazteluzarrak, Mao ibaiagaz bat egiten dau koba baten bidez. Gazteluzarretik ibaira, gitxi gorabera, 150 metroko makurgunea dago. Koba au itsutu eta bete eben gizaldiaren asieran Inzio'ko bidea egin ebenean.

Esaten dabe morak ilbilten zirala bertatik ibaira ur billa joateko, eta baita moroak be, euren gabetako urteeretan, eta ibai egelean moraen ollanda asko egoten zirala, bai eta gazteluzarrean be, eta an eguzkitara ataraten zituela sarri, baiña jendea ikusten ebenean, morak euren jaubetasunean eskutatzen zirala, eta gero, lur azpian, eun-egille gailluen dardagana igarten zala, ilatzen ekiten eutselako.

Esaten dabe baita, inguru onetan andra bat bizi zala (etxean be esaten da) aste osoak etxetik kanpoan ibilten zana, eta ez ebela jakiten nun ibilten zan eta auzokoak uste ebela morakaz tratua eukala, eta gazteluzarrean eurekin sartzen zala, eta erritik kanpoan ebillanean, ilatzen laguntzen eutselako zala.

Moroak okerrak ziran eta euren enda edo arrazakoak ez ziranak il egiten zituen.

223

PENA BOA'KO MENDIA

Pena Boa"ko mendian (Fiz uria eta San Julian auzo artean) eliz bat dago. Penedo de Corvo deitzen dautse. Au da Belearn Aitza. Lengo zarrak esaten dabe an, orain dala denpora asko, koba bat egoala. (Gaur txapar eta arritzak sarratzen dabe bertako sarrera). Eta bertan arrizko gizon bi, eskuak goian dituela agertzen dirala, aizkora batzuei eusten.

Antxiña, moroak mendi oneitan ibilten ziranean, esaten da neska bat ardi zaintzen ebillala goizean goiz. Belearn Aitzera eldutean, sarrerako aurrean andra gustiz eder bat ikusi eban, gorua egiten eta inguruan oillanda bat eta ainbat txita ebiltzala, danak zuri zuriak. Eta andik laster erropak zabaldua, oneik be zuri zuriak.

Neskatilla begira geratu zala eta andreak itandu eutsala aberats izan nai ete eban.Neskak baietz. Orduan berak amantala eskatu eta koba barrura sartu zala. Andik laster ekartera etorri zala, baiña etxera eldu arte ez zabaltzeko aginduz.

Ñeskatillak jakin-miñari ezin eutsi izan eutsala, eta etxera eldu baiño len begiratu ebala barruan zer egoan, eta ikatzez bete é

ta egoala. Artu eban amorrugaz, aidean bota zituala.

Etxera eldu zanean beretarrai jakin erazi eutsela zer gertatu jakon. Oneik amantalarri begiratu eta tolestura baten urrezko diru bat billatu eben.

Arin-aringa joan ziran neskak jaurti zitun ikatzak ikustera, baiña ez eben billatu ez ikatzik, ez andrerik, ez txitarik ez oillandarik, ezta erropa eskegitekorik be.

Geiago ez zan iñor ikusi.

Zarrak esaten dabe koba barruan eskutatuta bizi zan mora bat zala eta urre asko eukala. Baiña sekula ez zan iñor ausartu egia ete zan ikusten sartzera.

224

ELIXABETE ETA MORUAK

Moru Aitzeko mendira joan zan egun baten neskato bat egur billa, eta gazte batzuk ikusi eta esan eutsen:

Ñeskato, et"orri ona.

Eta neskatoa joan zan, eta artu eta koba baten barruan sartu eben, eta il, eta gero lapiko baten sartu eben.

Gero ama Elixabeteri deika ibili zan eta onek erantzun ez. Eta koba barrutik mutillak esan eutsan:

-Elixabete, Elixabete,
lapikua bete.

Eta ama bere etxera negarrez joan zan, alabatxoagaitik negarrez.

225

MOROEN AITZAK

Gau baten, liñua jotea amaitu ondoren, emakume bi mendira joan ziran bedar eskukada batzuen billa, eta biak erromeriatzaz jarduten iñarduen artean, argi bi ikusi zituen Moroan aitzetako kobatik urteten, eta biak batera Portonelle ingurura joan ziran, Pen do de Gaisosos'era eldutean desagertuz. Esaten dabe baita be emakume baten burua ekarri ebela aitzera. Emakume au goruetan ibilten zan. Esaten dabe, baita, Casanova"ko Jon, Erretxabe'n bere beiak zaintzen iñarduala, andik oillanda bat ikusi ebela eun txitagaz urteten, eta berari jarraitzean, Mouros"ko Aitzetako kobara joan zala, eta an egoala josten aitzia buruan ekarri eban andrea, eta bere altzoan dizdiz egiten eben artaziak eukazala eta beretik

kanpora laga ebela. Eta andreak, orrela ikustean, itandu eutsala:

Zein jatsu atsegiñago artaziak (guraizak) ala ni?

Guraizak (artaziak), erantzun Jon'ek.

Orduan andreak begietan sartu eutsazala, eta bizi guztirako itsututa laga.

226

GIZONA KUTXAN'

Bein ur-jasa bat egon zan, Ortoa'menditik bera, baserriko zelatik zear, ibaira, eta dana uretan laga.

Esaten dabenez gizon bat kutxan sartuta, panazko kapelagaz, etorri zan bertan. Auzoko zelai erdian, egoan ormaren zatia jaurti eban, eta basatzatik igarotean bardin. Ikutu egiten eban tokian, dana apurtzen eban.

Esaten dabenez ez da ipuiña, egia baiño, eta ori il zan Ortoa'-ko gizon batek ikusi ebala. Uste da dana sorginkerri bat izango za la.

227

ERROLDAN'EN KONTAKIZUNA, ETA ARRI BIURTU ZIRAN PUXARES'KO IRU JOSTUNAK

Antxiñako denporetan, Erroldan España'ra urreratu zanean, esaten dabe Kiroga'ko udalpeko Vilanuide auzoan, iru jostun bizi zirala alkarregaz eta uritik kanporako goialde baten eurak bakarrik. Eta esaten da irurak ondo egiñak eta gitxi egoten diran lako ederrak zirala, eta bein Erroldan bere zaldiagaz igaro eta ikusi zitu-nean, eurekin maitemindu zala, eta andik aurrera, besterik ez ebala pentsaten eurak ikusteko etxe azpira joan eta eurekin berba egitea baiño.

Eta esaten dabe bere maite-miñetan, ainbat eskintza eta gurtza egiten eutsela eta erarik eukanean bidetatik zear zaindu be bai.

Baiña eurak esan eta esan egiten ebela ez eutsela entzun be nai, uste ebelako Erroldan ez etorrara asmo onekin, eta berak besteei irri eta ixeka egitea besterik ez ebala pentsatuten. Baiña bera ez zan orregaitik kezkatuten, eta arratsalde guztietan joaten zan atetik goretsi eta maite-mindutera, eta Frantzira beragaz eroatea be pentsatu ebala.

Orduan eurak, egunero etxe inguruan ikustean aspertuta,

arratsalde baten, euren auzoa zan Puxares'tik etozala, aurrez aurre gertatu zirala beragaz, eta esan eutsela geiago ez nekatuteko eurei jarraitzen, ez ebalako ezer lortuko, ez ebela beragaz tratirik nai eta andik bere lurraldera joateko, eta bein eta betiko eurei baketan lagateko. Baiña Erroldan ez zan makurtzen, eta beretzako esan eban onean nai ez ba eben, txarrean izango zala, eta ausartu egin zan itanduten noiz joango zan euren billa. Eta Jurak ikusi eta esan eutsela:

**Zugaz Frantzera joango gara
Xares ibaia etxe aurretik
igaroten danean.**

Eta ori esan eutsen, uste ebelako eziña zala ori. Kontuan euki gaur Bibei ibaia deitzen dana orduan Xares zala eta denpora areitan gaur baiño aurreragoko beste leku batetik igaroten zala.

Baiña Erroldan'ek, ori entzutean, ez eban gogorik galdu, adoretu baiño. Eta orrela, gertaera da, sorginkeri edo deabrukeriren bategaz baliatuta, gau aretan gabaz joan eta besterik barik ibaia-
ren bidea aldatu egin ebala. Eta goiza egitean, auzokoak zer gertaten zan konturatu zirala eta danak joan zirala deadarka iru neskak bizi ziran etxe aurrera.

Eta an esaten ebela:

**Puxaresiko jostunak
Xares ibaira etorri
eta garbitu zuen anakak.**

-Eta eurak itxartu ziranean, benetan bildurtu zirala ibaia euren etxeko ate aurrean ikustean, eta arima minduen antzera, itsu-itsuka igesi joan zirala, euren zain egoan Erroldan'ek ikusi barik, eta bideélabur bat artu eta frantzetarrengandik iges al izan ebela, bai eta auzotarretatik be, eta aginduta eukena bete barik.

Orduan, geratu barik, Valdeorraz ingurura joan ziran, Bilanuide'tik sei-zazpi kilometrotara. Eta Erroldan'er soldaduak eroan eutsen igeskadako albiste au, Erroldan bera atsegiñez beteta bere zaldi zurian andik ebillala.

Eta ori jakin ebanean, Goikoaren izena erabiliaz, euren atzetik asi zala eta eldu zanean, zaldia eta bera biak asarre betean eldu zirala gertatuagaitik, zaldiak suak perretatik ataraten zitun aiña berak be aotik suak ataraten zitulako.

Baiña eurak ibaia igaro al izan eben, ez jakin sorgiñak aidean eroanda, edo ta deabruaren laguntzaz. Orrela Erroldan erribera batean geratu zan eta eurak bestean. Eta gaiñera, beste alderditik

Erroldan ez zan konturatu besteak andik dagozan erriétatik zear joan zirala, Rua izenekoan geratu arte.

Erroldan ez zan origaitik geratu, eta batean billa eta bestean geiago, bere zaldi zurian bakarrik ibili zan, ezin billatuta, eta ibaiak iruntsiko zitula pentsatzera eldu zan, baiña azkenez, Valencia do Sil ingurura eldu zanean, andik urrunean iru lagun ikusi zitun, andik iru kilometrotara, Sil ibaia bitarteko zala.

Orduan, jostun areik iges egiteak eta berari emondako berba galtzeak sartutako amorrugaz, bere zaldia zirikatu eban biziro, eta ibaia gaindutera aixatu, eta bereala zaldiak emon eban jauzkagaz, jostunak egozanetik eun metro ingurura eldu zan, eta jauzkada orren indarrez perraen urratsak arrian irarrita geratu ziran. Urrats orreik gaur be ikusi leikez arrian, basora duan bideko asieran.

Gero jostunak euren burua galdutzat ikusi eben, Erroldan euren gain-gaiñean ikustean, eta lurrera euren buruak jaurti eta deabruari deika asi ziran, esanez naiago ebela arri biurtuta geratu Erroldan'en menpean jausi baiño. Eta deabrua urreratu zan laster, eta berialako baten iruburu lako iru arri jausi Erroldan'en bizarren aurrera, eta andik Erroldan betiko zoratuta geratu zan.

Eta iru arriak gaur be ikusi leikez, nai ta euriekaz akituak egon, bai eta bertara abere zaintzan joaten diran mutillak euren gaiñean ibilteaz.

228

MENDIKO AMA BIRGIÑA ETA COSPEITO'KO ZINGIRA

Cospeito'n, Feira do Monte'ko menditxoaren gibelean, zingira txiki bat dago, ate biena deitzen dautsena, eta erri deituraz Valverde'ko zingira. Eta bere alboan, goialde baten, Mendiko Ama Birgiña dago, entzun andi eta ikertaldi ugarikoa inguru onetan.

Eta esaten dabe gaur zingira dagon tokian, antxiña Valverde deitzen eutsen erria egoala, bere garaian garrantzia eukana. Eta egun baten beartsu bat joan zan bertara eta ostatua eskatu eban, edo besterik ezean gaua igaro al izateko aterpe bat. Batzuk diñoie beartsua zala, eta beste batzuk Ama Birgiña berbera zala, itxura aldatuta. Gauza da, iñor ez zala errukitu eskale aregaz, eta ori ikusita, bera erritik kanpora joan zala eta Feira do Monte'n egoan etxetxu batera joan zala, nai eta oorerik falta ez, eskalea bezin beartsua. Famili onek atsegin andiz artu eban eskalea. Eta jatekoa ezer ez eukelako, etxean euker bigatx bakarra iltea erabagi

eben, ostatu eskaleari jaten emon al izateko.

Eta afaldu ondoren beartsuak agindu eban azur andiak korta batera jaurtiteko eta txikiak bestera.

Urrengo goizean, goizean goiz jaiki zan eskalea, eta etxeko jaunagaitik deiez asi zan, eta beiak uztartu eta txekorrak titi artzen esne edaten ipinteko eskatzen. Eta jauna lo egoan eta ez eutsan jaramonik egiten. Eta eskalea barrero ekin bardiñean, eta nausiak jaramonik ez. Alako baten eskaleari erantzuten eutsan:

-Zelan beiak uztartu eta txekorrak titia artzen ipini, gizontxu on ori, geunkan azken bigantxa atzo il ba gendun danontzako aparta ipinteko?

Eta eskaleak erantzun:

Ain ziurra da txekor eta beiak daukazuzana,

Valverdeko erria uz azpian galdu dana lez.

Au esanda eskalea joan zan eta geiago ez zan ikusi. Eta etxeko jauna eta bere senidekoak atera urten eta ikusi eben, eskale arek esan eban lez, Valverdeko erria emon eutsen tratu txarragaitik uretan ondoratua izan zala. Eta gero kortak ikustera joan ziran, eta azur andiak jaurti zituen tokian beiak billatu zituen, eta txikiak laga zituen tokian, txekorrak. Eta eurak poz pozik geratu ziran.

Baiña Valverde egoan tokian dana zingira zan, eta mendi gainean Ama Birgiñaren irudiagaz ermita bat, eta basoan egoalako Mendiko Birgiña deituten asi ziran eta alaxe geratu.

Ni ume nitzala, emen esaten ekien, udako legortetan, zingirako ondoetan tximini batzuk ikusten zirala eta eleizako torrea, eta batzuk esaten ekien Valverde erri zoritzarreko kanpaiak be entzun egiten zirala.

I PUIÑEN ZERRENDA

1.- AOLKODUN I PUIÑAK

- 1.- Iru aolku
- 2.- Alaitasuna, garbitasuna, lotsa.
- 3.- Burdia eta zaldiak.
- 4.- Eriotzaren oarpenak, mezuak.
- 5.- Aita besutakoa.
- 6.- Burubakoak.

2.- ABEREEN IPUIÑAK

- 7.- Milla mañadun azeria.
- 8.- Azeria eta oillarra.
- 9.- Eguna noiz egingo?
- 10.- Zapoa eta azeria.
- 11.- Otsoa eta azeria.
- 12.- Katua eta azeria.
- 13.- Belea eta azeria.
- 14.- **Mika eta azeria.**
- 1 5.é Arranoa eta azeria.
- 1 6.-•Azeria eta oilloa.
- 1 7.- Oillanda bildurtia.
- 1 8.- Zozoa eta Txiñurria.
- 1 9.- Otsoa, azeria eta gizona.
- 20.- Erroiaren aolkuak.
- 21.- Otsoa teillatuan.
- 22.- Otzara egillea eta bere adiskide abereak.
- 23.- Azeria, eiztaria eta mendi urratzaillea.
- 24.- Artzaiña, sugea eta azeria.
- 25.- Entzute andia eukan azeria.
- 26.- Azeria okaranetan.
- 27.- Azeria eta txalopa zaiña.
- 28.- Azeria eta txal jaubea.
- 29.- Otsoa eta txal jaubea,
- 30.- Otsoa eta ardia.
- 31.- Otsoaren autortza.
- 32.- Txarriémea, txarriak eta otsoa.
- 33.- Mendiko arratoia eta etxekoa.
- 34.- Astoa eta txarria.
- 35.- Aaria eta katua.

3.- IRRI IPUIÑAK

- a) Andre ezkonduen ipuiñak

- 36.- Emaztearen erruz.
- 37.- Andre baten maitasuna.
- 38.- Mingos-beko gaztañadiak.
- 39.- Nire eta beste baten erruki.
- 40.- Gonbidautzako eperrak.
- 41.- **Jon eta Miren Jone.**
- 42.-**Joan eta Mirentxu.**
- 43.- Andre bat, otzara bat, eta lapikoa.
- 44.- Kepa eta Jone,
- 45.- Jon eta Mirentxu bidean,
- 46.- Emaztea, prailea eta alorra.
- 47.- Untzi bizarrak.
- 48.- Senar astotxoa.
- 49.- Mingos'en kaskarra.
- 50.- Iztupa gertuten ekian andrea.
- 51.- Emakume buru gogorra.
- 52.- Abereak ezagutzen zitun baserritara.
- 53.- Ixillekoa.
- 54.- San Antonio'eri senarra eskatzen eutsan neska.
- 55.- Tomasatxu'ren ama.
- 56.- Zatitxoa.
- 57.- Lau bidar ezkondu zan andrea.
- 58.- Bake andiko emakumea.
- 59.- Sopa katillua,
- 60.- Kanpaintorrea.
- 61.- Gaztaiñatan joan nai eban atsoa.
- 62.- Zeiñek erosi amagiñarrebak?
- 63.- Aitagiñarreba zarra eta erraiña.
- 64.- Aitagiñarreba zarra, erraiña eta platerak.
- 65.- Senar emazte mozkortiak eta asto-emea.
- 66.- Andre mozkorra
- 67.- Andre alperra.
- 68.- Senar emazte nagiak.
- 69.- Andre bat eta txokolate ontza bat.
- 70.- Azokatik etorran neskatilla.
- 71.- Tzeko Mirentxu eta erbia.

b) Zoroen kontuak

- 72.- Zoroa eta bere emaztea.
- 73.- Txotxoloa.
- 74.- Jon Burubakoa.
- 75.- Morroiaren billa ebillan nagusi zoroa.
- 76.- **Txotxoloa eta erraldoia.**

- 77.- Kokoloa eta argia.
- 78.- Botikarioa, atzeratua eta euliak.
- 79.- Zoroaren autortza.
- 80.- Zoro bat errogatibetan.
- 81.- Josutxo,
- 82.- Jostunaren anaia.
- 83.- Jon eta oiñetakuak.
- 84.- Morroi kokoloa eta trena.
- 85.- Seme baldrasa,
- 86.- Traskodun Jon.

c) Santuen kontuak

- 87.- San Antonioren zalea.
- 88.- San Pedro eta gudaria.
- 89.- Guardi zibilla, sakristaua eta san Pedro.
- 90.- Iru txakur txiki.
- 91.- Auzilari bat.
- 92.- San Pedro beti izan zan barrabana.
- 93.- Ama Birgiña eta azpilla.

d) Asmakizun eta igarkizun ipuiñak

- 94.- Jon eta erregearen alaba.
- 95.- Gizon guztiz argia.

e) Sorgin eta lamiñen ipuiñak

- 96.- Deabrua baserritarrari laguntzen.
- 97.- Mutiltxoaren txistua.
- 98.- Abadea eta amakideak.
- 100.- Meigarallas'eko sorgiñak.
- 101.- Gizon bi eta txarri emea.

f) Abade eta gaztetxoan ipuiñak

- 102.- Gotzaiñagaz lo egin eban abadea.
- 103.- Abadea, jostuna eta andrea.
- 104.- Bost dukat.
- 105.- Abadea eta ildakoa.
- 106.- Aita mixiolaria.
- 107.- Neskame bi eukazan abadea.
- 108.- Sopa bakanak.
- 109.- Bata besteagaz autortu ziran abadea eta sakristaua.
- 1 1 0.- Busti barik jaten nabil.
- 1 1 1 .- Abade eta sakristau motelak.
- 1 1 2.- Eskatzera joan zan abadea.

- 113.- Ez egizu ainbeste «saltsa» jaurti.
- 114.- Abadea eta sorgiñak.
- 115.- Umedun abia nun egoan ekian txikitxoa.
- 116.- Madariak ostutea autortu eban mutiltxoa.
- 117.- Neskamearen bernetara begiratzen eban mutiltxoa.
- 118.- Mutiltxoa eta abadearen orduaria.
- 119.- Oraintxe bai arrapatu zaitudala.
- 120.- Gotzaiña eta barrabana.

g) Jostunen ipuiñak

- 121.- é Suin barria eta jostuna.
- 122.- Morroi jatuna eta jostuna.
- 123.- Maside'ko jostuna.
- 124.- Jostun jatuna.
- 125.- Jostuna eta aria.
- 126.- Bost txapeldun jostuna.
- 127.- Jostun adoretsua.
- 128.- Jostuna eta mutil koskorrak.

h) Argiñen kontuak

- 129.- Ostatu billa ebiltzan argiñak.
- 130.- Argiñak eta itargia.
- 131.- Argiña eta piperra.
- 132.- Pozik biziko zarie.

i) Gizon bildurtien ipuiñak

- 133.- Osaba Jon'en amestiak.
- 134.- Gizon bildurtien pikuak.
- 135.- Pikuak ostu zituen mutillak.
- 136.- Aza sakua.
- 137.- labrada'ko andrea.

j) Gizon ardurabakoen ipuiñak

- 138.- Otero'ko Jon.
- 139.- Txitar opilla.
- 140.- Gizon azkorra.
- 141.- Gizon alperra eta astoa.
- 142.- Augustin'en gertaera.
- 143.- Oe oial balztetan lo egiten ekian mutilla.

k) Lege-gizon eta eskribaduen ipuiñak

- 144.- Lurpeko diruak.
- 145.- Baserritarra, lege-gizona eta euliak.

- 1 46.- Ontzako txiki biak.
- 1 47.- Kukua zein entzako kukuka?
- 1 48.- Anal biren beia eta don Krispin abokatua.

j) Ikasle eta soldaduen ipuiñak

- 1 49.- «Dago» eta «ez dago»ren ipuiña.
- 1 50.- Arrautza brixituak.
- 1 51.- Soldadu eta oiñetakuak.
- 1 52.é Ikaslearen diruak.
- 1 53.- Etxeko jauna eta ikasleak.

m) Lapurren kontuak

- 1 54.- Lapurren kontuak.
- 1 55.- Lapurretako ikaslea.
- 1 56.- Botafumeiroa.

n) Eiztarien ipuiñak

- 1 57.- Basauntzari buruz jardunean ebiltzan eiztariak.
- 1 58.é Azeri andia.

ñ) Morroe eta ugazaben kontuak

- 1 59.- Otatza.
- 1 60.- Salda zegaz otzituten dan.
- 1 61.- Sopa bigunak.
- 1 62.- Jaunak edaten ondo emoten dau.
- 1 63.- Jaunen jolasbideak.

o) Mozkortien ipuiñak

- 1 64.- Mozkorra asto gaiñean.
- 1 65.- Mozkorra zaldi gaiñean.

p) Baserritarren ixiltasuneko ipuiñak

- 1 66.- Baserritarra botikan.
- 1 67.- Baserritarra eta platerak.
- 1 68.- Bei bat ostu eban gizona.
- 1 69.- Asmoa naiko da.
- 1 70.- Aitakide bi eta oillarrak.
- 1 71.- Baserritarra eta osagillea.
- 1 72.- Urdaia eta zergariak.

q) Galiziar eta erbestekoek ipuiñak

- 1 73.- Andaluziarra eta galiziarra.
- 1 74.- Portugaldarra, frantzetarra, galiziarra eta deabrua.

- 1 75.- Andaluziarra, asturiarra eta galziarra.
- 1 76.- Itxi munduari dagon eran.
- 1 77.- Galziarra eta erregearen zaldia.
- 1 78.- Ez dot ezer ulertzen.
- 1 79.- Astodun gizona eta portugaldarrak.

r) Irri kontu batzuk

- 1 80.- Inpernu txikietara.
- 1 81.- Esaeradun aitza.
- 1 82.- Arpegia jan.
- 1 83.- Otso emearen koba.
- 1 84.- Mentenu osoa.
- 1 85.- Zaldia eta arbia.
- 1 86.- Agure maltxurra.
- 1 87.- Sarda.
- 1 88.- Papagaio barritxua.
- 1 89.- Ñeska arrua eta iru mutil.
- 1 90.- Parrandako mutillak.

4.- DANETARIKUAK

- 1 91.- Jainkoak nai ba dau.
- 1 92.- Txitxarren jatuna.
- 1 93.- Sekula be ez etxetik kanpora.
- 1 94.- Ezkontzara gonbitatua.
- 1 95.- Joan zaite zure aitari deitzera.
- 1 96.- Otoizlaria eta zitala.
- 1 97.- Eutsi, Anton, txillarrei.
- 1 98.- Sasi osalariarengana joan zana.
- 199.- Il zorian egoan aita.
- 200.- Txikitxua eta txakur miazkatzailla.
- 201.- Gizona eta otsoak.
- 202.- Kartadun sakutxoa.
- 203.- Xao Ferreiras musikalaria.
- 204.- Errotaria eta tabernaria inpernuan.
- 205.- Peru arra eta Peru emea.
- 206.- Ezkontzara joian oillarra.
- 207.- Txarri emen, emon egidazuz.

5.- BERTSOTAKO IPUIÑAK

- 208.- Zorri eta ardiaren ezkontza.
- 209.- Mari eta Ñaranxo zarraren ezkontza.
- 210.- Azeri eta oillar arteko alkarrizketa.
- 211.- Andre mozkorragaz barriketan.

- 212.- Eztiaren gain, fruituak.
- 213.- Jon Kintan.
- 214.- Igela eta zapoa.

6.- MENDI ETA GAZTELUZARRETAKO IPUI ÑAK

- 215.- San Lorenzo ermita.
- 216.- Castro-Berango'ko kontakizuna.
- 217.- Aaria.
- 218.- Fosas de Espital.
- 219.- Rosende'ko gazteluzarra.
- 220.- Rega'ko mendia.
- 221.- Copos de Curo'ko mora.
- 222.- Furmigeitosiko gazteluzarra.
- 223.- Pena Boa'ko mendia.
- 224.- Elixabete eta moruak.
- 225.- Moroen aitzak.
- 226.- Gizona kutxan.
- 227.- Erroldan'en kontakizuna, eta arri biurtu ziran Puxares'ko iru jostunak.
- 228.- Mendiko Ama Birgiña eta Cospeto'ko zingira.